

Juan Antonio Sola
Tolosa X-74

LUR ETA GIZON, Euskal Herria

J. A. ARANA MARTIJA
J. M. BARANDIARAN
R. BOZAS-URRUTIA
J. M. EIZAGIRRE-GARAIKOA
J. INTXAUSTI
A. IRIGOYEN
P. LAFITTE
J. I. LINAZASORO
J. L. LIZUNDIA
J. SAN MARTIN
J. M. SATRUSTEGUI
M. UGALDE
L. VILLASANTE

J A K I N

ARANTZAZU

OINATI, 1974

LUR ETA GIZON,
Euskal Herria

Azala: Aldun

J. A. ARANA MARTIA
J. M. SARANDIBAR
E. SOLAS-URBIA
J. M. BEAURE-ORRIBAR
J. IZKALDE
A. IRIBAR
P. SARTE
J. I. LIZASOLO
J. I. LIZURIA
J. SAN MARTIN
J. M. ZABALA
P. UGALDE
J. VILLANVA

© ED. FRANCISCANA ARANZAZU
Número Registro 1.692
Depósito Legal S. S. 526/74
ISBN 84-7240-074-3

<u>LURRA</u>	9
Euskal lurra	11-63
 <u>GIZONAK</u>	65
Euskal gizona	67-86
Euskal langileak	87-111
 <u>LEGĒAK, EDERRA, KIROLAK</u>	113
Euskal Lege Zaharra	115-145
Euskal Artea	147-167
Euskal Arkitektura	169-178
Euskal Musika	179-197
Euskal Kirolak	199-232
 <u>HIZKUNTZA, LITERATURA</u>	235
Euskara	237-241
Euskal herri-literatura	243-263
Euskal Literatura landua	265-282
 <u>EUSKAL LANA</u>	283
Nekazaritza eta artzaingoa	285-308
Ola zaharrak	309-339

argitaldariaren oharra

Lur eta gizon, Euskal Herria eman diogu izenburutzat liburu honi. Euskal Herria ikasten hasteko tresna bat izan nahi du idazlan honek. Ez dakigu asmatuko denentz, baina asmo horrekintxe egina da liburua. Euskal ikasbide bat egin nahi izan dugu, eta saiatu gara gure herriari —eta beronen lehenari bereziki— ahal izan dugun zabalenik begiratzen.

Lau sail nagusitan banatu dugu gaia: gizona eta lurra, euskal lana, hizkuntza, euskal izanbideak (legea, artea, kirolak). Nahiko zabal jasotzen da, beraz, herriak kondaira nola egin duen.

Hautatu diren gaiek —horixe uste dugu— ongi erakutsiko dute historia horren nortasuna. Horregatik izan dira aukeratuak, hain zuzen. Egia da, lan hauetan mugarri nagusienak bakarrik jaso nahi izan dira, eta hori bera ere ez da beti egingarria gertatu. Zenbait funtsezko puntutan ere lan orokor egoki bat egiteke zegoelako. Hala ere, nahiko gidari onak izango dituzu lan hauek, irakurle, eta batzuetan baita oso onak ere, geroko zure ikasketak gidatzeko.

Eta honenbestez, esana geratzen da liburu hau irakurgai zabalagoen eske datorrela. Euskal Herria bere zuztarretan ezagutzen hasteko da Lur eta gizon, Euskal Herria hau. Hastapenak ematen ditu. Askorentzat lagungarri ona izanen da, noski. Batez ere, Alfabetatze lanetan dihardutenak ditugu gogoan.

Irakurlearen euskarari ere lagunduko diogulakoan —eta ez beti arrazoin teknikoengatik bakarrik—, artikulu bakoitzari hiztegitxo bat gehitu zaio. Liburuaren azken orrialdeetako hiztegiotan jasotzen diren hitzak izartxo batekin nabarmentzen dira idazlanean.

Hori gogoan dugula, saiatu gara lanak euskara bakarrean ematen ere. Ezaguna denez, batasun horrek baditu bere derrigorrezko mugak. Lehenik, ez da posible, gaurkoz, idazle heldu guztien zalantzazko puntu denetan euskara batbera ezartzea. Bakoitzak izanen ditu, beraz, bere berezitasuntxoak; ez ainitz, baina bai zenbait. Eta gero, hizkuntzaren batasuna egiten ari gara, eta Euskaltzaindiaren erabaki batzuen aurretik inprentatutako lanak daude hemen, halanola, aditz batu-onartuak ez du izan sarbiderik, nahiz eta denek aditz beretsua erabili.

Ohar hau burutu aurretik, ditugun zorrak aitortu nahi genituzke. Lehendabizi, eskerrak Joan San Martin-i, berak eskaini bait zigun liburuaren ideia eta baita lanbidea ere. Ondoren, eskerak lan hontan parte hartu duten guztiei, beste hainbat eginkizunen artean gurearentzat txoko bat izan dutelako. Badakigu zenbaterainoko zorra diegun lankide trebe hauei. Mila esker.

lurra

EUSKAL LURRA

Jose Luis Lizundia

I. EUSKAL LURRAREN ZABALERA ZAHARRA

Euskal lurra aitzinatean nondik eta norainokoa zen asmatzea ez da gauza erraza. Alde batetik, orduko herrien nomadatasuna edo erdinomadatasuna; bestetik, erromatar eta beste aitzinako geografoen eta historiagileen erdizkako zehaztasunak. Leinu batzuen eta besteen arteko gudak eta hauen ondorio bezala bakoi-tzaren lurraldeen aurrerakada eta atzerakada. Toponimia dugu noski gure Herriaren zabalera neurtzeko biderik aproposena; baina hemen ere toponimia ongi aztertu gabe dagoenaz ohartu behar gara, batez ere toponimia *gutia.

Iparraldetik

Gaurko gure Iparreko hiru herrialdeei begiratzen badiegu, gure hango muga Aturi eta "Gave d'Oloron" (euskal izenik ote?) dira guti gora behera.

Handik gorako lurraldeek behinolako Gaskoña ziren, lehenago Akitania. Lurralde zabal hau Euskal Herria zela zuzen zuzer-

nean esatea gehitxo bada ere, ezin uka daiteke Akitania edo Gaskoña hau euskaldunen kideko edo anaia-herri bat zenik.

Gaskoin hizketak, okzitano hizkuntzaren taldeko bat izanik, badu euskal sustrai bat, hain zuzen ere beste sei okzitan dialektuetatik (Guiena, Llangedok, Aurbernia, Probentza, Llimosin eta Delfinat-etakoetatik) aski bereizten duena. Hortik at, Gaskoñako toponimia oraindik behar den bezala aztertu gabe dago, eta euskal sustraia edo, gutienez, senidetasun bat argi finkatzeko. Euskal erromantze bat dei genezaioke gaskoinari.

Ekialdetik

*Ekialdetik Arago lehena, edo Arago Garaia, dugu lehen euskal eremuko izana, Jaketania ere deitua, behinolako jaketano leinua egon zelako han, eta gainera hiri nagusia Jaka delako. Arago *konterria, Iruñeko euskal erreinuaren barrutietariko batek hartzen zuen, gero bera erreinu bihurtu eta behe alderuntz, Arago hibaiarekin eta euskal lurraldeekin zer ikusirik ez zuen tokiruntz joan bazen ere.

Hontaz gainera, Sobrarbe eta Ribagortza konterrietan, eta baita Pallarskoan ere, euskal toponimia agertzen zaigu; beraz euskal *aztarrenak Leridako probintziaren Iparralderaino aurki daitezke.

Hegoaldetik

Hego-Ekialdetik hasten bagara, behinolako Salduba, gaurko Zaragoza-tik zehar Ebro hibaia hartu beharko genuke hego baztertzeat. Alhama hibaiaren *harroa euskaldun edo zeltiberotzat jotzen badugu ere, *mairuen urteetako agintaritzak hemengo euskal aztarren zihurrak galdu egin zituen.

Beheko euskal muga, Ebro eta Duero hibaiaren tarteko

*mendikatean jar daiteke, gaurko Soria probintziako Yanguas *harana, eta Errioxa guztia noski, euskal barrutian sartzen zirelarik.

Burgos aldean, Belorado eta Bribieska *hauzitegi alderdiaren barrena; beraz, berriz ere, Ebro eta Dueroen arteko *mendilepoak, Brujula esate baterako. Juarros harana eta Arlantzon Garaia euskal toponimia frankokoak dira Duero harroan, eta hau kontuan edukitzekoa da.

Mendebaletik

Goitik behera hasita, Ason hibaian Colindres eta Santoña tartean jar daiteke, nonbait jartzekotan, euskal mendebal hegaliak zihurrena. Trasmiera izango zen momentu batez Iruñeko erreinuarena, baina horrek ez digu eskubide gehiegi ematen gure ametsak Santanderko ateetaraino eramateko. Beti bezala toponimiara begira bagoaz, Asondik haruntz ez dugu euskal izenik ia batere aurkituko; eta Kandinako aldapatik haruntz ere, Oriñondik Liendo haranera bitartean dagoen mendilepotik haruntz alegia, ez ugari. Bosch Gimperak eta beste batzuek dudatan jartzen dute autrigoinen eta kantabroen mugatzat Ason hibaia edo honen harroa hartzea, eta Kandina hortan ebakitzen dute bi leinoen arteko bereizketa; beste batzuek ordea bestaldean, Voto aldean, Santander alderuntz. Erdiko bide bat har dezagun, eta Ason hibaia berbera dadukagu. Gainera Ason harroaren eskuin aldean gaur ere Bizkaia diren bi herri ditugu: Lanestosa eta Karrantza; eta dadukagunari gutienez eusteari bidezko derizkiot.

Beheruntz joan da Mena harana, Bizkaiko Enkartazioetakoa izana eta euskal aztarren ugarikoa.

Gaurko Villarcayo alderdiarekin ez da erraza igartzea. Batzuek, ez bakarrik alderdi hori, baita Sedano eta Reinosakoak ere euskal eremuan sartzen dituzte; beraz, Ebro Garai guztia.

Ez naiz ni, gaur behintzat, iritzi hortakoa. Uste dut Villarcayo alderdia, erromatar eta kantabroen arteko gerrak zirela eta, kantabroen eskuetan gelditu zela, autrigoin euskal leinua bi alderditan zatitua utzirik, Gobia aldeko bazterra izan ezik: itsas aldeko autrigoinak, Ason eta Nerbion bitartekoak eta hegoaldeko autrigoinak, Bureba eta Okamendietakoak. Beraz Gaztela Zaharreko zazpi *merinalde lehenak, Cuesta Urria, Montija, Losa, Valdeporres, Sotoscueva, Gaztela Zaharreko Ciguenza, eta Valdivielso utz ditzagun Gaztelan.

II. EUSKAL LEINUAK

Euskal leinuez zerbait esan behar dugu. Ez dugu sakonetan sartu nahi, dibulgazio erara baizik.

Baskoinak, barduloak, karistioak, autrigoinak jotzen dira euskal leinutzat. Bestalde, jaketanoak eta beronak jatorriz ez baziren ere, euskaldunak izan omen ziren. Iparraldetik akitanoak euskaldunen senide. Origebion izeneko leinutxua ere aipatu beharrekoa dugu.

Baskoinak: Euskal Herriaren alderdirik handiena hartzen zuten. Gutxi gora behera gaurko Nafarroa herrialdea, Gipuzkoa herrialdearen Oartzun eskualdea eta Ipar Euskal Herria (?). Ala hau Akitanoa zen; edo Lapurdi eta Nafarroa Behera ere baskoinak ziren? Gaur arteko azterketek ez dute eman xehetasun zihurrik arazo hontaz. Ziberoan "zybiloteak" bizi omen ziren.

Barduloak: gaurko Gipuzkoa, Oartzunaldea eta Deba harroa izan ezik; eta gero Arabaren zati bat, baina herrialde hontan ez dago hainbeste zihurtasun. Itsalaldean bai, greziar eta erromatar geografoek diotenez, barduloak Deba hibaitik Oartzungo hibairarte, gaurko Pasaiararte, bizi baiziren.

Karistioak: Deba hibai harroa hartzen zutela, Nerbioi hibairarte, gaurko Bilboko *bokalerarte; eta Araba alderuntzeko hauen barrutiari buruz, barduloenari buruzko duda berdina dugu.

Autrigoinak: Bilboko bokaletik Ason hibairarte; beraz, gaurko Santanderko probintziaren zati bat, Castro Urdializ-tik Kolindres-era bitartekoa; Enkartzazioak; Mena harana eta Arabaren Mendebalaldea, Gobia eskualdea eta Aialaldearen zati dexente, Tudela deritzana. Hegoaldeko autrigoinak, Bureba, Okamendieta eta Miranda aldea: beraz, gaurko Burgosen Brivieska, Belorado eta Miranda hauzitegi alderdiak.

Origebion izeneko leinu ttikia aipatu dugu. Bosch Gimperak Pompelio Melari jarraituz, Nerbioi hibaitik Gernika aldera jartzen du leinu hau. Ez zen konturatu, —beharbada ez zuen jakingo eta pundu hori— “origebione” izen horrek, “one” atzizkia kendurik. Bizkaiko *merinalderik handienarekin, Uribe-rekin, duen analogiaz. Hain zuzen ere, Bilbotik Gernikara bitartea hartzen zuen Uribek, joan den menderarte.

Jaketanoak: Arago garaia, erreinuaren hasierako Aragoa hartzen zuten; hauen jatorrizko euskalduntasuna dudatan jartzen bada ere, gero euskaldunduak izan ziren seguru asko. Era berean, Errioxa aldeko *beronak*.

III. GURE HERRIALDE HISTORIKOTZAT JOTZEN EZ DIRENAK

Errioja

Errioxarekin hasiko gara lehenbizi. Baina, aitzin solas bezala, esan dezagun zerbait izenari buruz. Norbaitek esan dit inoiz zergatik idazten dudan Errioxa, Rioja edo Rioxa idatzi beharrean. Herrialde hontaz zerbait dakienak badaki, izen hori Rio Oja-tik

datorrela, eta hasieran Ezkarai haranetik jaisten den hibaiaren izena zela; gero Logroñorarte zabaldu zela; eta azken batean, gaur "Rioja Baja" deitzen zaiona ere hartuaz, Logroñoeko probintzia guztira hedatu zela. Gehiago oraindik: gaur Arabaren eskualde bati "Rioja Alavesa" deitzen zaio, honen lehenagoko izena "Sonsierra" edo "Sonsierra de Navarra" bazen ere.

Merino Urrutia jaunak zehatz argitu du Oja hori Ohia-tik datorrela. Beraz, jotaren erdal aldakuntzagatik beste era batera esaten bada ere, nik uste, ortografia bere lekuan utzi behar genuke eta *olguzkera Bizkaiko zenbait eskualdetan, Nafarroan eta Ifaraldean egiten den bezala egin. "X" erabiltze hori gezurrezkoa iruditzen zait, Lejo(n)a Lexo(n) idaztea bezalaxe, bertakoek Lejoa esaten badute alemanek bezala olguztuaz. Guk ez dadukagu errurik gaztelaniak bere bide bakar bat hartu badu j-ren kasuan. Neuk ere x-ekin idatzi izan badut orain arte, hemendik aurrera Errioja idatziko dut.

Aurretik "e" jartzean, ez pentsa "herri"rekin zer ikusia duenik, zeren h-rekin idatziko bait genuen. Herrialde honi "Herrigoia" deitzea asmakeria huts bat da. Bizkaia aldean, eta batez ere Durangoaldean, Erriojarekin hainbeste harreman ekonomiko, historiko, *hargintzazko etab. ukan dituzten gure herrietan beti Errioja esan izan da, "e" hori Erromaren kasu berbera delarik. Gehiago oraindik: Busturiaaldean, Gernika, Forua, eta abar, "ria"ri (*la ria de Mundaca*-ri, noski) "errioja" deitzen diote. Nafarroako euskaldunek eta Gipuzkoako zati handi batek ez dute Erriojarekin, Errioja Garaiarekin (beraz, lehengo eta hasierako Erriojarekin) honenbeste harreman, baina Mendebaldeko euskaldunok bai; eta gure ohitura bada zerbait frogantza, izen honen kontuan. Mogelen "Peru Abarka" k izen hau honela dakar: Errioja.

Kanpion, Ortueta eta beste askok Euskal Herriko zatik jo dute Errioja; eta azken garai hontan badago zaletasun bat Errioja ezagutzeko. Historia ezagutzen hasi gara, baina oraindik badago

zer aztertu; gehiago toponimia alorrean. Merino Urrutia-ren *El vascuence en la Rioja y Burgos* izeneko lanak mesede ugari egin zuen; baina halako beste lanik ez da agertu zoritzarrez.

Bureba eta Okamendieta

Sainz de Buruaga-k bere *Ordenación del territorio.—El caso del País Vasco y su zona de influencia* (Guadiana de Publicaciones— Biblioteca Universitaria de Economía, Madrid 1969) liburuan, Burgos-ko probintzia gure Herriarekin bat eginik jartzen du, bere lurralde antolakizun lan hortan. Beste teknokrata askok ere gauza bera egiten du; baina denek ikusten dute Burgosko probintziaren handiegitasuna eta homogeneitasunik eza. Hain gauza nabaria bait da Aranda ingurua Madridekin, Burgos berarekin baino harreman gehiagotan dagoela, eta, bestalde, probintziaren ifarraldea Bilbo eta Gasteizekin. Hiru alderdi zehatz bereziak ditu, beraz, Burgosko probintziak; Aranda aldea, hiriburua ingurua eta Ifarraldea.

Lurralde antolakizun batean hau kontutan izaten bada (eta batek baino gehiagok aipatzen du probintzia bat baino gehiago zatitu beharra), badaiteke behinola Iruineko euskal erreinuaren barrutiko izandako herrialde batzuk gure alorrean izatea. Eta kasu hortan behintzat, ekonomiari esker, egon daiteke itxaropen pixka bat; bestela, inondik ere ez. Aipa ditzagun, bada, herrialde historiko bi, Bureba eta Okamendieta.

Bureba

Herrialde honek gaur egun ere badu entzute bat, nahiz eta orain lege nortasunik ukan ez. Garai batean Iruinerekin bat eginda egon zen, baina laster Burgostarren atzaparretan erori zen. Gero Gaztela Zaharreko “merinalde eta partidu” bat bihurtu

zen, eta hala iraun zuen joan den mendeko probintzia banaketa arbitrarioak egin arte.

Burebak gaurko Briviescako haurtegi alderdi guztia hartzen zuen, eta hortik landa Burgosen alderdiko herrixka hauek: Lernilla, Quintana-Ruz eta Temiño; eta Mirandakoan Pancorbo, Ameyugo, Encio, Santa Gadea, Bozoo, Valluercanes eta Santamaria Ribarredonda, Villanueva de Teba, Altable, eta Miraveche. Beraz, Bureba herrialde historiko bat ez-zez, herrialde natural bat ere badela esan daiteke: hasi Pankorboko ateetan eta Brulako aldapararte, erdian bere hiriburu Birobezka duelarik, gaur ere ia herrialdeko herri eta herrixka guztiak bere eremuan hartzen dituelarik.

1.253,13 km²-ko zabalera du Burebak eta 23.243 bizilagun.

Honen ekonomia baserriari lotua dago, hiriburuan industria poligono bat jartzeko badira ere. Lehen laborantzara eta artzaintzara lotua, gaur ganadutzara jotzen hasi da; eta hain zuzen ere *Ordenación rural de la Bureba* delakoak hortara eta fruitura bultzatuko du. Sagar eta beste fruitu asko hartzen ditu, eta oraindik gehiago hartuko ditu antolaketa hori ondo egiten bada. Haren emaitza gehienak Euskal Herrira datoz, eta horrek badu bere alde ona.

Bilbotar askok jotzen du Burebara eta burebar asko dago gure herrietan, Bizkaian eta baita Gipuzkoan ere. Bai joaten diren artean eta bai etortzen diren artean, badago Burebaren sustraiez ilustratu beharra. Nik burebar batzuekin afroga egin dut eta ez dira kontra jarri, ez gutiago ere; eta batek baino gehiagok esaten du hori orain. Burgosko probintziako izate horrek ez du haien mentalizatzerako erraztasun asko emango, ez horixe; baina, zerbait ereiteko hutsetik hasi beharrean gaude.

Okamendieta

“Montes de Oca” izenaren pean, askotan agertzen da he-

rrialde hau Iruineko erreinuaren historia gora-beheretan. Nolabait "Okamendietak" euskeratzen dugun herrialde hau, non zegoen eta zer zen?

Sakon aztertu ditugu Gaztela Zaharreko herrialde banaketak, eta nahiko argi ikusten da herrialde honen nondik-norakoa. Gaurko Belorado hauzitegi alderdia hartzen zuen probintzien banaketa egin arte, nahiz eta feudal arrazoiengatik Elizaren eta jauntxoien feudo apartekoak izan. Hortik landa —eta hau harrigarria da—, Okamendietak saltatu egiten zuen normalki euskal aztarrenen muga den Ebro eta Duero harroen mendikatea, eta Dueroren *hibaia-dar den Arlanzón hibai harro garaia ere hartzen zuen, hasi Arlanzón herrian eta iturburarte: Galarde, Villasur, Uzkitza, Herramel, Urrez, Villorobe, Alarcia eta Pineda de la Sierra.

Gehiago oraindik: Juarros izeneko harana, Burgosko ateetara ino heldu dena; baita euskal historian hain zoritzarreko herria izan den Atapuerca ere: Okamendietarekin bategina zegoen herrialde berebean, aipatu ditugun joan den mendearen hasierako zatiak berriak egin arte. Merino Urrutiak makinatxo bat euskal toki izen agertzen du Okamendietak guztikoak, eta baita Arlanzón garai guztikoak ere.

Baserri ekonomiari lotua, batez ere basoei, eskualde baztertu bat da orain; beheruntz eta egunetik egunera hustutzen doana. Herri batzuk aste azkenak igarotzeko aukerakoak bihurtu dira; baina batez ere burgostarrak joaten dira; euskaldunak guti, ehizera ez bada.

Herrialde hontan zegoen autrigoinen *apezpikutegi zaharra, gero Valpuestara eramana; gaur Okako apezpiku "titularra"k *diócesis extinta* bezala darama. Larraurik edo Setienek eramatea hobe izango zen, sinbolu bezala. Sinboluak eskatzeaz ere ez gara oroitzen.

Herrialde honek 1.103,93 km²-ko zabalera du; 20.199 bizilagun.

Bi herrialde hauek inoiz euskal eremuan sartzen badira, Bureba-Oka izeneko euskal herrialde elkartu bakar bat osa lezakete 2.357 km²-rekin, Bizkaiaren antzera. Bion hiriburuak Bibirezka edo Birobezka izan beharko luke, administrazgo aldetik. Eliz barrutiaren buru, ordea, "Villafranca-Montes de Oka", hiri hontan bait zegoen Hegoaldeko autrigoinen apezpikutegia.

Aragoa, Sobrarbe eta Ribagortza

Jaka inguruan konterri bat sortu zen Iruineko erreinuaren barrutian. Izentzat Aragoa hartu zuen, bertako hibaiarenetik. Gero mendeetan zehar, erreinu bihurtu ondoren, hibaiarekin zer ikusirik ez zuten lurraldeetara zabaldu zen izen honen eremua: Turia garairarte.

Aitzinateko jaketano herriaren bizilekua zen, beraz, Aragoa. Hasieran Iruineko erregeren menpeko konterri izana, Santxo III.aren *hilburuko zorigaiztoko bategatik erreinu bihurtu zen. Aragoarekin batera beste bi konterri ere nafar barrutian zeuden: Sobrarbe eta Ribagortza; beraz Kataluinararte. Hauek ere Aragoarekin jarraitu zuten, honen erreinutzari hasiera handiagoa emanaz.

Gaur egun Jakara joaten bazarete, ikusiko duzue honen hauztegi alderdiaren sarreran kartel handi bat, Jaketaniara ongi-etorri eginaz.

Solas tiki bat merezi du Jakako diozesiaren eliz-barrutiak: hain zuzen orain arte aipatu dugun lurraldea hartzen bazuen ere, gero Iruineko apezpikutegiko Valdonsellako artziprestazgo nagusia bereganatu zuelako. Valdonsella (izena Onsella hibaiaren haranetik, Sangotzan Aragoarekin bat egiten duenarenetik, alegia, datorkionaren) gaur Zaragozako probintziak ifarraldean egiten duen sarrera mehea da, nahiz eta artziprestazgo horrek eremu zabalagoa hartu. Eskualde zabal honek mendetan jarraitu zuen,

elizaz, Iruineren menpe, erresumaz aldendu bazen ere: Iruineren beste artziprestazgo nagusiaren —hots, Gipuzkoakoaren— antzera. Badu bere garrantzia xehetasun honek.

Pirineoen ifarraldean, Aran eskualderarte heltzen bazen Gaskuña (eta, beraz, nolabaiteko euskal-akitanotasuna), gauza bera esan daiteke, hegoaldeari buruz. Hemen bagenituen Sobrarbe eta Ribagortza, Sarrallh de Ihartza-k eta beste batzuek euskal herrialde bezala jotzen dituztenak. Ribagortza da gaur ere hizkuntza bi mugatzen dituen lurraldea; katalana Ekialdean, eta aragoar dialektuak bestean. Hizkuntzalari batzuen iritziz, Aragoa Garaia, Sobrarbe eta Ribagortzako dialektuek zer ikusi gehiago omen dute gaskoin hizketekin, gaztelaniarekin baino, nafar-aragoar erromantzeetan sartzen direlarik. Geroago gailendu zen gaztelania literarioa Aragoako lurretan. Historia beste era batera jazo balitz, Erdi Haroko momentu batez, euskal eta katalan herriak elkar topo egiten ikusiko genituen, legezko izango zen bezala, Zinka hibiaren inguruan, gaztelaniatasuna sartu gabe. Etnologoez eta hizkuntzalariak badute esatekorik hemen, nahiz eta Historiak bideak beste norabaitera eramane. Gaur amets gehiegi dago Pirineoko behin-lako hiru iruinar konterri horiek Mendebal aldera begira jartzeaz.

Gaskoin herrialdeak

Aurrerago esan bezala, Garona hibiaren ezker aldean gaskoin edo akitano herria dago; euskal herri ez bazen ere, anaia herri bat behintzat zenik ezin uka. Dibulgazio-mailako azterketa bat bederen eskainiko diogu.

Gaskoin herriak gaurko Landes, Gers, Hautes Pyrénées departamenduak eta Haute Garonne, Tarn-et-Garonne, Lot-et-Garonne, Ariège, Gironde eta Pyrénées Atlantiques departamenduen zati

on batzuk hartzen zituen. Fontan okzitanistaren iritziz, historia-politikaz Gazkoña ez baziren ere, hizkuntzaz eta etnologiaz gaskointzat jotzen ditu Biarno, Bazadais, Bordelais, herrialdeak.

40.000 km² inguruko zabalera hartzen dute guti gora-behera gaskoin herrialdeek. Herrialdeok, nahas-mahasik zerbait badute ere, hauek direla esan genezake: *Couserans*, gaurko Ariège departamenduaren Mendebaldean, hiri nagusitzat St. Girons duelarik. *Cominges*, Haute-Garonne garaia, St. Gaudens hiria bere behe aldean duelarik, Nebouzan eskualdean. *Bigorra*, gaurko Hautes-Pyrénées departamenduaren zatirik handiena, Tarbes buru duelarik. *Astarak*, Hego-Ekialdean Cominges, Hego-Mendebalean Bigorra eta Ifarrean Armagnac dituelarik, gaurko Gers eta Hautes-Pyrénées departamenduen artean zatitua. *Armagnac*, Gers departamenduaren zatirik nagusia, Auch hiriburu duelarik. *Lomagne*, Armagnac eta Comingesen goikaldetik, gainean Quercy Guienako herrialdea duelarik Garonaren bestaldean, Gers eta Tarn-et-Garonne departamenduen artean zatitua; honen hiriburu zaharra Levit zen eta berria Lectoire. *Condomois*, Condom hiri nagusitik hartua du izena; Armagnac-en ifarraldean, bere gainean Agenois Guienako herrialdea duelarik. *Landes*, gaurko izen hortako departamenduaren zatirik nagusia; Aturi, Midouze eta Douze hibaiei ifarraldean; honen barruan nahasturik *Albret* edo *Labrit* izeneko herrialde bat ere bazen, Nafarroako historian arras ezaguna. *Challosa*, Douze eta Aturi hibaiek, batzuetan, nolabait mugatua: Landesekin, ifarraldetik, eta, behetik, Biarno, Nafarroa Beherea eta Lapurdirekin egiten zuen muga; hiru eskualdetan banatzen zen Challosa: Chasola propioa, Tursan eta Marsan; bere hiri nagusienak Aire, St. Sever, Hagetman, Tartas eta Akize zituen. *Biarnoa*: historian bere bizitza apartekoa eraman zuen gaskoin herrialde honek, eta Bigorra eta Ziberoaren tartean dago; honen hiriburu zaharra Leskarre zen, eta oraindik ere han dago katedrala; oraingoa Pabe da; Biarnoko mendi haranetan nabari da euskal

aztarren ugari. *Bazadais*, *Bordelais* eta *Medoc* herrialdeak, Guiena-koak ziren politika zatiketan, baina Fontanek gaskointzat jotzen ditu; eta hain zuzen ere Garonaren ezker aldean daude: Bazadais, Tarn-et-Garonne eta Gironde departamenduek zatitua eta Bazas hiritik izena hartua; Bordelais, Bordele ingurua; eta Medoc, Giron-dako *bokale eta itsasoaren arteko bitarte luze bat egiten duelarik.

Frantziako *region-programme*-ko zatiketan Gaskoin Heddiaren batasuna ez da haintzat hartzen; eta Akitania eta "Midi-Pyrénées" izenekoan artean sakabanatzen da, teknokrazikeriak, beti bezala, herri nortasunentzako izan ohi duen mespretxurik nabarmenez.

IV. LANESTOSAtik BARKOXEraino

Lanestosan gaude, Euskal Herriaren mendebalaren dagoen herrian. Bizkaiko herririk tikiena zabaleran: 1,12 km² bakarrik du eta bizilagunez ere beheruntz doa: 380 ditu, orain ehun urte 693 zituen. San Pedroko elizatzoa eta beheraxeago plazatxo bat Kalera hibaiaren bestaldean, Tornosko aldatzetik Laredora doan bideak herriko kale nagusi bezala egiten du, eta bertan aurkitzen da Udaletxea. Etxeek, gure baserrien baino Santander aldeko casonen antz gehiago dute; baina, hala eta guztiz ere, 1.287az gero —hots, Haroko Lope, Bizkaiko jaunak sortu zuenetik— bere bizkaitasunari eutsi dio, eta *jaurerriaren hogeitahirietako bat da. Folklore aldetik badu dantza bat guti ezaguna: arku dantza bat, oso erraza eta gure taldeek hartu beharrekoa. Gure bazterrak hobeki ezagutu behar genituke, eta Lanestosak ikustea merezi du.

Enkartazioak

Enkartazioak, hasi Lanestosan eta Bilboko bokalerarte, Eus-

kal Herriko eskualderik garrantzitsuena da *mehatan, Somorrostro haraneko zazpi kontzejuetan bait zeuden, eta daude oraindik. burdin meharik famatuenak. Gure Herri barruan egon den emigratorik handiena Somorrostro aldera izan da; eta gaur "margen izquierda" eta "ezkerraldea" izenez ezagutzen bada ere, gure baserrietan entzuten da oraindik "bai, Urlia etxeokoen senitarteokoa dituzte Somorrostro aldean, mehatara joanda". Egun, Somorrostro harana Bilbo Handiaren metropolitanu eskualdean sartua dago, baina izakeraz enkartadua da.

Gainerako Enkartzioak 427,78 km² ditu zabaleran eta 30.943 bizilagun. Hamar udaletan banatua dago: Lanestosa, Karrantza, Artzenteliz, Iturriotz, Balmaseda, Zailla, Sopuerta, Galdamiz, Gueñiz eta Gordexola.

Enkartzioen bihotza Avellaneda da, bertan egiten bait ziren batzarrak eta, orain berriztatua dagoenez, merezi du Batzar Etxea ikusteak. Tamalez, etxe hori museo bat da, gauza hil bat, ez Enkartzioek behar duten etxe bizi bat.

Enkartzioetan, aitzina galdu zen euskera. Batez ere Avellaneda ondoko Otxarandik mendebalerantz, euskal toponimia ere urritzen hasten da. Gordexolan bakarrik gorde zen hizkuntza, joan den mendearen hasierate; eta, hain zuen ere, berau bakarrik zen Kalahorrako diozesikoa; beste denak Santanderkoak ziren, eta aurrerago Burgoskoak, honek Valpuesta hartu zuenetik. Bai bati eta bai besteari zor zaio, neurri handi batetan, hizkuntzaren atzerakada aspaldikoa.

Eskualde hau ganadu ekonomiari lotua dago, Zaillako Aranguren hauzoko papertegia izanik, bestalde, industriarik handiena. Karrantza izango da seguru asko Euskal Herriko abererik gehien duen herria: 4.000 behitik gora ditu, ia 3.000 txahal, 393 zaldi, 2.485 ardi, 1.274 txerri, eta abar. Egunoro, bertarik bakarrik ateratzen dira 30.000 litro esnetik gora.

Behinola Enkartzioetako herri-izanak ezin ditugu utzi aipatu

gabe (1): Villaverdeko enklabea; Castro Urdializ, Samanoko Batzarra eta Guriezo harana; Mena harana; Limpias eta Kolindres, Laredo eta Liendo harana tartean zirela. Enkartazioak, Bilbo Handiratu diren herriak, joan den mendean Santanderko probintzian sartu zirenak eta Mena harana kontatuz gero, 1.175,83 km²-ko zabalera du, Nafarroa Beherak beste; eta eskualde bat ez, herrialde bat baino dela esan daiteke, eta ez zabaleragatik bakarrik, izakera eta nortasun bereziagatik ere baizik.

Bilbo Handia

Ez da ongi jarritako izena, bera bezalako beste askoren antzera; baina hor dago, gustoz ala desgustoz. Bilbok, Euskal Herriko hiririk handienak, —portua, bankua, Boltsa, inguruko *Labe-Garaia, industria eta abar direla bide— metropoli barruti bat osatu eta zabaltzen du. Administrazio aldetik, eremu horri Bilbo Handia deitzen zaio.

372,09 km²-tan, 25 herri hartzen ditu, 19 udaletan: Bilbo, bere barrutian Erandio, Sondika, Lojua, Derio eta Zamudio dituelarik; Barakaldo, Alonsotegi beraganatua duelarik; Trapaga (San Salvador del Valle de Trápaga), Sestao, Santurtze, Ortuella, Portugalete, Abanto-Zierbana, Muskiz, Basauri, Arrigorriaga, Etxebarri, Zaratamo, Galdakano, Larrabetzua, Lezama, Lejona, Berango eta Getxo. Bizilagunak, 813.148: beraz, ez dago gure Herrian beste eskualderik ez herrialde osorik ere hainbesteko jendetza duenik.

1947ko dekretu batez sortu zen Bilbo Handia, Uribe eta Enkartazioei puska eder batzuk kendurik; guti barru, bi merinalde zahar horien beste zati batzuk ere hartuko dituela uste dugu eta geroago dena, beharbada.

(1) Mendebal bazterreko herri hauen kasuez zerbait aipatu genuen. "Analatasuna" aldizkarian, 173. zenb., Bilbo, 1969-9-30.

Somorrostroko langileria, Muskizko errefinategitik Barakaldo-Sestao Labe Garaietaraino milaka langile mehatan, itsasontzigintzan, beren izerdiaz eguneroko llabur bat *jaresten eta hibaiairen bestaldeko neguritarrak gizentzen.

Olabarri kaleko joku hots hotza ez du euskaldun askok eza-gutuko, baina kale hartan egosten dira euskal eta ez-euskal ekonomia-aren saldak eta saldoak. Honenbeste "entero" igo, ala jaitsi; dividendo eta abar, deihadar, zarata, korredoreen joanetorria, *ar-belean kotizazio zenbakiak kentzea eta jartzea. Merezi du bertara *osteratxo bat egiteak.

Bilbo Handiak lau alderdi aski ongi bereiztuak ditu: Bilbo bera; Somorrostroaldea, edo ezkerraldea; Txorierri, Larrabetzutik hasi eta Getxoraino; eta Urbin, Nerbioi eta Ibaizabalek bategiten duten inguruko bost herriak: Galdakano, Etxebarri, Basauri, Zaratamo eta Arrigorriaga.

Eskualde honek, ezereen faltarik badu, bide *azpiegiturena du; eta hortarako behar dituen miloeak joan bai baina etorri ez datozkio, oso urri, eta noizean behin, ezik. Aideportu, autobide, ingurubide, trenbide, metrotrenbide, eta abar egiteke. Azkenean, tekniko eta denen iritzien aurka, Aideko Ministerioak Aideportua Sondikan bertan handitzea erabaki du, hainbeste miloe kostatako Asuako hirigintza ezereztuaz, eta egin berri dagoen Lejonako Unibertsitateari buruhauste ugari jarriaz.

Gainerako Bizkaia

Gainerako Bizkaia bost eskualdetan banatua dago. Laburki bederen gainbegiratu bat egingo diogu.

Butroe Harro-tik hasiko gara, hau baita Bilbo Handiaren zabalkunderako aproposena eta hurbilena. Gainera, Uribe merinde zaharraren zati bat denez, badu kidekotasun bat aspalditik, ekonomia eta beste alde batzuetatik landa.

216,46 km² eta 25.920 bizilagun ditu herri hauetan: Arrieta, Morga, Fruniz, Gamiz-Fika, Meñaka, Bakio, Mungia, Gatika, Maruri, Lemoniz, Gorniz, Gaminiz (Plencia), Laukiniz, Urduliz, Barrika eta Sopelana. Eskualdearen erdi erdian, Mungia: 8.477 bizilagun azken kontaktetan, baserri ugari bere hamairu hauzoetan, eta zelai zabal oparoak industrigintzarako; benetan herri ederra. Bertan Billelako dorre-etxea, eskualdearen kultur etxe noiz bihurtuko zain. Gatikako lurretan Butroeko gaztelu berria, lehengo dorre zaharraren lekuan, euskal historian hain ezaguna, eta eskualdearen hibairi izena damaiona. Beherago, itsas ondoan, Lemonizen, nuklear indar zentroa, Euskal Herriari bakarria, laster amaitzeko. Butroeko hibaiaren ahoan Gaminiz, behinolako "Plencia de Butrón", lehen arrantzaletu portu, orain udatiarren atseden leku, Gorniz bezala. Badago beste portutxu bat, Bizkaian eta Euskal Herrian beharbada tikiena, Armintza Lemonizko hauzoa. Bilboko Komertzio Ganbarak eginiko estudioan eskualde honetako Barrikan jartzen zen aideportu berria.

Busturia merindadearen zati batez, Bizkaiko Diputazioak eskualde bat mugatu du, Gernika-Bermeo izen aldrebesarekin. Autzaganetik hasi eta Izarorarte hartzen du eskualde honek, erdian Gernika duelarik.

266,26 km² eta 43.728 bizilagun. Herriak: Gernika eta honen barrutian Lumo, Ajangiz, Forua, Murueta, Kortezubi, Arratzua eta Nabarniz; Muxika eta honek irentsitako Gorozika eta Ibarruri; Mendata, Errigoitia, Arteaga, Ereño, Ea, Elantxobe, Ibarrangelua, Busturiko Axpe, Sukarrieta, Mundaka eta Bermeo.

Eskualde honetako jendea ezagutzea nahi baduzu, zoaz Gernikara astelehen batean; baserri herri guztietakoak biltzen dira bertan. Itsas *hegiko herrietakoak marinel dira. Makinatxu bat kapitana, pilotu edo makinista atera da Eatik hasi eta Busturiko Axpe bitartean. Beste asko Ameriketara bertako industria faltan. Azkenez, Bermeo, arrantzaletu herri famatua Erdi Haroaz geroztik;

baina gaur konserbagintzan eta arrantzan egitura aldatze premia gorritan, bai ekonomia eta bai gizarte aldetik.

Gernika aipatzerakoan, mila gauza esan daitezke: Arbola Santua, gure Foru eta Askatasunak, Iparragirre, azken gerratea, hil berri den Picasso: guztion gogoan daudenak; ez dugu, beraz, zertan luza.

Azkenik esan behar dugu, Bilboko Komertzio Ganbarak liburu interesgarri bat agertu duela eskualde hontaz.

Arratia-Nerbioi eskualdea, aipatu behar ditugunetatik hirugarrena. Arratiako merindadea: Ubidea, Zeanuri, Dima, Areatza (Villaro), Gaztelu-Elexabeitia, Zeberio, Arantzazu, Igorre, Lemoña eta Bedia; Nerbioi harroko Ugao (Miravalles), Arrankudiaga, Zollo, Arakaldo, Orozko harana eta Orduña. Guztira, 421,63 km2 eta 26.873 bizilagun.

Arratia nortasun bereziko eskualdea da Bizkaian. Beste eskualdeetakoak herriaren izenetik ezagutuko dira; baina Arratiakoak, arratiar bezala ezagutzen dira lehendabizi. Eskualde hontan hiriburu baten beharrezina argi nabari da, gaur Igorre nagusitasun bat hartzen hasi bada ere.

Industria batzuk baditu Bedian, Lemonan eta Igorren, Arratia aldetik; eta Ugaon eta Arrankudiagan, Nerbioi aldetik; baina ez emigrazioa geldierazteko beste. Herririk gehienak jendez urritzen doaz.

Durangoaldea: 12 herri eta 12 harri, Gerediagako zelaian, konterri eta merindadeko batzar lekuan. Eskualde honek bere *berjabetasuna ukan du historian. Hamabi herriok hauek ziren, eta ordena hontan jartzen ziren Gerediagako batzarretan: Abadiño, Berriz, Sanagustin-etxebarri, Mallabia, Mañaria, Iurreta, Garai, Zaldibar, Arrazola, Axpe, Apatamonasterio eta Izurza. Lau hiri zituen bere barrutian: Durangoko Tabira, Elorrio, Ermua eta Otxandio.

Gaur, eskualde hontan sartua dago Zornotza arazo guztietarako. Eta, honela, 298.08 km² ditu eta 72.132 bizilagun.

Lehenago hainbeste ola zituen eskualde honek, badu gaur ere era berriko ola ugari. Hirigintza planetan 1.330 Ha. daude industria poligonoetarako, lehen herri barruetan dauden industrietatik landa, eta horietatik 312,2 Ha. Abadiñoko lurretan. Gehiegizkoa seguru asko, eskualde hontako baina Deba Harroan dagoen Ermuko hiriaren hazkuntza gehiegizkoa den bezala, alde guztietatik munstro itsusi bat baita.

Lan hau baino lehen aterako da kalera Durangoaldeari buruzko estudio bat, Bilboko Komertzio Ganbarak egina.

Lea-Artibai: Hibai bion harroez, Markina hiriburutzat duen eskualdea osatzen da. Learen bokalean Lekeitio itsas hiria dugu eta Artibairen bokalean, Ondarroa. Lea harroan beste herri hauek daude: Muditibar, Aulestia (Murelaga), Gizaburuaga, Amoroto, Izpazter eta Mendexa. Artibai harroan: Bolibar-Zenarrotza, Marinetxebarri, eta Berriatua. 208,75 km² eta 28.717 bizilagun.

Arrantza eta baserri eskualdea, Bizkaian industriadetik gutien duena. Nekazari herrietatik makina bat jendek alde egiten du alboko eskualdetako industria herrietara edo Ameriketara. Marinetxebarriko *lautadan, Eibar eta Elgoibarko industrietan inon baino leku hurbilagoak dituzte, oraintsu onartu den eskualdeko hirigintza planean industria lur izendatuak.

Eskualde hontan dago Zenarrotzako kolejiata, X. mendekoa: joan den menderarte *apata zen bertako buru.

Ondarroak hamar mila tonelada inguru ditu 150 ontzitan, bere arrantza ekonomiaren ahalmen eta bizkortasunaren erakusgarri. Lekeitiok, berriz, bi mila toneladatik gora ez ditu ontzitan, bere moteltasunaren salatzaile; egia esan, turismora begira dago gehienbat Azkueren jaioterri hau.

Deba Harroa

Erderaz *Cuenca del Deva* deitua. Bilbo Handia kenduz gero, Euskal Herriko industria eskualderik inportanteena. Administrazioz, gehienbat Gipuzkoarena; bizkaitarra hizkuntzaz. Deba Harroak, beste euskal herrialde oso batek baino bizilagun, bizitasun eta ekonomia indar gehiago du.

Herri hauek hartzen ditu: Lenitz haranean, Lenitz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate; Oñati; Bergara, Antzuola, Elgeta; behinolako Markinako eskualdean, Eibar, Soraluze eta Elgoibar; itsas hegian, Motriku eta Deba. Hauek denok Gipuzkoan. Araban, Aramaioko harana; eta Bizkaian, Ermua eta Mallabia.

Azken kontaktetan, orain hiru urtekoan, hamasei udal horien artean 143.481 bizilagun zituen. Zabaleran 578,56 km².

Euskal Herrian, norbaitek falta baldin badu estudio oso bat, Deba Harro honek falta du, alafede. *Industria guipuzcoana de la cuenca del río Deva — 1956-1957*, da ezagutzen dugun lan bakarra, alderdi batena bada ere. Egia esan, badago beste lan interesgarri bat *Industria herri baten azterketa — Arrasate eta bere etorkizuna*; baina hau Arrasateri begira egina dago edo, behintzat, honen inguruari begira. Gure ustez, Deba Harroak ez du batasun sentidurik hartu oraindik, eta hori argi ikusten da herri zerbitzuetan ere: "sanitaria hiri" bat izateko beste bizilagun badu; baina, bat gaixotzen bada, Donostiaraino joan bear du edo Bilboko klinika batera. Era berean beste zerbitzu askotan. Egia da, non jartzean egongo litzatekeela hauzia batzuentzat; baina, ekonomia herri nagusiak Eibar eta Arrasate badira ere, erdikoa —administrazio eta zerbitzu hiriburua— Bergara denik ezin uka daiteke.

Deba Harroak batasun apurrik balu, bere Komertzio eta Industria Ganbara ere behar luke. Probintzia bakoitzean bat bakarrik dagoela esango du norbaitek. Hori ez da egia: bada, Espai-

niako Estadu barnean, Ganbara biko probintzia bat baino gehiago; eta Baionako Ganbarak, Lapurdi eta Nafarroa Beheratik landa, St. Martin-de-Seignaux-ko kantonamendua ere egoki hartzen du, Landesko departamenduarena izanarren. Era berean joka lezake Deba Harroak, Ermua, Mallabia eta Aramaio hartuaz. Bergarako lehenengo *Real Seminario* delakoa gaur erdi hutsik dago, Deba Harro guztiaren Ganbara eta gainerako zerbitzuen egonleku aproposa izateko moduan.

Eibarko industriaren bultzakada Durangoalderuntz zabaldu da askok ez dakien beste, eta Markinaldera zabaltzeko ere badu indar. Era berean, Arrasate, gaurko bere dinamikari esker (“Langileen Kutxa” eta abarrekin), Deba Harro garaiaren buru dugu, haren izena Euskal Herri guztira zabaltzen delarik. Oñatik berriz, gure herrialdeen arteko (batez ere, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko) *insolidaridad crónica* —Azaolak ongi deitzen duenez— eman izan ez balitz, Euskal Unibertsatea, edo Euskal Unibertsitate lehena, izan behar zukeen.

Gipuzkoa

Benetako Gipuzkoaz —giputz herriaz, giputz-koaz—, Udana, Deskarga eta Azkarate gainetan hasten denaz, esan dezagun zer-bait, norbaitek *Guipúzcoa vascónica* deitzen duena ere, Oiartzun-aldea alegia, bertan sartuaz.

Urola Harro-ra jaisten gara aipatu ditugun aldatzetatik. Udatatik, Legazpira; Deskargatik, Urretxu eta Zumarragara; Azkaratetik, Azkoitira eta handik, Urolan behera, Azpeitia, Zestona eta Zumaiara. Erdi ahazturik utzi dugu, hibaiaren jirabira batean, Aizarnazabal herritxoa. Itsas hegiko Getaria eta Zarautz ere eskualde hontakotzat jotzen dira. Hernio alderuntz igoaz hor dugu, eskualde honen barnean eskualdetxo bat eginaz, behinolako Saiatz: Errezil, Beizama, Bidania, Goiatz eta Aia.

Urola Harroak 417,08 km² ditu eta 79.354 bizilagun.

Urolalde honek ez du homogeneitasun handirik; adibidez, honen Goierriak —guk Oriakoagandik bereizteko, eta Goierri izena honentzat utziaz, Urolagaraia deitzen dugunak— ez du harreman asko Aizpurutxotik beherako alderdiarekin.

Urolagarai alderdiko hiru herriak oso industriadunak dira, *burdinola asko dituztelarik. Erdi alderdian, behinolako Iraurgi haranean, Azpeiti-Azkoitietan ere badira industriak, *erredizak eta beste mota batzuetakoak; eta berdintsu itsas hegiko hiru herrietan. Getarian eta Zumaian arrantzak ere bere garrantzia ukanik, eta Zarautzen turismoak. Saiatz alderdiko herrien bizitza moteltzen doa urtetik urtera eta bizilagunez urritzen.

Goierri: edozein lekutan da goialdeko herria, edo herri baten barnean goien dagoen baserri hauzoa. Honela, Erandio, Zaldibar, Garai, Aulestia, Barrika, Murueta eta Zenarrotza Bizkaiko herrietan Goierri izeneko hauzoak aurkitzen ditugu. Baina denen gainetik entzunena, Gipuzkoako Goierri da. Zentzu zabal batean, Gipuzkoaren behealdea Beterri baldin baten —eta ez zen gauza jakina nondik norakoa zen Beterri hori—, Goierri goialdea zen, honen nondik-norakoa ere mugatu gabe. Astiro astiro, bere zentzua eta izatea zehazten joan da eta, gaur, Goierri berezitzat Oria hibaiaren goialdea jotzen da, buru biko hiriburuak, Beasain-Ordiziak, besarkatzen duena.

Gabiria, Ezkioga-Itxaso, Ormaiztegi, Zerain, Mutiloa, Segura, Zegama, Idiazabal, Olaberria, Beasain, Ordizia, Lazkano, Ataun, Zaldibia, Gaintza, Itsasondo, Alzaga, Arama eta Legorreta: 18 udal, 309,83 km² eta 41.866 bizilagun. Goierritarrei galdatu ondoren, Legorreta jarri dugu Goierriko azken herri bezala: Ikaztegietatik behera, Tolosarekin hasten baitira harremanak, Beasain-Ordiziarekin baino gehiago.

Eskualde honek baserrian eta batez ere artzaintzan izan badu bere lehengo ekonomia (Idiazabalgo gazta, Aralar eta Aizkorri

aldeko *partzonerietako *bazkaleku famatuak, Ordiziako eskualdeko merkatua, dira honen lekuko) gaur, ordea, industriara izuli du bere bizi ekonomiaren *gurpila.

Tolosaldea da Oria hibiaren erdialdeko eskualdea. Ez du izen berezirik, hiriburuak ematen baitio dudagabeko izena. Historian zehar ere, gaur eskualde hontakotzat hartzen diren herriak, noizbait honen barrutian egonak dira: Ikaztegieta, Orendain, Baliarrain (gaur Iruerrieta nolabaiteko izenez bataiatuak), Abaltzizketa, Amezketeta, Altzo, Alegia, Albiztur, Berastegi, Elduaien, Anoeta, Villabona, Alkitza, Asteasu, Larraul, Zizurkil, Aduna eta Andoain. Beste hauek, ordea, joan den menderarte Tolosarekin bateginik zeuden: Irura, Ibarra, Gaztelu, Leaburu, Oresa, Lizartza, Hernialde, Berrobi eta Belauntza. Gaur, 25 udalek osatzen dute, Leaburu-Gaztelu bateginik baitaude. Eskualde honek, bere 284,13 km²-ko zabaleran, 53.264 bizilagun ditu.

Herri ttikiagi asko ditu Tolosaldeak; eta asko behintzat elkar-tu beharrean aurkitzen dira. Gainera mendian daude, asko industrializatzeko baterako toki eskasean.

Tolosa, Gipuzkoako hiriburua izana, ez da beste hiri batzuk bezala hazi, beharbada, bertako papertegietako ugazaben kazike-keriaren indarrez. Eskualdeko beste herri batzuetan ere badira papertegiak, industria mota hau izanik eskualdeko nabarmenena.

Nafarroako Araitz haraneko herrixkek, Leitzak eta Aresok ere Tolosa dute merkatu burutzat, eta honekin harreman asko dute.

Donostialdea edo, izen zaharra hartzen badugu, Hernani harana da beste giputz eskualde bat, gaurko Donostiako *partido judicial*-aren mendebalde hartzen duena. Donostia bera eta honen barrutian dauden lehengo hiru herriak: Altza, Astigarraga eta Igeldo; Hernani; Urnieta; Usurbil eta Oriu. Lasarte herria bada, lau udalen artean zatitua egoteak udal izaten uzten ez badio ere.

176,75km²-ko zabalera du Donostialde honek, eta 204.442 bizilagun.

Donostiak, Euskal Herriko hiririk ederrenetakoak, —bihar-etziatako Europa batean— gure Herriaren eremuko aministratzgo hiriburu izateko aukera bat ukan dezake, hortarako Gipuzkoaren hiriburutza Tolosari bihurtuaz. Bistan dago Iruineren eskubide historikoak eta Bilboren ekonomia burugoa kontutan hartu beharra; baina *oreka hau beste Herri batzuetan ere ongi eta anaikorki egiten da, hirien funtzioak banatuaz.

Eskualde hau, Donostia ardatzaren inguruan mugitzen da, Orioko arrantza ekonomia eta beste sektoretzoren bat izan ezik. Leku askotan aurki daiteke, gainontzean, Donostiari buruzko xehe-tasun franko, eta ez goaz hemen luzatzera.

Oiartzunaldea: guk beste eskualde bat bezala bereizten badugu ere, Donostiako *partido judicial* delakoaren *Eki alde da. Baina euskalkiz, historiaz eta nortasunez badu eskualde bat izateko beste meritu. Bizilagunak ere beste askok baino gehiago: 121.393. Zabalera ez hainbeste: 183,90 km².

"Anaitasuna" aldizkarian (252. zenb., 73-III-30ekoan) aipatu bezala, Oiartzunalde hau Irunek, Hondarrabiak, Lezok, Pasai Donibanek (gaur hiru Pasaiek udal bat osatzen dute), Errenteriak eta Oiartzunek, eskualdearen izena daraman udalak, osatzen dute.

Administratzgo aldetik Gipuzkoakoa da, baina leinuz eta euskalkiz nafarra; noizbait Lapurdi izana, eta, elizaz, Baionakoa XVI. menderarte; gaur inperio estadu biren muga eskualdea. Oraingo portua Pasaia da, baina erromatarren garaiko "Oiartzo" portua gaurko Irun omen zen. Hau da, hitz gutitan, eskualde honen zera.

Laudiotik Ebroaldera

Arabako lurretan Bilbotik sartzen bazara lehendabiziko herria *Laudio* duzu; eta handik beheruntz, Orduñatik zehar Ebro jo arte joanez gero, Zubilarraga herriraino Araban zaude. Gaizki esan

dut, zeren Orduña Bizkaia baita eta, Orduñako aldatza igoz gero, Villalba eta Bererاناتik igaro behar baituzu eta hauek —geografiak eta euskal aztarrenek besterik diotenarren— Burgosko probintziarenak baitira. Trenez joanez gero, Orduña igaro eta gero, jirabira handi bat egin eta, Araba utzi gabe, Urkabustaizko lurretan sartzen zara; gero, Baia hibaiari jarraituz, Mirandararte. Lurralde hauei gainbegiratu bat eman behar diegu, Arabaren lautadatik kanpoko hiru eskualde bait daude hemen.

Aiala-ko lurra da lehena. Erdi Haroko Kejaako Kantzilerraren eta honen ondorengo feudal indarrez, bere herrialde naturaletik —Kantabriko aldekotik, alegia— aparte gelditua. XVIII. menderarte, Orozkoko harana ere jauntxo haren ondorengo eskuetan egon zen.

Aiala, XVI. mendean, Arabako zazpi taldeetako, *cuadrilla*-tako, bat bihurtu zen, “hermandad” edo anaiarte herrixka hauekin: Laudio, Arrastararia harana, Artzeniegako hiria, Amurrio, Lezama, Llanteno, Axpe (Sopeña) Arrespalditza herriburu zuena, Okendo eta Urkabustaiz. Azkenengo hau ez zen lehendabizi Aiala izan, X. mendetik Arabako bezala agertzen baita; eta orain Diputazioak egin duen eskualdekatzean ere, Gorbealdekoan sartu du.

Aiala eskualde honek (Diputazioak *comarca cantábrico alavesa* deitzen duenaz) 364,85 km² eta 26.699 bizilagun ditu, hiriburu bezala Amurrio duelarik; baina herririk handiena Laudio da, industria ugarirekin. Eskualde guztian ehun bat ola eta lantegi daude; eta, Bilboren hurbiltasunagatik eta Arabako ekonomi kontzertuari esker, industria ugaritzen ari da.

Aialaz mintzatuz gero, ezin ditugu ahanzi honen Saraube izeneko batzar lekua, Jesus Galindezek hainbeste aldiz aipatua, ez eta ere, euskeraren aldetik, Jose Paulo Ullibarri aialar seme jatorra, ikastola eta hizkuntzaren ofizialtasunaren argitzaile eta iratzartzaile lehenenetakoa.

Osingani: Osingania ote? Izen honekin agertzen da X. men-

dean orduko Arabaren mendebal-aldeko eskualdea; gaurko Baias izeneko hibai harroa hartzen zuen, Gorbean hasi eta Miranda-rainokoa.

Oraingc Diputazioaren eskualdekatzean harro hontako haran-udal bi Gorbealdeko eskualdean sartzen dira: Zuia (hiriburua: Murgia) eta Urkabustaiz (hiriburua: Izarra). Kuartango, Salzedo eta "Ribera" biak, Hego-Mendebal eskualdean, nolabait "Valles Alaveses" deituak. Gorbeatik Mirandaraino 456,22 km² ditu eta 6.117 bizilagun.

Hibai harro hau, trenez Bilbotik Barcelona edo Madridera joan direnek bakarrik ezagutzen dute ia; eta gainbehera joan da. Orain, ordea, *autobidea joango da bertatik. Altube gainean eta Zubilanan sarrerak ukanen dituelarik. Ea autobide honek, trenbideak emandakoa baino bizitza oparoagoa ematen dion, batez ere Zubilanako sarreraz baliaturik.

Gobia: gaurko geografia politikoaren arabera, "Valdegovia", (eta honen barrutian sartu berri den Erexo Harana, "Valderejo"), Iberguenda eta Gezalaga (Salinas de Añana) dira arabarrak eta eskualde hontakoak; baina, geografia naturalari eta euskal aztarrenei (lehengo autrigoin leinuari) begiraturuz gero, San Zadornil de Unzeka, Villalba eta Berberana-Valpuesta ere gobiartzat jotzen dira.

441,10 km² eta 5.125 bizilagun. Gero eta bizilagun gutiago, herriak hiltzen; handiena Espejo da eta 268 bizilagun baino ez ditu, toki ederrean egonarren. Diputazioak, *Plan Valdegovia* gertutzen dihartu, eskualdea *abelgorri ekonomiara bultzatzeko asmatan. Ez dakigu gizon gazterik geldituko zaion, plan hori aurrera ateratzeko.

...eta *Miranda*-n amaitzen dugu, behinola Araba izandako herri eder hontan, bere inguruan Bardahuri, Irzu, Olhaerrera (gaur La Herrera), Baia, Oron eta abar dituen hontan. Arabak,

aitzina bezala, Pancorboko ateetan du bere bidezko muga: Miranda bezalako bidegurutzea euskal barrutian dugularik.

Arabako Lautada eta beste arabar lurak

Arabako herrialdea bere Lautadaren inguruan mugitzen da, bera baita zatirik handiena eta hoberena. Hortik landa, Ifarraldean dituen haranak, Ega garaiaren eskualdea, Trebiñoko konterria eta honen inguruak eta, azkenik, Arabako Errioja gelditzen zaizkigu.

Lautada-k 784,16 km² hartzen ditu. Eginoko Bentetako mugatik Badaiaiko *mendikateraino. Diputazioko eskualdekatzean bi eskualdetan banatu dute, bata Ekialdeko Lautada (Llanada Oriental) 393,733 km²-rekin eta bestea Mendebaleko Lautada (Llanada Occidental) 390,431 km²-rekin.

Ekialdeko Lautada-k Agurain (Salvatierra) du bere herri nagusia; hortaz gainera, Asparrena, Zaldondo, San Millan, Dulantzi (Alegria), Irurain-Gaona, Burgelu (Elburgo) eta Barrundia udalak hartzen ditu, 9.112 bizilagunekin.

Laborantza herriak izan dira, eta dira, eskualde hontakoak. Asparrenako herriburuan, Araian, badaude industria batzuk; eta Agurainen lehen hasitako industrialazitzea zerga mesede eta plan batzuekin ugaritzeko asmotan da Diputazioa.

Mendebaleko Lautada-n, Gasteiz, Arabako hiriburua, eta honen barrutian dauden 47 herrixka daduzkagu. Hortik landa Arratzua-Ubarrundia, Foronda, Otoeta (Los Huetos), Mendotza, Iruña eta Langraes udalak aurkitzen dira. Azken seiok 3.518 bizilagun dituzte; Gasteizko udalak, berriz, 136.873.

Gasteiz, lehen merkatu, salerosketa, elizgizon eta militarren hiri zena, gaur industria hiri bihurtu da. 1.957. urtean hasi zen Gasteizko industrializatzea, hortarako Gamarra eta Betoñun 5 miloe m² lur Udalaren Aurrezki Kutxaren bidez erosiaz; Olaritzun,

miloe bat inguru eta Eharin (Alin) miloe t'erdi. Hiritik hurbilegi laster ikusi den bezala: olak ukitzeraino heldu baitira etxeak. Eta ez zen izango Zadorra hibaiaren Ifarraldetik nahiz bigarren epe baterako utzi zen Jundiz izeneko poligonu itzelean lurrik ez zegoelako.

Gasteizen hazkuntza eta Arabako herritxoen ttikiegitasuna direla kausa, herialde honi "makrozefalitis" bat sortu zaio, luzarora kaltegarri dena.

Beste herrietan ez dago gauza nabarmenik, Mendotzako gaztelu dorrea izan ezik, Lautadaren Mendebal bazterrean, Erdi Haroko familia gaztelazale handikien ezaugarri.

Gorbealde-ko eskualdean hiru aldetara daude herriak. Zuia eta Urkabustaiz haranetakoak, lehen esan bezala, Osingani edo Baia hibairuntz; Aramaiokoak, Oleta izan ezik, Deba Harroaruntz; Legutiano (Villareal) eta Zigoitiakoak Lautadaruntz.

Ez da, beraz, Gorbealdea (406,27 km² eta 6.127 bizilagun) batasun handiko eskualde bat: Aiurdin eta Kurutzetako *mendilepoak hiru zatitan bereizten baitu.

Etorkizun hobereneko herria Legutiano da, Deba Harroko, Durangoaldeko eta Arratia-Bilboaldeko bidegurutze aiposean baitago, Gasteiztik 16 km.-ra; hemendik hurbilegi beharbada hazkuntza lasaiago bat izateko. Legutianok baditu bere Ifarraldean bi herri, Bizkaikoak izan arren, harremanez Gasteizi lotuak eta geografiaz arabarrak: Otxandio eta Ubidea.

Uda omen zen orain aipatuko dugun eskualdearen izena: Hibaia Uda haren hibaia, gero "Hib" galdu eta gaur Ayuda gelditu dena. Horrelako asko gertatu da gure Herrian. X. mendean "Ribo de Ibita" izeneko merinalde bat agertzen da Arabako historia-ren barnean.

Eskualde honen gauzarik nabarmenena Trebiñoko Konterria da. Feudal arrazoiengatik Arabak barru barruan sartuta dadukan arantza honek, 221, 57 km² ditu eta 2.608 bizilagun, 48 herrix-

katan sakabanatuak, eta bi udaletan: Argantzun (La Puebla de Arganzón) eta Udako Trebiño (Treviño). 1972ko Urria-Abenduetako Arabako Komerzio Ganbararen boletinak lan interesgarri bat eka- rri du konterri hontaz. Merezi du irakurtzeak. Elizaz, 1949z gero, Arabakoa da; hau lortzea ez zen hain zaila izan ordurarte Kala- horrakoa zelako eta ez Burgoskoa, seguru asko. Ez lehengo his- toriak bakarrik, toki izenek, etniak, harremanek, geografiak, ber- tako gehienen iritziak eskatzen dute Araba izatea. Hizkuntza aldetik, Odon Apraiz euskaltzain ohorezkoak dioskunez, XVII. mendean bazen konterri hontako herririk handiena den Argantzun- go euskal idazle bat; garai hartarako Gaztela zelarik, "gastelar" (?) euskaldun bat beraz.

Eskualde hontako beste udalak Pipaona, Arluzea-Markiniz, Hurizaharra (Peñacerrada), Zenbrana, Berandi (Berantevilla) eta Armigona (Armiñón) dira. Beste 232,62 km² eta 2.607 bizilagun. Bai herriburu eta bai herrixka apalak, beheruntz doazenak. Zen- brana dago zelai ikusgarrian, Erriobarako bide ertzean.

Arabako Errioja-ko ateetan gaude Zenbranatik laster. Bura- dongo Gatzaga herritxoaren Bentek agurtzen gaituzte lehendabizi bidean. Gero Arabako barrutian Bastida, Samainego, Baños de Ebro, Villabuena, Leza, Nabarida, Zieko, Biasteri, La Puebla de Labarca, Elvillar, Kiripan, Lantziego, Iekora, Oion, Moreta, Orru- busu (Barriobusto) eta Labraza. 324,01 km² eta 10.653 bizilagun.

Hiriburua, Biasteri (Laguardia). Industria herria, Oion: ze- mentu, kosmetiko, argi tresnak eta abar. Ardo herriak denak, esku- alde hau ardoagatik baita entzuna. Nork ez ditu ezagutzen Riscal, Palacios, Coviria eta abar? 1969. urtean 14.507.828 litro ardo hartu ziren haien 6.500 Ha.-ko mahastietan.

Eskualde hau Nafarroa izan genuen, Sonsierra de Navarra izenez, 1367rarte; eta orduan Gaztela jabetu zen 1430erarte. 31 urtetan, berriz Nafarroarena. 1461-1486 bitartean, berriz Gazte- larena. Urte hartan Arabara pasa zen. Baina harremanez, geo-

grafiaz, ekonomiaz Errioja da, Araba baino gehiago; eta Logroñorekin ditu bere harremanak. Kantauriko mendikatea muga naturala da alderdi askotatik.

Ega-garaia-k, Diputazioko eskualdekatzean *Montaña Alavesa* deritzaionak, Ega hibaiaren goialdea hartzen du; eztabaidan jartzen diren hibai honen iturriak —nahiz Arraia haranean nahiz Lagranen egon— eskualde hontan baitaude. Lau haran ezagunetan banatzen da eskualde hau: Ifar-Ekialdetik “Arana” harana, lau herrixkarekin, Alda hiriburu duelarik; Ifar-Mendebaletik, Arraia harana, Maeztu hiriburua eta beste hamabost herrixkarekin; Berne-
do, bost herrixkako udala, haran berean, Hego-Mendebalean eta aparte, Lagran udal ttikia dagoelarik; Hego-Ekialdean, Kanpezu harana, lau herrixka eta Santi Kurutz haranaren buru, eta halaber eskualdeko buru izateko bidean.

339,43 km² eta 5.128 bizilagun. Egileta-Azazetako lepoak bereizten du Arabako Lautadatik, Lizarrako merinaldearen bidean jarriaz. Hain zuzen, Arraia ez besteak XIV. mendearen azkenerarte merinalde hortakoak ziren.

Baserri eskualdea, patata ugari ematen duena; Gamiz euskal idazlearen sorlekua. Aurtengo Apirilaren 29an Sabando bere jaio-terrian gorazarre bat eskaini zion Euskaltzaindiak, hainbat arabar euskaldunberri bertan zirela, euskararen berjabetzearen lekuko. Ega-garaiko herritxoetako hamaika jendek gorazarre hartan jakin zuen lehen aldiz beren euskalduntasunaren berri. Dizdira pozgarri bat izan zen askorentzat.

Ega, Lizarrako merinaldea

Ega hibaiaren harro zabalean kokatzen da Lizarrako merinaldea, Nafarroako erreinu ohiaren seietako bat. 1.407rarte bost ziren oso egoki eginak: “Montaña”, Sankoza, “Ultrapuertos”, Erri-

bera eta Lizarra. Erregeren kapritxozen sortu zen seigarrena. Olitekoa, alboetakoei —batez ere Erribera eta Lizarrakoei— zatiak kendurik. Herrialde zatiketa honi jarraituko diogu, gaur ere hori erabiltzen baitu Nafarroak. Ikusiko duzuen bezala, beste herrialdeen neurrikoak dira, bizilagunez urriago badaude ere.

Ega (*Aiega* lehenago) hibaia azkenik aipatu dugun arabar eskualdean jaio eta Estuñigan sartzen da nafar barrutian: Berrotxa harana ukitu ondoren, "Valdega" merinaldeari izenik propioena damaiola. Allin haranaren behealde igaro ondoren herrialdearen hiriburuan sartzen da, Lizarran; "Solana"n ondoren eta, azkenik, Leringo konterrian; San Adrian eta Azagra bitartean Ebro hibai nagusiarekin bat egiten du. Merinaldearen zatirik handiena harturik, herrialdearen ardatza dugu Ega.

Merinaldeak 2.067 km² ditu, Gipuzkoak baino gehiago, eta 64.694 bizilagun. 72 *udalbarritutan banatzen da haren lur eremua, udal batzuk herrixka mordo bat izanik.

Baina euskal izakerari eta nafar historiari egokiago dator kion geografia zatiketari loturik, merinalde hau 16 haranetan banaturik aurkitzen dugu; eta joan den menderarte, haran horiek lau "partido" edo alderditan elkarturik egon dira.

Gesalaz, Mañeru, Deierrri eta Goñi dira lehen alderdiko lau haranak eta, hain zuzen ere, merinaldearen Ifar-Ekialdea osatzen dute. Andiako mendikatean hasi eta Arga hibaia ukitu arte, Garesko ateetaraino. Baso eta baserri lurrak, ez dute ia industriarik, ez eta herri handirik: mila bizilagunekorik ez baitago.

Gaur Gesalazen bi udal daude: Gesalaz bera 15 herrixkarekin eta Oro-Gatzaga; Mañerun, lau: Mañeru bera, Zirauki, Artatzu eta Girgillano, honek sei herrixka dituelarik, batzuk bizilagunik gabe; Deierrri, Jauregi edo, gaurko izen ofizialaren arabera, Yerri haraneko udalak hauek dira: harana bera 20 herrixkarekin, Abarztutza eta Lezaun; Goñin, harana da udal bakarra, bost herrixkarekin.

Alderdi honek 507,73 km² eta 5.780 bizilagun ditu.

Amezkoa biak, *Lana*, *Allin*, *Ega* eta *Doneztebe* dira bigarren alderdiko haranak, Ifar-Mendebalde hartzen dutelarik. Urbasa aldean hasi eta Lizarra igaro arte. Baso eta baserri herriak daude hemen ere, hiririk gabe; artalde, basa behor, txerri, eta basa behi ugari delarik Urbasa aldean. Ega eta Doneztebe (Santesteban) haranetan mahastiak ere hasten dira eta laborantzan dihardute.

Amezkoa Garaia hiru udaletan banatzen da: Aranaratxe, Larraona eta Eulate; *Amezkoa* Beheko zortzi herrixkek udal bakarra osatzen dute; *Allin* harana bi udaletan banaturik aurkitzen dugu orain: *Allin* bera hamar herrixkarekin, Larrion buru dela, eta *Metauten* izenekoa, *Ega* ibarrean, sei herrixkarekin; *Lana* haraneko bost herrixkek haran bat osatzen dute; *Ega* haranean, *Abaiagar*, *Olesua*, *Oko*, *Legaria*, eta *Murieta* herritxoak bakoitza udal banatan daude; *Etaiok Leartza* du bere barrutian eta *Antzinek Mendilibarri*; *Doneztebeko* haranean *Arroniz*, *Deio* (*Villamayor de Monjardin*), *Barbarin* eta *Lukin* udal banatan daude; *Iguskitzak*, ordea, beste lau herrixkarekin batera udal bat osatzen du.

295,24 km² eta 7.494 bizilagun ditu alderdi honek.

Solana haranak eta *Lerin*-go konterriak osatzen dute *Ega* herrialde hontako hirugarren alderdia. Merinaldearen Hego-Ekialdea hartzen du, *Solana* honek euskaraz *Eguzkitza* izan beharko zuen, *Durangoko* hirian dagoen eguzki aldeko hauzoa bezalaxe.

Oteitza, *Arellano*, *Morentiain*, *Aiegi* eta hain aldrebes dagoen *Estuñiga* (*Zuñiga*) dira herri bakarreko udalak. Aberin udalak, ordea, hiru herritxo hartzen ditu. Hauek *Solana* eskualdean. *Leringo* konterrian, zortzi herri daude denak udal direnak: *Lerin*, *Karakarre*, *Andosilla*, *Mendabia*, *Sesma*, *Allo*, *Deigaztelu* eta *San Adrian*. Alderdi ofizial hontatik kanpo egon baziren ere, *Lodosa* eta *Sartaguda*, elizaz, lehen eta orain ere eskualde hontakoak dira; baita geografiaz ere. Eskualde hau *Lizarrako* me-

rinalde guztiko aberatsena da; herri handiagoak, ortu ederrak, hasi Mendabian eta Azagararaino batez ere. Eskualde honek 229,11 km² eta 24.958 bizilagun ditu.

Biana, Urantzia-ko bost hiriek, *Agilar* eta *Berrotza*-k osatzen dute laugarren alderdi edo eskualdea, Hego-Mendebalean, 438,66 km² eta 10.592 bizilagunekin.

Bianaren barrutian, hiria bera eta beste lau udal-herri daude: Aras, Bargota eta Lazagurria; Urantziako bost hiriak Urantzia (Los Arcos), Armañantza, Sansol, Torres eta El Busto dira; Agilar (Arnotegi ote zen?) deritzan harana ez da benetan haran bat, Agilar, Azuelo, Torralba eta Espronzeda Linares hibaiaren harroan baitaude; Desojo, Odrón hibaiarenean; Marañoñ, Cabredo eta Uxanabilla (Genevilla), Ega harroaren Araba aldean; eta Lapoblación-Meano, Arabako Erriojara begira. Mirafuentes, Nozar, Piedramillera, Mues, Suruslada udal-herriek eta Mendatza udalak hiru herrixkekin osatzen dute Berrotza.

Industria eta herri handi gutiko eskualdea da alderdi hau, Biana eta Urantzia kenduz gero. Bianako hiria, ordea, olaz eta lantegiz betetzen doa eta bere historiaz gainera bizitasun bat hartzen: ikastola, langile arazoak, apaiz burrukalariak, etab.

Lizarra hiria utzi dugu azkenerako. Denetako herrialde natural baten buru izateko ahalmena duena. Lizarra eta Egaalde guztia ez da ez "Mendialdea", ez "Erribera"; klimaz eta beste gauza batzuei dagokienez, Arabarekin kidekotasun gehiago agertzen duen hirugarren zera da. Orain berrogei urte euskal berjabetasun eta batasun baten batzar leku, gure "Estatuto"aren hiri. Gaur, industria poloari esker, hazten doa eta aldatzen, baina ez da erabat aldatu: zeren ostegun batean joatea baino ez baitago, oraindik hirurogei bat herriren azoka herri eta baserritarren tratu eta bilkura leku dela ikusteko. Euskal arnasa ez du behin ere galdu eta hor du hori adierazteko ikastola bat. Azkenengo kontaketa 10.371 bizilagun izan ditu.

Erribera aldeko merinalde biak

Erribera honek herrialde natural bat osatzen du, muga zihurrik gabea, hiri nagusia Tuterara duena. XV. mendean feudal kapritxoak Oliteko merinaldea sortu zenean, *Merindad de la Ribera* izena ere galdu zuen, eta bata Olite hartu zuen eta besteak Tuterara. Bien artean 2.922 km² dituzte, ia Arabak beste: 51 udal eta 117.939 bizilagun. Estatuko banaketetan *partido judicial* bi daduzka: Tuterakoa, honen merinaldearen eremu berberarekin eta Tafallakoa, Oliteko merinaldearen eremuarekin.

Orba harana izango da "erriberatasun natural" batean parferik hartzen ez duena; Alaitz mendikatearen magalean, 23 herrixka ditu 8 udal hauetan elkaturik: Barasoain, Garinoain, Leotz, Oloritz, Untzue, Orisoain, Sansoain, eta Pueyo. Mendi hotza eta lur gogorra, laborantza herriak; gainbehera doa Orba haran hau. Sansoaingo herriak 5 bizilagun bakarrik ditu, eta haran guztiak, 2.041, 207 km²-tan.

Arga behealdea, Oliteko merinaldekoa da, zortzi herriko eskualde luze bat eginaz, Ifarraldetik Hegoaldera: Mendigorria, Larraga, Arga-Miranda, Falzes, Azkoién (Peralta), Funes eta Milagro (azken hau Arago hibaiekin bat eginda gero). Arga Behealde honek, bere lur zabal ederrekin, eta lurren biltzea egin ondoren, badu emaitza ugaritarako aukera. Kontsèrbagintzako olak ere baditu.

Zidakoz hibai harroan ditugu herrialde hontako hiri nagusi bi, Tafalla, oraingo alderdi hauzitegiko hiriburua, eta Olite, merinaldearen hiriburua. Oliteren izen euskalduna Herriberri omen da, eta bere gazteluagatik famatua da. Erriberako atea deitzen diote batzuek. Tafalla industria herri bihurtzen hasi da ola handiekin. Eskualde hontako beste herriak, San Martin-Untz, Uxue, Beire, Pitillas, eta Murillo-Kuende dira.

Arago ibarrean aurkitzen dira zazpi herri, gehienak handiak,

bi merinaldetakoak nahasirik: Murillo-Fruto, Karkaztelu, Santa-kara, Melida, Kaparrotsu, Martzilla eta Alesnes (Villafranca). Erriberako herriak alde guztietatik, Hegoaldetik Bardenak dituz-tela. Ortu herriak gehienak; industria poloei esker kontserbagintza eta metalurgia ola batzuk ere badituzte.

Ebro ibarrean dago Erriberaren hiri nagusia: Tuteran, inoiz Muskaria deitua, euskal izena zelakoan. "La Mosquera" izeneko toki bat badago baina ez Tuteran bertan. Tudela (Tutera, nafar euskaldunen ahotan) herrialde baten hiriburua da; baita nafar mugetatik kanpoko herrialde natural batena ere. Esate baterako, Alhama hibai harro guztiak (beraz, Logroñoeko probintziako Cervera del Río, Alhamako hauzitegi alderdiak eta Alfarok) bere harreman hiria Tutera du. Geografiaz eta ekonomiaz, Errioja baino Erribera gehiago da eskualde guzti hori. Eta Tutera *mai-ruen, judeguen eta kristauen herria da. Aurrenekoek beren mezkita eta sinagogak zituzten eta azkenek, mezkita zegoen tokian, kate-dral ederra jaso zuten. Tuterak bere apezpikuak izan ditu, baka-rrean, Tarazonarekin batera eta azkenengoa Iruñeko laguntzaile bezala. Orain sei urtetik, oso osoan irentsi du Iruñek. Ez ote daude beste lurralde batzuk ere diozesi bat baino gehiagorekin?, gal-detzen dugu. 1785ean eskatu zen diozesiak merinalde guztia har zezala. Olitetik behera Erribera izeneko artzipestazgoa egon da craintsu arte Iruñeko diozesian. Horiek denok (beraz Erribera osoak) osatu behar lukete berriz ere diozesi bat Iruñetik at, Tutera buru duelarik. Tuterak duen gauzarik ederrena "La Mejana" da, Euskal Herriko baratzarik aberatsena. Hiri hontan industria ugari-tzen doa; horri esker, bigarren (edo hirugarren?) euskal po-blamendu bat eta ikastola bat jarri da.

Ebro ibar hortan daude Castejon, Kadereita, Valtierra, Ar-keta (Arguedas), Murillo de las Limas, Fontellas, Cabanillas, Fustiñana, Ribaforada, Buñuel eta Cortes herriak, goitik behera, Logroñoeko probintziaren mugatik Zaragozakoaraino. Eguzkiak go-

gor jotzen duenarren berez lehorrak diren lurrak erregadioari esker busti eta aberasten dira.

Alhama ibarrean daude, lautada zabalean, hiru herri entzutsu: Fitero, Zentroneko (Cintruénigo) eta Kofella, azkena bere berakatzengatik famatua. Eskualde hontan arabiarren aztarrenak nonahi ikusten dira, hibaiazen izenetik bertatik hasita.

Keiles hibaia Tuteran batzen da Ebrorekin, eta Moncayo alderuntz Murtxante, Urzante, Oblitas, Barillas, Tulebras eta Monteagudo (Mendizorrotza?) herriak aurkituko dituzu haren ibar zabalean; handik lasterrera Tarazona, behinolako Turiasu, Aragoi erreinuko apezpiku hiria ibar berberean dagoelarik.

Irati, Sankozako merinaldea

Lizarrako merinaldea Ega harroan kokatzen bada, Sankozakoa antzeratsu Iratikoan: Esteribar, Egues, Aranguren, Elortz eta Ibargoiti haranak izan ezik, hauek Argakoak direlako eta Luzaide, Errobikoa (Nive) delako.

Merinalde honek 2.982 km² ditu, Arabaren antzera, eta 49.314 bizilagun. Estatuak, haurtegi alderdiak sortu zituenean, hiriburu Sankozatik Agoitzera aldatu zuen, erdirago zegoelako edo.

65 udal eta hogeitabi haran ditu merinalde honek, eta joan den menderarte lau alderditan zeuden elkaturik. Labur bederen, ikus ditzagun banan banan.

Aibar, Urraul Garaia, Urraul Behea, Romanzado, Liedena eta Nabaskoize ziren lehen alderdiko haranak. Aibar haranekoak udal herri hauek dira: Aibar, Kaseda, Eslaba, Gallipentzu, Xabier, Leatxe, Lerga, Irunberri (Lumbier), eta Sada; Ezporogik bere barrutian beste sei herrixka ditu. Urraul Garaia (Parditxerria ere deitua), Urraul Behea eta Romanzado udal bakarrekoak dira. Nabaskoiz bikoa eta Liedena herri bakarreko harana da. Eskualde honek merinaldeko Hegoaldea osatzen du eta, haranetik bereizturik

egona bada ere, Aibarko eremuan dago herrialde honen hiriburu ohia, Sankozoa, Irati, Aragoi eta Onsellak bat egiten duten lekuan. Sankozoa azoka herria da ostegunoro, Lizarra bezala, eta Aragoiko "Valdonsella" eskualdeko herriak ere bertara joaten dira. Sankozan ola handiak jartzen hasi dira: papertegi, textil eta abar. Alderdi honek 929,18 km² eta 11.971 bizilagun ditu.

Erronkari, Saraitzu, Aiezkoa, Erro eta Luzaide dira bigarren alderdiko haranak, Pirineo eskualdea beraz. Erronkarik zazpi herri ditu, bakoitza bere udalarekin: Uztarroze, Izaba, Urzainki, Erronkari, Garde, Bidangoze eta Burgi. Saraitzuk udal hauek ditu: Ezkarotze (haran batzar lekua), Espartza, Izaltzu, Eaurta, Otsagabia, Orontz, herri bakarrekoak; Gallozek beste herrixka bat du bere udal barrutian; Guetzak bi; Sartzek beste bat. Aiezkoako bederatzi herriak Abaurregaina, Abaurreapea, Aria, Aribere, Garaioa, Garralde, Orbaizeta, Iriberrri eta Orbara dira bakoitza bere udalarekin; Erro edo Erroibarko hamaika herriak udal batean elkaturik daude; Luzaide haranak herri bakarra du, Garazi aldera begira, Pirineoen bestaldean.

Eskualde honek baditu beste bi herri ere: bata Orreaga, Pirineoaldearen bihotz izpirituala, eta bestea Auritze (Burguete) zelai eder batean, bakarrik, eskualde buru izateko toki aproposan, hortarako zerbitzuak jarritz gero. Pirineo-alde honen zabalera 1.169,61 km²-koa da, 8.425 bizilagunekin.

Artzibar, Lizoain, Egues, Arriasoiti, Longida eta Esteribar haranak dira hirugarren alderdikoak. Artzibarko herrixka guztiek udal bat dute, Oroz-Beteluk izan ezik; honek berea du. Lizoaingoak ere batean daude elkaturik, Urroz izan ezik. Longidakoak ere bai, Agoitz hiriburua izan ezik. Esteribarkoak ere bai, Larraosaña izan ezik. Arriasoitikoak Lizoaingoan daude elkaturik. Eguesen haraneko 15 herri elkaturik daude, Uhartea eta Burlada haranetik bereizirik.

Alderdi hontako Esteribar eta Egues Iruñealdeko gehiago

dira beren merinaldeko baino. Egues harana eta, batez ere, Burlada eta Uharteko ateetan baitaude. Esteribar, berriz, Arga garaian; geopolitika zentzu pixka batekin, Nafarroa Behererako eta handik Lapurdi, Zuberoa eta Europarako bide izan behar luke. 559,29 km² eta 22.824 bizilagun ditu.

Elortz, Aranguren, Ibargoiti, Izagaondoa eta Unziti dira laugarren alderdikoak. Elortzeko herrixkek udal bakarra osatzen dute, Tiebas eta Elo (Monreal) hiritxoak aparte daudelarik. Beste lau haranetako herrixkak haran-udaletan elkarturik daude. Alderdi hontako Elortz, Aranguren eta Ibargoiti Iruñaldera begira daude, Iratialdera baino gehiago. Hain zuzen ere, Elizak —eta honek beti izan du politika erakundeek baino bizkortasun gehiago lurralde antolaketak aldatzeko— hiru haran horiekin osatzen den artziprestazgoa (Ibargoiti izenekoa) Iruñaldeko bailaran sartu du, eta baita Esteribar artziprestazgoa ere (Esteribar eta Egues haranekin osatzen dena). Iruñaldeko herriak izan ezik, gainbehera doa alderdi hau. 288,51 km² eta 5.217 bizilazun ditu.

Mendialdea, Iruñeko merinaldea

Merindad de las Montañas edo *de la Montaña* deitua, gero Iruñekoa; gaur hiriburuari hauritegi alderdi berbera osatzen du. 2.450 km² eta 232.920 bizilagun, 77 udaletan. 23 haran, 5 *zendea eta Iruñeko hiria, sei alderditan. Diputazioak Nafarroako eskualdekatzea egin aurretiko alderdi zatiketa historikoari jarraituko diogu bestean bezala, baina zerbait aldaturik. Aldakuntzak aipatuko ditugu.

Iruñerria, Gonka, deitzen zaio zendeen eskualde honi. Iruñebera eta *Ansoain, Iza, Zizur, Galar* eta *Oltza*, zendeekin osatzen da. Hemen zatiketa historikoari aldakuntza bat egin diogu: lehen *partido* edo alderditik Ilzarbe harana atera çugu, eta bigarreneko Oltzako zendea sartu. Inguru hori pixka bat ezagutzen duenak

argi ikusiko du horren arrazoia. Elizak *arciprestazgo de la Cuenca* osatzen du zendeekin. Eta zer dira zendeak? Herri mordoxka baten elkarte bat, udal bat osaturik. Jenaro Iraizoz Unzue-k, *Navarra*.—*Temas de cultura popular*.—123 liburuxkan ederki azaltzen du eskualde hau. Azalpen hauek guk nahi baino laburragoak izan behar dutenez, irakur bedi liburu hori. Eskualde hontan sar daitezke, lehen aipatu bezala, Egues, Ibargoiti, Aranguren, Elortz eta Unziti.

Baina eskualde honen ardatza Iruñe (Iruine?) da. Eta ezin gaitzke ardatz hori aipatu gabe igaro, Euskal Herriaren bihotza baita. Lizarrako Estatuto hartan, eta hiru mende lehenago Johannes Etxeberri Ziburukoak esan bezala, Euskal Herriaren hiri buruzagia da. Ez dugu hori asko gogoratzen eta gutien, beharbada, nafarrek eta iruñarrek. Iruñek azken kontaktetan, 1970.ekoan, 147.168 bizilagun zituen. Hiriburua eta eskualde guztia industrializatzen doa pausu ikaragarritz. Honek beste bizitasun bat eman dio hiri lebitiko horri; orain hirigintza egoki batek *ganorazko handitze bat emango ahal dio berari eta bere eskualde horri.

Bost zendeok eta hiriak 258,76 km² dituzte eta 161.596 bizilagun.

Etxauri eta Olo haranekin bakarrik gelditzen gara, lehenago bigarren alderdiarekin: Gulina harantxoia Izako zendeak irentsi baitzuen aspaldi eta Olza zendea Iruñaldean sartu baitugu. *Ilzarbe*, berriz, hona pasatzen dugu. Arakil ordea, hirugarrenekorako uzten dugu. Etxauri, Olo, Ilzarbe eta, geografiaz Lizarrako merinaldekoa den Goñirekin eskualde bat osa daiteke, behinolako bigarren alderdia baino egokiagoa. Lizarra eta Iruñe bitartean transizio eskualde bat da, eta Ilzarbe bera "Perdon" aldatzaren bestaldean, era batetan behintzat, Lizarrari begira dago; horregatik sartuko zuen diozesi zatiketak Lizarrako herrialdean. Eskualde honek 243,98 km² eta 6.221 bizilagun ditu.

Olo haranako bederatzi herrixkek udal bakar bat osatzen

dute. Etxauri haraneko udalak Belaskoain, Ziritza, Etxarri, Etxauri, Bidaurreta eta Zabaltza dira. Ilzarbe haranekoak hamaika hauek: Muruzabal, Obanos, Adios, Añorbe, Biurun-Olkoz, Ene-ritz, Legarda, Tirapu, Ukar, Uterga eta Gares (Puente la Reina). Azken herri hau bakarrik da pixka bat kaskondua, Iruñe-Lizarra-Logroño bidean, Argaren ibarrean zerbait hazteko aukera ona duena. Besteak baserri herri hutsak, husten doaz.

Burunda, Ergoiena, Arakil haranek osatzen dute hirugarren alderdia; ez baitago dudarik Arakil, lehen beste batean bazegoen ere, gaur eskualde hontan hobeki dagoenaz. Eskualde honi "Barranca" izen gaiztoa zabaltzen ari zaio, Sakana euskal izenaren orde. Burundan sei herri daude, bakoitza bere udalarekin: Ziordia, Olazagutia, Altsatsu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaikoa. Ergoienako hiru herriak udal bakarrean elkartzen dira. Arakilen ordea, hamalau herri udal batean elkartzen dira, Irurtzun herri nagusia delarik; eta gero, "hiri separatu" bezala Irañeta, Uhart-Arakil, Arruatzu, Lakuntza, Arbitzu eta Etxarri-Aranatz. Eskualde hau Euskal Herriko tokirik egokienean dago: Iruñetik Bilborako bidean, eta Gipuzkoa, Araba eta Egaaldearekin muga egiten duelarik. Bide azpiegiturak ere ongi laguntzen dio. Sakanak berehala behar du hirigintza on bat bere desarroiloaren oinarriak ongi jartzeko. Gainerakoa etorriko zaio, industriak etortzen ari baitira. Eskualde honek hiru ardatz herri ditu: bide gurutzetako Irurtzun eta Altsatsu eta erdian, zerbitzu hiri bezala, Etxarri-Aranatz. 328,82 km² eta 19.578 bizilagun ditu eskualde honek.

Imotz, Basaburua Nagusia, Larraun, Basaburua Gutia eta Araitz haranek osatzen zuten laugarren herrialde hontako alderdia. Lekunberri herri nagusitzat harturik, eskualde honek badu hizkuntzaz eta ekonomiaz homogeneitasun bat. Imotzeko haranak udal bakarra egiten du bere zortzi herrixkekin, Etxaleku buru delarik. Era berean Basaburua Nagusiak bere hamabi herrixkez, Jaunsarats hiriburu duelarik. Eta Larraunek, bost haranen erdian,

hamabost herrixka ditu eta buru, Lekunberri. Basaburua Gutia haranaren batasuna deseginik dago, eta geografiaz behin ere ez da izan haran bat, hiru harrotan baitaude honen herri historikoak, Oria, Urumea eta Bidasoakoetan. Leitze, Areso, Goizueta eta Arano uzten ditugu Basaburu Gutian; Ezkurra, Erasun, Saldias eta Labaien Baztan-Bidasoa eskualderako utziaz. Araitz haranak udal bat du, baina bere eremuan Betelu hiri separatua duelarik. Alderdi honek 467,79 km² ditu eta 10.027 bizilagun. Gipuzkoaren hurbiltasuna aprobetxatzen badu, etorkizundun eskualdea. Dagoenerako Leitze eta ola batzuk jarriak dira, orainarteko baserri gizarte egiturak aldatzeko arriskuan.

Atez, Odieta, Anue, Olaibar, Ezkabarte, Txulapain eta Ultzama zazpi haranak, Iruñeren Ifarraldean; denak udal bakarrekoak, Anue izan ezik: hemen udal haranetik at Lantzeko hiri separatua baitago. Merinaldeko bostgarren herrialdea egiten zuen alderdi honek 307,99 km² ditu eta 4.553 bizilagun. Ez du batasun gehiegirik, eta Iruñeren hurbiltasunak hona jo erazten ditu harreman guztiak. Baserri herri hutsak ia denak.

Baztan-Bidasoa eskualdean, Baztan berak, Bertizaranak, Leringo Doneztebek eta Mendialdeko Bortziriak osatzen zuten merinaldeko seigarren alderdia, oso egoki egina, Bidasoa harroko haranak hartuaz. Baztanek udal bakarra, baina hamabost herri ditu, Elizondo hiriburu duelarik. Ezinbestean-edo, Zugarramurdi eta Urdazubi udalak baztandartzat jotzen dira, nahiz eta Otsondo lepoaren bestaldean egon eta lapurtarrago izan. Bertizaranako hiru herritxoek udal bakarra egiten dute. Leringo Doneztebe haraneko herriek bakoitzak bere udala dute, eta hauek dira: Doneztebe bera (Santesteban), Elgorriaga, Donamaria, Ituren, Oitz, Urroz, Zubieta eta Sunbilla. Gaur haran hontako bezala jo daitezke Labaien, Saldias, Erasun eta Ezkurra ere, harro bereberean baitaude. Mendialdeko Bortziri edo Bost Hiriak, Igantzi, Etxalarre, Lesaka, Arantza eta Bera dira. Eskualde honi. Baztan-Bidasoa

izenez deitzen hasiak dira eta ez dago gaizki jarria. Herririk gotorrenak Elizondo, Lesaka eta Bera badira ere, eskualdearen zerbitzu hiriburua Doneztebek izan beharko du, erdian dago eta. Laurak industrializatzen hasiak dira, Diputazioaren poloei esker. Baztan-Bidasoa eskualde hau XVI. menderarte Baionako diozesikoa zen, eta hizkuntzaz ere gehienbat lapurtarra da. Gaur ere, Estatuaren mugak, eta historikoak ere, besterik adieraziarren, badu nolabaiteko lapurtartasun bat. Baztan-Bidasoak 835,71 km² eta 22.491 bizilagun ditu.

Lapurdi

800 km² eta 166.000 bizilagun, guti gora-behera, zeren Frantziako estadistiketarako ez baitago Lapurdirik. Bestalde, kantonamenduko, Frantziako eskualde banaketako kontaketeke ere ez dute baliorik; zeren Lapurdi eta Nafarroa Behereko herriak nahasirik baitaude kantonamendu berberetan. Guk, gaurko bertako ekonomilari eta herri gizon batzuek —Ramuntxo Camblong eta bestek— egiten duten antzera, bi herrialdetan banatuko dugu Ifar Euskal Herria; baina ez Kosta eta Euskal Herri Barna deituaz. Hemen ez gatoz bat haien iritziekin: zeren Arabako Lautada ere Euskal Herri Barna baita, eta Bizkaia eta Gipuzkoa ere “Kosta” baitira. Horregatik, Lapurdi hartuko dugu alde batetik eta Zibero-Nafarroa Beherea edo, laburtzeko, Zibero-Nafarroa, bestetik.

Itsas hegi hutsa hartzeak herrialde mehegia egingo lukeenez, Lapurdi osoa hartzen dugu bere muga historikoetan, Nafarroa Beherearekiko mugei dagokienez, eta Aturi eta Gabe d'Oloron hibaiek bat egiten duten inguruetaraino. Landesei dagokiena gero aipatuko dugu.

Lapurdik eskualde historikoen tradizioz ez duenez, eta bertakoek saioen bat egin arte, kantonamendu eskualdeei jarraituko diegu.

Baionako kantonamendu biek, Ifar-Ekialdekoak eta Ifar-Mendebalekoak, herri hauek hartzen dituzte: Baiona, Angelu (Anglet), Bokale (Boucou), Lehuntze, Mugerre, Hiriburu (St.-Pierre d'Irube), Urketa, Arrangoitze, eta Basusarri.

Miarritzeko kantonamendua: Miarritzek bakarrik osatzen du.

Hiru kantonamendu hauek hartzen dute Lapurdiko eta Ifaraldeko Euskal Herriaren eskualderik garrantzitsuen alde guztietatik. Bizilagunik gehien, dagoen industriarik gotorrena ere bertan dago, eta hiriburu nagusia, Baiona, ere bai. Departamendu baten, "euskal departamendu" baten aministratzen hiriburutza, bestela ere nolabait denek onarturiko hiriburua den Baionari dagokio.

Donibane-Lohizungo kantonamenduak, Donibane-Lohizun, Askain, Bidarte, Biriatu, Ziburu, Getharia, Hendaia, eta Urruña herriak hartzen ditu, Lapurdiko Hegoaldeko Kostalde guztia alegia. Bigarren eskualdea garrantzitasunean; turismoari industriari baino askozaz gehiago lotua, tamalez; Estatu mugen trabak kenduaz, lortuko ahal du noizbait desiratzen duen ekonomia egituren aldaketa.

Ezpeletako kantonamendua, Ainhoa, Kanbo, Ezpeleta, Itsasu, Luhoso, Sara eta Zuraide herriek egiten duten eskualdea da. Kantonamendu hiriburua Ezpeleta bada ere, herri nagusia eta gotorrena Kanbo da, turismoari esker. Eskualde hau nolabait deitezekotan, Lapurdi Garaia deituko nuke.

Ustaritzeko kantonamendua, Ahetze, Arbona, Halsu, Jatsu, Larresoro, Senpere, Ustaritze eta Milafranga herriek osatzen dute. dudagabeko hiriburua Lapurdiko Biltzarren hiria, Ustaritze, delarik. Errobi hibaiaren erdialdea hartzen du gehienbat.

Hazparneko kantonamenduak, Lekhuine (Bonloc), Hazparne. Makea eta Mendiondo (Lekorne) lapurtar herriak hartzen ditu, Lapurdiko Ekialdean. Hemen Hazparnek izan du industria tradi-

zio bat, azkenotan igotzen joan beharrean, gainbehera joan dena. Bertako eskolatik atera dira herri gizon iratzartzaile batzuk.

Bardoze eta Gixune, Bidaxuneko kantonamendukoak, eta Be-rezkoitze eta Ahurti, Bastidako kantonamendukoak, lapurtarrak dira, Lapurdiren Ifar-Ekialdean. Bidaxuneren (Bidache), Gramontarren domeinuko izanaren arrazoi feudotiarrak birkonsideratu behar lirateke, gaurko harreman eta ekonomia aldeei eta interes geopolitikoei begiraturik, euskal muga "Gave d'Oloron" hibairaino eramanez. Lapurdi ala Nafarroa-Behereari atxiki eskualde hori? Bertakoen estudioek eta geroak esan bezate.

St-Martin-de-Seigneux kantonamendua Baionako Komerzio Ganbarak hartzen du, Landesetako departamendukoa bada ere. Eta, egia esan, eskualde hori (Tarnos eta inguruko herriak hartzen dituena) Baionako interlandekoa da eta ez Mont-de-Marsan-ekoa. Lapurdi izena Baionako "Lapurdun" izen zaharretik baldin bada-tor, bere inguru natural guztia hartu behar luke: Aturi hibaiak Hegoalderuntz itzulia egiten duen ondotik, Boucou-Vieux-erainoko mugatik Hegoalderuntz. *Recherces sur la Ville et sur l'Eglise de Bayonne*, Veillet-Dubarat-Daranatz-en eskulan eta oharren hiru tomoetan, Baionaren Boucou-Vieux-erarteko jurisdizio eta esku-bideen berri ematen da. Eskualde hau hondar hutsa zen ia dena lehenago; baina gaur Baionaren espansioaren lurralderik aproposena. Noizbait Frantziako Estatuko "citoyen" euskaldunek departamendu bat lortzen badute, eskualde hau euskal eremuan sartzen ahalegindu behar lukete. Gaskoinak bizi direla, bai Baiona, Angelu, Bastida eta abarrean ere... Eta gaskoinek ez ahal dute, bada, euskal sustrairik?

Zibero-Nafarroa Beherea

Londresen 1940ko Azaroaren 30ean egindako Arautegiaren 7. artikulua dioen bezala, euskal herrialde biak elkartzearen posi-

bilitatea ere ikusi behar genuke. Eta Bureba-Oka bezalaxe, Zibero eta Ifarraldeko Nafarroa hobeki daude, beren lur zabalera eta bizilagunengatik, elkartzeko, fusionatzeko. Lehen “Basses Pyrénées” zeritzan departamenduak, “arrondissement” edo “subprefecture” bi zituen: bata Baionan, lapurtarrentzat, eta bestea Maulen, zibero-baxenafarrentzat. Gaur, ordea, Mauleko “subprefecture” hori ere kendu egin dute eta Ziberoa gehiena Oloroekoan sartu dute.

Bien artean 2.069 km²-ko zabalera dute eta 55.000 bizilagun. Zabaleran, beraz, Gipuzkoa Bizkaiaren neurria. Biztanlez biak bat eginda ere ez asko, gaurko ahulezia egoeran.

1963ko Apirilaren 15ean Lapurdiko Itsasun eskatu zen euskal departamendu bat, Frantziako Errepublikaren legedi barnean, lehen urrats bezala. Gure ustez administrazio urrats honek garrantzi izugarria du eta ez du harrez gero baliorik galdu. Gehiago oraindik —eta barka bezate Pirineo bestaldeko anaiek—, ez dut uste departamendu behar hori behar den beste haizatu denik. Alderdi desberdinek ikusi behar lukete hori, eta kontseilari jeneral eta auzapezen eskabide bat bihurtu, administrazio erako planteamendu batekin. 1963az gero sortu dira Frantzian departamendu berriak; baina euskal departamendua gutiegi aipatu da.

Departamendu horrek “chef-lieu” delakoa Baionan, Lapurdin, beharko lukeenik inork ez du eztabaidan jarriko; baina, era berean, ongi legoke bigarren herrialdean beste “subprefecture” bat, “arrondissement” delakoaren zerbitzu eta administrazio banaketa batek ematen dituen aukerez baliatzeko. Non ordea? Gure ustez Donibane-Garazin, ez Maulen. Arrazoia geopolitikoa da: zeren Donibane-Garazi Baionatik eta Iruñetik hurbilago baitago, bien tartean, eta bestea berriz, Donapaleu dagoen bezala, ertzean. Nafarroako Diputazioak dituen ahalmen asko gaur Europara begira jartzekotan ditu, eta ezin du bere lehengo merinaldearen hiriburua ahazturik utzi, Europarako bidean.

Nafarroa Behereko merinaldeak zazpi “pays” edo eskualde

zituen: Baigorriko harana, Orzaize (Ossès), Garazi (Cize), Iri-sarri, Arbela (Arberoue), Oztibarre (Ostabaret) eta Amikuze (Mixe). Ziberoak: Basaburia (Haute-Soule), Arballa biak, eta Petarra (Basse-Soule).

Baigorri-Orzaize lehengo eskualde biek, gaur kantonamendu-
eskualde bakar bat osatzen dute, Baigorriko hiria (St. Etienne-de-
Baigorri) hiriburu delarik. Hamaika herri dira guztiz: Aldude,
Banka, Urepele, Baigorri, Irulegi, Lasa, Anhauze, Azkarate, Or-
zaize, Bidarra, Arrosa.

Eskualde honek badu estudio interesgarri bat, euskaraz egin-
dako bakarra guk dakigularik. Ekonomia, historia, zerbitzu eta
abar aztertzen ditu lan honek. Baionako Euskal Museoa dago
salgai; honen titulua *Baigorriko kantonamendua*. Eskualde hon-
tako eta Garaziko ardiak baturik 100.000 buru inguru dira. Ardia
da, beraz, aberastasunik nagusiena.

Nafarroa, Euskal Herritik Europara sartzeko eskualderik
egokiena da. Bertako herri gizonek eta Iruñekoek badute hortan
lanik.

Garazi, merinaldeko eskualderik handiena, hiriburua bertan
aurkitzen delarik; Donibane-Garazi, euskal herrialdeetako hiri-
bururik tikiena, baina politena. Herri eta herrixka asko ditu esku-
alde honek: Ahatsa, Aintzila, Ahinhize, Alzieta, Arnegi, Bazka-
zane, Behorlegi, Duzunaritze, Buztintze, Zaro, Ezterenzubi, Ga-
marte, Iriberry, Izpura, Jatsu, Laxarra, Lekunberri, Mendibe,
Monjolose, Donazaharre (St-Jean-le-Vieux), Eihalarre (St. Mi-
chel), Sarrasketa, Suhuskune, Uharte-Garazi, eta Donibane-Garazi.

Ur ugari, zelai zabal, baso eta oihan eder, denak baserri
hutserako eta, frantximenten zerbitzuan dauden garaztar kazikeen
eraginez, paristarren turismo gozamenerako. Bienbitartean herriak
gainbehera, herritarrak Ameriketara, eta Nafarroako Foru Dipu-
tazio jauregian "seigarren" merinaldeko *harmarriak bakarrik,
sinboluak egintza bihurtu gabe.

Garazik 17.000 Ha.-ko eskualde lur komunak ditu, herrien arteko Sindikatu baten bidez eramaten direnak.

Arbela-Oztibarre eskualdeek —Irisarri ez baita, egia esan, eskualde bat, hiru herriko “enklabe” historiko bat baizik—, aurreko bien artean, gaurko Iholdiko kantonamendua osatzen dute gehienbat. Horregatik eta merinaldearen erdialde hartzen dutelako, batera jarri ditugu.

Aiherra, Heleta, Isturitze, Mehaine, Donestiri (St. Esteben) eta Donamarthiri, dira arbeldar herriak, Bastida (Labastide-Clarence) hiritxoa ere geografiaz eskualde hontakoa delarik. Irisarri, Armendaritze eta Iholdi dira Irisarrikoak. Oztibarrekoak: Arhantsusi, Arroze, Azme, Buruze, Zibitze, Hozta, Ibarre, Ibarrola, Jutsi, Larzabale, Izura (Ostabat), Phagola, Donaixi (Saint-Just) eta Landibarre.

Oztibarrek eskualde lur komunak ditu, Amikuze, Baigorri eta Garazik bezala. Arbela-Oztibarrek argiro erakusten du bere ekonomiaren ahulezia nabarmena, herririk handienak ere mila bizilagun ez dituelarik.

Amikuze da merinaldeko ifar eskualdea, hogeitamaika herri eta herrixka barnean dituelarik: Aiziritze, Amenduze, Amorotze, Arberatze, Arboti, Arruta, Behauze, Behaskane, Mitxiriña (Beyrie), Bizkai, Gamue, Sarrikota, Gabaldi, Garruze, Ilharre, Labetze, Laphizketa, Larribarre, Lukuze, Martxuta (Masparraute), Unaso, Oragarre, Ostankoa, Donapaleu (St. Palais), Zilhekoa, Sorhapürü, Zokhozü, Zohazti, Alzumarta (Sumberraute), Zohota eta Uharte-hiri.

Donapaleu da eztabaidarik gabeko hiriburua. Ostiral guztietan izaten da bertan merkatua. Amikuze lehen laborantza eskualdea zen, baina orain abelgorrietara aldatu da eta baita hegaztietara ere. Artoa, herrialde guztian bezalaxe, eskualde hontan ere asko

ugaritu da, nahiz eta gero Baionako portura bidali behar, Frantziako Ifarraldean komertzializatzeko, bertan hortarako industria-rik ez dagoelako.

Amikuzek, bere eskualde lur komunei *onura gehiago ateratzeko, egitura berriztatzeko bat egiten dihardu. "Lur Berri" deitutako koperatibak bere lana egin du Amikuztar baserriaren alde.

Basabürria da Ziberoa garaiko eskualdea, Atharratze ("Agur Ziberoa" kanta famatuko herria) hiriburua eta kantonamendu buru duen lurrik. Alderdi bitan banatzen da eskualde hau: Ibar-esküina eta Ibar-exkerra. Ibar-esküineko herri edo herririk hauek dira: Alzabeheti, Altzai, Aloze, Arhane, Gamere, Sarrikota-gañia, Zihiga, Lakarri eta Zunharreta. Ibar-exkerrekoak: Omize-gañia (Abense-de-Haut), Atherei, Etxebarre, Hauze, Liginaga, Larrañe, Lexantzü, Ligi, Montori, Asië, Santa Grazi, Zihoze, Sorholtze, Zünharre, Iruri (Trois-Villes) eta Atharratze (Tardets). Barkoxe ere (berez aparte dagoen herria) Basabürriar bezala jotzen da.

Oraintsu hasi da Ziberotar eskualde hau jendea ezagutzen eta bertara jaoten, hango pastoral, maskarada eta kantariengatik. Euskaldunok badugu gure bazterrak ezagutzeko premia, baina ezin gaitzeko "typical" ezaguera batekin geldi; haien giza-ekonomia, euskalki, historia eta abar ere ezagutu behar dugu, batzuetan ohi dituzten arazo larri guztiekin. Eta Basabürria honek badu larritasunik: jendea urritzen, baserriak hutsik, bordetan mutilzaharrak desesperaturik bere burua hiltzen, Sakonki ezagutu behar dugu Basabürria, berez hain eskualde ederra. Atharratze hiriburua oso herri atsegina da.

Arballa biek, handiak eta txikiak, egiten dute ziberotar bigarren eskualdea, erdi aldekoa. Hamabost herri dira guztira. Arballa handian: Gotañe, Idauze, Irabarne (Libarrenx), Mendikota, Mendi, Ozaze, Arrokiaga, Donaztebe (St.-Etienne) eta Zalgize; Arballa txikian: Alzürükü, Garindañe, Muskildi, Urdiñarbe, Phagola, eta Zühara.

Arballa oso eskualde apala da; mila bizilaguneko herri bat ere ez du, ez eta hiriburu ezagunik. Bitarteko eskualde bat da, guztiz baserrira lotua eta zeharo industriarik gabea.

Pettarra, frantzesez "Basse-Soule": Ziberoa-Behea beraz. Herri eta herrixka hauek hartzen ditu; Onize-pia (Abense-de-Bas), Añharbe, Arüe, Urrüxtoi, Berhueta, Berrogañe, Sarrikota-pia (Charrite-de-Bas), Sohüta, Domintxaine, Ezpeize, Etxarri, Jesta-ze, Ithorrotze, Larrabile, Larrori, Lahüntze, Ospitale-pia (L'Hopital-Saint-Blaise), Lextarre, Lohitzüne, Mendibile, Mithikile (Moncayole), Olhaibi, Oseraiñe, Oihargi, Erribareita (Rivareyte), Undüreñe eta Bildoze.

Maule dago Pettarraren hasieran, eta hiri hori da Ziberoako hiriburua. Gaurko frantzes administrazgoarentzat Ziberoan bi eskualde daude, bi kantonamendu. Atharratzekoa eta Maulekoa; eta alde batetik horrela da: esan dugun bezala Arballak ez baitu hiririk. Bestalde, Atharratze eta Mauleren inguruan egiten da Ziberoako bizimodu harreman gehiena.

Maulek badu industria apur bat, *oski eta abarketa industria. Orain bestelako olak ere jartzekotan dira. Ea, hortara, ziberotarren herbesteratzea gelditzen den. Txarrena, ohitura hartua dutela, Pariserako bidea ikasia, eta bienbitartean portugesak ugaritzen doazela Maulen bertan.

Euskara galtzen ari, portugesa gehiago entzuten da Mauleko kaleetan. Ikastola jartzerakoan sendotuko da zerbait Ziberoko hizkuntzaren egoera. Orain lau urte Euskaltzaindiaren batzarra egin arte, ez zen eman Maulen euskarazko mezarik. Lotsagarria bada ere, egia.

Maulek eta Ziberoa guztiak beste arrisku bat dute, Oloroera eta Parisera begira egotea. Aipatu dugu Ziberoa Oloroeko "arrondissement" edo "subprefecture"koa dela; areago bada, Ziberoa Pabeko Komerzio Ganbararen barrutikoa da, eta ez Baionakoa. Oskitxeko lepotik Mendebalera —Donibane-Garazi eta Baionara—

begira jartzeko, ekonomia, egitura eta konzienziatze bat behar du Ziberoak.

Lanestosa-tik... Barkoxe-raino

Eta gaur Euskal Herritzat hartzen den eremuaren beste ertzera heldu gara eta, beraz, lan honen amaierara. Mendebaleren dagoen Lanestosa herrian hasi baginen, Barkoxen bukatu behar dugu.

Maule eta Atharratzen ondoren Barkoxe dugu Ziberoako herririk handiena. Gainera euskaltasunaren gaztelu hirmoa dugu, han egiten baitu muga biarnes hizkuntzarekin. Pastoral, maskarada, bertsolari eta kantarien habia goxoa. Barkoxtarrak ditugu Beñat Mardo, Etxahun Barkoxe, Attuli, Etxahun Iruri (erdi barkoxtarra); eta herritarrak oro, kantari paregabeak eta ohiturei atxikiak.

Toki zelaitsu batetan kokatua, menditto apalez inguratua eta Pirineoak ez urrun ageri. Herri garbi eta xarmanta. Barkoxe eta barkoxtarrak zer diren jakin nahi baduzu joan gustuan, eta ongi hartua izanen zara. Ez dukezu damu.

gizonak

EUSKAL ETNIA ETA JATORRIA

Joxemiel Barandiaran

Beste herrien artean aski *Iarmendua ageri zaigu Euskal Herria. *Hezikera berbera duten gizakien elkarte bat bezala: etnia bat, alegia.

Ibilaldi luzea darama bere lurralde hontan. Aldiz-aldi astinketa eta gora-behera asko erabili ere bai. Baina bere era bateraino heldu zenez gero, bere haria hautsi ez duela dirudi.

Ibilaldi horren maila batzuk, batez ere *idatzaroa baino lehenagokoak, agertu nahi ditugu hemen.

LEHENEN URRATSA

Orain dela 50.000 urte bazebiltzen gizakiak lurralde hauetan.

Ingurua: orain bezalatsu eratu, toki lauak ez asko, menditsuak gehien, irteera aski idekiak ordea *garakoaldera nahiz bestera.

Lurrazala *larrekiz, *zuhamuxkaz eta *haizkorritz eginikoa ageri. Lurpean ordea *arbel-zorua han-hemen; *hargorritzkoa askotan; gehiagotan *arrauka-harriak, leize eta *lurruspe ugarirekin.

Iturriadar eta hibaiak Pirinio gailurretik beheruntz aldebietara.

Giro gordina, biziki hotza, goiko mendiak elurrez jantziak

gehientsu, izoztea denetan nagusi: *Wurm* izeneko izoztea, alegia. Erdi-paleolitos-haroa zen orduan, bere azkenaldian ordea.

Homo primigenius diogun *giza-azkazia edo enda zebilen hedatua hemen garai hartan: bekoki atzerantz zanpatua zuen, bekain irtenak, okotz *tuturgabea eta buru luzea.

*Harpeak bere etxe eta babesleku: Bizkaiko *Axlor*, Gipuzkoa-ko *Lezetxiki*, Lapurdiko *Olha*, Behenafarroako *Izturitz* edo *Laminazilo*, Zuberoako *Gatxarria* eta, dirudienez, Nafarroako *Koskobide*.

Inguruan, ahuntzak, basahuntzak, *orkatzak, *oreinak, zaldiak, behiak, bisontek, *arrangiferak edo errenoak, *adarbakarrak eta zenbait lekutan *Elephas* iledun handiak. Gainera, piztiak: *hartz, *katamotz, lehoi, etab.

Lurralde hortan, inguru hortan eta giro hortan zebilen gure aurreko gizaki hura.

Inguruko *ihiziak eskuratuaz bizi zen. Hortarako bazituen laguntzak eta lankaiak: sua eta harrizko nahiz hezurrezko eta —zihurki— zurezko lanabes eta *izkiluak; gainera elkarte, *uxa-ehiza egin ahal izateko.

Beraz bizpauru bizikera edo lanbide hemen: batzuentzat ehiza; besteentzat esku-langintza eta. Lanen eta langileen bereizte honek jarraitu du gaurdaino.

Harriz, hezurrez eta adarrez egindako *lanabes eta izkiluak; zurezkoak ere bai ugari, ezin uka. Baina *suharrizkoak eta beste harri gogorrezkoak ageri dira gehien. Haizkoraren tankera zuten batzuek, *marraizkoarena, ziriarena, *karraskailuarena, *garrangarena eta *gezi-mihiztoarena beste askok. Lehen aipatu ditugun harpeetan lanabes horiek *ausarki argitarazi ditugu azterketen bidez.

*Antze-jakintzaz egindako eskulanak denak: batzuk ehizerako; zura lantzeko eta okela ebakitzeko beste asko. Sua berriz

berak eta beren bizilekua berotzeko, janaria gozatzeko eta piztiak izutzeko.

Elkargoak nola *zurajetuak ziren ez dakigu; baina ihizi handiak eskuratzeko, lagunalde ona behar zela, ez da zer esanik. Etxeaz gain hauzologuntza-eta beharko uxa-ehiza egiteko; bestela ezin zitezkeen eskura larri lodiz jantzitako ihiziak: adarbakarra, bisontek, zezenak, etab.

Aspaldiko gure gizaki haiek ba ote zuten jan-edanen gurariari edo horrela, ihizi-mailan, ditugun *aiherrei eragiten dien galde edo buruhausterik?

Bide hortan ezaugarri berezirik bilatzen ez da erraz. Gai hauek ez bait dira harri eta *mehak bezala, ezta hezur fosilduak bezala ere, harribihurturik irauten duen zerbait. Arauak, asmoak eta gizabidearen oinarriak, hots, gizakiari, gizaki denez, sortzen zaizkion galde eta erantzuerak aipatu ditugu. Zail da beraz harrizko edo harri bihurturiko aztarnetan gai hauen oihartzunik entzuten edo irakurtzen.

Halaz ere, agerketa batzuek lehen-gizonen zenbait gogoeta sakonen susmoa dakargutela dirudi. Bizilekuetan, jan-hondarrak ez-ezik, badira beste gauza bereziak ere: *lurgorriak, *harloreak, *berun-harriak etab. Gauza bitxi horien bilketak ez dirudi *hazkurriketa edo antzejakintzaren eskariz sortua zenik, hauei eragiten dien indarrez baino.

Zenbait lekutan —Euskal Herritik harat, ez urrun— garai hartako hildakoen giza-soinak arduraz ehortziak agertu dira, beren *kutun, *babesgarri eta margoz inguratutik. *Jan-bilketari eta antze-lanari eragiten zion gogoeta zebilela bide hortarik esan liteke: gizabidea oinarritzen eta zurajetzen zuen *azti edo erligio-araua, alegia.

BIGARREN URRATSA

Gure aurrekoen *izearoan beste urrats nagusia: *goien-paleolitos-haroa* (Kristo baino 40.000 urtez lehenagotik 8.000 arteraino).

Mendez-mende gizakiak aldaketa handia egin zuen, nahiz-eta lehengo giroak jardun: *Wurm* izozteak, alegia, bere elurte eta beste ondorenekin. Batez ere otzetako ihiziekkin eta zuhaitzekin —*urritz, *lerra, *haltz, *zumar, *txilar, etab.—.

Giza-enda ere ez da lehengoa, *Homo sapiens sapiens* edo *Cro-Magnon* baino: soin luzea, dolikokefalkideko burua, aurpegi zabala, bekain apala, bekoki irtena, okotz-tutur zuzena. *Gizaki honen aldaketen ondorena dugu euskal azkazia.*

Inguruan ihizi-mota asko: errinokeroa edo adarbakarra, arrangifera, zezena, bisontea, zaldia, *oreina, basahuntza, *orkatza, ahuntza, basurdea, *hartza, otsoa, etab.

Bizilekuak, gaurdaino dakizkigunak, hauek: *Laperra, Arenaza, Atxeta, Santimamiñe, Lumentxa, Abittaga, Bolinkoba, Goi-kolau, Urtiaga, Ermittia, Ekain, Altxerri, Aizpitarte, Torre, Alkerdi, Lezia, Duboskoa, Basté, Irubeko Jondonipetri, Izturitz, Etxeberri, Sasixiloaga*, etab. Itsasotik 500 metroz gorago, ez. Ihizien ibiltokietatik hurbil: *arrate-gainetan, *hibaibiltokietan, goi-ordeken sarretetan, etab.

Jan-hondakinak aski adierazten digute, orduko gure gizakiak ere ehizetik bizi zirela. Ez ziren ordea guztiak ehizean ibiltzen: batzuk behartuak ziren eskulangintza erabiltzera —lanabes eta izkilu asko behar bait zen—; beste batzuk berriz *ertilanean zebiltzen; baita baratzaki- eta alebiltetan ere.

Haro luzea zen eta han-hemen aldaketak nabari dira, aldian aldikoak.

Giza-enda aldatu bait zen; baita eskulangintza ere: gaiak lehen (Erdi-paleolitos-haroan) *harriprintzak gehien, orain *harigekiak edo *orriak; lehen *ikutu azalekoz eta apalez landuak, orain ikutu malkartsuz eta ikutu luzez ere bai.

Badira era askotako gezi-mihiztoak, *zulakaitzak, marraizkoak, karraskailuak, garrangak, *zanpagaiak, *zorrotzarriak, *harmailuak, etab. Lanabes hauetan, nahiz egitez nahiz ikutuz, aldaketak ageri dira ibilaldi luze hontan ere.

Beste aldaketa: lehen ez zen hezurrezko lanabes eta izkilurik, ustekabekoren bat ez bazen; orain ordea asko: *eztenak, *harpiakoak, zulakaitz muturtxabalak, jostorrazak, sastakai marraztuak, orratzak, *zotz lerrodunak, makil-zulodunak edo *eskuziriak eta, azkenaldian, *arrankaziak garranga bat eta bikoak. Haro hartan hezurrezko txilibitua ere ezaguna zen.

Sua lagun, zurezko ontzietan, harri gorituen bidez, ura berotzen eta bertan *mangolinoak eta beste erretzen bazekiten jadanik aldi hontako gure aurreko hauek.

Aldi hartan, eskualde hauetan, gizakia biziki *ertikoi ageri zaigu.

Hezurrezko eta adarrezko zenbait lanabes nahiz harritxabal marrazkiz apaintzen zituen. Ihizien irudiz batez ere. Zaldi, bisonte, hartz, ahuntz, basahuntz, arrangifer eta beste ihizi batzuen irudiak zituen maite.

Ez dezagun uste ordea irudi hauek apaingarri hutsak zirenik; beste bat adierazten digu aldi berean irudi horiek harpeetako *zizkilu izkutukoetan egoteak.

Bazituen *zintzilikai eta *kutunkideko tresna batzuk: basahuntzen eta beste ihizien hortz zulatuak, *maskor eta hezur koskatuak, *turritella*, *littorina*, *nassa* eta *trivia* zulodunak, lurgorripuskak, igortziz meheturiko *burdinarriak eta kuartzo-*harloreak:

denak beharbada bere babesgarriztat zerabiltzen, ez ordea eder-garriztat.

Aipatu ditugu harpeetako *labarrietan eginiko *marrak, hildo-
doz nahiz margoz: keinu hutsak batzutan; ihizien irudiak ia
beti; gizaki-itxurakoak, behin edo beste.

Ekainen badira zaldien irudiak ausarki; bisonteak ere bai
bost; ahuntzak bizpahiru; hartzak bi; arrain bat edo bi; ia denak
margoz —gorriz edo beltzez— eginak. Gainera, *keinuu-marrak
han-hemen. Sailka geihentsu (binaka eta hironaka): bi zaldi,
bisonte batekin; bi ahuntz; bi basahuntz; bi hartz; hiru zaldi.

*Zizku batean zaldiak barrurantz begira; bestean, ateka-
alderantz; edota zaldiak barrurantz eta bisonteak aterantz. Bada
hor egitamu bat.

Laperran —ustez lehenagokoak— biko bat (bisonteak) eta
hiruko bat (bi abelgorri hartz batekin), denak hildo-
doz eginak.

Santimamiñen ere bederatzi sail (binatakoak).

Goikolauen biko bat (ahuntza eta beste ihizi garbi ageri ez
den bat).

Arenazan (Galdameskoan), basahuntzak zaldiekin, sarreratik
urrun.

Altxerrin badira irudiak binaka (hamalau sail) eta hironaka
(sei sail).

Sasiziloagan sail bat bakarra: bi bisonte.

Etxeberriko-karbian ere, sarreratik urrun gehienak, zaldien
irudiak dira (hamaika), hiru bisonte eta ahuntz bi. Sailka han
ere: binaka edo hironaka.

Ohargarria: irudi batzuk burugabeak dira —Laperran, lau;
Santimamiñen, beste lau; Altxerrin, hemezortzi; Ekainen, bi buru-
gabe eta bederatzi muturgabe; Alkendin, bi burugabe; Etxe-
berriko-karbian, hiru—. Beste batzuek, burua eta lepoa dituztela-
rik, atzealderik ez dute.

Harpeetako *harlabanaren berezko pitzatuak, sakonunak, *haunditxuak edo ertzak, ihizien soin-tankera zerbait ageri bazuten, gure ehizlariek, askotan, margoz edo marrazkiz osatzen zituzten. Inoiz aski zen begi-egitea zuen zilo bat egotea: Paleolitos-haroko gure gizakiak ziloaren inguruan soin osoa ikusten zuela dirudi eta berehala berak margoz agerrerazten zuen.

Dirudienez, gure aurreko gizaki hauek, ihizien irudiz, beren gogaiera eta eskariak labarrietan eta lanabesetan agertzen hasiak ziren. Keinu eta irudi hauek orduko gogaieren ezaugarri eta irudikurrak direnik ezin uka. Zer gogaiera ordea? Zer adierazi nahi digute ikur horiek? Sekulako ilunpean, toki izkutueta eta bazter ibilkaitzetan eginiko irudiak ez dira noski lagunen ikusgarritzat bakarrik asmatuak. Ez dira jan-behar hutsez edo atsegin-minez sortuak, antze-jakintzari eta janbilketari gañdik eragiten dion gogoetaz baino.

Beharbada, Jainkoaren edo jainkozko izakien ezaugarriak zitezkeen: geroztik gaurdainoko euskaldunen iritziz, jainkozko izakiak edo *ireluak egoten dira harpeetan, antzinakoen irudikunde bera dutenak gainera (zaldiena, abelgorriena, ahuntzena, hartzarena, etab.) eta batzuek soinaren atalen bat (burua edo beste) huts dutenak.

Aldi haietako gizakiak luzaro bizitzen ote ziren? Dirudienez, 50 urtez behetik ia denak hiltzen ziren. Oraindik ezagutzen ez dugun lehen-aldiren batean gertatzen zen beharbada, Goierriin entzun izan dugun leloak dicena:

*Eun urte ezkongai / Eun urte senardun / Eun urte alargun
/ Gure alaba nekez azia / Samur juun.*

HIRUGARREN URRATSA

Gure eskualde hauetako giroa, hain gogorra lehengo haroetan —*Wurm* izozte luze hartan—, noizbait hasi zen biguintzen. Kristo

baino zortzi mila urtez lehenagotik eguraldiak beratzen zijoazten.

Lurrak orain eguzkiaren indarra hobeki hartzen bait zuen, belar, zuhaitz eta *zuhamuxka mardulagoak ematen hasi zen nonnahi —ibarretan eta mendietan—.

Gizakia ez zen orain, lehen hainbat, harpeetan egotera behartua. Ibiltzen ahal zen jadanik landa zabaletan nahiz goi-mendietan. Baratzakiak eta aleak —zuhaitz eta zenbait zuhamuxkenak—, batez ere urrak eta ezkurak, bazituen bere inguruetan. *Mesolitos-haroa* hasten zen.

Ihizietan ordea hutsune bat: Errinokero edo adarbakarrik ez zen gehiago, ezta errenorik, bisonterik eta *leze-hartz handirik ere. Bainan beste ihizi asko oraindik bertan. Gainera, itsasaldean, *izpel-bilketak indar handia hartu zuen.

Beraz giro berria, bizileku berriak harpeetatik harat ere, hazkurri berriak eta lanbideen aldaketa.

Horien arabera, gizakia ere berritzen ari; lehenengo endak —*Cro-Magnon* edo *Homo sapiens sapiens* izendatu dugunak— Pirinio alderdi hauetan, geldiro edo ibilaldi luzean zehar, oraingo euskaldunen tankera hartu zuen. Euskal-azkazia bertan sortua beraz.

Ehizlana ttikitzen hasi bait zen, ihiziak eta hauen irudiak ez zuten aurreruntz lehen hainbat sarrera gizakien gogoetan. Lanabesetan eta harpeetako labarrietan ez da gehiago lehenengo ihizi-irudirik ageri, ez ertilanik.

Bainan harrizko eta hezurrezko izkilu eta lankai ugari zera-bilzkien. Oraindik —eta geroago ere— ehizean eta arrantzan zeregin bazuen; baita beste lanbidean ere, eskulangintzan, alegia. Nahiz-eta gauza batzuetan —*arrankazi eta hezurrezko beste izkilutan eta ertilanean bereziki— atzerapen bat zuela dirudien, aski egoki eta apainki egiten zituen orduko tresnak: adibidez, bat edo bi *garrangako arrankazi zulodunak. Bazerabiltzen mikro-

litos landu asko —*txirringil eta ilargi erdiaren antzekoak— baita lehenagokoen itxurako beste lanabesak ere: *marraizko biribilak eta luzeak, zulakaitzak, *tastainak, hiru ertzeko edo hiru buruko muturtxoak, *orrikkak, *mutur-melarrak —batez ere, ertza lerdin zanpatua dutenak—, *orri koskatuak, *haiztoak, *zanpagaiak eta harrizko *gabikoak. Horrelako anitz aztarna agertu izan ditugu Santimamiñen, Silibrankan, Lumentxan, Urtiagan etab.

Urtiagako harpean agertu ziren orduko giza hezurak. Badiutze Cro-Magnon gizakiaren ikusguneak, baita geroztiko eta gaurko euskaldunenak ere. Aldi hartan (*Azil-aldia* diote hortan dabilzenak) gure aurrekoak hasiak ziren beraz oraingo euskaldunen tankerara bilakatzen.

Mesolitos-haroko bigarren aldiaren ere ehiza luzakor: lehenengo *ohikundeek, eta, gainera, begien aurrean zebiltzen *oreinek, *basahuntzek, *orkatzek, *basakerrek, basurdeek, *betizuek, zaldiek eta hegaztiak (uso, eper, zozo, ahate, antzar eta arrano) bizten eta berotzen zuten oraindik askoren *ehiz-aihera. Itsasaldean berriz *izpelkiak beste askoren begiak eta eskuak berenganantz itzulerazten zituzten: orduko bizilekuetan —Lumentxan, Urtiagan, Ermittian, batez ere Santimamiñen— *maskorpila handiak ageri dira: ostrak, txirlak, *muxiluak, mangolinoak, *margolak, lapak etab.

Hauetaz gainera, baratzakiak eta zuhaitzen eta *zuhamuxken aleek janaria osatzen zutela aitor dezakegu. *Larralde*-ko ordekan, Miarritzetik hurbil dagoen aztarnategian, bada Mesolitos-haro honen azkenaldiko *urrazal ugari.

Lanabes asko, harrizkoak behintzat, lehenengo aldikoak bezalatsu: ertz zanpatuko *igeikiak, eztentxo edo mihiztoak, marraizkotxo biribilak. Gainera, hiru buruko harri ttiki landuak, arbelez eginiko haizkorak eta *harmokoak, marraizko biribi-

lak eta *konkordunak, *koskadun eta garrangadun igekiak eta *uztarkideko orrikkak.

Hezurrez eginak ziren zenbait *labana, ezten eta ziri txabal.

Kutunak dira zihurki bizilekuetan aurkitu ditugun *harlore eta harrizko *txirrikak, baita *Nassa*, *Cardium* eta beste *maskor zulatuak ere: jan-edanen beharrak ez baina beste *giza-eraenen batek darabiltzen gauzak noski, aspaldi heldu den gogoeta baten hizkiak.

LAUGARREN URRATSA

Mendeak zijoaztelarik, giroa biguintzen ari zela aski adierazten digu gure itsasaldean muxilu eta mangolinoen ugaltzeak. Mesolitos-haroa azkendu zen. Gure aurrekoen bizikeran aldaketa sakonak hasten dira. *Neolitos-haroa* orain, Kristo baino bost mila urtez lehenagotik hasi-ta.

Gizakia, oraingo euskaldunen azkazikoa: hala derakusgu Lumentxan agertu genuen gizaburu-hezurak; baita Urtiagakoak ere.

Aldi hartakoek ere janaria zuhaitz-ale eta baratzakietatik, ehizetik eta *maskor-bilketatik sortzen zuten. Behar horiek, beraz, batzuen lanbide.

Lanbide berriak ere asmatu eta ekarrerazi zituzten. Hori adierazten digu orduko bizitokien hedakerak; ibarretan, muinomaldetan eta goi-mendietako larreetan: Lumentxa (Lekeitio), Atxeta (Foruan), Santimamiñe (Kortezubin), Urtiaga (Itziarren), Jentiletxeeta (Motrikon), Marizulo (Urnietan), Elola (Aizkorrin), Mairuelegorreta (Gorbean), Atabo (Altzarian), San-Bartolome (Gasteiz-mendietan), Solakueba (Jokanon), Txarratu (Albainan), Urrio (Saran), Irati (Mendiben), Lindus, etab. Toki hauek, geroztik ere, larre handi eta abereen *azkurrileku izan diren lurraldeak, alegia.

Horregatik aldi hartako Euskal herrian *abelzaintza sortua genuela esan genezake: abereak —ahuntz, abelgorri ta zaldi— hazi eta zaintzen jadanik hasiak zirela, alegia. Bertako betizu, ahuntz eta zaldi basak hezi zituzten zihurki. Ardiak ere ekarri zituztela dirudi; garai hartako aztarnategi batean —Santimamiñen— agertu genuen ardi-hezurra da horren lekuko.

Eta, jakina, abelzainak bazebiltzen beren abereen hazkurribila ibilaldi luzeetan: ibarretik mendi handietara, mendietatik ibarretara edota erriberetara.

Batzuk aberats izaten ere ordutik hasi ziren noski: *aberats*, abere askoren jabe izatea: gizakiari geroztik aski buruhauste eta borroka sortuko zion bereiztasuna, alegia.

Bakarren batzuk beheretako landa zabal eta erriberetan hasiak, dirudienez, lurrak erabiltzen eta uzta biltzen ere.

Lehendik, lurrak denenak ziren: lurralde bakoitza —*saroi, larre eta txabol— etxe-talde, hauzune edo herri batena, dirudienez. Lur landuak ere ez ziren, beraz, lantzen ari zen etxe edo lagun bakarrarenak: honek lur landuaren ondorena edo uzta zuen bereztat, ez ordea lurra.

Tresnagintzan ageri zaizkigu orduko eskulanak: lehengo *harlanabes motak oraindik ere asko —hiruburuko muturxoak, ahotxabaleko gezimuturrak, haiztoak edo labanak, *tastain edo eztenak eta igeki nahiz ezten bizkar zanpatudunak eta Gravette-ziritxoak—; berriak ere bai, batez ere mihizto orrikidekoak, haizkora eta haitzur leunduak, gabikoak, etab. Gainera, hezurrezko ezten eta jostorratzak.

Sortu zituen lurrontziak ere: eskuz eginak; batzuk ordea *zumitz-sasketan moldatuak.

Aldi hortako *esku-harrabila bat —irina *eihotzeko nonbait— agertu genuen Lumentzan.

Kutunak zitezkeen aldi hartako harloreak, *harbil-zulodunak eta zenbait lurgorri *kosko. Gauza bitxi hauek Paleolitos-garaitik

heldu dira: zeren ezaugarri? Maila hortan ezaugarri argiagoak ziren lehen labarrietako irudiak, orain ahaztuak. Halaz ere, Neolitos garaian baditugu beste ezaugarri batzuk, adibidez: Lumentxako giza hezurren ondoan jarririk zegoen lurrontzia. Ohikunde hori erlijioarekin zerikusia duen sinesmen batetan *hesoindua iritsi bait zaigu: lurbira hontako gure ibilaldi honekin ez dela amaitzen gure bizia. Gogoeta bat eta itxaropen bat dabilta hor. Maila hortan ageri dira, eta garai berekoak beharbada Euskal Herriko zenbait hilobi, "trikuharri" edo "dolmen" izenekoak. Geroago ikusiko.

BOSGARREN URRATSA

Nahiz eta lehengo bizibidean jarraitu, bere hezikieran, antzejakintzan eta gogaletan aldaketa zerbait ageri dute Kristo baino hiru mila urtez lehenagoko euskaldunek. Urrea eta, batez ere *urraida, harrietatik bereizten eta ateratzen ikasi zuten, baita gai hauek tresnagintzan erabiltzen ere. *Eneolitos-haroa* zen, *Menastagaraiko* lehen atala.

Orduko gizakiaren enda, gure lurralde hontan, gaurko euskaldunena zen. Santimamiñen, Urtiagan eta Euskal Herrian zehar aztertu ditugun trikuharrietan bildutako hezurrek hala erakusten dute behintzat.

Lehengo aldian bezala, orain ere abeltzaintza bizibide nagusiena. Toki lau eta gozoetan ordea lurlantzea edo nekazaritza; itsasaldean berriz, arrantza; han-hemen han-hemen, mehabilketa eta olagintza eta eskulangintzak.

Haro hartako bizilekuen hedaketa, oraingo artzai-saroiena bera zela esan genezake: larre handiak diren mendietan eta hauen oin edo inguruetan. Adibidez: Santimamiñeko elizaño-ondoa; Gor-

bea eta Arratia; Arrato, Gibijo eta Kuartango; Lakozmonte eta Arkamo; Toloño eta Errioja; Entzia eta Araba-zelaia; Urbasa eta Andia, Estellerri eta Naparsakana; Aralar eta inguruko herriak; Aizkorri eta alde bateko eta besteko herriak; Larrun, Atxuri eta hauen alboak; Artzamendi eta honen oineko herriak; Zaho eta Lindus beren inguruekin, etab.

Harpeetan ere badira orduko bizilekuak eta aztarnategiak: Santimamiñen, Atxetan, Lumentxan, Solakueban, Kobairadan, Ko-baederran, Loş Huesos-en, Jentil-etxeetan, Urtiagan, Pikandietan, Limuritan, Marizulon, Abauntzen, Akelarren-lezean, Alkerdin, etab.

Abelzainak, *urtaroetan, tokiz aldatzera behartuak ziren beren abereekin. Beraz ingurukoekin eta herbesteko lagunekin harremanak izatea bidezko zen; baita ohikunde berriak sarreraztea ere.

Langai asko lehen-aldietakoen antzekoak ziren: suharrizko igeki edo haiztoak, karraskailuak, *zulakaitzak, Gravette-muturtxoak, *leungaiak, *zulagailuak, hiruburuko mutur tikiak, gezimihiztoak (aho-txabalak, orrikidekoak eta, geroago, *hegaldunak), *qtaharrizko *aizkur txabal eta haitzur leunduak, hargorrizko gabikoak, *esku-eihara-harriak, etab. *Urraidazkoak ziren zenbait haizkora, ezten, gezimihizto, eraztun, eskumuturreko, etab.

Mota askotako lurrontziak zituzten orduan: *azal-leunekoak, zulotxo edo *zokondodunak, *azal-zimurtuak (atzamarrez, txirlez eta eztenez eginak), zulotxo-lerroz apainduak, adarkideko heldulekuz osatuak. Ondoren heldu ziren *txilinkideko lurrontzi hildoz eta *murko-lerroz apainduak; baita zehar-mehar eginiko lerroz eta *bureztun antzeko apaingarriz edertuak ere.

Orduko gure aurrekoen hizkuntza euskeraren ibilaldietako urrats bat: hala esan genezake beste ikusbiderik ez dugun arte.

Beharbada gaurdaino heldu dira urrats haren aztarna batzuk: *haizkur, haitzur, haizto, marraizko, zulakaitz, orratz* eta *garranga*. Lanabes horiek haitzezkoak edo harrizkoak ziren garaian ezarritako izenak ote? Baliteke: *Eneolitos-harokoak*, agian lehenagokoak.

Garai hartan indoeuropatar *hezikeraren *uranbilak Euskal Herrira iritsiak ziren; baina ez *abelzaintzako hiztegia estaltzeraino. Hona hemen izen batzuk: *zezen, behi, idi, aker, ahuntz, ardi, zerri, zaldi, zakur* eta abere horien hazkera-mailak izendatzeko erabiltzen ditugun hitzak. Izen hauek aski adierazten digute, agian indoeuropatarren eragintzaz sortuak ez baina lehenagotik hemen zebiltzenak direla. Euskeraren *zubilekoak beharbada.

Gizabidearen egitamuarekin zerikusia duten gaiak inoiz agertzen dira. Garrantziko gauza: gizakiak, ustez eta guztion helburuari begira asmatzen duen bere biziko eraena bait da gizabidea. Honen ezaugarriak ageri dira han-hemenka marrazkietan: lurrontzietako *lerrobilak, lorakidekoak eta *laburuantzeko irudiak. Maila berekoak, dirudienez, kutunkideko harlorak, *ikatzbil zulodunak, hagin zulatuak, hezur eta hartxabalezko *tintilak, Samartin-trikuharriko emakume-irudiak eta bertako hilarri biribilduak.

Hilobiak berak ere alor hortako ezaugarriak dira. Bi hilobi mota garai hartan: harpeak —Marizulo, Urtiaga, etab.— eta trikuharriak edo dolmenak (hauek berriki sortuak). Trikuharriek badituzte hemen beste izen batzuk ere: *Mairietxe, Jentiletxe, Jentillarri, Sorginetxe*, etab. Trikuharria zer den? Harzabal handiz inguratutako *zizku bat, beste harzabal batez edo bizpahiruz estalia. Sortaldean du *ateka (besteak baino harri apalagoaz itsia) eta, batzuetan, ateka-aurrean harzabalez eginiko bide-estali bat. Guztia berriz, *harmuno batez inguratua. Bere zizkuan, hildakoak: etzanik, burua sartaldetik eta oinak sortaldetik, denak gainera izkiluz eta esan ditugun kutunez eta irudiz babesturik;

ondoan, lurrontzietan, opariak; sortaldean, ateka-aurrean, su handien edo luzaro egindakoen hondakinak (ikatzak eta hautsak).

Aipatu ditugun ohikunde horiek, hilondoko beste biziera baten gogoetak eta itxaropenak *albizitzen zituzten noski: hazkurri bilketari eta antze-jakintzari gaindik eragiten dion norbaitetan oinarritutako sinesteak, alegia. Milaka urtez lehenagotik heldu den buruzpidea, dirudienez: *Goien-paleolitos-haroko* gizakiak ihizien eta hauen irudien bidez irakurtzen zuten buruzpidea. Orain, ordea, Eneolitos-harokoak, *beste bidez* ere irakurtzen: lurraren eta honen indarren bidez, baita ilargian eta eguzkian ere, eta zenbait mendi, haize, laino, zuhaitz eta iturritan eta hauen guztien irudien bidez. "Beste bide" hauek indoeropatarren sineste eta erlijioarekin zerikusia badutela ezin uka, orduko eta geroztiko beste sineste, ohikunde eta mito eta ipuinek duten bezala.

Eneolitos-haroaren ondoren, **Burdinoriarena*. Izen hau, gai berriz —burdinoriz— tresna batzuk egiten gizakia hasi zelako, emana da.

Bizibidea lehengo *egitamuan oraindik; tresnak ere bai, gehientsu behintzat. Lurrontzietan badira ordea egite berezikoak: batzuk hondo-txabalekoak, baita *txaliaren antzekoak, goitik-behera hildoz apainduak, etab.

Lanabes, izkilu eta *edergailuetan, baditugu burdinoriz eginko aizkur-txabalak, gezi-mutur edo mihiztoak, eraztun eta *uztai-txoak; baita harrizko nahiz hezurrezko tintilak edo txirrikatxoak ere.

Hil ondoren giza-soina osorik hobian —harpean nahiz triku-harrian— jartzen zuten: zorugainean (ez lurpean) bere opari, kutun, izkilu eta beste tresnekin. Zenbait harpetako labarrietan egiten zituzten marrazki batzuk, gure ustez hildakoen irudiak. HOLA, Solakueban eta Goikolauan.

Hasia zen jadanik, zenbait tokitan, hildakoak erre eta beren

hautsak beren kutunekin (harrizko eta hezurrezko txirriekin), edergailu, babesgarri, izkilo eta lanabesekin *ehortzeko ohitura. Aski derakusgu honek, erlijio-gaietan aldaketa zebilela.

SEIGARREN URRATSA

Jesukristo baino 800 urtez lehenagotik hasi zen hemen *Bur-din-haroa*. Orduko aztarnak Euskal Herriko toki askotan dira: Erriberan bizpahiru, Etxaurin, Erriojan, Arabako Iruinean, Sarratxon, Salbaterrabiden, Kuutzemendin, Urreatxen, Solakueban, Bizkaiko Nabarniz-Arrolan edo Maruelexan, Sagastigorrin, Goi-kolaun, Santimamiñen, Gipuzkoako Intxurren, Lapurdiko Urion, Behenafarroako Harixtoin, etab.; gainera gure mendietan ageri diren ehunka *harrespil edo jentilbaratze (kromlech) izeneko hilarriak.

Garai hartan toki batzuetako euskaldunak elkarturik, hiriak eraiki zituzten, batez ere leku agerietan: beharbada gudu-beldurrez, edota nekazaritzarako egoki zelako. Beste batzuetan, lehen bezala, lurraldean sakabanatuak jarraitu zuten, beren *saroi eta baserrietan.

Bizilekuak oraindik harpeetan batzuk, *bazter-etxe eta etxoletan asko, hirietako etxeetan ere bai (Iruinean, Urreatxan, Salbaterrabiden, La-Hoyan, Cortesen, etab.).

Abelzaintza orain ere lehenago eran, gehientsu lehenago tokietan, ibilaldiak beren urte-sasoietan eginaz. Abelgorriak, zaldiak, ahuntzak, urdeak eta ardiak beren gain eta bizibide. Baziren arrantzan zebiltzenak, baita *meatzebilketan, tresnagintzan eta nekazaritzan ari zirenak ere.

Beraz bazuten okela, jateko; baita urrak eta ezkur mota batzuk ere; *galaleak eta eihara-liarriak agertu ziren Urreatxan, Cortesen eta La-Hoyan. *Goldemuturrak Etxaurin eta La-Hoyan; haitzurra, Iruinean: lurlantzearen ezaugarriak.

Zurezko eta lurrezko *apatz, eltze eta txaliak, orduko hirietan batez ere, agertzen dira.

Burdinazko tresnak bereizten dute gehientsu orduko hezikera. Badira haitzurak, igitaiak, aiotzak, haizkorak, goldemuturrak, eztenak; baita ezpatak, gezimuturrak, labanak, eraztunak, orratz *galezkorak, jostorratzak eta *zildaiak ere. Gainera hezurrezko eztenak eta tintilak eta harriz eta lurrez eginiko irelu-irudiak.

Hildakoak erre eta haien hautsak lurrontzietan nahiz harrizkoetan gordetzeko ohikundea hedatu zen; haurrak bakarrik erre gabe *ehortzen zituzten etxeetan. Jentilbaratze edo kromlech izeneko harrespilen oroien erdialdean jartzen zuten orduan harrizko kutxatila edo eltze bat eta horren barruan hildakoen hautsak kutun eta izkilu batzuekin. Beste batzuek lehenagoko trikuharrietan gorde ohi zituzten herrauts horiek (adibidez, Egilazko Aizkomendin).

Jesukristo baino 200 urtez lehenago erromatarrek hasi zuten hemen beren eragintza. Orduko idazlarien bidez ikasi dugu Burdinaroaren azkenaldean Euskal Herriak Garona hibaitik asturtarren alderainoko lurraldeak —Pirinio mendi eta ibarrak erdian— bere muga-barruan zituela. Eskualde guzti hontako lagunuen hezikera berdintsua zela eta euskeraren bidez bereiztua, Goi-paleolitos-harokoak ihizi-irudien edo ertilanen bidez bereiztuak ziren bezala.

Paleolitos-garaitik Burdinaro arteko ibilaldian gure eskualde honek ez zuen aldaketa handirik erabili bere neurrietan. Geroztik ordea, batez ere erromatarren astinketen bidez, hemengo *“zedarriak” hurbilduz eta Euskal Herria ttikituz doaz. Erromatarrek seirehun urtetan, beren agintarien eta hezikeraren indarrez, arestian aipatu ditugun lurralde gehienak berendu zituzten. Euskal Herri ttikituan ordea bizilekuen eta herrien hedakerak eta lagunuen hezikerak lehengo aldikoaren tankerako jarraitu zuten.

Etxea, oraingo artzain-txabolaren antzekoa zen: oroia *luzangan; *xapitola, sarreran; sukalde-*etzanguak, erdian; eta

*goinubea, atzean. Toki batzuetan baliteke harrespilez eginak izatea, Urreatxen behintzat.

Orduan ere abelzaintza, bizibideetan nagusiena. Honen inguruan zebiltzen meatzaritza, olagintza, ehiza, arratza eta eskulan-gintza batzuk. Erriberetan ordea nekazaritza zijoan aurrera. Akitanian eta baskoinen hegoaldeko lurretan batez ere. Ordutik hasten dira hemen, dirudienez, herrilurren banatzeak eta *bakar-jabeketak: *fundi* izeneko lurraldeak banaka batzuen eskuetan eta langile dohakabe asko *besterenduak eta haien mendeko. Garia, garagarra, *zikirioa eta mahatsa ereiten eta hazitzen zituzten eta biltzen.

Bilketa hutsaren bidez askok hazkurria sortzen zuten, edo bizibidea laguntzen eta indartzen zuten. Urte-garai luzean ezkurra (haritzarena, ametzarena eta artearena), eihota, janaritzat erabiltzen zuten.

Ehizaren eta ehiztarien berri, zenbait harri-idazkitan ikus eta irakur dezakegu.

Salerosketa gehienak ordainetan egiten zituztela dakigu, nahiz eta zilar puskak eta diruak ere eskuetan guti edo asko bazebiltzen.

Itsasoan edo uretan ibiltzeko eta arrantzarako, larruzko ontziak zituzten lehenik; gero hasi ziren zurezkoak egiten: *sunbil hustu bat, ontzi bat.

Emakumeen jatzera belarrez eginiko oihala zen; gizakumeena, soineko beltza; ohea berriz, belarrez eta hostoz egina.

Ontziak, zurezkoak gehienbat; baziren lurrezkoak ere ausarki: *txaliak, *oporrak, eltzeak, etab.; baina burdinazkoak ere bai (burruntzaliak).

Lanabes asko zuten beren lanetarako. Batez ere burdinazkoak: goldeak, haitzurak, labanak, haizkorak, igitaiak eta mailuak. Baita ehizerako izkiluak eta gudarako babesgarriak, *azkonak, *aztamakilak, etab. ere.

Orduko elkargoak: etxeak, *adrieriak, hauzoak, herriak.

Etxeari buruz badirudi ezkonlagun bakar batetakoak zirela; alaba —ez ordea semea— izaten zela etxean ondorioko; amaren sorlekua izaten zela etxekoen bizilekua, eta etxe-ondasunak amaren lerroan zijoazela gizaldiz-gizaldi; emakumeek nekazaritzan egiten zutela, gizonek abelzaintzan, ehizean eta gudan.

Hartzen zituzten ikusgarri edo jan-edan bereziak, ahaideekin bildurik, elkartean banatu ohi zituzten.

Gaiztakerian zebilen bat hiltzeko ematen bazuten, *malko-
rrean behera amiltzen zuten; guraso hiltzailea berriz, beren lurral-
detik atera-ta, harrikatzen zuten.

Jolas eta joko asko egin ohi zuten, jauzika, zaldiz, lasterka. Txilibitu-hotsen neurrian hauzoek dantza egiten zuten, batez ere gauez ilargi betean.

Haien hizkuntza euskera edo honen ahaidea zen. Akitanian euskal-izen edo euskal-kutsua duten izen asko ageri da orduko hilarri eta aldare-harrietan. Adibidez: *cison, sembe, senicco, nes-kato, andere, Anderexo, Sembexo, Ilixo, Ittixo, Erhexo, Gerexo, Arixo, Baicorrixo, Ilurberrixo, Lurgorr, Ilunno, Lelhunno, Astoiluno, Ele, Lex, Belex, Harbelex, Arte, Baeserte, Bioxus, Leherenno, Harsus, Idiatte, Ande, Garre, Erditse, Erripe*, etab. Bestalde, asturtarrek, kantauritarrek eta baskoinek hizkuntza bat zutela diote garai hartako lekukoek.

Orduko hilarriak edo opari-harriak adierazten dizkigute si-
nesmen eta gogaiera batzuk, baita “jainkozko” izakien eta *ira-
txoen izenak ere. Lehen aipatu ditugunez gainera, hona hemen
gure eskualde hontako batzuk: Kabrianako *Uvarna*, Laguardiako
Useae, Artzeniegako *Sandao Vim... buro*, Alegi Dulantziko *Tullo-
nio*, Angostinako *Baelisto*, Barbaringo *Selatsa*, Lerateko *Losa*,

Uxueko *Lacubegi*, Oiarzun-Anderregiko *Ulbelteso*, Atarratzeko *He-rauscorritsehe* eta Hazparneko *Genius pagi* (Baserriko iratxo).

Izen horiek —batzuk behintzat— gure ikusbirako zenbait gauza eta indarrekin elkartuak, batez ere eguzkiarekin, ilargiarekin eta ihizi irudiko *ireluekin.

Zenbait mendi, baso, iturri eta zokotan ireluak, iratxoak, ingumak edo hauen kideko “izakiak” ziren nagusituak. Irelu-keria edo “animismoa” delakoari dagozkion sinesmenak nonnahi. Halaz ere lehenagoko haroetan ageri den gogoeten hariari jarrai.

Giro hortan sartzen hasi zen hemen Kristoren Berri Ona. Beraz ordutik munduaz eta gizakiaz beste gogaiera hau zetorkigun: gure ikusbira guztia makina edo tramankulu baten eran dabilela bere indarrez, legez eta neurriz, ez ordea ireluen egitez edo nahiaz; eta guk ezagutzen dugun neurrian gure menpeko eta laguntzaile egiten ahal dugula; gu berriz ez garela geuron baitan, “beste” norbaiten baitan baino; beraz “beste” hau dela gure eta mundua-ren oinarri, gudan, munduan eta orotan dagoena: Jainkoa, alegia; berak derakusgula, Jesukristoren bidez, norat eta nola zuzendu behar dugun gure bizikera.

Ez zuen onartzen irelakeria; bai ordea lehendik zetorkigun goiasmo edo gogaiera nagusia, hots, gaindik eragiten digun norbaiten baitan gaudela. Hau onarturik, munduaren eta haragiaren nagusikeriak edo ireluak nahi zituen garaitu. Borroka hori sortu zuen eta mendez-mende darrai gaurdaino.

EUSKAL LANGILEAK

Mikel Ugalde

Euskal Herriaz mintzo garelarik, ez ditzakegu langileria eta honen arrazoirik nagusienak bazterturik utzi. Izan ere, ez diogu herriari erabateko erantzunik emango langileriaren egungo problematika gogoan hartuaz izan ezik.

Historian gertatuaren berri emateko asmoa baino ez dugu. Historiak egungoa berez dakar; gaurko egoera ulertzeko historiari jabetu beharrean gara; ez dezakegu langileriaren estrategia eratu, historiaren esperientziã gogoan hartuaz ez bada. Historiak, bada, interpretapena eskatzen du, eta gaurregun izan ditzakeen ondorenen berri eskaintzen. Ez dugu guzti hori egiteko asmorik. Alde batetik, hortarako behar hainbat datorik ez dugulako; eta, bestetik, horrelakorik zilegi ez zaigulako. Muga herstuetan ibiltzera behartuak gaudela edonork dakien zerbait da. Bestalde, hain erraza da demagogia merkea egitea...

Langileriaz bada egun kezkarik eta kontzientziarik, inoiz ezagutu dugun zorrotzetakoa seguraski, batez ere inguruko giroa gogoan hartzen badugu. Badabil gure herrietan zehar herriari langileriaren borroka hutsez baliaturik erantzun nahi liokeenik. Interesgarria litzake jokabide honen alderdi on eta txarren berri ematea, azterketa sakonik merezi bait du; baina ez dugu une eta bide egokiena denik pentsatzen. Hau ere beste baterako

utzi beharko. Baina garbi geldi bedi, ez dela noski merezi ez duelako.

Langileriaz mintzatzerakoan eragozpiderik eta zailtasunik aurkitzen dugu. Batez ere, oso guti jorratu den saila delako, esku artean dato guti daduzkagulako, urteetan zehar suak erre duenetan ezin irakur daitekeelako. Ez dugu, beraz, lan oso bat egiteko asmorik, ez dugu langileriaren historiaren erabateko laburpena eskaintzeko asmorik. Zuzenki epaitzeko eta arakatzeko, dato ugarriago beharko genituzke.

Lan hontan, bada, Euskal Herriaren industrietaz zenbait dato jasoko dugu; honek kapitalismoaren barruan langileari egin dion kalteaz ere mintzatuko gara. Eta ondoren, Euskal Herrian borrokatu direnen indarrak, gertaerak, asmoak, xedeak, helburuak ere aipatuko ditugu.

Bada Euskal Herrian, gero ikusiko ditugun arrazoiengatik, bereziki aztertzea merezi duen mugimendu bat. Eibarko eta ingurutako langileriarena, alegia. Oso berezia bait da. Baina, kooperatibaz argitaratutako alean (JAKIN sorta, 7), Imanol Laspiurrek bertako giroa ederki asko azaltzen digu, eta baita estudio sakonago baterako komeni eta bidezkoa den bibliografia eskaintzen ere. Eibarkorik, beraz, ez dugu aipatuko hemen.

Eta honenbestez industriaren aurrerapenaren berriak aipatuz has gaitezen.

INDUSTRIA EUSKAL HERRIAN

Langileriaren berri jakiteko, nahi eta ez industriaz ihardun beharrean aurkitzen gara. Azken aldi hontan egin da azterketarik franko historiaren ilun une horiek argitzeko. Egin da lanik asko historiaren hutsuneak bete eta agerterazteko. Baina, egia esan, oraindik lan hau sakonki eta batasunez egiteko dago.

Gure lana langilerira mugatzen delarik, ez dizaiokegu gai hari behar den luzapenez ekin. Bestalde, irakurleak honen zenbait berri jakiteko egokierarik izango zuen, noski.

Bestalde, oraindik zutik dirau gure artean industrietaz urtetan izan dugun eztabaidak. Nolatan gertatu da berau? Kapitalismoaren arabera egin dela argi dago; baina zeintzuk dira hor-tarako bideak erraztu dituztenak? Industrietze kapitalista hedatzerakoan, beste langile zapalketen antzekoa sortu ahal du guregan? Ez ahal da zerbait bereziagorik eta garrantzizkoagorik?

Galdera hauek gaur ere zutik daude gure artean, lehen esan dugun bezala. Guk ez dugu xeheki erantzuteko asmorik. Izan ere, egungo egoerari erantzuteko, gaurregun dagokiguna eskuratzearen, historiaren berri jakitea ezinbestekoa dela badakigu: egungo egoera historiak dakarrena dela, egungoa nolabait lehenago egosi dela pentsatu behar dugu. Baina ez gintezke historiaren bide bihurrietan gal, egungoaz arduratzeke. Sarritan *aurreiritziz jokatu izan dugula ere nola uka?

Euskal Herria industriatu zitzaigun, kapitalismoaren ardatzpean eta eragipean industriatu ere. Gehienbat Bizkaian hedatu zen, Bilbo eta honen inguruan. Euskal Herriko industriaren nagusitasuna hemen gelditu zen. Gipuzkoan ere zabaldu zen; ez hain indartsu, ez hain pilatua, baina garrantzi handikoa izango da, batez ere bere lanetan oso desberdina delako, mota askotako lantegiak dituelako, bai neurriz, bai gauzak egiteko eran, bai produzio sailetan. Agian hemen, esan dugunez, hainbesterainoko jendetza pilaketarik ez zegoelako, hasiera hartako industriak hainbesterainoko hedaturarik ez zuelako, eta kanpotar jendetzarik ez zegoenez, langileria jarduna, borroka etabar ezberdinak izango dira Bizkaian eta Gipuzkoan, dudarik gabe. Sarritan, baldintza objetibuek agintzen bait dute.

Nafarroa, berriz, nekez industrietzen da: *oihal-lantegiren bat edo beste bazen Iruñen joan mendearen hasieran; baina oso

berandu arte, gure mende honen lehen laurdena arte, ez da industriarik hedatuko. Araba bera ere *nekazalgoari atxikia dago. Ifar Euskal Herriak, Aturri hibai inguruan ferrolaren batzuk bazeuden ere, ez du industriarik ezagutuko. Agian, Hego Euskal Herriak hortarako zituen erraztasun eta erosotasunak berekin ez zituelako.

Lehen esan bezala, ez dugu historian zehar hari muturrak askatzen ibiltzeko asmorik. Labur beharrez, langileriaren historia gogozkoa zaigu, nahiz eta gainontzekook gauzak behar bezala ulertzeko beharrezkoak izan.

Bai Ingalaterran, bai Frantzian industria hedatzen ari zen garaian, industriaren hegalpean sortu eta indartutako burgesia lanean ari zen garaian, Euskal Herrian ez zen aldaketarik, industri iraultzarik, egiteko modurik ikusten. Ez behintzat estatu kapitalistek egina zuten industri zabalkuntzaren antzekorik. Lege batzuk zeuden, herriak bete betean onartzen zituenak; eta lege horiek ez zuten jauntxo kapitalisten diru gose-egarririk asetzen. Zer egin? Legeak desegin. Karlistadak etabar perspektiba hontan ikusi besterik ez dugu, haien garrantziaz eta garrantzitasunaz jabetzeko. Errege baten edo besteren gorabeherak ez zuten herria *aztoratzen; bere nortasuna eta izaera galtzeko zuen arriskuak baizik. 1812. urtean Cadizko gorabeherak zirela eta, uholdearen arasoaz kezkatu bait zeuden euskaldunak.

Tamames irakasleak, burdingintzaren hedaduraz Bizkaia go-goan harturik ari denean, hau daduka kontuan: Euskal Herrian burdingintza errotu bazen, hiru arrazoi hauengatik izan zen: birdun mehatzetan Euskal Herriak bere baitan zuen aberastasuna, mehatza kanporatzearekin —Ingalaterrara bidaltzearekin— lortu zen kapitalizatzea eta ingeles itsasontziek merke ekarri ohi zuten ikatza. Hauek dira industriagintzaren *zutabeak. Inglesek bertan erein zuten kapitala; ez noski bertako industri indarrak suspertzeko eta osatzeko, beren irabaziak segurtatzeko baizik. Euskal Herrian, kolonia bailitzan jokatu zuten uneoro.

Ikusi besterik ez dago burdinbideak zabaltzerakoan gertatzen dena. "Burdinbideak zabaltzerakoan, ez pentsa gero Euskal Herriko burdingintza lantegiak indartzen direnik. Are okerrago, eragotzi baino ez ditu egiten. Burdinbidegintza babesten zuen legeak, erabateko erraztasunak ematen zizkien: materialak, tresnak, lokomotorak, esku lana (tekniko mailan etabar), kanpotik ekartzen bait zituzten, bai Frantziatik bai Inglaterratik, alegia". (Rafael Anes Alvarez *Las inversiones extranjeras en España de 1.855-1.880*. Madrilén argitaratua). Jendetasun handirik ere ez zuten erakusten lanean, Xenpelarren bertsoak ontzat ematen baditugu behintzat.

Horrela, bada, kapitalismoak kolonia herritan egin izan duena berriztatu du: lehen gaiak (*materias primas*) deritzatenak eramanaz, merke asko eraman ere, eta manufaktura (materia hori bera, landu ondoren) ezarriaz, berak inposatutako prezioetan. Besterik izango zen, beste kukurruku batek joko zuen dudarik gabe, eginbide hori, zeregin hori, bertako lantegiek bete izan balute. Beste indar bat erakutsiko zuen Bilboko industriak.

Bizkaian bigarren karlistadaren ondorenean zabaltzen da industria gehien bat. Lehenago: *Los Altos Hornos del Desierto* 1.871. urtean, ingeles kapitalez sortua. 1.882. urtean *La Vizcaya* enpresan ere inglesen kapitala sartua izago da. 1.883. urtean *Astilleros del Nervión*. 1.892.ean *Vasco-Belga de Máquinas y Vagones*, etabar. Gai hontaz interesgarria da Tuñón de Lara-k Parisen argitara duen *La España del siglo XIX*. Gai hontaz datorik eskaintzen bait digu. 1.885. urte aldera sortzen dira: *Hijos de J. Jáuregui* (Zornotzan), *Alambres del Cadagua* (Bilbon), *Tubos y Forjados*, *La Euskaleria*, *Aurrera*, *Talleres de Deusto*, *Talleres de Zorroza*, etabar Bilbon. Baina industriagintza ez da Bilbora bakarrik mugatzen. Urte horietan sortzen bait da *Maquinista Guipuzcoana*, Beasainen.

Urte muga garrantzidunak dituzu: 1.855. urtea, Bessemer teknikaz lan egiteko era asmatu zutenekoa: fosforo gabeko me-

hatza eskatzen zuen harek, hots, Bizkaian ateratzen zutena bezalako. Honek, jakina, izen eta estimaziorik emango dio Bizkaiko mineralari. 1.856. urtean, *Banco de Bilbao* sortzen da. Kapitalizazio baten lehen pausotan gaudela erakusten du honek. Eta lehen esan bezala, 1.877. urte ondorenean mehatza kanporatzeari gogor ekiten zaio.

Th. Lefebre, hontaz mintzatzerakoan, honelako galderak egin izan ditu: Normalean, mineralaren transportea, ekarramana, ikatza baino merkeagoa denez gero, zergatik ez zen Bizkaiko mehatza Asturias aldera zuzendu, bertan bait zegoen minerala? Burnigintzan ikatzak, mehatzak baino gehiago agintzen ahal du? Inglaterratik ikatza merkeago eskuratzen zuten bizkaitarrek, eta ikatza zekarten ingeles itsasontziek mineralak kargatuak itzultzen ziren. Lehen gerrate nagusira arte, joera honek berdin iraungo du.

1.904. urtean Bilbon, Espainiako ikatza 128.000 toneladara iritsi zen. Inglaterratik ekarria, berriz, 604.000 tonelada zen. Handik hamar urtetara, Inglaterratik proportzioan gutiago ekarriko du: 334.000 Espainiatik, eta 626.000 Inglaterratik. Esan bezala, gerrak hau aldaerazi egingo du.

Interesgarria litzake, industrietan osoaren historia egitea, bertako berriak zehatz-mehatz jasotzea. Datoren bat edo beste aipatu badugu, langileriaren zenbait jokabide behar bezala ulertzeko baino ez da izan. Izan ere, beste molde batzutan egin zitezkeen industrietan, kapitalismo-kolonialismo moldetan egin zen. Honek, beste zenbait herrialdetan gertatuaren antzera, langileriaren zapalkuntza sorrerazi zuen, jendetzaren pilatzea. Hortarako, bertakoa baino eskulan merkeagoa ekartzeko asmoz, kanpora jo zuen: Gaztelara eta hego aldera. Honek berekin ekarri zituen ondorenez mintzatuko gara. Tesi gisa aztertzeke gaia badago hemen zenbait estudianterentzat.

LANGILERIAREN EGOERA

Euskal Herriko industriaren osatzea, indartzea eta hedatzea kapitalismoaren sistimak eragin zuelarik, ondorenak ere beste zenbait herrialdetan bezalatsukoak izan ziren.

Industria handitzen doan neurrian; teknikak hobetuaz, lantegi handiagoak jasoaz, automatismoz aurreratuz jakotzen duen neurruan, industriak langileak behar ditu. Lantegiaren inguruan biziko den langilea. Lehenago *artesan gisa sakabanaturik edo nekazari lanetan zebiltzenek, orain lantegi ingurutara jo beharko dute. Denak utzi eta tokiz eta lekuz aldatu beste erremediorik ez dute izango. Honek, jakina, jendetzaren pilatzea dakar. Langileria-
ren historiaz idazleek ematen dizkiguten berriak jasotzea nahikoa da, langileria-
ren egoeraz, zapalkuntzaz, ohartzeko. Haurrak lan-
tegietatik atera eta eskolara zitezen, emakumezkoen lanaren zama
arin zedin, lan orduak labur zitezen egindako borrokaldiak gogoan
hartu besterik ez dugu.

Ez dugu orain estadistikaz inor aspertarazi nahi.

Kapitalistak eskulan merkearen bila doaz. Kapitalistak kostoari begiratzen dio. Honen helburu nagusia aberastea da, ahal duen eta gehien irabaztea. Bertako eskulana, dirudienez, ez zen beraiek nahi zuketan bezain merkea; eta atzerrira jotzen dute eskulan merkearen bila. Jendea ekarri, ugari ekarri ere, egin dute, jendea pilatu. Joan den mendearen azken hamabost urteetan, Nervion hibaia-
ren inguruko herriak handituz doaz: bertako hainbat kanpoko langile bada bertan. Industriadazaren pausoak emate-
rakoan, bai trenbideak zabaltzean, bai mineria zulotan, bai trans-
formazio lantegietan, eskulana behar da. Merke baino merkeago
ordainduz.

Langile hauen bizitzako kondizioak, bai lantegi barruan eta baita kanpoan ere, oso txarrak dira; Dolores Ibarrurik ongi asko

jasotzen du orduko langileriaren kezka eta injustiziaren berri. Gerora, 1.904. urtean *Instituto de Reformas Sociales*-ek aditzera emango digunez, langileak artean txaboletan bizi ziren, pilaturik, beren familietatik urruti. Goizean goiz mina zulotan lurperatzen zituzten eta iluntzera arte ez zuten kanpoko arnasa hartzerik izango. Lan orduak bukatu ondoren, ez zuten gogoak ematen ziena egiteko askatasunik. Lotara, kapatazaren edo enpresaren txaboletara joan behar zuten. Jateko eta edariak, berriz, lantegiak (edo kapatazak) zabalduzako dendetan erostera behartuak zeuden. Ez zuten han edo hemen, gogozkoa zitzaien dendan erosteko askatasunik, ez ezeren aukerabiderik. Horrelakoetan, prezioa, salneurriak oso garestiak zeuden.

Sufritzen duen langileari, sufrimendu hori jasan beste erremediorik ez omen zaio gelditzen. Askotan entzun dugu horrelakorik. Ezarritako zama, doi-doi eramateko hainbat indarrik ez omen zaio gelditzen. Eta ez dute arrazoi faltarik hori esaten dutenek.

Langileria, ordea, bere lozorrotik esnatzen zihoan; ia berrogei urte ziren Marxek lehen Internazionala aldarrikatu zuela. Geroztik, anarkistek alde batetik, sozialistek bestetik, European zehar borroka bizian ziharduten. Sozialismoaz hitzegiterakoan ikusiko dugunez, bigarren Internazionala Bizkaian, langileen artean, hezurramitzen ari zen. Harek ereindako hazia ez da hutsean geldituko.

Bigarren Intrenazionalak maiatzaren lehen eguna zorrotz eta *ozenki ospatzea eskatzen zuen, langileen eskubideak lortzeko borroka eguna gerta zedin. Lehen agerkunde edo manifestazioa prestatzeari ekin zioten sozialistek 1.890. urtean. Baina ez zuten maiatzaren lehen egunean egin, aste egunez egiteko hainbat indarrik ez bait zuten. Horregatik jai eguna aukeratu zuten, maiatzaren lehen igandea hain zuzen.

Bilbon eta honen inguruan ere, langileriari zegokion eguna zenez, bidezko agerkundeak egin ziren. Langileriaren borrokaren lehen su txinpartak ikus zitezkeen; eta ugazabek, jauntxo haiek,

ez zuten langileen jokabidea begi onez ikusi. Agerkunde hau zela eta, *Orconera* lantegiak agerkundea prestatzen ibili zirenetako bost langile kanpoan utzi zituen. Facundo Alonso, Arboledako sozialisten lehendakaria eta lau langile ziren zigorpean lanik gabe gelditu zirenak. Honek, ordea, ondoren ekarriko du.

Agerkundea, esan bezala, maiatzaren 4ean egin zen; eta langileek, bost lagun haiek kanpoan uzten zituen erabakiaren berri maiatzaren 12an jasotzen dute: astelen goizez, beraz. Berrirorrorrokatzeari ekiten diote. Hurrengo egunean, goizaldeko agerkunde baten bidez, injustiziaren aurkako haserrea azaltzen dute. Seirehun bat dira hasieran. Baina hauek, *Orconera*, *Lejona*, *Parcocha* eta beste mina zulotara jotzen dute huelgara etor zitezen dei eginaz. Agerkundea ez da haserre hutsean gelditzen. Zortzi orduko lan aldia eskatzen dute. Arratsalde hortan, Ortuellan 3.000 langille biltzen dira. Bilbon arotzek eta ebanistek zeramaten huelgarekin bat egingo dute.

Garai hartako prentsak zioenez, maiatzaren 14ean, protesta mugimendua hasi eta handik bi egunetara, 8.000 langile zeuden huelgan. Langileen haserrea gero eta sutsuagoa, bortitzagoa eta gogorragoa zen. Gobernariak ordena ezarri zuelarik, *harmadaren eskutan uzten du agintea, arazo hura konpon zedin. Baina, eskabidea ez da orain bidalitakoen alde eta lan aldia laburtzeko eskera mugatzen: txabolak kendu, desegin behar ziren; eta langileak, gogozkoa zuen dendan erosteko erraztasunak behar zituen. Agerkunde hauetan, zibilen eta langileen arteko borrokan, hamarren bat langile hil ziren.

Langileriak Euskal Herrian ezagutu duen borrokarik gogorretetakoa da hau, noski. Harmadak Bilbo eta inguruak harmapean hartzen ditu; Loma kapitain jeneralak, Gazteiztik Bilbora jotzen du hauzia konpontzeko. *Altos Hornos*, *Astilleros del Nervión*, *La Vizcaya*-k lan egiteari uzten diote. Sozialistak gogor zeuden; eta Perezagua, Bilbo eta ingurutako sozialisten burua, detenitzen dute.

Harmadak nolabaiteko konponketa nahi bide du. Goizez langile batzorde batekin hitzegin ondoren, arratsaldean ugazabekin biltzen dira harmada-agintariak. Azkenik erabaki batera iristen da. Lan aldiari dagokionez, udan eguneko hamaika orduko lanaldia izango dute langileek eta neguan, berriz, bederatzi ordukoa. Denera jota, hamar ordukoa urtean zehar. Maiatzaren 22an emandako agindua izan zen. Biharamonean, langileak, denak iritzi hontakoak ez bada dira ere, laneratzen dira.

Bereziki, 1.890. urtean gertatutako huelgaren berri eman dugu. Baina gehiagorik ere aipatu beharko genuke. Izan ere borrokaldiaren hasiera baino ez zen izan hura. Bestalde, Lomaren erabakiari baiezkua eman bazioten ere, ez zuten bururik makurtu, eta lan orduak zerbait laburtzea lortu bazuten ere, gehiagorik bazedukaten. Eta gauzak lehenean iraun zuten.

Hori dela eta, handik bi urtetara, urrian, Perezaguak Zezenplazan mitin bat egiten du, jendeak erantzun dezan. Harmada-agintarien erabakiak eta ugazaben hitz onek ez dute ezertxo ere kenponduko.

Sozialisten Kongresoan hauteskundeetan partehartzea erabaki zutenez geroztik, sozialistak gogoz borrokatu ziren, batez ere 1.896 eta 1.898ko hauteskundeetan.

Langilearen borroka geldi ezinezko zerbait izanik, 1.906. urtean beste huelga nagusi bat sumatzen da Bilbon. Lehenagotik jendea haserre zegoen, une batetik bestera gauzak lehertuko ziren ustea zegoen. Trianoko trenbideetako langile bat bota zutenean piztu zen sua. Aurrez langileek eskabide hauek eginak zituzten:

- a) Egunean bederatzi orduko lanaldia.
- b) Ordu apartekoak ehuneko 50 gehiago ordainaraztea.
- d) Lan sailak, "tareak" zeritzaten lan egiteko erak uxaraztea.
- e) Legepean osatutako langile elkarteak ugazabek ontzat eman zitzaten zuzendutako eskabidea.

Ugazabak *Circulo Minero* zeritzan elkartean bildurik zeuden eta ezezko borobila eman zieten langileei.

Langilea bidaltzeak lehertarazi zuen hango giroa. Huelga orokorra, jenerala, berehala egin zuten. Harmada kaleratu zen. Behin eta berriro lehengo historia gertatu zen. Barrikadak, borrokak, tiroak, zaurituak, hilak. Denetik izan zen Bilbo eta honen inguruetan egun haietan. Egun haietan Errege Donostian zegoen eta bai ugazaben eta bai langileen bixitak izan zituen. Erregek entzun ondoren, gauzak konpontzen ahaleginduko zen hitza eman zien.

Une hortan sindikatua, sozialisten mogimendua, kinkapean aurkitzen zen, bai Europa mailan (gera geldi erazteko hainbat indarrik ez bait zuten biltzen), eta baita Espainiako partiduan ere. Iglesias-ek berak ere lehengo itzal hura galdu egingo du.

Irakurleak ikus dezakeenez, urtetako borrokaren ondorena izan da lan orduak gutieraztea. Lehenago, 1.890. urtean, batz bestea hamar orduko lanaldia eskuratzearren borrokatu ziren. Handik hamasei urtetara bederatzi orduko lanaldiaren alde, baina ordu apartekoak zenbat ordaindu behar ziren eskea eginaz. Baze-goen, beraz, luzapenik, ordu *extrak* sartu beharrik.

Langileak, nekez eta borrokaldi odoltsu askoren ondoren lortu ditu zenbait aurrerapen. Egun ere borroka bidetatik abiatu denik bada hor hemenka. Zenbat neke eta sufrimendu giza eskubide beharrezkoenak eskuratzearren egindako borrokalditan!

Ikusiko dugunez, 1.911. urtean *Euzko Langileak* sortzen da. Europako gerla, ganean da; ondoren, Hirugarren Internazionala dela eta, eztabaidarik eta zatiketarik sortuko da. Diktadura garaian (1923-1930) gobernuan agintzen dutelarik, zabalkunderik lortzen dute; baina gatza eta piperra faltako zaio sozialisten mogimenduari. Estructura ezin hobea antolatuko du, baina —burokraziaren tentaldia alde batetik, komunisten eraso bestetik—, ez dute luzarorako bizi indartsurik izango.

SOZIALISMOA EUSKAL HERRIAN

Espainiako sozialismoa nola sortu zen ezagutzen dugu. Lehen Internazionallean bi joera desberdin ezagutzen badira ere, bigarren Internazionallean hautapen bat egiten da eta sozialismo bidea aukeratzen, hots: politika eta sindikalgintzaren bidez, politiko erakundeetan parte hartuaz, egitura guztia alda eraztea bilatzen da.

Espainiako lurraldean, anarkismoa, politikogintzan zer ikusirik nahi ez zutenean, huelga orokor baten bidez bapatean iraultzea espero dutenak, ugari dira, batez ere Andalucian. Anarkismo mota guztiak ez dira berdinak; badaude artesiak, elkarrekin ezin konponduak. Izan ere, anarkistak ez dira organizazio zentratzaileraren aldeko, taldeko lan egitea gogozkoagoa zaie.

Sozialismoak Madrilen eta Asturiasen eta Euskal Herrian izango du indarrik handiena. Anarkismoak, berriz, esan bezala, Andalucian, Catalunyan eta Galician. Euskal Herrian, ikusiko dugunez, ez dute hainbestearainoko indarrik izango, Pasaiako kai inguruan eta Bilboko itsas ertzean zenbait militante izanarren.

Sozialismoa, beraz, Madrilen sortzen bada ere, Bilbon erroztzen da. Ez dago sozialismoa ezagutzerik, Bizkaian eta Gipuzkoan gertatuaren berri jasoaz ez bada.

Facundo Perezagua izan zen, Madriletik 1.885. urte inguruan Bilbora etorririk, sozialismoaren hazia ereingo zuena. Bigarren Internazionalaren arabera, sozialismoa aldarrikatzen du. Ez da teoria eta hitzaldi luze aspergarritan ibiliko. Berak lanari ekiten dio. Eta batez ere zapalduenak ditu gogoan.

Kapitalismoak lehen gaiak, *materias primas* direlakoak ahal dituen merkeen erosten ditu, kostoak ahal den tipienak izan daitezzen. Kosto horien zenbaki barruan langilea dago, askotan langilea zenbaki bat baino ez bait da. Langileari ere ahal den eta gutien ordaintzen bazaio, kostoei behean iraunerazteko bidea ikusten dute.

Gero, berriz, ahal den garestien salduz gero, tartean gelditzen den hori, ahal den eta handien izan behar duen hori, irabazi garb garbia duzue, hots: kapitalistak bereganatzen duen dirutza.

Gertaerak aipatzerakoan ikusi dugu —edo zerbait aipatu dugu behinik behin— langileak zein kondiziotan lan egitera behartuak egon ohi ziren. Lan ordu luzeak lanean, arriskupean. Jornalak oso txikiak, batez ere plazako eta merkatuko erregelaren arabera ordaintzen zutelako. Eskulana ugariago zedin, eta gutiago ordaintzeko egokiera izan zezan, kapitalista bera joan ohi zen atzerriko lurraldeetara jende bila. Gezur eta abar engainatzen zuten; eta gero barrakoietan bizitzera eta kapatazek agintzen zuten dendan —askoz gehiago ordainduaz— eroatera beharturik zegoelarik, erabateko zapalkuntza zama ezartzen zioten: alde batetik, ahal zen eta gutien ordainduaz; eta, bestetik, gauzak garesti salduaz, kapatazaren dendan eros eraziaz.

Esan dugun bezala, merkatu legepean aurkitzen zelarik, injustiziaren zamaren astunean sufritzen zuen eta, kaleratzeko eta ogibidea galtzeko beldurrez, otxan agertu ohi zen nagusiaren aurrean.

Perezaguak, Bilbon eta batez ere mina lurraldetan bere iritziak zabaltzen ditu. Injustizia konkretoak salatzen ditu eta, borroka lantzeko, 1.886. urtean, Sozialisten lehen taldea osatzen du Bilbon.

Etorkizunik ikusten zioten madrildarrek Bilboko mogimenduari. Zerbait sendotzearren, hango arazoak bertatik aztertzearren, Sozialisten Alderdiaren bigarren Biltzar Nagusi edo Kongresoa Bilbon egiten dute, 1.890 urteko Abuztuan. Zer ikusi handia du batzar honek Bizkaiko sozialismoaren bizitzan. Ernetzen hasia zegoen landaretxoak berebiziko indar aldia sumatzen du Kongreso hontan dagoen indarra ikustearekin batera. Erabaki sendorik hartzen da bertan politikagintzari buruz aurrerantzean hobekiago antolatuz joka zezan. Bilera hontan, nagusiki hauxe erabakitzen da:

—Autarkiak emateko eskubidea lortzearren borrokatzea.

—Politikazko hauteskundeetan, hautatu beharrezkoak alderdi-koak, hots, sozialista alderdikoak izan daitezela.

—Burges alderdiekin elkartu ezina.

Bilbon, beraz, sozialismoa sortzen da Perezagua sozialistari eta honen laguntzaile Felipe Carretero eta Toribio Pascual-i esker-rrak. Hazia, dirudienez, ez da bidean edo sasi tartean gelditzen; lur ongarrirituan ereiten dutelarik, fruiturik jasotzen dute. Sozialismoa zabalduz doa. Abanton eta Las Carrerasen berehala sortzen dira taldeak; 1.888. urtean, San Salvador del Valle deritzan herrian; 1.894.ean Sestaon. *La lucha de clases* aldizkaria argitaratzen eta ideia sozialisten zabalkunderako erabiltzen dute. 1.896an Be-goñan eta Erandion. Eta hurrengo urtean Muskes, Santurtze, eta Deustun. Gipuzkoan ere, ikusiko dugunez, berehala zabaltzen da.

Hara hemen ofizioen arabera sortzen diren zenbait talde:

1.887: Deustuko kaian karga-deskargan dabiltzenak.

1.888: *Moldiztegiakoak eta *Harginak.

1.890: *Okinak, kupiagileak eta moldeadoreak.

1.891: Kaldereroak, forjadoreak, igeltseroak, arotzak, tallis-tak, Bilboko kargadoreak.

1.892: Sestaoko kaldereroak.

1.897: Kordeleroak.

1.898: Marmola lantzen dutenak.

Lan handia da, sozialistek XIX. mendeko azken aldian Bilbo eta honen ingurutan egiten dutena. Ikusi dugunez, sozialisten eraginari eskerrak, berebiziko huelgari ekiten diote.

Sozialistak, huelga eta borrokaren bidez, egunetik egunera ezagunagoak dira. Eta ez pentsa, anarkistekin gonbaratuz gero, huelga nolnahi egin zale direnik. Hauen jomuga eta xedea ongi antolatzea, egiazko sozialista estruktura bat lortzea izango da. Hauteskundeetan irabazteari garrantzitsua derizkiote.

Tuñon de Larak *El Movimiento Obrero en la Historia de España* liburuan dioenez, joan den mendearen bukaeran hogeiren

bat mila langile zeuden Bizkaian, eta hauetatik hamaika mila min-
nerian lan egiten zutenak ziren. Horregatik langile askok onartuak
izango dira sozialismoaren irakatsiak.

Oro har, sozialismo mugimenduaren urterik larrienak, txar-
renak, gure mende honen hasierakoak izan ziren. Europan zehar,
kapitalismoaren konpetentzia zela eta, merkatuak zabaldu beharra
zela eta, kolonien arazoa tartean zegoelarik, gerraren usaia su-
matzen zen. Espainiak berak ere Marruecos menderatzen lanik
asko bazuen.

Sozialistek, hura kapitalismoaren jokoa zela antzemanik, lan-
gileak elkarren aurka jar zitzakeen borrokari, gerrari ezezkoa ema-
tea erabaki zuten azken kongresoetan. Bakea da, beraz, sozialisten
kezkarik nagusienetakoa. Gerora, dakigunez, ez zuen gerra galerez-
teko hainbat indarririk izan, eta Europan gerra Nagusia sortu
zen 1.914.ean.

Euskal Herrian sozialismoa hedatzen zihoala esan dugu:
1.915.ean Araban eta Nafarroan gremio bakoitzean gremio bat
martxan dago. Gipuzkoan, berriz, lau dira, eta Bizkaian (heda-
tuenik zegoena berau bait zen) 18 gremio.

Europan, garai hortan, giroa nahastuz doa. 1.917. urtean
Iraultza urtea dute Rusian. Espainiako sozialismoak ere une zaila
ezagutu zuen 1.917.eko borrokaldietan. Ondoren, Rusiatik Europa
zehar, mesianismo berriaren eragina zabaltzen da, eta Hirugarren
Internazionala, Komunisten Internazionala sortzen.

Gerraren arazoa dela eta, Europan zehar sozialismoa ahuldua
zegoela esan dugu; are gehiago, gerra geldierazteko, desegiteko
hainbat indarririk ez zuela ikusi zuenean. Marxen iraultza *sena
eta asmoa epelkeriatan galdua zegoela zirudien. Horregatik egiaz-
ko iraultza lortzarren, burokrazia eta erreformismoa nagusitu ez
zitezten, Hirugarren Internazionala sortu zen.

Sozialisten artean bazegoen kezkarik. Zer egin behar zen:
Bigarren Internazionalan jarraitu? Hirugarrena onartu? Komu-

nista Internazionalak baldintza gogorak, herstuak ezarriak zituen, eta komunismoa begi onez ikusten zuen norbaitek ez zitzakeen, inolaz ere, hoge eta bi baldintza haiek denak ontzat eman.

Hauzia erabakitzeko, sozialisten barruan hauteskundera jotzen dute. Sozialistak nagusitzen badira ere, Perezaguak (Euskal Herrian hainbestearainoko itzala zuen Perezaguak) beste bostehun lagunekin hirugarren Internazionala onartzen du. Berdin Bilbon, Eibarren, Irunen, Gallartan, Deustun, Begoñan, Ortuellan, Barakaldon. Komunistak dira nagusi.

Sozialisten eta komunisten arteko borrokak langileria erdibitzen du, lehengo indarra galdu eraziaz. Hau ongi baino hobeto ikusi zuen Hitlerrek Alemanian. Horrelakorik izan ez bazen nazismorik ez zen indartuko seguraski. Faszismoak, lur jotako langile-riak ongarriturik, lortzen du garaipena Italian.

Bienbitartean, 1.921.ean, espainiar harmadek berebiziko jipoia jasaten dute Afrikan. Hamarren bat mila xahutuak izan ziren. Jendea haserre dago, langilea urduri, huelga orokorraren deia egiten da. Bilbo eta honen inguruek eusten diote huelgari, baina Espainian ez du hainbesteko oihartzun eta erantzunik. Bilbon, kalean, borrokaldian bi langile tiroz hilak izan ziren.

Sozialista mogimendua zatituta dago. Gazte jendea, *Juventud Socialista* zeritzan taldera bildurik, hirugarren internazionalaren bidetatik abiatzen da. Sozialismoaren barruan ere, diktadurarekin gobernuan parte hartzen dutelarik, beroien tartean erdibiketa dator. Komunistek, anarkistek, euzko langileek ez dute legez kanpo jokatu beste erremediorik.

Sozialismoak jende multzo konkretu bati erantzun zion, baina ez euskaldungoari, ez abertzale zen langileari. Hontaz beste non-bait mintzatzen gara. Halere, badago sozialismoaren beste gertae-ra bat, gogoan hartu beharrezkoa: Eibarko sozialismoa, alegia.

Gai hau zuzenean erabiltzen ez badu ere, Eibarko sozialismoaren giro eta joeren berri egoki asko eskaintzen digu Imanol

Laspiurrek Kooperatibismoari eskainitako alean (JAKIN sorta, 7). Sozialistak izan bait ziren ALFA kooperatiba sorrerazi zutenak.

Toribio Etxeberria, eibartar. sozialismoaren aitzindarietako bat, sozialista gizakoi edo humanista bezala agertzen zaigu. Lanaren, jardunaren eta borrokaren poderioz goi mailara iritsi zen. Ongi baino hobeto erakusten digu berak Eibarko sozialismoa bere liburutan.

Bilboko sozialistak ez ziren abertzaleak, zentralistak baizik. Toribio eta honen kidekoek herri minik eta abertzaletasunik erakusten ahal dute?

Ez dezakegu egungo moldeetan eta pentsakerarekin erantzur jatorrik eman. Abertzaletasuna Eibarren ere erroturik zegoen; baina langilegoaren egoerari ez zion erantzunik eskaintzen. Horregatik eibartar langileak sozialismoaren bidetatik abiatu ziren. Sozialismoa nolabait euskaldundu zutela ere esan dezakegu. Baina, funtsean, lotzen zituen katea zentralista zela ez dago ahazterik.

Toribio, adibidez, euskaldun bezala eta euskal kezka agertzen zaigu bere lanetan. Horrela diote bera ezagutu zutenek eta berarekin hitzegiteko egokiera izan zutenek.

JAKIN sorta hontan bertan argitaratua izan denez gero, nahi duenak, Imanol Laspiurren lana irakurriaz, Eibarko langileriaren berri jaso ahal izango du. Bestalde, interesgarriak dira Toribio berak argitara zituen bi lanak.

EUZKO LANGILEEN ALKARTASUNA

Sozialisten Euskal Herriko mugimendua aipatu dugu, bai politikagintzako PSOE alderdi bezala, bai U.G.T. sindikatu bezala.

Beste indarrak ere bazegoen Euskal Herrian; adibidez, sindikato katolikoak eta anarkistak. Baina hauek ez zuten ia indarrak.

Katolikoak, ugazabaren jokoan erraz erortzen ziren; anarkistek, berriz, CNT sindikatoan alkaturik, Pasaia inguruan zedukaten indarrrik gehien; halere, sozialistak baino neurri eta indar asko txikiagoz.

Euskal Herrian, gure mendearen hasieran, abertzaletasun mogimendua eta indarra gogortuz, zabalduz, indartuz zihoan. Abertzaletasuna, Sabinok ereindako hazia, herri maila guztietan lur hartuz zihoan, bai burges jendearen artean eta baita langile eta nekazarien artean ere.

Euskaldun langileak umezurtz aurkitzen ziren beren langilegoaren barruan eskabideak zuzentzeko, beren promozioa bete-betean aurrera eramateko. Bilbon eta honen inguruan gehien erroturik zegoen langile arteko indarra, langile mogimenduaren eragin eta arnasa, sozialisten mogimendua zen.

Sozialistek, dakigunez, marxismoaren ideologia zedukaten gogoan, haren pentsakeraz egositako lan programak zabaltzen zituzten. Politikagintzaren bidez, langilea iraultza bidetatik abiarazteko itxaropenik ez zuten galtzen. Marxek Erlijioa herriaren *lobelar zela aitortu izan zuen inoiz; eta sozialistek ez dute erlijio erakundea langileriaren aurkakotzat baizik joko. Sozialistak, bestalde, zentralistak ditugu. Herri arazoa, herri izaera, Peninsula barruko herrien arazo larriak, ez dituzte aintzakotzat hartzen. Abertzaletasuna eta garai hartako sozialismoa ezkon ezinezkoak ziren, hemen aipatu ditugun bi arrazoiengatik. Abertzale mogimendua kristau giroan indartzen eta zabaltzen bait da: "Jaungoikoa eta Lege Zaharra". Herriaren aldeko langintza neketsuan diharduenik ere bai baita.

Horregatik, euskaldunak, euskaldun langileak, ez zuten aterperik. Sozialismoak ez zituen babesten; Alderdiak ere ez, hau politika mogimendua bait zen, hots: bereziki langilegoari begiratu beharrean, herri arazo nagusiari herri mailan begiratzen ziona.

Hau dela eta, langileen artean talde bat osatzeko komenentziaren kezka eta kontzientzia indartuko da.

1.910. urtean, Alderdiko zenbait langile, elkarte bat osatzeko araudiaren egitامua gertatu behar dela eta, bildu egiten dira. 1.911. urteko Otsailaren 2an. *Bizkaitarra* aldizkariak, moralidadez ongi erroturiko sozialisten uztarripetik at, elkarte bat sortzeko zorian izango dela dio.

Batzordea bere txostena gertatuz doa. Ekainaren 11n langile talde bat biltzen da eta txostena ontzat ematen du.

Euzko Langileen Alkartasuna sindikatoa 1.911. urtean sortzen da uztailaren 23an. Correo kalean dute beren ofizina eta biltokia. Txostena irakurri ondoren, ontzat ematen da; eta baita zuzendaritzarako bertan aipatutako batzordea ere. Langileriaren mogimendu barruan garrantzi handiko eguna dela esan genezake.

Araudiak bere bigarren atalean hauxe esango digu:

Bazkun au sortu da euzko-langillien bixi ixatia al dan geyen obetuteko, argiturik euren adimena ta mendurik euren guramena, bideak erakutsirik albait ondoen bete dagijezen euren biarkunak, langile ta euzkotar onak lez, euren artian alkarri lagundu dagijoen gauza guztijetan, eta Egikuntza'ren irabaztian langiliari zer zor yakon ondo jakiñik, berau, zor yakon au, bide guztijetatik aldeztu dagijen, beti baña lagijen azpitik urten barik eta Erlesifnuaren agindubak ausi barik.

Hona hemen elkarte berri honen xede eta jomuga nagusia Jendea adimenez argitu, ekintzetarako hezi, elkarrenganako laguntza giroa sortu, Erljioaren aginduak hausi gabe ekin.

Honek beste zenbait eginkizun zehatz eskatzen ditu: Diru laguntzak ongi antolatzea, bai gaiso alditarako, norbaiten heriotza-

rako, zigorraldiren bat dela eta lanik gabe aurkitzen denerako eta abar.

Zaratarik gabe, poliki-poliki hasi zen langileen elkarte bezala zabaltzen. Ez zen erraza garai hartan egiteko hau. Sozialistak, esan bezala, indartsu zeuden. Zenbait lantegitan nagusi zegoen sindikatoa hau zen. Eta bestetarako bat etorriko ez baziren ere, anarkistekin bat eginik zeuden, nagusiki jokatzan zuten lantegietan beste sindikatotakorik sar ez zedin. Langileren bat lantegi batean sartzeko, lehendabizi bertan agintzen zuen sindikatoan izena ematera behartua zegoen. Eta, jakina, euzkotarrek, sozialisten edo anarkisten sindikatoan sartzea, ez zuten begi onez ikusten.

Alderdi hontatik, bada, hazkundera poliki-poliki egin zen, Euzko Langileen Alkartasuna zabaltzen zihoan, baina nekez. Bigarren egunera ehun eta hirurogeita hemezortzi zituen. Urtearen bukaeran berriz, ugalduko dira, sortu izan zen iskanbilari eskerrak.

Bilboko Udaletxeak Abenduaren 15ean bilera zuen. Bertan De la Torre jaunak euskaldunentzat interesgarria zen arazo bat aurkeztu zuen. Udalkide edo kontzejal honek hauxe zioen: Bilboko Udaletxeak, langileak aukeratzerakoan (berdinean), lehenen bilbotarra hartu beharko zukeela; ondoren, bizkaitarra; gero, euskalduna eta, azkenik, kanpotarra. Bidezkoa zirudien eskabidea zen. Oposizioak edo egiterakoan, bi berdinean geldituz gero, dohain berdintsuak erakutsiz gero, bilbotarra lehenik onartzea, gero bizkaitarra eta euskalduna ondoren. Ez zen funtsik gabeko eskabidea: izan ere, Bilboko Udaletxeko enplegatuetako hamarretatik bat bakarra bait zen bilbotarra.

Eskabide honi gogor eta zorrotz, isekaz eta burlaz erantzun zion Laiseka kontzejalak. Mindu zen mindu, "espainiar probintzietakoak euskaldunak baino aurreratugotzat jotzen zituela" adieraziaz.

Eztabaida ez zen hontan gelditu. Abertzaleak mindurik zeuden sozialistaren hitz iraingarriak entzunda, eta behar zen erantzuna

ematekotan gelditu ziren. Euzko Langileek gogor ekin zioten. Gertatuaren berri zabaltzeko orriak atera zituzten. Baita agerkunde edo manifestazio nagusi bat antolatu ere. Abenduaren 31n, urtearen azken egunean hain zuzen, Correo kaletik irten eta Udaletxe-rainoko ibilaldia egin zuten hamabi mila pertsonak. Istilurik eta zaratarik gabe, baina seriooki indarra eta aurrerantzerako eska-bideak agertuaz. Udaletxeari, hurrengoan horrelakorik gerta ez zedin, neurri zorrotzak hartzeko eskatu zitzaion. Moyua jauna zen alkate, eta ontzat eman zuen agerkundearen eskabidea, hain zentzuz eta zuzen jokatu zutela ikusirik. Ezeren gorabeherarik gabe desegin zen manifestazioa.

Hots handikoa izan zen agerkunde hau eta euzko langileen nortasuna ezagutarazteko oso egokia.

Agerkundeak antolatzea ez zen aski. Elkartea zabaldu egin behar zen, indartu, militanteak gertatu. Bai, araudiak bere bigarrengo atalean dioenez, adimenez jantzi eta borondatez hezi behar ziren euzko langileak. Hitzaldirik, bilerarik, biblioteca edo irakurlekurik zainduko dute. Jendea bildu eta euzkotar eta langile bezala heziaz jenderik bereganatu zuten. Bilboz kanpo ere, berehala zabaldu ziren. Gasteizen, Soraluzen, Eibarren berehala ekin zioten.

Baina ideologia ezezik, adimena argitu ezezik, ekintzataratu lotu ziren. Ekintzak behar bait dira jendea irabaziko bada, egiazko eginbideak beteko badira. Eta egintza mueta horiek bi zutabe izan zituzten: mutualismoarena eta koperatibismoarena; baina guzi hori, politika zentzuz eta jomuga bezala ez, bitarteko zerbait bezala onartuz baino.

Elkarreak langilea daduka gogoan, eta langile horri, bai gaiso alditan, bai ezbeharrez eta minez aurkitzen denean, edo eta langileren baten emaztea alarguntzen denean, erantzun beharra ikusten

zuten. Sistima eta politika aldakuntzak gogoan zituztelarik, beste zenbait egintza ere gogoz landu zuten.

Koperatibismoa, nekez baina indartu zen. Kontsumo koperatibak izan ziran gehien zabalduak. Bai dendak, bai nekazarien arteko erakundeak, bai produziotakoak: Balmasedan, adibidez, mueble koperatiba bat bazuten. Gerra aurrean Ondarrun itsasontzi bat egin zuten, eta beste bat egiteko erabakia harturik zedukaten, koperatibaren bidez arrantzaleen egoera arintzearren. Bermeon fundizio lantegi bat egiteko asmorik ere bazuten. Kontserba fabrika ere egitekotan zeuden. Baina ezinbestean mozturik gelditu ziren, pentsa daitezkeen arrazoiengatik.

Koperatibismoak ez zukeen sistimarik alda eraziko. Kapitalismoa ongi errotua zegoen. Ez zuten erabili nahi sozialismo hitza, ez bait zuen gaurregun izan dezakeen sentidurik, garai hartako realizazio oso konkretoa baizik. Hala ere, zapalkuntzaren aurka, injustziaren aurka —nahiz eta zenbaitetan nagusia aberztale izenekoa izatea egokitu— gogor ekin zuten.

Garai hartako koperatibismoa erabat praktikoa zen. Kapitalismoaren sistima barruan zeudelarik, honen ardatzak bitarteko asko erabili ohi zituela ikusten zuten: batetik nekazariari eta arrantzaleari oso guti ordaintzen zitzaiola; eta, bestetik, kalera, saltokira edo dendara iristerako garestitzen zirela ohartzen ziren. Horregatik, koperatiba mailan, gauzak zuzenean saldu-erosiaz guztientzat egokiagoa gertatzen zen. Esate baterako, nekazariari haragia askoz gehiago ordaintzen zitzaion; erosleak merkeago erosten zuen, bitartekorik ez zelako eta ganadua hil eta haragia banatzeaz koperatiba bera arduratzen zelako.

Koperatibetan ateratzen zen irabaziaren parte bat bertan gelditzen zen; beste bat zenbait zereginetarako erabiltzen zen: kultura arlorako, haurren udaldirako, euskal kulturaren zabalkunderako, etabar; beste zati bat koperatibista berari itzultzen zitzaion.

Elkarte hau epaitzea oso irristakorra gerta dakigukenez kon-

turatzen gara. Alde batetik, sozialista girokoek (ez denek, sozialismo mueta desberdinik ere bazegoen eta) gogor maxiatu dute: Batikanoren esanetara egoteagatik zerion usaiatz hitzegiten zuten; "horiskak" omen ziren garai hartako euzko langileak. Beste zenbaiten iritziz, langileari egiazki, demokraziaz eta giza legez erantzun izan zion elkarteak duzue. Ez zen sozialista, baina ezta katoliko sindikato kolaborazionisten antzeko ere.

Egia esan, oso alderdi onak baditu. Batez ere gogoan har dezagun garai hartako giroa berezia zela. Abertzale eta langile bezala jokatzeko sortu izan zen elkarteak zela. Ideologia soilan gelditu beharrean zenbait ekintza antolatu zituen, eta politiko jomuga ahaztu gabe, noski. Euskal Herriak gerra aurrean ezagutu zuen sindikal indarrak handiena zen ezpairik gabe. Ez dugu hau luzaz baieztu beharrik izango, noski. Hortarako dato soil batzuk eman besterik ez dugu egingo:

- 1.911 urtean: 178 hasieran.
- 1.913 urtean: 2.800 militante.
- 1.929 urtean: 6.500 militante.
- 1.936 urtean: 72.800 militante (gainontzeko sindikatoak oro hartuz hainbat bazuen ia).

Halere eman zezakeen fruiturik ez zuen eman. Oso urte bereziak ezagutu zituen, eta ez zuen trinkotzeko hainbat denborarik izan. Sortu ere berandu, antza, sortu zen. Geroztik zailtasunik asko izan zuen zabaltzeko, batez ere Bizkaian. Ordurako, sozialistak Gipuzkoan su eta gar lanean zebiltzen: Eibarren, Errenterian, Irunen, Beasainen, etab. Gero, 1.917. aldeko kinka hura. Bertan euzko langileek parte hartu bazuten ere, ez ziren azken mugaraino joan, sozialistekin batera ez zetozelako, noski. Primo de Riveraren diktadurapean, berriz, sozialistak gobernuan zeudelarik ere, anarkistak eta euskal sindikatoak legez kanpo

gelditu ziren, eta ez zuten behar hainbat lan egiterik izan. Propaganda eta zabalkunderako mugatuak zeuden oso.

Gaurregun, jakina, aldaketarik ezagutu dugu, geroztik bai ideologian, bai pentsakeran, bai eta langilerian lan egiteko eran.

ERASKIN GISA

Interesgarri deritzagu, langileriaren historiaz jabetu ondoren, historian zehar gertatuak eta langileriaren egungo borroka eta jokabidea aztertu nahiari.

Langileriaren aurrerapenaren bi gurpilak politikagintza eta sindikalgintza izan dira. Zenbait estadutan (Inglateran, Alemanian) politikagintzari *atxiki zitzaion langileria. Politika lege eta moldeak alda erazi ondoren, langileriaren onerako izan zitezkeen lege eta erakundeak hedatu behar zirela pentsatzen zuten. Politikan eskubideak zainduaz, gainontzekoak ere eskuratuko zituzten itxaropenik gordetzen zuten.

Sindikalgintzak ere izan ditu jarraitzaileak. Frantzia gehienbat, Lantegi mailan eta lan arazoak gogoan harturik, langile bezala antolatu izan dute borrokaldia. Hala ere, ez dute Frantzia langileek elkaturik jokatatu. Bere baitako borroka eta eztabaidak langileria ahuldü egin du.

Funtsean, gaurregun, bi indarbide hauek erabiltzen dira; baina sindikalgintza eta politikagintza herstuago elkaturik daudela dirudi. European era askotako sindikatoak daude, batzuk besteak baino aurrerazaleagoak. Baina halere garai bateko iraultza gogoan lurpean gelditu dela dirudi, eta ez noski erretzekotan. Liburu erraza eta egokia duzu *Panorama del Sindicalismo Europeo* Fontanella argitaldaria eskaintzen diguna, Europako sindikatoak nondik noruntz dabilzan ikus dezazun.

Hemengo historia eta gertaerak, berriz, bereziak dira. Ez dugu behar bezalako burges iraultzarik ezagutu eta langileriak ez du bere ekintzak antolatzeke eta indartzeko betarik izan. Euskal Herrian sindikalgintzaren esperientzia oso laburra da. Oso berezia ere bai.

Zeintzuk dira egungo sindikalgintzaren jomugak? Langilearen eskabideetan ez da diru arazoa bakarrik erabiltzen. Ez da soldata kontua bakarrik konpondu beharrezko arazoa. Sarritan hori bera ere hutsean gelditzen bait da, prezioak goruntz abiatzen direnean. Lantegi barruan badaude beste korapilo bihurriak: lan antolaketarena, prima sistimak, arriskuzko lanak, gaisotuz ko-bratu beharrezkoak. Agintedunen preparaziorik eza, teknikoek jokabideak, bizimodua garestituaren igoerak berdinean banatzea, ehuneko honenbesteko sistema baztertzea, etabar.

Halere, sindikalgintzaren zereginik handiena, lantegi barruan ordezkarien batzordeak ontzat emanak izan daitezkeen lortzea izango da. Eta hori, lege-bideak zabaltzen doazen neurrian gertatuko da. Sindikalgintzak, lantegi barruan sortutako borrokak, lehenxeago edo geroxeago elkarrizketa eskatzen du gauzak konponduko bada, urak bere onera etor daitezkeen. Elkarrizketa hortan bi alderdi daude, nagusiarena eta langilearena. Hor dago, beraz, kaxoa: batzorde edo komisiok ontzat emanak izan daitezela, alegia. Ezinezkoa bait da sindikalgintza, legepean izan ezik.

legeak - ederra - kirolak

EUSKAL LEGE ZAHARRA Eizagirre-Garaikoa Joxemari

Gaurko euskaldunoi, batez ere berrogeitahamar urtetik beharakooi, esaten ote digu, gero, zerbait *Foruak* edo *Lege Zaharra* hitzak? Eta ez da hori bakarrik: zaharrago ditugunen artean ere, nortzuk dira gurasoei entzundakoaz aparte zerbait dakitenak? Eta jakin, nola jakin zezaketen gehiagorik, bizi, Foruak hil eta gero bizi izan baldin badira? Laster beteko da heriotza haren *Mendemuga, hain zuzen.

I. LEHENEN OHARRAK

Ez dugu ahaztu behar, *Foruak*, edo jatorkiago esateko *Lege Zaharra*, aspaldi izan zirela *erauziak. Ifarraldeko Euskal Herrian 1789-1790. urteetan, Nafarroa Garaian (hola uste du bederen autoreak) 1841. urtean, eta azkenik, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan (hirurotan jarraian eta urte beraren barnean) 1877.ean. Handik hona hain epe luzea igaro denez eta kondaira jarraipena (hau da, tradizioa) eten zaigula, ez da harritzekoa gure herriaren kondaira oroimena ere hain ahula izatea. Horregatik, batek baino gehiagok galdetu ere egingo dio bere buruari, ea Foruen **kontakizun* hori ez ote den amets edo mito bat izango.

Beraz, oraingo lerro hauen egitekoa horixe izango da: Foruen histori *benetazkotasuna erakustea eta (besteak beste eta zenbait politika gizonen iritziak aparte) Lege Zaharraren balioa gaurko euskaldunei agertzea. Hauxe da egilearen asmoa.

Baina, aintzina pasa aurretik, ohar bat zor diot irakurleari; hemengo lerroetan Gipuzkoatik begiratuko zaie batez ere euskal herrialdeei, eta hori arrazoi soil bategatik: autoreak Gipuzkoa ezagutzen du *hurbilenetik. Hala ere, esan behar da gainerako *herrialdeetarako ere (eta bereziago Araba eta Bizkairako) balioko dutela hemen esango direnek, oinarrian bide beretik bait doaz guziok mendeak zehar.

1. Zer ziren Foruak?

Galdera berau egin zioten gizon batek, honela erantzun omen zuen: *Foruak zer diren? *Zergak pagatu ez eta soldadutzara joan behar eza. Horixe dira Foruak!* Egia esateko, ez zitzaion arrazoirik falta gure gizonari. Hori ere bazen Foruen *jaurpidean; hala ere, esan beharra dago, Foru-gobernabide hura zerbait oinarritzkoagoa eta garrantzizkoagoa ere bazela.

Euskal lurraldeek, mendeetan zehar, eduki izan zuten autonomiako konstituzioa adierazten dute *Foruek* edo nahi bada *Lege Zaharrak*. Izan ere, Bidasoa ibaiaren alde bietako euskal lurrak —ifar-hegoaldeak, alegia—, Gaztela eta Frantziarekin zuten *erregebatasuna gora-behera, benetan beren buruen jabe izan ziren.

Gogoan har ditzagun, ordea, hori ulertzeko, garrantzi handiko bi gauza. Alde batetik, euskal lurralde haiek, aipatu diren herbeste-ko *Erresumekin batu baldin baziren ere, hori ere borondate librez eta inolako kanpotiko *bortxapenik gabe egin zuten, ez bait ziren izan *iskilo bidez menperatuak. Bestalde esan dezagun, *Foruak* deitu zen *arau-saila ez zela osatzen Erregek emandako *populaketarako *lege-abantailekin bakarrik, hau da, lege-

bilduma hura ez zela erdaraz *carta-puebla* eta *fuero de población* deituekin bakarrik osatzen. Lege Zaharraren sustraia, *ostera, —Gorosabel-ek hola dio— Euskal Herriak *aintzinatetik eduki zuen politika-*erakunde eta gobernabide jatorra baizik ez zen. Eta *jatorrizko *Lege Zahar* hau, euskal lurraldeek agerian gorde zuten erregebatasuna onartzean ere. Horregatik da, Gipuzkoan bederen, Lege Zahar horren izena *Aintzinako Usario eta Ohiturak* (*Antiguos Usos y Costumbres*).

Jakina denez, edozein herriren *erakunde eta *Zuzen-gobernabidea ez da ia sekula historiaren une bateko fruitua, historiaren bilakaera baten ondorioa baizik. Nonahi ere, lege-bilduma berak historiaren une eta helburu ezberdinei dagozkien arauak erakusten dizkigu, bilduma hortako legeen artean historiak ekarri duen aberastasun nahasi bat eskainiaz. Honela, ba, ez da harritzekoa, foruzko legeetan era eta zio desberdinetako lege-moduak aurki baldin baditzaiegu. Esate baterako *bizilagunak toki hautatu bazuetan bil zitezten, Erregek *zerga-abantailak eman ohi zituen, eta legeok ere Foruetan daude; baina, horien ondoan, euskal politika-*antolamenduari dagozkion arau eta legeak ere hor daude. Baina —eta hauxe da guretzat inportanteena— politika-estrukturari dagozkion legeok agertzen zaizkigu Foruen oinarrietan. *Egitura-lege hauen *jatorburuak Historiaren ilunpetan galtzen dira. Hala ere, Gorosabel-i jarraitu nahi bazaio (eta beronen iritziak dirudi zuzenena), oinarrizko lege horiek, ohitura bidez aintzinako euskal *leinuen antolamendu jatorretik datozenak dira. Espainiako toki askotan ere (León, Soria eta Cuenta-n, adibidez) baditugu Foruak; baina toki horietan Foruok *jende-bilketa lortu orduko (eta halako Foruak hontarakoxe ematen zituen Erregek Gaztelan), galdu ohi ziren eta ez zuten luzaroragoko iraupenik izaten. Gure Lege Zaharrak, ordea, bi berezitasun nabarmen ditu: euskal Foruak herrialde osora *hedatzen du bere eskumena (*jurisdicción*). hau da, herrialdearen *eskualde bakoitzera. Foruen *lege-eskumena

ez dago, Gaztelan bezala, hiri jakin batera mugaturik. Eta bigarren, euskal Lege Zaharra, jatorriz *lur irekian sustraiturik dagoenez, iraunkorra da, jatorrizko lur hura bezain iraunkorra. Euskal Foruek, beraz, badute, mamiz eta funtsez, beste haiek ez zuten zerbait bereizirik.

Hemen adierazi nahi den zentzu berean idatzi zuen Madrileko Katedra-irakasle izandako *García Gallo*-k ere:

Los territorios vascongados, aunque sometidos políticamente a Castilla, conservaron cada uno su propio Derecho Público y Privado.

Eta 1876. urtean, Espainiako Gorteetan Foruak baztertu zituen *Legegaia prestatu zuen *Batzordeak hola aitortu zuen:

...que las Provincias Vascongadas habían gozado de una verdadera autonomía...

2. Noiz eta nola sortu zen Lege Zaharra?

Lehentxoago Foruen jatorrizko *etorkiaz mintzatu gara. Baina noiztik mintzatu izan da *Foruei* buruz? Foru haroaren hastapenak, euskal herrialdeak inguruko Erresumekin *erregabatu ziren garaie-tan ezarri ohi dira. Baina gogoan har dezagun herrialde bakoitza garai desberdinetan elkartu zela inguruko Erreinu haiekin. Honela, Gipuzkoa eta Gasteizko hiria 1200. urteko urriaren 8an erregabatu ziren Gaztelakoarekin. Arabako herrialdeak, berriz, 1332. urteko apirilaren 2an, eta Bizkaia 1379.ean, hau da, Gaztelako Pedro Krudela, *ondarez, Bizkaiko Jaun gertatu zenean. Bestalde, Nafarroarena geroagokoa da: 1521ekoa, Karlos I.ak harma bidez Erresuma hartu zueneko. Nafarroa Behereak edo 6. Merinaldeak oraindik denboraldiren batean beregain iraun zuen Albret-eko Joana Erregina beraren agintaritzapean. Geroago eginen zen Frantziako Erresumarekin elkartzea. Lapurdi eta Zuberoaren elkartzea, berriz, 1450. inguruan egin zen.

Lege Zaharraren gobernabidearen jaiotordua, hain zuzen atzerriko Erreinuekin egin zen batasun-molde haien sasoian ipintzen da, izan ere —gezurra badirudi ere— egokiera hartan euskal herrialdeek beren *Zuzen (Deretxo) jator eta berezia gorde egin bait zuten. Horrela, Erreinu haien *itunkide eta kontratu-lagun gertatu zirenarren, betidanik zetorkien erakunde autonomu hura ez zuten inola ere galdu. Honela, ba, *ondoriobidez, Erreinuaren barnean ere halako apartekotasun bat zuten euskal herrialdeek. Gobernabide berezi horri gaztelaniaz *Fuero* edo *Fueros* deitu izan zitzaion. Foruzko Gobernabide hura, beraz, batasun bat zen, baina Erreinu batekin baino hobeki Erregerekin egiten zen batasuna.

Zenbaitetan halako batasun-itunaren *gutun edo agiria gorde ere egin da. Halanola, Arabakoa. Erregeren eta herrialde honen arteko *itunaren gutuna Gasteizko *Herrialde-etxean gordea egon da, *Diaz de Arkaia*-k esaten digunez. Bestetan, berriz, ez dugu aurkitzen holako gutun edo agiri baten aztarnarik, Gipuzkoan esate baterako. Dena dela, historigile guztiak —euskaldun nahiz erdal-dun— bat datoz, halako batasun egunetan beti egin zela juramenduzko itun bat aitortzean. Hau da, beti izan zela halakotan herrialdearen eta Errege onartuaren arteko elkar-hitzemate bat. Hain zuzen, emandako hitzaren aterpean gorde zituzten euskaldunek beren Lege Zaharrak, hots, beren Zuzen berezia.

Esan denaren arabera, Lege Zaharraren Kostituzioaren funtsa bi pilaretan tinkatzen zen, Erregeren hitzemanean eta euskal herrialde baten borondatean. Eta hau bera gertatzen da Nafarroa Garaiko kasuan ere; izan ere, Nafarroaren batasuna harma bidez egina izanarren, Gaztelako Erregek barrengo nafar *erakundea betiko bere jatortasunean utzi zuen. Honegatik, lehenbiziko Karlistadara arte Nafarroako Gorteak biltzen jarraiki ziren, beren *lege-ahalmena beti bezala erabiliaz.

Aipaturiko itunak bi alderdi zegozkienak zirela esan dugu, eta akordio haiek, horregatik, aldaezinak ziren zuzenez bi aldeon

baiezkorik gabe. Eskuarki honela ikusi izan dira akordio hauek, hori da behintzat teoriarik zabalduena. Foruen etsaiek, ordea, Erregeren *gofirmazio beharra gogorazi ohi zuten.

Jakina denez, bata bestearen segidan zetozen Erregeek gofirmatu egin ohi zituzten Euskal Herriko Foruak. Gipuzkoan, adibidez, IV Hendrikeren garaitik (hau da, izan ere, ezagutzen dugun gofirmaziorik zaharrena) Errege guziek gofirmatzen zuten Lege Zaharra. Jokabide hau dela eta, Foruen etsaien ustetan, Erregeren eskuetan zegoen Lege Zaharraren jarraipena. Haiek ziotenez, Foruek —irauteko— Errege bakoitzaren baimena behar zuten. Honela, ba, zetorren Errege bakoitzak *ex-novo*, ezerezetik alegia, sortzen zuen berriz ere Forua. Dena dela, arazo honen azterketa oinarrizkoago batek teoria horren funtsik eza agertzen digu berehala.

Foruen *gofirmapena —ongi ikusi nahi bada— *Legeriaren zihurtasun behar baten arazoa zen. Izan ere, garai haietan ez zen erraza gertatzen zein lege zeuden tink jakitea. Hau zela eta, Errege bakoitzak, gofirmazio bidez adierazten zuen zein lege ziren oraindik gorde beharreko, eta zein ez. *Hauzitegi eta *Gantzelerietan nahasian zebiltzen hainbeste lege eta gutunetan ez galtzeko era bat zen hura. Bestalde, *Ancien Régime* delakoan, Errege bakoitzak bere aurreragokoen legeak gofirmatzeko ohitura zuen, ez bait zen gaurko *Herriarteko Zuzenaren printzipioa (aurrekoen hitzemanak eta betebeharrak ondorengo Gobernuak ere gorde behar dituztela, alegia) oraindik ezagutzen. 1839tik aurrera (Kostituziodun Monarkia modernutan, esan nahi dut) ez ziren batere premiazkoak gofirmapen haiek, legeak beren *bildumetan polliki jasoak zeudelako.

Honegatixe da ulergarri VI Fernando Erregek, 1725.go urriaren 8an, Gipuzkoaren batasun-ituna borondatezkoa izan zela aitortzea. Eta, 1806.an, Gaztelako Kontseiluak ere eman zuen bere

iritzia puntu hontaz, batasun hura hasieran bi alderen konponbide bat izan zela idatziaz.

II. LEGE ZAHARRAREN BARRUNBEA

Orain artean jaiotorduko Foruen zuzen-izatea, deretxo-izaera, eta funtsa argitan jartzen saiatu gara. Baina jakitekoa da beste zerbait ere, hau da, Foru haiek euskal herrialdeei ematen zieten erakunde eta antolaketa. Benetan garrantzikoa da, izan ere, Lege Zaharraren mami eta barrunbe hori. Hori aztertzeko, lur-entidade mugatuenetatik zabalenetara pasatuko gara.

1. Udala

Edozein politika erakundetan, basian eta oinarrizko mailaren batean dagoen izakia da beti **udala*. Hori bera gertatzen da Lege Zaharraren **governabidean* ere. Toki berean bizi diren gizon eta sendien artean berezko loturak sortu ohi dira, eta lekuko arazoak, guzienen bezala sentitzen dituztelako, elkarrekin konpondu beharrean aurkitzen dira. Jokabide hontatixe jaiotzen da, berehala, demokrazia edo guzien arteko herri-jaurlaritza.

Hauek hola, ez da batere harritzekoa Mendebaldeko demokrazia hiri barnean edo inguruan sortu izan bada, Greziako Hiri-Erresumetan esate baterako. Horregatik, ba, demokraziaren berebiziko ikaslekua gertatzen da Udala herrientzat, izan ere hiribizitzan bait dute gizonak, politika eginkizunetarako beren lehenbiziko **eskuharmena*. Ez da batere kasualitatea *Polis* greziarrak eta *hiri* hitzak esanahi bera izatea. Udalak, noski, demokrazia aurreko erakunderik ere eduki dezake, eta Historiak badu holako adibide franko. Esan nahi nuena zera zen: Udala, berez, demokrazia baten bila doala.

Euskal Udala —esan dezagun honez gero— demokratikoa

zen, eta gure aintzinako demokraziaren oinarriak nagusia hortxe da. Hori da Foruek eskaintzen diguten lehenbiziko irakatsia. Euskal *hiritasunaren agerpenik handienetakoa da hauxe.

Hauzo lagun guziek batean zuzentzen dute, hasiera hartan, udalaren bizitza (**Kontzeju Irekia*). Honegatixe deitu izan zaie Udalen batzuei *Universidad*, Aia-ri esate baterako. Jendetza ugari-tzean, ordezkariak izendatuko dira udalaren politika eramateko. Honela jaiotzen da Udalen Batzordea, Aintamendua. Ez da erraza jakitea noiz sortu zen garai bateko Kontzeju Irekiaren ordezkari *Kontzeju Hertsia* hau. Dena dela, geroago ere noizbehinka bilduko da Kontzeju Ireki hura ere. *Etxegarai*-ren eritziz, Aintamenduaren jaiotza XVI. mendean hasieran ezar liteke (Ordizia-ko Udaletxea 1516an bukatu zen), baina *Gamón*-ek bestelakorik dio: Gipuzkoan baditugu Aintamenduak XIII. gizaldiaren hasieran ere, eta zer esanik ez XIV.ean.

Lege Zaharraren arabera, Udalak autonomia zabaldu zuen bere barrengo gobernabideak hautatzeko; direrako *Ordenanzas* haien bidez erabakitzen zen politika bide hura. Udalen artean alde handiak izanarren, kontzeju lagunen hautaketa *insaculación* delakoaren bidez egiten zen gehienetan. Gerora, mendeen hasieran, aukeragarriak geroz eta gutiago izan ziren, hau da, hauzoan *ondasun errotuak zituztenak batez ere.

Udalaren buru *Alkatea* edo *Auzapeza* (edo *Hendorea*) izan ohi zen, Kontzeju lagunek aukeratzen zutela. Alkatearen agintean geratzen zen *hauzi-boterea ere, eta ez aministrazio boterea bakarrik.

2. Herrialdea

Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak, Gaztelarekin *erregebatua-
rren, beren lurraldearen nortasuna gorde egiten dute, ez dira hare-
kin nahiz elkarrekin nahasten eta beren barrengo gobernabide

autonomua *atxiki egiten dute. Hau da, hain zuzen, Foru errejimenaren apartekotasunik nabarmenenetako bat.

Gipuzkoako iturri zaharrenek erabili ohi duten *Hermandade* hitzak badirudi Probintziako justizi aministrazioa aipatu nahi duela bereziki; baina orain hemen axolazkoena gerta lekigukeena, herrialdearen *antolamendu politiko-aministratibua da.

a) *Batzar edo Biltzar Nagusiak*

Gipuzkoako Arautegiak (*Ordenanzas*, 1397) hola dio herrialdeko Batzar Nagusi hauei buruz ari dela: *Costumbre antiquísima y de cuyo principio no hay noticias*. Arautegi berak ematen du Batzarra nola osatzen zenaren berri, bertan parte hartzen zutenen zerrenda adieraziaz:

... todos los Caballeros, Procuradores de las poblaciones, Alcaldías y Valles de ella con especiales poderes de los Concejos...

Batzarra urtero biltzen zen Gipuzkoan, eta XIX. mendean 50 Udal eta Udal-elkarte ziren *bozdunak. Udalek eta hauen elkar-teen aukeratzen zuten beren ordezkaria. *Aukeragai izateko, 25 urte behar ziren gutienik, erdera jakin eta lekuan lekuko izan. Gipuzkoan bilerak ez ziren beti leku berean egiten, baizik eta txandaka, hortarako izendatuta zeuden herrietan (1867an baziren Gipuzkoan 23 herri). Korrejidorea nahiz bilera-herriko Alkatea izaten zen Batzarraren Lehendakari. *Letrau kontseilari bati ere dei egiten zitzaion.

*Bozen *gehientasunari zegokionez erabakitzen ziren gauzak; baina bakoitzaren boza ez zen pertsonala, zekarren herri-ordezkaritzari zegokion hauzo-lagunen arabera baizik (*voto fogueal*: herriko sukalde lumeroaren arabera, alegia). Batzarraren egitekorik nagusienetako bat Diputazioa izendatzea izan ohi zen. Bestalde, justizi betekizunak ere bazituen Batzarrak Alkateen kontrako

*goradeietan, eta baita Udalen arteko hauzi eta *itsas-legekontra-koetan ere. Hontaz geroago ere esango da gehiago.

Batzar Nagusiok *Bereziak* ere izan zitezkeen, deliberamendu jakin batzuetarako dei egiten zitzaientean. Erregek nahiz herrialdeko nagusiek dei egin zezaketen Batzar Berezi hauetara, Erregeren nahiz Probintziaren arazo larriren bat erabakitzeko. Batzar Bereziok toki jakinetan egiten ziren XVIII. mendearen azkenetaraino (Bidaniako Usarraga, Azkoitiako Basarte). 1700ez geroztik Diputazioaren *egon-herrietan izaten zen gehienbat Batzar Berezia.

b) *Diputazio Orokorra*

Izen hau da (*Diputación General*) gobernagailu honi zegokiona, eta ez *Diputación Foral* delakoa, XIX. mendean sortua, hain zuzen Espainiako beste Probintzietako Diputazioetatik Euskal Herrikoak bereizteko asmatutakoa.

Herrialdearekiko arazo eta zereginak zabaltzen eta nahasia-gotzen doazen heinean ikusten da *Ordezkaritza Orokorren beharra, izan ere Batzar Nagusiak urtean behin biltzen bait ziren eta, onenean ere, laster bukatzen. Berehala ikusi zen, beraz, instituzio iraungarri baten premia. Arrazoi hautxek *aurkezten dira Bizkaiko *Jaurerrian *Gobernaritza (*Regimiento*) bat sortzeko (1500): herrialdeko arazo arrunt asko erabaki beharra, Batzarren erabakiak bete beharra. Gobernaritza horri *Diputazioa* deitu zitzaion Gipuzkoan.

Gipuzkoan ez dakigu xuxen Batzar Nagusien ordezkari izango zen Diputazio hau noiz jaioa den. 1575 aurretikoa denaren susmoa du Etxegarai jaunak, eta 1696ko Bilduma Berriak oso aintzinakotzat jotzen du Diputazioa. Eman dezagun, beraz, gipuzkoar Diputazioa XVI. mendekoa dugula. Dena dela, gogora dezagun, hasiera batetan, Korrejidorearen *egon-herriko Alkate eta Aun-tamenduek osatzen zutela Diputazioa; gerora bai aldaketa handiak

izan ziren Diputazioaren barnean. 1748an *Diputazio Arrunta eta *Berezia banatzen dira. Une honetan Diputazio Arrunta hauek osatzen zuten: diputatu orokorrak (Donostia, Tolosa, Azpeitia eta Azkoitiako hauzotarretatik aukeratuak) eta beronen laguntzaileak eta urteko Udala zen Kontzejutik bik. Diputazio Berezia, berriz, Arruntaren diputaduek, Korrejidorearen egon-herrietako hiruk eta gainerako lau Partiduetako lau diputaduk. Honela, ba, Diputazio Arrunta zabaldua gertatzen zen Berezi honetan. 1854ko Arautegiak hirmotu baizik ez du egingo joera hau. Izan ere, Korrejidoreari *egoitza jakin bat ematen zaio orduan eta Diputazio Arrunta hiru lagunek osatzen dute (Ordezkarik Orokorrak eta beronen bi laguntzailek), baina gipuzkoar guzaien artean (nongotar-tasunaren baldintzarik gabe, esan nahi da) hautatuaz. Eta Diputazio Berezian zortzi diputadu sartzen ziren orain, herrialdeko lau Partiduetatik bina.

Diputaduen aukeraketa Batzar Nagusiek egiten zuten, eta Batzar Nagusion arteko hutsunea betetzeko zirenez, urtebetekoa zen haien zeregina. Diputazio Arruntaren inguruan, hau da, urte osoan agintedun zen Diputazioaren inguruan, *bulegokrazia bat sortu zen (*Idazkaria, *Diruzaina, eta abar).

d) *Zentzatzaille edo Korrejidorea*

Korrejidorea, Gaztelako Erregeren ordezkarria zen Gipuzkoan eta Erregeren goi-agintea zuen beregan. Ezagutzen ditugun lehenengo iturrietatik dakigunez, (II eta IV Hendrikeren Arautegi aprobaturatik), kargu hau herrialdearen eskariz sortua zen, eta beronek nahi zuen artean izendatzekoa. Hala ere, 1480az gero etengabekoa izango da agintaritzaren hau eta hiru urtetarako izendapena ematen zitzaion Korrejidore berriari.

Baina komeni zaigu Korrejidorearen zeregina nolakoa zen jakitea. Ez dira nahasi behar garai bateko *Buruzagi Politikoa-

rekin edo geroko *Gobernariarekin. Korrejidoreak ez zuen, berez, gobernari eginkizuna, egokiera apartekoren batean noizbait holako egitekorik bete izanarren. Korrejidorearena justizi eginkizuna zen, hau da, Erregeren izenean, Gipuzkoako hauzitegien justizi bete-beharra zaintzen zuen. *Bilduma Berriak dioena ikusiz gero nahiko argi dago hori. Valladolid-eko *Gantzileriakoren bati eman ohi zitzaion kargu hau, eta askotan hango bere lanekin batean eramaten zuen honek hemengo Korrejidoretza.

Epaile zenez, herrialdean zegoen goi-tribunala zen Korrejidorearena eta berarengana jotzen zuten gipuzkoarrek beheragoko hauzitegien epaien kontra. Hala ere, zenbait gauzatarako lehenen hauzitegia ere bera zen. Bestalde, bazuen alor berezi bat ere: Udaletako kontuak *birrikusten zituen, baina aministrazio-gaia baino gehiago zen hau ere justizi-gaia (gaurko *Kontu Tribunalaren antzera edo).

Egia da, Korrejidorearen betekizun batzuek bazutela halako zentzu politiko bat ere, Batzar Nagusietan Erregeren eskubideak zaintzeak adibidez; baina, hori gorabehera, han ere Korrejidorea ez zen nahitaezkoa, bilera tokiko Alkatea ere izan bait zitekeen haren ordezko. Diputazioetan zuen zeregina ere ez da ageri garbi eta ongi mugatua. Guzi hau jakinik argi dago Korrejidorearen betekizuna ia osoki justiziazkoa zela.

Korrejidorearen *egoitza, urtebeterako (XVIII.era arte) edo hiru hurtetarako Donostian, Tolosan, Azpeitian nahiz Azkoitian egon zitekeen. Hauek ziren, beraz, *Txandako Udalak. XIX. mendean eman zitzaion egon-toki aldaezina Korrejidoreari, Tolosan.

3. Hiru Herrialdeen Elkarrikusketak

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herrialdeek ez zuten hirurok osatutako guzien gaineko erakunde politiko bat moldatu: ez zuten goragoko batasun politikorik egin. Hala ere, hiruron itur-

buru bakarreko *governabide *berarizkoagatik eta elkarren artean zuten kidetasunagatik, hiru herrialdeen artean bazituzten denen interes politiko-ekonomikoak. Hauek tarteko, eta historiatik zituzten elkarrenganako jaiera eta ahaidetasuna gogoan izanik, ez da harritzekoa hiru herrialdeen arterako sortu zituzten *Elkarrikusketak.

Gogoan ez diren garaietatik (Batzar Nagusien jaiotorduetatik bai, bederen) bazen Elkarrikusketa hauetarako ohi-turarik. Arabako eta Gipuzkoako Probintziak eta Bizkaiko Jaurerria bildu ohi ziren bilera hauetan, guzienak zituzten arazoak elkarrekin, ordezkari bidez, aztertzeko. Arazo hauek berdin izan zitezkeen hiruron artekoak nahiz Erregerenak edo *Erdiko Boterearenak. Lege eta Ohi-tura Zaharren defendatzeko bereziki eratu ohi zuten hiru herrialdeok ordezkari-tza bakarra, horrela, guzien artean guzienak zituzten Legeak babesteko. Holakoetan agertzen zen argiago hiru herrialdeen batasuna. Egokiera jakin batzuetan berdin gertatu zen hiru herrialdeon eta Nafarroaren artean ere, eta hau ere Foruen arazoren bat zenean batez ere.

Elkarrikusketak edozein tokitan bil zitezkeen, alde aurretik erabakia zen txandaren arabera. Hortarako deia, Diputazioetako batek egiten zien gainerakoei, eta Batzar Nagusien ordezkariak biltzen ziren izendatutako lekuan. Herrialde bakoitzetik goi-istituzio haien ordezkariak elkartzan zirenez, herrialdeetako Batzarren botereaz jantzirik zegoen guzien gaineko bilkura hau ere. Honela, herrialdeetako Gorporazio guzien gobernu-tresna bat sortu zen Elkarrikusketa hauetan. Bilerarako egokitu zen arazoaren barnean, Elkarrikusketa hauetako erabakiek behartu egiten zituzten herrialdeak. Elkarrikusketetako *Batzorde-lagunak izaten ziren deliberamenduen *betearazle. Neurri batetan Elkarrikusketa hauek *konfederazio-gailu baten antzera jokatzan zuten.

1800.ean Korrejidoreak gora jo zuen —Erregerengana alegia— Elkarrikusketa hauen kontra, ez zirela legezkoak eta. Irekitako

hauzi hau bertan behera utzia izan zen, euskal ordezkariak Erregeren baimenik gabe ere bidezko zirela frogatu zutenean.

Zein gai erabiltzen zituzten, ordea, Elkarrikusketa hauetan? Eman ditzagun, etsenplu bidez, kasu batzu: 1804ean herrialdeek elkarri gaizkileak ematea (estradižio akordio bat edo) onartu zen; 1813an, Tolosan, Napoleon-en kontrako harmadarenizat janariak-eta nola bildu erabaki zen; 1825ean, Ameriketatik euskal kaietara deus ekartzerik debekatzen zuen Errege-aginduari aurpegi ematea deliberatu zen; eta 1828an Bilbon egin zen Elkarrikusketan Euskal Herriko Lege Zaharra nola gorde aztertu zen.

III. ISTITUZIOEN AMINISTRAZIO LANAK

1. Herrialde barnean

Gainerako puntu askotan bezala, ohar hauek gehienbat Gipuzkoara mugatuko ditugu. Gipuzkoako Udal eta Herrialdearen zeregin aparta, eta beroiei bakarrik zegokiena, holatsu labur daiteke:

1º. *Polizari* zegokiona ere bertakoen esku zen (*Mikeleteak* ziren Gipuzkoako goardazibilak edo jendarmak). Presondegien jasotzea eta zaintzea, eta presondegiekiko eginbehar denak Herrialdearen eta Udalen kontu zeuden.

2º. *Lurraldearen defentsa*, legorrez eta itsasoz, hortarako behar ziren gizon eta *defendagailuak egokituaz. Indar-gazteluak ere (Donostian, Hondarrabian, Getarian, eta abarretan) bere kontu zituen Probintziak.

3º. **Osasun-Zaingo*a, beharreko ziren gaisotegi eta sasikoen-tzat haurtegiak jasoaz.

4º. *Herrietako eraikuntza* oro: Zumaia, Pasaia, Getaria, Donostia eta Hondarrabiako portuak, bide eta kaminoak (hain

zuzen, gaurko bide-sarea gehienbat Foru garaikoa dugu, XVIII. mendearen azkenetakoa eta XIX.aren lehenengo hamarrekokoa).

5°. *Irakaskintza*. Eta ez lehenen mailakoa bakarrik, baita Oinatiko Unibertsidadeko irakasleen soldata ere. Eta *bultzamen pribatuari ere lagundu zitzaion alor hontan (Azkoitiako Zalduntxoei, esate baterako).

6°. **Lurgintza*. Basoa, abeltzaingoa, *ihizea eta arraintza bertako legeen arabera zaintzen ziren. Ezagutzen dugun lehenengo *basalandaketa 1548ko Batzar Nagusian erabaki zen Gipuzkoarako.

7°. *Industria*. Ola zaharrentzat bazen *legeria berezi bat eta lantegiok beti begiratu ziren halako ardura aparteko batekin.

8°. **Merkatalgoa*. Gipuzkoako herrialdearentzat garrantziko zen ekinbide hau. Gogora ditzagun hemen *Real Compañía Guipuzcoana de Caracas* (1728), Donostiako Konsulatua (1682), eta Bilboko Konsulatua ere (15..). Hau dena zegoen herrialdeen ardurapean. Guzi hauen eta aipatu ez ditugun besteren arduradun izateko, ordea, premiazkoa zen herrialdea benetan bere ondasunen (zerga etab.) jabe eta aministratzaile librea izatea.

2. Herri Ondasun-Zaingoaren sistema

**Herri Ondasun-Zaingoa* hitzak erabiliko ditugu hemen *Hacienda Pública* adierazteko (*Udal Ondasun-Zaingoa*, etab. *Hacienda Municipal*, etab. esateko utziaz). Herri aministrazioaren alor hau nahiko nahasia denez, zenbait ataletan zatikatu da gaia, Lege Zaharraren babespean bizi izan zen herri-ondasunen aministratio-sistema argiago ager dezagun.

a) *Herrialdeko Herri ondasun-sistemaren esanahia*

Jakin dezagun lehenik zer adierazi nahi den hitz horiekin. Labur-labur esateko, hauxe: Izaki edo talde politiko batek, gizar-

teko lagun guzien beharrizanak asetzeko daramazkien diru-zeregin elkartuak adierazten dira herri ondasunen sistema aipatzean. Zeregin horiek bi aurpegi dituzte: *sarrerak (ingresos)* daude batetik, eta beharrizanak garbitzeko egin behar diren **eralgiak (gastos)* bestetik. Ondasun-Zaingoari dagokion hontan, zenbait puntu nagusiri begiratu behar zaio, beronen esanahia muga dezagun: lehenik, diru zeregin haiek zein eta nolako gizarte politikori zuzenduak dauden jakin behar da eta, bigarren, Ondasun-Zaingoak gizarte horri zer-nolako zerbitzuak eman behar dizkion ikusi behar da sistemaren **eremua* ezagutzeko. Ez dago esan beharrik bi mugaketa hauek politika bidez egiten direla: hau da, gizarte bati halako edo holako sistema bat ezartzea, eta sistema horren gizartearekiko zeregina mugatzea, biak dira politika erabaki edo hautapen baten ondorenak.

Lege Zaharraren garaietan Gáztelako Erregepean, Gaztelak alde batetik eta euskal herrialdeek bestetik, herri Ondasun-Zaingoegi zegozkien sistemak, desberdinak eta zeharo bereziak izan zituzten. Gerora, XIX. mendez gero sortutako berdintasunak ez digu hau ahaztuarazi behar. Izan ere, herrialdeak hainbat beharrizan (aipatuak ditugu arestian batzuk) ase behar baldin bazituen, derri-gorrezkoa zen hartarako askatasuna izatea ere. Ikusi dugunez, Gipuzkoako Ondasun-Zaingoaren sistemak garai haietako Erre-*suma* bateko diru-zerbitzu gehienak bete behar zituen, baina orain jakin behar dena beste zerbait da: nondik nora jasotzen zituen herrialdeak bere irabaziak. Herrialdeak bi iturritatik hartzen zituen bere hartzekoak: jabe zen ondasunetatik eta ezartzen ziren zergetatik. Baina, ohar hauek ahantzi gabe, ikus dezagun lehendabizi beste arazo ezagun bat: Gaztelako Koroak zituen lurraldeetan ez zegoen zerga-sistema bakarra. Gaztelan bertan, era batera zen; euskal herrialdeetan, arras bestera. Non eta nolakoak ziren berdintasunak eta haien arteko aldeak? Bai ahal zuten elkarren arteko loturarik? Hau dena ongi uler dezagun, premiazkoa da

hasieratik bertatik berezketa bat egitea: Erdiko Botereari zor zitzaizkion zergak lehenik eta herrialdeari nahiz udalari zegozkionak gero.

b) *Koroearen zergak*

Gipuzkoa Gaztelarekin *erregebatzean, herrialdeak ez du onartzen Gaztelaren zerga-sistema. Hontan, badirudi Gipuzkoa, lehenagotik (Nafarroarekin erregebatu zenetik [1123-1200]) zetorkion usuario bati jarraituaz ari dela, eta beharbada oraindik gartakizun haren aurretik zetorkionari jarraikiaz (hau da, Gaztelarekin izan zuen lehendabiziko erregebatasunetik, 1076-1123). Bestalde, Gaztelako Erregeek behin eta berriz aitortu zuten sistemaren apartekotasun hau (Errege Katolikoek, eta XIX. mendeko zenbait legek: 1826, 1859, 1876). Gipuzkoa libre zen, beraz, Gaztelako Koroek ezarri ziezazkiokeen zerga guzietatik.

Aurrera pasa aurretik komeni da, laburki bada ere, zerga sistema tradizionalaren berri jakitea. Erregeren Ondasun-Zaingoak honelako zerga motak izan zituen Gaztelan:

* **Jatorrizko zergak** edo fiskalak (originarios o fiscales): Erregeren jabetasun pribatuari zegozkionak ziren hauek. Hasiera batetan, Erdi Haroan, holako diru-bideak ziren Erregeren irabazi arruntak: **erregaliak** deitu ondasunetatik jasotzen zituen holakoak Erregek.

* **Zerga eratorriak** (derivados): Erregeren aginte politikotik ondoriobidez zetozkionak, alegia, eta bi mota zeuden sail honetan: **zuzenekoak** eta **zeharkakoak**. Zuzenekoak, hiritar bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera ezartzen ziren; zeharkakoak, berriz, norberaren salmenta eta erosketen arabera ezartzen zitzaizkien hiritarrei. Zerga eratorriok, denak, zerga **arruntak** ziren Gipuzkoan **borondatezko emaria** bakarrik bait zen zerga **berezia**.

Gaztelako zerga-sistema hontatik Gipuzkoan ez ziren eza-gutu **jatorrizkoak** inoiz. **Eradorrietatik**, berriz, ez zen eztabaidarik sortu **zuzeneko zergetan**, Erregek edo beronen Gaztelako *goberna-

gailuek ez bait zuten horrelakorik ezarri nahi izan inoiz, dakigunez.

Zeharkako zergetan, ordea, dudamudarik franko izan zen. Eta eztabaida eta hauzirik sortu ere bai; bestalde, hautxek bait ziren Gaztelan zergarik zabalduenak eta, Gaztelako zerga sistema barnean, nagusienak. Ikus dezagun, beraz, euskal herrialdeetan Gaztelako Erregeek nola jokatu zuten arazo hontan.

Ordaintzen ez zirenak

*Egokiera jakin batzuetan, zeharkako zergen arazoan, Gaztelako ohituren arabera jokatu nahi izan zuten Erregeren ordezkariak; eta holakoetan biztu ohi zen euskal Lege Zaharraren aldeko liskarra. Ezagunak dira hauzi batzuk. *Burdin-olei zerga bat ezarri nahi izan zitzaien (*quintalaje* deitua), esate baterako, Joan II.aren erregealdian. Hortik sortutako hauziak mende t'erdi iraun zuen, Felipe III.ak (1610) kenarazi zuen arte.

Oso ezaguna den bezala, euskal herrialdeek ez zuten berentzat inolako *muga-zergategirik. Irun-en nahiz Ebro-n ezarriak ez ziren Euskal Herrian edo Euskal Herritik herbestera zihoazen bidalitakoentzat, Gaztelatik Europara edo Europatik hara zihoa-zenentzat baizik. Euskal herrialdeen merkatalgoa erabat librea zen muga kontutan. Espreski onartu zuten hau Errege Katolikoek (1475). Honela, ba, Irungo *Alcaldía de Sacas* delakoaren zeregin ia bakarra Gaztelatik Europara bidaliak begiratzea zen, eta ez Gipuzkoatik zihoazenak edo Gipuzkoara nahiz beste euskal herrialdeetara (Nafarroa aparteko kasua zen hontan) zetozenak begiratzea. Kanpokoetarako eratua izanarren, *Alcaldía de Sacas* hura Probintziaren ardurapean zegoen eta bertako gorabehera denak herrialdeak zuzentzen zituen, behar ziren izendapenak urtero egina. Hango diruen ardura ere Gipuzkoaren agintepean zegoen eta bertan *bahitzen ziren *merkatalginak ere honentzat ziren, Felipe IV.ak 1.625ean aitortu zuenez.

Muga-zergategi hauen aurka hartutako erabaki batzuk eza-

gunak dira: Felipe V.ak (1717) Euskal Herriko kaltetara eta Bidasoara ekarri zituen muga haiek. Baina sortu ziren matxinadak tarteko zirela, berriz itzuli ere bai lehengo tokietara. XIX. mendean berriro sortu zen istilu bera: 1820-1823etako *Trienio Constitucional*-ean beste hainbeste egin zen, baina Fernando VII.ak dena lehengora itzularazteko.

*Burdin-zergarekin (*quintalaje*) eta muga-zergategiekin gertatzen zena ikusi ondoren, begira zertan zen *erreditu estankatuena* (*rentas estancadas*). Erreditu hauek, monopolio bidez zabaltzen ziren *salgarrien gain jasotzen zituzten. Zeharkako zergen itxura zuten, beraz, eta holakoak ziren *piperminarena, gatzarena, *paper zinatua eta tabakoarena. Berez, eta Lege Zaharrari zegokionez, kasu hontan ere euskal herrialdeek ez zuten deus ordaindu beharrik, zerga hauek ere Gaztelakoak izanik. Hala ere, holako zerbait inposatu nahi izan zen Gipuzkoan: 1605ean piperminarena, 1631-1634etan gatzarena, eta 1638-1642etan paper zinatua. Errege gobernuaren ahaleginok alferrikakoak gertatu ziren beti. Tabakoarekiko arazoa nahasiago da: zergarik inoiz ezarri ez bazitzaion ere, Gipuzkoa Gaztelarako sarbide izatetik nahastu zen tabakoaren arazoa 1727ko *Akordiora iritsi arte. Harrez gero, tabakoa eramateko *Gidariak jarri ziren Gipuzkoan.

Herrialdearen Ondasun-Zaingoaren berezitasunen aurkezpena bukatzeko, esan dezagun Gaztelan testamentuei XVIII. mendeaz gero ezarriko zitzaizkien zerga eta ordainbeharrak ere ez zirela euskal herrialdeetan sartu ahal izan, Foruak galdu ziren arte.

Ordaintzen zirenak

Bi zerga mota dira hemen haintzakotzat hartzekoak: Gipuzkoa eta Arabako *alkabala* (eta Bizkaian **eskari tasatua*) eta *borondatezko emaria.

Dirudienez, XV. mendearen lehenen partean sartu zen alka-

bala Gipuzkoan, eta hasiera batetan Erregeren ordezkariak biltzen zuten zerga hau, baina laster eskuratu zuen herrialdeak kobraketa hori egiteko eskubidea, mende hura bukatu aurretik hain zuzen. Harrez gero urtean hainbesteko jakin bat eman behar zuen herrialdeak, eta hainbesteko hori biltzeko Batzar Nagusiek berek egin zuten *zerga-buruketa deitua. Lehendabiziko urteetan hainbesteko hura (*cupò*) urtero mugatzen zen, baina 1514az geroztik (hiru mende eta gehiagotan) kantidade bera izan zen Gipuzkoa osoarentzat: urteko 1.181.713 marabedi t'erdi. Gehien ordaintzen zuten herri eta partiduak Donostia (200.000), Segura (126.000), Tolosa (85.000) eta Bergara (84.000) ziren, gainerakoei alde handia zeramakietela. Dakigunez, *buruketa* horrek 1844era arte iraun zuen gutienik.

Alkabalaren zerga oso zaharra zen Gaztelan, XIII. mendean agertzen bait da. Saldu nahiz trukaturako edozeren gain kobratzen zen alkabala hau (hasieran, salneurriaren % 5a zen, eta geroago % 10a). Gaztelan zeharkako zerga baldin bazen ere, Gipuzkoan zerga-buruketa eta *cupo* bidez egiten zenez, bestelako esanahi bat hartu zuen.

Alkabala edo eskari tasatua da euskal herrialdeetan Erregeri, honen goi-agintea aitortuaz, ematen zaion zerga bakarra. Hain zuzen, horixe da (Erregeren *goi-jaurgoaren aitopena) alkabalaren zentzua. Honela aitortzen zioten herrialdeek Erregeri, eta ez beste inolako instituziori, bere goi-aginte eta jauntasuna.

Alkabala hori aparte, bazen beste laguntza modu bat ere: *borondatezko emaria* (*donativo voluntario*). Herrialdeek ez zeuden hontara legez beharturik, Jaunarekiko borondate onaren agergarri zen bakarrik. Emari hau eta Nafarroako *borondatezko eta eskerronezko zerbitzua* (*servicio gracioso y voluntario*) parekoak ziren.

Borondatezko emari honek nahiko bizitza luzea izan zuen euskal herrialdeen historian, nahiz eta ez izan urterokoa. 1.629an hasi zen eta XX. mendera arte iraun zuen, XIX. mendeko bigarren

erdian beste zentzu batekoa izanarren. Gipuzkoak, XVII. mendean, zortzi urtetan eman zion Erregeri sari hau (1629, 1634, 1641, 1644, 1657, 1658, 1664 1695: 1629-1658 urteetako seirak gerrate garaikoak), XVIII.ean, berriz, hamabost aldiz, eta XIX.ean hamaika. Erregeri bi gizalditan Gipuzkoak emandako alkabala eta borondatezko emariak hauek dira:

Mendea	Alkabala	Emaria
XVII	3.152.098	1.832.000 erreal
XVIII	3.152.098	1.800.000 erreal

Hemezortzigarren mendean, Nafarroak bakarrik, hamar aldiz gehiago eman zion Erregeri emaritan, nafar lurgintzak zuen aberas-tasunaren arabera, noski. Bestalde borondatezko emaria, alkabala bortxatuaren erdia baino gehiago izan zen Gipuzkoan.

Emari honen esanahia inork alda ez zezan, eginahal guziak eman zituzten euskal Batzarrek. Hala ere, XIX.ean batez ere, Koroearen partetik egin ziren erasoaldi batzuk, borondatezkoa zena legezko bihurtzeko (1824ean, esate baterako), baina ez noski eztabaida eta sokatirarik gabe. Lehenen karlistadarekin aldatu zen betiko egoera hura, gerratearen eraginez. 1845eko Lege batek garbitu zuen behin betiko borondatezko emari honen esanahi jatorra.

d) *Herrialdeko diru-sarbideak eta berauen aministrazioa*

Eta honez gero komeni da Gipuzkoaren diru-sarbideak eza-gutzea: nondik eta nola zetorren behar zen dirua? Nork eta nola aministratzen zuen bildutakoa? Zer zen Udalarena, zer Probintziarena? Horra argitu behar diren zenbait puntu.

Herrialdearenak eta Udalenak

Udalen jatorrizko diru-bideak herriko ondasunek zekazki-

tenak ziren, eta udal-basoetakoenak izan ohi ziren batez erè. Baina, hortik sartutakoak askotan eskasegiak zirenez, bestelakorik ere bilatu behar izaten zuten Udaletxeek. Beste diru-bide hau *sukalde banaketak (repartimientos foguerales)* deituek urratzen zuten.

Partiketa hauek, Udal ondasunek utzitako zorrak kitatzeko izaten ziren, eta hauzokideen artean eta berauen ondasunen arabera banatzen zituen Udaletxeak. Sarritan partiketa hau, Herrialdearen zerga ordaindugabeak garbitzeko izaten zen, eta zuzeneko zerga mota bat zen. Partiketa, unean uneko beharrizanak gainditzeko pentsatua zegoen, eta beharrizanak mendeak zehar gerroz eta gehiago zabaldu zirenez, laster gertatu zen premiazkoa beste bide batera jotzea, hau da, fijosun bat edukiko zuten zerga moduetara. Honela, ba, bai Herrialdeak eta, beronen babesean, bai Udalek zeharkako zergak finkatu zituzten beren diru-bide egokienak bezala. Jokabide honekin, basoen probetxu hobego baten bidez (ontzigitza, olen egur-beharra...) eta udal-zerbitzuen irabazbide berriekin (errotak, labeak...), Udalek baztertu ahal izan zuten sukalde partiketaren politika. Politika fiskal berriak zindoagotu egin zuen Udalen ekonomia denbora on baterako. Zeharkako zergak ziren, orain, irabazi arruntak, eta irabazi berezi eta noiz-behinkakoa bezala geratu zen partiketa. Aurrerapen handia izan zen hori. Honela, Ordizian (1791) gastuek, irabazien % 55a baino ez zuten egiten, eta Bergaran (1750) zeharkako zergak ziren sartutako % 62. Ongi zihoazen euskal Udalak.

Udalek eta Herrialdeak alde handia zuten beren diru-sarbi-deetan, izan ere Herrialdeak ez bait zuen izan haiek bezalako ondasun *propio*-rik, lur, larre eta basotan.

La Provincia y la Hermandad de ella no tienen, ni gozan propios algunos, por componerse toda, de las poblaciones, alcaldías, valles, colaciones y universidades de todo su territorio.

Herrialdeak, beraz, zerga bidea zuen bere irabazpide bakarra. Herrialdearen mailan *sukalde partiketa* zen sarbide arrunta, ez bait zedukan Probintziak, esan denez, inolako ondasun eman-korrik. Partiketa haren bidez garbitzen ziren urteroko zorrak. Honegatik, *sukalde partiketa* Udalen artean egiten zen, eta zeduzkaten *sukaldeen* arbaera. Lege Zaharraren *Bilduma Berrian zehazki ematen da Gipuzkoako Udal eta hauzoen sukalde-zenbakia (IX. tit., 4. kap.). Udalik handienak hauek ziren:

Donostia	162	sukalderekin
Azpeitia	130	
Mondragoe	128	
Azkoitia	96	
Deba	85	
Motriko	83	
Tolosa	80	

Sukalde partiketaren bidez Herrialdeak jasotzen zituenak ez ziren, xuxen-xuxen, zergak (*impuestos*), gipuzkoar bakoitzari ez bait zegozkion zuzenean, bigarren edo hirugarren maila batetan baizik. Hau da, zuzenean Udalari ezartzen zitzaion pagabeharra, ez pertsona bakoitzari, eta Udalak, zerizkion gisara, bila zezakeen pagaketarako dirua, baita hauzokoei eskatu gabe ere.

Herrialdearen mailan, 1629an irekitzen da zeharkako zerge-tarako atea. Hain zuzen, urte hortantxe ematen zaio Erregeri lehenbizikoz borondatezko emari hura. Hau zela eta, bai Probintziak eta bai Udalak ere, kontsumuaren gain zergak ezartzen dituzte: ardo eta bakailauren gain. Urrats honen ondotik apalki oraindik, baina mende baten buruan (1729) hirmoki tinkatuko da zeharkako zerga hauen sistema, sukalde partiketarena bazter-tzeraino. XVIII. mende berean beste zeharkako zerga berriak ere agertuko dira: patarrarena, bide-zerga (*peaje*), eta Konbentzioa-

ren kontrako gerratean (1793-1794) areago azalduko da oraindik sistema berria (kakao, azukre, sardina zahar eta abarrena).

XVIII. mendetik XIX.era igarotzean, gipuzkoarrek bazituzten, beraz, nahiko zerga beren gain, nahiz eta Erregeri eman behar zitzaizkionak ez izan hainbeste.

Ondasunen administrazioa

Udalek (eta Herrialdeak berak neurri oso apal batetan) bere-nak zituzten ondasun administrazioan izan zuen Erregek *eskumenik gehiena. Izan ere, esan denez, Korrejidoreak —hauzitegietan zuenaren parean— bazuen legezko *eskuerarik baita Udalen finantza zereginetan ere. Bera zen Udalen eta Herrialdearen ikusmiratzailea. Eskubide hau tarteko zela, ondasun haien administrazioarako Korrejidore batzuek eman zituzten beren Arautegiak ere (Lezama-k 1511n eta Cano-k XVIII. mendean, adibidez).

Alor hontan, Korrejidorearen jokaera horregatik, ez ziren falta izan Herrialdearen eta Koroearen arteko liskarrak. Eta *hesparru hontan ez zen beti Probintzia garaile irten. Gorosabel-ek dienez, bazen arazo hauetarako printzipio bat: Erregeren edota beronen ondoko *gobernagailuen baimenik gabe ez zegoen Udal ondasunetan berrikerarik ezartzerik. *Araubide horri jarraituaz, Gaztelako Erregeren *Kontaduria Orokorra aski sartu zen Udalen administrazioa zuzentzen eta mugatzen.

Hemezortzigarren mendean nabarmendu zen gehiago oraindik joera hau. Karlos III.aren *erregealdian nahi izan ziren Gipuzkoako eta Gaztelako administrazio-erak berdindu. Probintziak onartua zedukan (eskatu ere berak eskatu bait zuen) Erregeren Korrejidorea; baina ez zuen gisa berean ametitzen hainbeste agintedun berriri men egin beharra. Dena dela, 1799an Karlos IV.aren garaian lortu zen dena lehengo moldeetara itzultzea.

Paradoxa bada ere, Udalen Ondasun-Zaingo autonomua ez

zen izan batere berezia Lege Zaharra bere jatortasunean zenean, geroago baizik: 1845etik aurrerakoan, eta Kostituziodun Monarkian, izan zuen Gipuzkoak, berak zuzenean eta Erdiko Boterearen *eskuharrenik gabe, Diputazioaren begiradape bakarrarekin bere ondasunez erabakiak hartzeko askatasun osoa.

Herrialdeak, bildutako zergak kutxa bakar batean gordetzen zituen 1629ko aldaketak egin arte. *Gordailu bat eta *diruzain bakarra zeuden, presupostu bakarra zegoen bezalaxe. Dena Diputazio Orokorraren menpean jarria zegoen. Baina urte hartan borondatezko emaria sortzen da, eta harrez gero (XVIII. eta XIX. mendeetan) presupostu eta gordailu gehiago bereziko dira: sukalde partiketarena, emariarena, bideena, gerrarakoa, *sasikumeena, etab. Laster ikusi zen, administrazioaren zatiketa hau ez zela inondik ere bizitza modernu baterako egokiena. Dena bateratuko da berriz ere 1825-1863etako urteetan. Badirudi, arazo hauetan Probinztiak —Udalek ez bezala— libertade osoa izan zuela.

Zerga inposamena Gipuzkoan

Udalek bazituzten beren ondasunak, eta ikusi da nola eraman izan zen haien administrazioa. Herrialdeak ezer guti zuen hauetatik, eta bere sartzekoak zergetatik etortzen zitzaizkion gehienbat, arestian esan den bezala. Baina nork eta nola inposatzen zizkieten gipuzkoarrei Udalen nahiz Herrialdearen izenean zerga haiek?

Esan da, XVII. mendeak erdibitzen duela euskal historia, zerga politikari dagozkionetan: lehenagotik, sukalde partiketa da nagusi (zuzeneko *inposamena, alegia); geroztik, kontsumuaren gain joango da bereziki zerga sistema (zeharkako inposamena). Udalaren zergak honela jarri zitezkeen: 3.000 marabeditatik beharako partiketak egiteko eskubidea zuten Udaletxeek. Hiru milatik gorakoak ezartzeko eskubidea Batzar Nagusiei zegokien, Udalen

eskabidea entzun ondoren. Horixe onartu zuen Joana I.ak 1509an. Dena dela, Udalek beste zerga kaxkarrago zenbait ezartzeko eskubidea ere bazedukaten, hortarako Erregeren baimen apartekorik baldin bazuten behintzat.

Herrialdearen mailan, berdintsu zen ohitura. Nahi ziren sukalde partiketak egin zitezkeen Gipuzkoan, Batzar Nagusien erabakiz eta Korrejidoreak parte hartu gabe ere. Halaxe dio Felipe II.ak aprobatutako Arautegiak (*Ordenanzas*, 1583: IV. tit., 8. kap.). Baina (zuzeneko zerga zen sukalde partiketarik aparte) ez dago argi Probintziak Udalek baino askatasun zabalagorik zuenik, zeharkako zerga berriak sortzeko. Dena dela, eskubide hau biziki librea izan zen 1799tik 1833raino. Batzar Nagusiek, nahi zituzten zerga denak ezarri zituzten, Erregeri inolako baime-nik eskatu gabe.

e) *Ondorioak*

Lege Zaharrak Gipuzkoan —eta berdintsu zen egoera Araba eta Bizkaian— izan zuen finantza sistema ikusi ondotik, zein ondorio atera litezke aztertu denetik? Dirudenez, onargarria da egoera hura finantza autonomia benetako bat zela aitortzen duen eritzia. Gaztela eta Gipuzkoa bide banatatik joan ziren arazo hontan ere. Eta, beharreko diren berezketatxoak eginez gero, autonomia osca zela esan ere egin liteke.

Finantza sistema barnean istituzioen eskubide-mugak ez ziren politika mailan bezain argi egin eta eraman. Mugaketa horiek askoz ere garbiagoak ditugu politika gobernabidearen mailan, finantzei dagokien *hesparruan baino. Gaztelako *bulegokrazia indartzenago doan neurrian, eta batez ere bulegokrazia hura Espainia osoko ardatz bihurtzen den heinean (eta areago oraindik Borbondarren haroan), euskal herrialdeetako finantza egitura baztertzeko joera, nabariago agertzen da. Izan ere, ez da harritzeko

ia zazpi mendetan zehar (1200-1876) e-
struktura hauetan eboluzio-behar bat agertzea: Erdi Haroko ekonomi *eskakizunak ezin Industri Iraultzaren harokoak izan. Gaztelak modernutasunerako bide luze bat egin du, eta euskal herrialdeetako bulegokraziak ez du aurkitu haren pareko eboluzio bat egiteko biderik. Mendeen etorrian, Gaztelak eskutik zedukan jokua hemengo aministrazio-bulegokraziari irabazteko.

Horiek horrela ditugula, ez da ahantzi behar inondik ere Gaztelako bulegokrazia, hango Erregeren eskumakila zela. Eta, hain zuzen, Errege hura bera zen hemengo Jaun ere: beti berezi behar dira ongi, bulegokrazia hura noiz zen euskal herrialdeetako Jaunaren *ekile jator, eta noiz jokutzen zuen bere gisara eta, batzutan, hemengo ohitura eta jatorrizko legeen kontrara. Bata bidezkoa zen, bestea *bortxapen bat.

Hemen ere ez da nekeza pareko bi soberania ametitzea. Era batera Gaztela, bestera euskal herrialde batoitza. Erresuma haren eta herrialde hauen konstituzio oinarrietan bereziak biak. Historiaren gertakizunek lausotu egingo dute batzutan berezketa hori, baina jatorrizko oinarrietan finkatua da, inondik ere. Gipuzkoar hiritarra ez zen egon, bertako Udalaren eta Herrialde agintaritzapean baizik, eta alkabalaren kasuan ere Udalak ziren zuzenean zergapetuak, ez hiritarra.

3. Herbestarekin harremanak

Politika eta aministrazio bizitza, herrialdearen kontura egiten zen eta kanpoko inork ez zuen hor esku sartzerik. Eta gauzak argi mugatuak egon zitezen, kanpokoekiko harremanetarako ere sortu ziren legezko zenbait usuario: ikus ditzagun orain *pase foral* delakoa eta atzerrietako erresumekikoak nola eramaten ziren.

a) *Foru Pasabidea*

Kanpotik Erregek nahiz beronen hauzitegiren batek agindu edo erabakitzen zuena betearazteko, *Usario* edo *Foru Pasabidea* (*Uso o Paso Foral*) eman beharra zegoen halako agindu edo epaiari. Eskubide hau hiru herrialdeetan berdinki gordetzen zen. Aginduak edo epaiak, Ohiturazko Usario edo Lege Zaharrik ez zuela hausten adierazten zuen Foru Pasabide horrek. Hain zuzen, hemen bertoko Legearen babesgarri zen Pasabidea, hau da, alde aurretik Gaztelako Erregearekin onartua zegoen gobernabide autonomu baten euskarri eta eskudantzia zen. Modernuki *kostituziotasunaren goradeia* (*recurso de anticonstitucionalidad*) eñan izan denaren parekoa edo zen Foru Pasabidea, beraz.

Jadanik IV Hendrike-ren erregealdian aitortu zitzaion Gipuzkoari Pasabidearen bidezotasuna (1473), eta bizirik gorde zen hemezortzigarren menderaino (1766-1780etako urteetaraino). Eta ez Bilduma Berrian, ez eta beronen Eraskinean, eskubide hau aipatzen ez baldin bada ere, badirudi Gipuzkoan zuela eskubide horrek bere zindotasunik gogorrena, eta harmetara jotzeko ahalmena ere aitortzen zitzaion herrialdeari (*Memorandum*, 1841).

b) *Atzerriko Erresumekin harremanak*

Foru Pasabidearekin batera, atzerrikoekin harremanetan mintzatzeko eta bere aldetik erabakiak hartzeko eskubidea du herrialdeak Lege Zaharpean. Gipuzkoari, gainerako euskal herrialdeei bezala, nazioarteko tratatuetarako ahalmena ematen zioten Usario Zaharrek. Eta inolako mugarik gabe, gainera: baita Gaztelarekin gerratean ziharduten herbesteko erresumekin ere.

Eskubide hau, lehendik zetorren beste eskubide zabalago baten barnean sartzen zuten euskaldunek, hots, merkatalgorako zedukaten eskubide librean. Izan ere, salmentetarako askatasun

hori babestu nahi zen batez ere. Honegatik, akordio hauetarako askatasuna, merkatalgotarako hitzemanetan agertzen zaigu gehienetan: burdin eta galtzairuaren merkatalgoa defendatu nahi zen, inguruko erresumen (Gaztelako Erreinua barne) liskarretatik, hain zuzen salmenta hori bait zen hemengoan ogibide. Bilduma Berriak behin eta berriz onesten du tratatu hauetarako eskubidea (XVII. tit., 1. kap.; XVIII, tit., 5. kap., eta abar). Euskal Herriko *lurgintza pobrea zenez gero, euskaldunek hor salbatu nahi zuten, behar ziren janariak inguratzeko bidea (ikus BB, XIX, tit.).

Merkatalgo libre hontarako eskubidearen zuztarrak hauek zirela dirudi: herrialdearen jatorrizko *Zuzena (Gaztelako Erregeekin egindako batasunean ere bere hartan gordetako) eta euskal jendetzak behar zuen jatekoa kanpotik ekarri beharra, eta hau noski itsasbidez egiten zen hemengo burdina kanpora eramatearekin batean (ikus BB, XVII. tit.).

Herbesteko erresumekin harremanetan izateko usuario honi jarraituaz, euskaldunek tratatu asko izenpetu zuten mendeak zehar, halanola Erdi Harokoak eta geroztik ere egindakoak (1536-37, 1557, 1643, 1653, 1675 eta abar). Gerrateetan eginak dira hauek, eta askotan merkatalgo arazoetatik kanpo direnez ere arduratzen dira.

IV. ISTITUZIOEN EBOLUZIOBIDEA

Orohar, zerbait esan da Ondasun-Zaingoari buruz ari ginela euskal instituzioen eboluziobideaz. Bulegokraziaren mailan ez zen euskal herrialdeetan benetako eta komeni zen neurriko bilakaerarik izan. Lehengo zaharrean egon-behar horrek ez zuen guti ka-teatu instituzio haien etorkizuna. Hortan Gaztelak jokatu zuen, Penintsula barnean, bizkorrena, hamabosgarren mendearen azke-

netik aurrerakoan batez ere. Eta eboluzio bizkor haren parean, nahiko geldi egon zen hemengo politika estruktura mundua. Zergatik?, galdetuko du irakurleak. Ez litzateke erraza izanen erantzun egoki eta oso bat ematea, izan ere ez bait dugu gure instituzioen historia behar aina ezagutu ere egiten. *Abiapontua bezain desberdina izan zuten eboluzioa ere Gaztelako eta Euskal Herriko instituzioek, eta, azkenik, eboluzionatuenak —indartsuenak— irentsi zuen bestea, liberalismoa ere tarteko zela.

Nekez aurkituko litzateke Penintsula barnean euskal herrialdeen antzeko legezko *status*, egoera, bat. Gonbarazio eta *alderaketak egitekoan, beharbada European topatuko genuke zerbait antzekorik: agian antzeko *status* bat zuen Austria eta Hungariaren arteko batasunak (1865-1918). Dena dela, gaurko Politikologian ez da erraza gertatuko gure instituzioen egoera haren lege-irudirik *idorotzea. Lege-irudi guziak koloka aurkitzen dira garai haietako gure *status* harekin gonbaratzen direnean. Izan ere, ordukoa bait zen, alde batetik, eta bestetik, mendeak zehar garaiko beharriaren arabera aldatzen ere joan zena. Oraingo beste edozein egoeratatik urruna zen hura.

Erregerekin egin zen batasuna izan zela esan izan da, Gaztelak eta euskal herrialdeek beren artean zuten kidetasuna-edo agertu nahirik. Ez zen pertsona batasun soil bat, gehiagorik mugatzen ez baldin bada bederen. Erregebatasun hura gorabehera, esate baterako, bi aldeek erabateko *burujabetasuna gorde zuten, baina Gaztelaren Errege zen hemengoa ere, ez noski hangoa zelako, hemengo Jauna zelako baizik.

Barrengo Agiriko Zuzenari begiratzen baldin badiogu, Erregeren *sarmena oso-oso murrizta zen aministrazioan eta finantzetan. Lege-aginteari zegokionez, bidezkoa zen Erregeren *birkonfirmapena behar izatea, hori bait zen haren goi-aginbidearen ezaugarri bat; baina, legeak egin, Batzar Nagusiek egiten zituzten.

V. AZKEN ONDORIOBIDEZ

Ukaezina da euskal gobernabide harek zuen *jite demokrati-koa, bai politika egituretan, bai aministrazioan. Ez zuen apenas jasan, Europa gehienak eraman zuen Feudalismorik. Zentzu hontan, Ingalaterrak sortu zuen gobernabidea bezain eredugarri da, antzi-nakotasunagatik eta bere demokraziagatik.

Hala ere, aitortu beharko da demokrazi sistema hau arkaikoa dela, Frantziako Iraultzak, (herri *burujabetasunean finkaturik), ekarri nahi izan zuen berdintasuna *beretu ez zuelako; baina, bes-talde, aitortu behar zaio ohore paregabe bat: ia inon (ezta behar-bada Ingalaterran bertan ere) ezagutu ez den ainako *ordezka-ritasuna izan zuela euskal gobernabide honek. Ingalaterrak asko kostata XIX. mendean bete zuen eboluziobidea egin beharko zu-keen euskal Lege Zaharrak orain benetako gaurkotasunik izan zezan. Baina Espainiako Liberalismoaren barnean, ez zen hori posible gertatu.

EUSKAL ARTEA

Juan San Martín

Euskal artea, Europako arte guztiak bezala, garai bakoitzeko *korrontak mugitu du. Herri arteak izango du noski, herrietako etnia berezi guztiak bezala, nortasunik gehien; baina, honek beronek ere besteetakoekin zer ikusiak izaten ditu, kultur harremanak herri guztiak oro betidanik izan dituztelako elkarren artean. Hala ere, herri bakoitzean bere berezkuntza propioak hartzen ditu.

Arte zeharo autoktonoa aurkitzekotan Harri-arora jo beharke genuke, eta Neolitos garaian gelditu. Zeren, geroztik gurekiko era berezi hori Europako munduak bere inguruko bait darabil, Europako mendebaldeko kulturaren hardatzean. Arte autoktonorik ez dela inon sortu, esan nahi dugu. Adibidez, Europako erdi-aldean sortu zen erromanikoak, bizantinoarekin eta aintzineko greko-erromatarrarekin zer ikusia du; bizantinoak bere aldetik sortaldekoarekin eta karolingio eta bizigotikoarekin zuen bezala. Gero, gotikoa bera, hor oinarritu zen. Pizkundea berriz (*Renacimiento*) Italia aldetik etorri zen, baina honek ere greko-erromatarraz baliatuaz sortu zuen era berri hori. Beti horrela, lehenagoko oinarrietatik erak eraberrituaz eta mendeen gurpilean aldatuaz etorri zaizkigu estilo berriak. Era berri bakoitzak bere izate berezi bat gorpuztu du. Eta, herriz-herri zabaltzean ere, herri bakoitzean bere berezitasun apartekoak hartuaz. Berezitasun horiek, inoiz, estilo

berriari sarrera eman zioten artistek berek beren gogoz eginak dira, eta hurrengo bertako herri artearen estetika kontzeptuetatik zertxobait harturik moldatuaz. Dena dela, herri bakoitzean beren giro berezi bat bete dute arte estiloez estetika edo kromatikaren aldetik.

Beraz, gure lur ttipian, inork ez beza eska bitxikeriarik edo besteengandik zeharo apartekorik; herri handiagoez ere ez dutenik. Mendebaldeko kulturaren —gizona lur hontan denez—, herri bakoitzak bere berezkuntzak baldin baditu ere, herriek oro elkarren arteko kulturazko harreman loturak aski estuak izan dituzte Harriarotik hona.

Are zabalago dira Neolitos garaia ondoko hezikera harremanak. Ordura arte Pirineoaren sarkaldean mugaturik zeudenak, muga zabalagoetan hedatuko dira.

Herri arteak berak aldakuntza guttirik iharraitzen du mendez-mende, estilo guztien gaindi eta batzuetatik zerbait harturik. Estiloak berak ere inoiz kutsatu ditu herri arteak eta orduan egiten ditu gureago. Baina herri arteari bide berri bat eman behar gaude, gaurkotu behar gaude. Lehenago, Euskal Pinturaren Eskola garaia aurretik, XIX. mendearen azken aldera zabaldu zen txaletak Euskal Herriko etxe zaharrak eredu harturik egitea. Era berean etxeetako *altzariak, L. Colas-en *L'Habitation Basque* eta *Le Mobilier Basque* ditugu lekuko. Gaur ordea, zaharra berriro baino egokiagoa iruditzen zaigu sustrai zaharragoetan oinarriturik berri berriak sortzea. Lan egin nahi duten guztiei sortetarako grina iratzartuaz.

Baina hemen, Euskal Herriko artea eskolarik eskola burutu nahi dugu. Hontarako, eskola izateko nortasun indarra nabaritu den parteak, edo parterik nagusienak, bakarrik aipatuko ditut. Eskola bakoitza zer zen eta bertako artista edo maisurik aipagarrienak nortzuk ziren.

Gure lurtean elkar giroan loratu ziren eskola edo parterik nabarmenenak:

I.—Harri-aroa, II.—Herri artea, III.—Erdi-aroa, IV.—Pizkunde garaia, V.—Euskal Pinturaren Eskola eta VI.—Gaurko eskultura dira.

Eskola horiek loratzeko, Euskal Herriak bere historian une bereziak izan ditu, artetik kanporako kultura giroaz eta ekonomiaz zer ikusia dutelarik noski. Plastikako arteei loturik joaten dira gehienetan musika eta literatura, gizarte giro batek elkar lotu eta bultzatzen dituelako. Batzuetan politika, erlijio mugimenduak, ikerketak eta abar lotzen dira, Europako Pizkunde garaian hain nabarmen aurkitzen den bezala.

Eskola horiek kulturazko bizi-giroan mamituak direnez, hemen ez zaigu interesatzen bere gisara bakarrean lan bereziak egin dituen artistarik, ez; baizik, elkar giroan landuriko eskola bereziak eta eskola horien artista eredugarriak izan ezik. Hautapen honetarako bi arrazoi erabili ditugu: a) Artezko mugimendu berezi bat, fenomeno hau gertatu den toki edo garaiko gizarte giroaren adierazgarria da; b) Eskolak hartu eta zabaldu dituen molde-erak garaiko artegintza gogoan adierazten digu, eta hau onartu zuen gizartearena.

Ene irudiz, artista bikain soil batek baino garrantzi gehiago du elkar-girotik sortutako eskolak. Baina, gainera, gure kasu honetan, artistarik hoberenak elkarren arteko laguntzaz, egindako eskolen buruetakoak dira hain zuzen: Antxieta (Pizkudean), Arteta (Euskal Eskolan), Oteitza (Gaurko eskulturaren). Maisu horiek eskola osatzen duten neurri berean, eskolak ere beroiek egin bait ditu. Elkarren zordun dira gizartearen aurrean.

I. HARRI-AROKO ARTEA

Gure lurraldeetan, gizonaren arrastoa, behe Harri-arotik dator; baina artetzat har genezakeen lanik, tresneriatik aparte, ez da aurkitzen Harri-aroaren erdi-aldera arte. 1970ean Axlor-en (Dima, Bizkaia) Barandiaranek bilatu zuen harrizko irudia dugu zaharrena. Mustier-aldikoa (*Musturiense*), 40.000 urtetik gora izango ditu. *Homo primigenius*-engandik orain arte ezagutzen dugun agiri bakarra.

Goien Harri-aroko kultura, 40.000 urtez lehenagotik 8.000 arteraino, *Crô-Magnon* izeneko gizakien garaia, askozaz ere hedatuagoa aurkitzen dugu, materialez ugariagoa, aberatsagoa eta honegatik dugu ezagunagoa ere. Garai honen barruan badira *Auriñak-aldia*, *Solutre-aldia*, *Madalen-aldia* eta *Azilaldia* deitzen direnak, oso aberatsak artearen aldetik, eta arkeologuek Franko-Kantabriko kulturatzat aipatzen dutena. Gizonaren arterik zaharrena noski. Jakina, Harri-aro erdiaren azkenaldetik hasita goruntz.

Artearen ugaritasunez Madalen-aldiak du garrantzirik gehien, batez ere hormetako pinturengatik: Etxeberri, Sasixiloaga, Isturiz, Altxerri, Ekain, Goikolaua, Santimamiñe eta Venta de Laperra dira Euskal Herrian. Baina kultura honek gaurko Euskal Herria baino muga zabalagoak zituen. Frantziako Dordoina, Ariège eta Lot erresumetatik Espainiako Kantabriatik zehar Galiziara arte, ehun haitzulotik gora dira kultura berdintsu honen aztarnak dituztenak. Harrizko tresna edo lanabesak, hezur grabatuak eta abar, teknika berdinean landuak daude, mutur batetik besteraino. Baina hormetako pinturak haitzulo gutti batzutan bakarrik daude. Agerian dago hezikera berdinezko girotik heldua dela. Bai tresnetan eta bai irudiak egiteko moldeetan, era berdinak somatzen dira. Bate-tik bestera diren berezkuntzak oso ttipiak bait dira.

Orduko gizonek beren garaiko abereak dibujatzen zituzten, ihizan edo arrantzan aurkitzen zituzten abereenak. Hauen irudiak

hormetan, harrietan eta hezurretan egiten zituzten. Gizonak bizi ziren harpeetan eta berek erabiltzen zituzten harma, tresna eta lanabesetan. Inoiz eskulturak ere bai; buztinez edo hezurrez. Musikaren lehen arrastoak ere ordukoak ditugu, zeren Isturitzen eta Atxetan hezurrezko txilibituak aurkitu bait dira.

Horman dibujuak egiteko, azaltzen denez, hontarako toki egokiak aurkitzen zituzten edo bestela hormak lantzen zituzten. Hontarako ere bazituzten beren teknika bereziak: berezko formak aukeratuaz, Ekaingo bisontak egiterakoan bezala; edo aurrez egoki eratuaz, Altxerriko irudietan azaltzen denez; inoiz lerroak harriz irekiaz, Isturitzeko *orkatza egitean bezala; hurrengo, irudiaren barru eta kanpokaldeak zulaturik, lerroa kanporuntz utziaz, Altxerriko orkatza bere lepoan axeria duela agertzen den bezala; baina, gehienetan, ahal den hormarik berdinen bilatuaz, beste gabe pintatzen zuten.

Esan dugunez, pintatzeko eran ere bada kultura mugatu baten agiria. Molde berdinak iharraitzen dira, hasi Dordoina eta Ariège-tik eta Asturias alderaino, behinik-behin. Gaiak berdinak izatetik aparte, marrazteko estiloa ere berdintsua dute. Zeren, bazuten estilo berezi orokor bat, irudiak espresioz indartzeko parte batzuk handitu eta beste batzuk ttipitu edo mehetuaz; tarte bat zuri utzirik prespektibak zaintzean, atzerago dauden zangoetan garbi azaltzen den bezala, pinturaren argizko alternantziak gordeaz.

Hontaz gainera, oraindik haruntzago joan gintezke. Errepi-katze ordenamendu bat ere nabari da; horma luzeetako frisuak dibujuz hornitzean, hutsuneen betegarri irudiak formaz aldatzean, eta abar. Hutsune betetze hauek ere, batzutan familia bateko abere taldeez. Honela dira Altamira-ko (Santander) bisontak, Ekaingo (Gipuzkoa) zaldiak, eta batez ere Lascaux-ko (Dordoina) *oreinak igerian, Rouffignac-eko (Les Eyzies) mamutak, eta Teyjat-en (Dordoina) bilatu zen hezur batean dagoen orkatz taldean batez ere.

Harpeak etxe zituzten gizon ihiztari haiek elkarren arteko harreman estuak zituzten, agertzen dugun Franko-Kantabriko lurretan.

Estilo gordetze hau, ez da Madalen aldikoa bakarrik, Auri-nak-aldian ere nabaritzen da, garai hontan egiten ziren hezurrezko eskulturetan ikus genezakeenez. Alde batetik makila-burutzat jotzen diren irudietan eta bestetik emakumezko irudietan. Emakumezko hauek, Harri-aroko *venus*-ak deitzera etorri dira. Gainera, irudien estilizatzetik sinbolu abstraktu bat bihurtzen dira: Brassempouy (Landes), Lespugue (Garona goian), Laussel, eta Siereuil (Dor-doina) ditugu mailaz maila adigarririk berezienak. Baina hauen kideak ere badira, Willendorf (Austria) eta Savignano (Italia).

Glaziarren ondotik ezagutzen da arte estiloen aldaketetarako grina, sinbolu hutsen abstrakzioetara joaz, Azilaldira arte. Mas d'Azil-go eskola horrela bait da. Gure eskualdean Ermittia, Azpi-tarte, Urtiaga, Lumentxa, Atxeta, . . . harpeetako hezurretan bilatu dira hauetako aztarnak.

Hauek ditugu giza-gogoaren lehen kezken agerpenak, plas-tikazko artearen adieraz-bidez heldu zaizkigunak.

Adierazi dugun abstrakzio sinbologia, hutsera bihurtzen da. Gizonak, bere aurrerapen ibilian, bizi moldeak aldatzen ditu eta hauekin batean doaz ideiak eta sinesmenak ere aldatuaz. Alda-kuntza hauen baldintzetara lotzen dira arteak ere.

Lehenago ihizatik eta arrantzatik bizi zen gizona, Mesolitos garaiko Azilalditik abere hezitzeak ezagutzen ditu eta Neolitos garaian *abelzaintza izango zen gizonaren bizi-era nagusia eta larreak aprobeztatzeko tokiz aldatuaz ibiliko zen udako lekuetatik negukoetara. Arte lanak zeharo sinbolista bihurtzen dira. Aurkitzen diren irudiak oso gutti eta irudipenezko zirriborro edo eskema hutsezkoak dira.

Garai hontan, monumentu berezi batzuk azaltzen dira: hilo-bitzat egiten dituzten *trikuharriak, dolmenak. Naturalezaganako

sineskera nabari dute, guztiak sorkaldera begira egiten zituztenez; eta giza-hezurren artean lanabesak eta kutunak bilatzen dira, sineskera berrien adigarri. Lurrezko ontziak ere aurkitzen dira apaingarri abstraktuekin. Baita metalezko lehen arrastoak ere. Eta, ondoren, kultura mota honi iharraiki, *kromlech* deitzen direnak, lurrean biribilean ordenaturik eta *tinkaturiko harriak. Hauek ere, dolmenek bezala geografia aldetik leku jakin baten barnean estilo berezia dute, L. Pericot-ek estudiatu dituzenez; kultura hau, Atlantiko-Pirineoetan mugatzen da, erromanizazioaren aurretik izan zitekeen Euskal Herrian. Guttienez, esan genezake, euskal kulturaren sustrai zaharrak, hizkuntzarekin batean, garai hortatik datozkigula.

II. HERRI ARTEA

Herri artea geroago eta beherago doa, artesiania guttituaz doanez gero.

Baina, lan hontan, plastikaren aldetik begiraturik adierazi nahi dugu, herri artearen beste sail batzuk utzirik. Hau da, literatura, musika, dantza, kirolak eta gainerako jokoak aparte utzirik. Pintura, eskultura edo hauen inguruko apaingarriak haintzat harturik.

Herri arte hau garai guztietako arte estiloetatik zerbait hartuaz heldu zaigu. Zerbait hartuaz, baina bere oinarrizko forma bereziak galtzeke. Garai bakoitzeko estilotik jaso ere, herri arteak dituen *sigulu berezien jatorriasunari eutsiaz. Gurasoengandik se-meetara, belaunik-belaun heziaz etorri zaigu.

Badira herri artean Harri-aroko Madalen eta Azilalдитik eza-gutzen diren apaingarriak, Isturitz, Bolinkoba, Urtiaga... harpeetakoak, makiletan, *goruhardatzetan eta uztarrietan batez ere; *epaiki-hortzen erako kakoak, landare eta gainerako lerroak.

Harriero-berritik, Neolitos garaitik zenbait apaingarrizko lerro ere bai, giza eta abere irudi-eskemak, *izartegi sinboluen lehen agerpenak, eta abar.

Erdi-aroaren lehen parteko mende ilun haietako sinboluak maiz aurkitzen ditugu, *eguzki-lauburu, izar, epaiki-hortz, eta gainerako apaingarriak, gure garaira arte herriak bere gauzak edergarritz janzteko erabili dituenak. Edergarri hauetako asko Erromatarren garaiko hilobietan ere presente dauden apaingarriak ditugu. Arabako Konstrasta eta Luzkando eta Nafarroako Gastiango hilobiak ditugu lekuko.

Baina, batez ere Bisigotiko garaiarekin zer ikusirik badute noski. Ziortza eta Elorrioko hilobiak, eta bigarren hontako hilarri biribilen edergarriak, eta Arabako Arkahiako *ponteak dituenak.

Era berean, Euskal Herriko erromaniko eta gotiko garaian ere hainbeste erabili ziren edergarritzko apainduriak (Karolingio eta Bisigotiko garaian bezain ugari eta indartsu finkaturik erabili ez baziren ere) gaur arte gure herriko artesian iraun duten edergarri ber-berak dira: Estibalitz, Durana, Idiazabal, Bilboko Santiago elizaren atarrietan aurkitzen diren bezala.

Baina erromaniko garaitik pizkunde garaira arte, XII. mendetik XVI. era arte, aipatu dugun sinbologia hontaz aparte, badira gainerako gauza bereizgarriak: bataio-ponteetan eta kapiteletan agertzen diren giza-buruak, Artaizko buru hirukoitza eredu dela, Lusarreta, Elgetako Uriarte, Zumarragako Antigua eta beste zenbait tokitan harrian edo zurean landuak.

Erromaniko-gotiko garaietan dugun berezitasunik nabarmenena, imajinak dira, gure herri artearen aberastasunik handiena noski. Hauen artean Andra Mari ugari eta ederrik badugu Lizarralde eta Anasagastiren gatalogatze eta istudioetan.

Euskal Herriko Andra Mari hauek ere, Kataluniako erromanikoa bere Kristoak eta Andra Mariak hain bereziak dituen bezala, edo Leon aldeko XIII-XIV. mendeetako Kristoren imajina ederrak bezala, beren estilo berezia dute. Erdi-aroan herriko imajinaginek egin zituzten Andra Mari horiek, beren estilo nabarmena izanik ere, lerro guttitan eta fotografia edo dibuju gabe ez da erraza

dituzten berezitasunak garbi adieraztea. Baina, aipatu ditugun egileen lanetara jotzen badugu, bertako argazkiak ikustea nahikoa da haien jatortasunez ohartzeko. Bista ohitu ondorean, begirada bat aski da zein imajina mota zein ingurutakoa den jakiteko ere.

Herri artea oso landua eta ugaria dugu Euskal Herrian eta bere nortasuna ez dio ematen holako imajinak eta halako ontzi edo tresnak soilik, baizik herri artean aipatzen ari garen gauza oro da kultura mugatu bat gorpuzten duena. Guztiotan aurkitzen bait dugu nortasun heldu bat, herri jatortasuna nabari zaiona.

Lan handietan, arkitektura bera dugu, herri arkitektura, bai etxeetan, bai elizetan: ermita, dorre-zahar, baserri, eta abar. Eta hauen egitura estiloez gainera, berauetan aurkituko ditugu aipatu-tako edergarriak, herriak berak erabiliak irauneraziz ekarri dizkigunak, *ateburuetan, *altzarietan (kutxetan batez ere), ontzietan, eta abar; harrian, burdinan, zurean eta *ehunezko oihaletan. Denak etxearen apaingarri.

Lan ttipiakoak izanagatik, oso gauza bereziak ditu Euskal Herriak bere hilarri-biribilak, *argizaiolak, ontziak (kaiku, *kutuska...), makilak, errosarioak, guztiek argi asko agertzen digutela berezitasun eta ugaritasunik.

Gai hontaz anitz istudio bada egina, Veyrin, Colas, Barandiaran, Frankowski, Yrizar, Zabalo, Caro Baroja, Peña Santiago, Manso de Zuñiga eta bestek. Baina oraindik ez dugu uste gai agortua denik, baizik bada hontaz egitekorik, bada zer bildurik eta zer istudiaturik.

III. ERDI-AROKO ARTEA

Erdi-aroan ere, Europako mendebaldeko kultura orokorra ez zen gauza monolitiko bat, herriek elkarren arteko harremanak aski libreak eta zabalak zituzten, kulturak ez zuen muga jakinik;

baina hala ere herri bakoitzak bere era berezia agertzen du, toki bakoitzeko hezikera giroak eraginik.

Euskal Herrian Erdi-aroaren lehen parteko materialik oso gutti heldu zaigu gure gizaldira arte.

Arkahiako ponteak, Ziortzako hilobia eta beste gauza gutti batzuk ditugu bisigotiko agiritzat. Karolingio aztarnak berriz Aralar larko San Migelen, eta bizantino esmaltedun *erretaula toki berean. Arginetako hilobiak (IX. mendekoak), Astigarribiako elizaren sortaldeko horma eta beste. Urri dira arkeologiak argitu dituen agiriak. Baina Erdi-aroaren bigarren parteaz atera genezake esatekorik.

Egia esan, oso nekeza da bertakotasunaren indarra monumentu handietan aurkitzea, garaiko estilo modaren korrenta eliza handiak eginaz sartzen zelako, bai hemen eta bai beste erresumetan. Baina hala ere, erromanikoa tokian tokiko herri artearekin asko baliatu zen; gure lurretan ere badu horrelako adigarririk.

Erromaniko artearen aberastasuna eta ugaritasuna argi ta garbi nabari da Nafarroan eta Araban, zerbait guttiago Zuberoan eta Baxenabarren, eta urri Bizkai-Gipuzkoetan. Nekazaritzaren ekonomiak agintzen zuen garai hartan, lurrik aberatsenetan nabarmen azaltzen zaigu arte estilo horien ugaritasuna. *Nafarroan*: Leire, Iranzu, Orreaga, Oliva, Iratxe, Tudela, Sangotza, Lizarra (azken hiri hontan Granada de Ega-ko Dukearen jauregia ere bai, Nafarroako Antso VI. aren bizi-leku izana); gainera hegoalde-rago ugariago eta aberatsago, laborantza bera aberatsago zen neurri berean. *Zuberoan*: Saint-Blaiseko erromes ostatu zaharra, Santa Engraziko eliza eta abar. *Araban*: Estibalitz, Armentia, Tuesta eta abar. *Bizkai-Gipuzkoetan*, esan dugunez, urriago aurkituko ditugu, baina hala ere, ate, leiho, bataio-ponte, irudi, . . . izan zirenen lekuko. Seguro asko, ez Araba eta Nafarroan bezain aberatsak, edertasunean, handitasunean eta ugaritasunean, baina bai badira Erdi-aroeko artearen ageri zihurrak. Aipatu ditugun izan

zirenen zatietattik aparte. Bakioko San Paleu eta San Miguel Zume-
txagakoa ditugu lekukorik berezienak. Era berean ez bada ere,
zerbait beranduagokoa delako, Galdakanoko Andra Mari.

Pizkunde garaiaren hasieratik, batez ere Amerikako salmen-
tetatik sortu zen merkataritzari esker, ola-zaharren eragintza eta
indartzea etorri zen eta ekonomiaren bizkortzeak girotu zuen mo-
numentu berriak eta hobeak jasotzea, inoiz lehen zahar eta ttipia-
goa zen toki berean. Burdinoletan lana ugaritzeak, esku-lan gehia-
go behar zuen, herriak jendez gehitu ziren eta eliza handiagoen
beharra ere bazen. Handitze horietan, inoiz, lehenagoko zatiak
aprobetxatu ziren eta hor ditugu estilo zaharren agiritzat.

Erdi-aro hontan arkitekturazko monumentu handi horien bi-
dez adierazi zen batez ere arte edertasunaren sentimena, eta
herriak hortara ahalegindu ziren.

Aipatu ditugunak baino monumentu ttipiagoak ugariago di-
tugu. Batzuk oso bereziak gainera: Eunate, Uxue, Artaiz, Done-
zaharre...

Giro hartako langintza haien teknikak, lanok egiten ari ziren
maisuengandik ikasleetara igarotzen ziren, zuzenean, bestelako
eskolarik gabe. Artistek ez zuten oraindik beren izenik agertzen.
Beren buruak gordetze honek misterioz bete ditu haien lan handiak.
Gotikoaren amaieran eta Pizkundearekin hastean ematen dituzte
lehen aldiz beren izenak. Hemendik aurrera, beren aurpegia ager-
tuko zuten. Baina, ez ordea herri artegintzan iharraituko zutenek;
hauek beti bezala izenpetu gabe egin dituzte beren lanak.

Nafarroako erromanikoak Akitania aldekoan ditu bere iturriak,
Sobarbe aldekoak ere bere partea duela. Bestalde, arestian agertu
dudan bezala, tokiko herri arteak ere izan zuen bere emaitza.
Arrazoi honegatik ditugu Leireko kripta eta Artaizko eliza, adibidez.
Apaingarriztat erabiltzen ziren sinboluak ordurako herri artean
erabiliak ziren.

Bizkaiko erromanikoan, inongo kutsurik izatekotan, XII. men-

dearen erdira arte Irlanda eta Bretaina aldekoarekin ditu bere kidesunak, eta erditik atzeruntz nolabait ere agertzen da Leon eta Gaztela aldekoarena, Gaya Nuño-k bere estudioan dioenez.

Gotikoa, ugariagoa eta aberatsagoa da, noski. Baionako katedrala, Iruinekoa, Gasteizko zaharra, Oliteko gaztelua, Bilboko Santiago, Ziortza, Lekeitio, Erandio, Getaria, Arrasate, Deba...

Hemen ere herri arteak bere parteak izan du, Zumarragako Antiguan bezala. Baina, gotiko garaian herri artearen influentzia eta indarra irudietan datza, batez ere imajinagintzan. Garai honetako imajinek era oso berezia dute, eta imajina horien artean Andra Mari askok. Hauetan aurkitzen dugu berezitasunik nabarmenena. Etxeen arkitekturan, Erdi-aroko dorre-etxeak. Hauek, gehienetan kuadratuak ziren; hiri barnetik kanpora zeudenak gehienetan muino batean: Muxika, Elgetako Jalotza, Foruako Urdaibai, Iurretako Dorrea eta Oinatiko Zumeltzegi bezala. Edo, bestetan, harresi batez inguraturik, Mendoza, Muñatones, Ursua, berritu aurretiko Butrongoa bera eta abar ditugu adibide ederrak. Hauek asko ahaide nagusien guduak zirela eta *eraxiak izan ziren baina, hala ere, beste asko zutik heldu dira gure mendera arte.

Erdi-aroren hondarrean, Pizkunde garaia hastapenetan, agertzen dira artisten lehen izenak, eta euskaldunak ere baziren Espainiako eliza handien egileen artean, K. Etxegaraiak bere *La tradición artística del pueblo vasco*-n adierazi zigenez. *Joan de Arandia* dugu, XV. mendearen azkenaldian, egile ezagunetakoa: 1492-1496 urteetan agertzen zaigu Valladolid-en Santa Cruz eta San Gregorio kolejiogintzan eta Santiago-koa berritzen, eta gainera San Benito-ko eliza egiten, arkitektu bezala. Arandia hau elgoibagatza zen. *Ortuño de Boillar*-ek Ereinoko (Bizkaia) semeak, Yeste (Albacete) hiriko eliza-nagusiaren ojal parteak bukatu zuen, arkitektu bezala, 1503an. *Joan de Olotzaga* izan zen Huesca-ko katedrala handitzea proiektatu zuena. Honen lehen aipamena 1497koa da. Nafarroa eta Aragoiko errege Joanek kontratatu

zuen, eta Ricardo del Arco-k eman zituen agirietatik dakigu: *Encargó el proyecto y el presupuesto al maestro Juan de Olotzaga, vizcaino o navarro de nación (Las grandes iglesias españolas. La fábrica de la Catedral de Huesca, R. del Arco)*. Baina Etxegarairen ustez, Olotzaga hau gipuzkoarra izan zitekeen. Harekin batean, XV. mendearen azken parte hortan, Huesca-ko katedralean parte hartu zuten maisu eta *harginen artean ditugu: *Fernando de Lonbierre* (Lumbier), maestro *Penya*, *Pedro Ligarate* eta *Migel de Idroaga*, denak *maestre* nafar bezala agertzen direnak.

Beranduko gotikotik Pizkunde garaia igarotzean agertzen zaigu *Pedro Díaz de Oviedo*; ez zen Euskal Herriko semea, baina Nafarroako Erriberan, XV. mende hondar hortan, bera hasi zen lehen aldiz hispano-flamenko erazko artegintzan. Honen lanik handienetakoa Tutrako katedraleko erretaula nagusia da. Honen ondotik etorri ziren bertako artistak estilo berritzen.

IV. PIZKUNDE GARAIA

Euskal Herriko artean, herri artea alde batera utzita, zabal-kundez eta aberastasunez Pizkunde garaia dugu goren. Artista ugari zen eta arte lantegiak ere ez gutti. Baina batez ere eskulturak du indar handia eta bertarako ez-ezik herbesterako ere lan asko egin zen.

Garaiko maisurik bereziena *Joanes Antxieta*koa, azpeitiarra izatez, bere lantegiak Iruinean zituena.

XVI. mendearen hasieran sustraitzen da Euskal Herriko Pizkunde garai hura, plateresko estiloetatik hasita. Orduko artistarik gehienek ez zituzten oraindik beren lanak izenpetzen; bestalde, garai hartakorik agiri idatziak ere urri dira eta argi gutti ematen digute. Mendearen erdialdea baino lehen hasi zen platereskotik erromanista estilorako aldakuntza eta une berean ager-

tzen zaizkugu izen batzuk: *Pierres Picart* frantsesa, beste gauza askoren artean Oinatiko Unibertsidadearen aurrekaldea egin zuena; *Joanes Ayalako*a, gasteiztarra, Ziortzako erretaula platereskoaren egilea; *Andres Araozko*a, gipuzkoarra noski, besteren artean Genevilla eta Eibarko erretaulen egilea; *Joanes Madariaga*, *Gabiria* anaiak eta abar.

Horien ondorean agertzen da *Joanes Antxietakoa*, erak aldatuaz erromanista taxuz ari delarik. XVI. mendeko imajinagintzan eraberriaren goi mailak hartu zituen.

Erromanista eraz, Juan de Juní frantzitarra aurreratu zitzaion Espainian. Juní, bere aldetik, della Quercia eta Migel Anjel-en bideetatik zetorren, hauen jarraitzaile bezala. Eta Antxieta Valladolid-en berarekin, Junírekin lanean jardungo zela uste da. Hala ere, badira uste dutenak, Juníren kutsua ukatu gabe, Italian ikasketak egin izan zitekeela. Baina hortaz ez dakigu gauza zihurrik. Bere gaztaroko berri gutti dugu. Zenbait kontratutatik dakigu gipuzkoarra zena, toki askotan ibili ondoren Iruñean jarri zuela bere irudigintzako lantegia eta Iruinean bertan hil zela 1588an.

Usteak uste, hau bai, Juní bera zen Antxietaren eskultura gehien estimatzen zuena, haren *hilburukoan agertzen denez; Medina de Rioseco-n bukatzeke uzten zuen erretaula ez zuen nahi inork amai zezan, Joanes Antxietakoak izan ezik. Beraz, laudorio handiagorik ez da erraz.

Baina Antxietaren estiloak bere era bereziak ditu bolumenetan eta hauen ordenamenduan. Honegatik, eskola berezi bat finkatu zuen, Pertsonalidade handia ematen diona, eta berarekin ikasiak eta bere jarraitzaileak ez-ezik inguruko beste batzuk ere kutsatu zituen. Hauen arteko: *A. Bengoetxea*, *P. González San Pedro*, *N. Ruiz de Zubieta*, *Lope de Larrea*, *B. Inberto*, *D. Bidarte*, *D. Luso*, *J. de Berrueta*, *Jeronimo Larrea*, *Joan Iriarte*. Eta neurri batean *J. Baskardo* bera, Euskal Herrian barrokoari hasiera eman zion eskultorea.

Barrokoaren sorreran ahaztu ezina dugu *Martin Basabe* aulestiarra, bere herrian lantegia zuena; baina Antxietaren inguruko horiekin ez zuen ezer ikustekorik bizkaitar honek.

Beste anitz ere badira Antxietagandik aski aparte zeudenak Pizkunde garai berean: *A. Gaztelu, D. Segura, B. Gabadi, Jiménez de Alsasua, Binies, Obray* eta abar. Herriak berak onartu zuen era hori eta alde guztietatik ziren lanen eskariak. Ekonomia ere aski sendoa zen, eta Bizkaian, Iruinean, Lizarran, Tutran eta beste zenbait tokitan zituzten artista horiek beren lantegiak.

Nafarroa lehendik ere arteaz aberatsa zen, baina Bizkai-Gipuzkoak garai hontan hornitu ziren egundoko arte aberastasunez. Eta ekonomiak zer ikusi handia izan zuen hontan. Ordura arte nekazaritza aurretik joan bazen ere, orduan hasten da Bizkai-Gipuzkoetan aintzinatik goraka zetozen burdin-olak gaineratzea. Ameriketak aurkitu eta burdinazko tresnen salmentak ugaritzean etorri ziren ondasunak.

Pizkunde garai hontan, eskultoreak haina ugaldtu ez bazirer ere, pintorerik ere ez zen falta. Nafarroan Ororbia eta Agredako maisu izengabeek gainera *J. Bustamante, M. de Latorre, J. Lunbier*, eta abar; Gipuzkoan *Castillo Negro* eta *Breheville* familia-koak eta Bizkaian *Vázquez, Mendieta, Bedia* eta abar. Bilboko pintura eskola baten berriak ere heldu zaizkigu.

Garaiko arte ugaritasuna oso nabaria da. Gainera, euskaldun artistek lehen aldiz zabaltzen dute beren artegintza herbesteetara eta Aragoi, Gaztela, Leon, eta bestetan aurkitzen dira hemengo semeen lanak. Baziren artegintzan herbesteetan bizi zirenak ere; adibidez: Gascó edo *Joan Navarro* Tafallako semeak lan handiak egin zituen Vich-en, eta *Baltasar Etxabe* zumaitarra izan zen Mexico-n Europako pinturaren eskola sortu zuena.

Lehen lehenago ere, Erdi-aroan, beste horrenbeste gertatu zen euskaldun hargin eta arkitektuekin, katedral batzuetako agirietan agertzen denez.

Giro honen barnean bada beste arte ekintza berezi bat ere, giro berari itsatsia dena: euskaldun kaligrafuak. *Joan Itziar* durangoarra, *Arte de escribir*-en egilea, orduko kaligrafuen artean Europan famatuenetako bat. *Pedro Madariaga* arratiarra izan zuen ikasle eta jarraitzaile aurreratuenen. Geroztik hemengo kaligrafuen entzutea handia izan zen.

Arkitektura, estilo berezi bezala, eliza batzuk *gotico vasco* deitzera etorri diren teilatupeko uztak garai hortakoak dira. Gotikoan hasi ziren Zuberoko dorre hirukoitzak ere, pizkunde garaian indartu eta ugartu ziren. Jauregietan ere abantaila handiak eza-gutu ziren. Hauen arteko ditugu Lili (Zestuan), Aranguren (Orozkon), Legazpirena (Zumarragan), eta abar. Etxe eredugarriak ere bada Goizuetan, Hondarribian, Lesakan, eta abarretan.

V. EUSKAL PINTURAREN ESKOLA

Gizarte giro jakin baten inguruan sortu zen Euskal Pinturaren Eskola. Foruen galeratik sortu zen euskal kezka mugitu zituen kultura saileko ekintzak, politika, jakintza, ikerketak, musika, literatura eta abar. Era guztietatik hasi zen holako suspertzeara, aurrera begira bere frutuak emango zituen. Suspertze horren ondorioz, plastikazko arteetan ere bere eragintzak izan zituen. Euskal kulturaren pizkunde berria sortu zen. Gizarte giro berezi baten eragina zen eta euskal kultura bere bideak urratzen ari zen, lehengo bere sustrai zaharretan oinarriturik loratze berri baten bila.

Giro hori, elkartasunezko kontzientziaz jabetzeaz, helburu batzuk burutzeko bide urratzea zen.

Hastapenetan, Baionan eta Bilbon genituen erromantikoaren garaiko pintura eskolarik aipagarrienak. Baionan *Leon Bonnat* (1833-1922) zen maisu, eta ikasleen artean aurreratuen bat izan

zuen *Georges Berges*. Bilbon, ordea, ez zen maisu jakinik, 1872an *Antonio Maria Lekuonak* (1831-1907) bere eskola ireki arte. Lekuona Bilbora heldu zenean, bertako artistak oraindik histori gaietz eta erromantikoen eraz ari ziren. Lekuona, lehen aldiz, bertako herri gaiak erabiltzen hasi zen. Lekuonaren eskolan hartu zituzten beren lehen ikasketak geroago pintore ospetsuak izango ziren askok. *Ginea*, *Regoyos* eta *Giard* agertu ziren ondoren eta hauek jarri zituzten oinarririk tinkoenak.

Batez ere *Regoyos* asturiarrak eta *Giard* bizkaitarrak ekarri zituzten Pariseko haize berriak, orduko inpresionismoari gure lurretan hasiera emateko. Ondoren, bide beretik, *Iturrino* eta *Losada* etorri ziren argiz inguratutako pinturagintzan.

Lehen urrats horiengatik, era guztietako kritikak jaso zituztenarren, atzetik zetozenak bide berean finkatuago jarriko ziren. Aurrerantzean, Bilbon lehen ikasketak egin ondoren Parisera abiatuko ziren. Beraz, San Fernandoko eskola alde batera uzten hasten dira, eta Madrildik igaroak ere Parisera doaz. Geroztik, Pariseko giro berriak emango du argia. Eta horrela datoz artistak geroago eta helduago, eta heldutasunak berekin ditu bertako era berri bat sortzeko kezka. Elkar giroko kontzientziaz jabetu ziren eta hori zen eskola berezi bat sortzeko beharrezkoena. *Etxebarria*, *Arteta*, *Arrue anaiak*, eta abar. Parisen bertan, Euskal Herriko pintoreek *Pako Durrio* zuten ordezkari bezala laguntzaile. Eta hemen, *Juan de la Encina* zuten beren lagun kritikatzailerak.

Parisetik itzultzen direnak giroa geroztik Bilbo. Elkarte bat sortu zuten, beren arteko harremanen lotura izateko. *Zubiaurre* anaiak hurbiltzen dira, eta *Tellaetxek* ere gogotik hartzen du bide bera. Mugimendu berak eraginda, *Asentzio Martiarenak* (1884-1966) sortzen du Donostian bertan antzerako eskola, Bilbokoari aski loturik, eta eskola honen inguruko ziren *Jesus Olasagasti* eta *Daniel Vázquez Diaz* (gero, gudostean, honen hinguruan sortu zen Madrilgo eskola berria).

Eskolaren helburua, elkar-giroko moldez aritzea zen, bakoitzak beretasuna utzi gabe. Pinturan, erabili behar ziren gaiak baino garrantzizkoagoak ziren pintatzeko erak, koloreak eta teknikak.

Elkar-giro edo kolektibismo hontatik gaindu ziren eskola tinkoago bat burutuko zuten maisuak. Eta maisutza hartu zuten horiek irakaskintzarik zabaldu bazuten ere, giroari eta inguruari ez zioten gutti zor.

Nere ustez, maisurik inportanteenak izatera heldu zirenak, honela ordenatuko nituzke, gutti gora-behera, bakoitzaren me-rezimenduekin.

Aurelio Arteta, post-cezannismotik bere gisara bide berriak ireki zituen. Bolumenak, argien alternantziak, euskal mentalitatean gogoko hartuko ziren koloreak, gizakiak eta formak, herriak berak ere ontzat emango zituenak. Inork baino indar handiagoz jaso zituen Euskal Herriko bizitza erak bere oihaletara: laborariak, itsas-gizonak, olagizonak, eta abar. Bere obra nagusitzat daude Madrilgo Banco de Bilbao-ko 12 freskoak eta Logroñoko Seminarioko absideko *Apostoluen bokazioa* delako freskoa. Hauetan, Puvis de Chavannes eta Gauguin gogoratzen badizkigu ere, berekiko sorketa indarra ukatu ezinezkoa du.

Juan Etxebarria, injinerua izatez, bere ofizioa utzita 27 urtekin oso-osoan pinturara eman zena. Diruduna zenez, bere inguruko artistei asko lagundu zien premia larrietan zirenean. Artista bezala, koloreaz biziki arduratzen zen eta lehenengo erretratu psikologikoak berak egin zituen (lehenengoak esateaz, irakurleak ulertuko du Euskal Herriaz ari garela). Renoir, Cézanne eta Gauguin gogoratzen dizkigute haren lauki batzuek.

Frantzisko Iturrino, bertako gairik gutti erabili bazuen ere, bestelako gaiekin baliatuaz baina hemen egosi zen post-cezannismo bereziaren hildotik lan egin zuena. Matisse, Renoir, Cézanne zituen maisurik gogokoenak.

Julian Tellaetxe, itsas-giroa maite zuena eta bere pintzelen

araura Kantabriko hegalen eta bertako gizonen berri eman ziguna, itsas-gizonaren kezka eta indarra, baina batez ere zuriak erabil-
tzeko eran maisua, pintzelada berdintsuen bidez hainbeste mota
desberdin menderatzen zituena. Vázquez Díaz batek ez zion
gutti zor.

Jesus Olasagasti, Artetaren iharraitzaile eta honen teknikak
zintzoen eraman zituena. Oihalak pintatzeko eran eta koloreetan
Arteta bera bezain ona izatera heldu zen. Akatsik izatekotan,
Arteta gandik jaso zuen teknika eta estiloa gorago ez eramatea-
rena izango du, gehiago ez eboluzionatzearena, eta ondorengo
artistei aurretikoen loturatik gerora begira ez laguntzearena.

Beste asko zituzten inguruko. Denak aipatzea aspergarria
litzake eta maisu horiengandik hurbilen ibili zirenen izenak baka-
rrik emango ditugu: *Manuel Losada*, lehen ere aipatua; *Benito
Barrueta*; *Arrue anaiak*, lau ziren baina *Alberto* eta *Ramiro* ditugu
aipagarrienak; *Zubiaurre anaiak*, aparteko eraz landuaz ihardun
baziren ere, ez zebiltzan euskal eskolatik hain urruti; *J. Urrutia*,
J. Aranoa eta *J. M. Uzelay*, elkarrengandik berezirik baina eskolari
zeharo loturik.

Orduko Bilboko giroak bere indarrez zabaldu zuen Euskal
Herri guztira pinturagintzako era. Donostian Martiarenaren esko-
laren bidez, Nafarroan *Ziga* eta *Basianok*; Araban *Maeztu*, *Ortiz
de Urbina* eta *Amarika*; Ifarraldean *Veyrin* eta *Txoribit* . . . , guztiak
errotik heldu zioten ekintza berriari.

Gerratearekin bukatu zen eskola hura, bere iharraipen pikor-
tuan gutti batzuek iraunez, baina mugimenduaren trinkotasun hura
aspaldi suntsitutzat eman genezake.

VI. GAURKO ESKULTURA

Gaurko Euskal Herriko eskultore batzuk oso ezagunak ditugu

mundu zabalean. Baina eskultoreen ospe handia bera baino garrantzizkoagoa zaigu hauen eskola finkatua.

Eskola hau, beharbada, ez da Jurgi Oteitza konformagaitzak nahi bezain sendoa, baina ukatu ezinezko eskola behinik behin. Eta arte eskola bat burutzea ez da noiz nahi lortzen den fenomeno bat. Eskola honek bere bide urratze luze eta latzak izan ditu. Eta nekeok buruturik, hor dugu eskola bat. Gizarte giro hobe batean loratu bazen emaitza hobeagoak izango zituena beharbada, baina herriaren nekeen kezkak nabari dituela heldu zaigu. Kontuan izan, herrian bertan kontzientzia elkartu bat burutu ezin den garaia dela, kultura desberdin bi elkarrekin borrokan ari diren garaia. Honegatik da hain nekeza Jurgik nahi lukeen tinkotasun hori.

Eskola sendoagoa eta ugariagoa izan zitekeen. Baina gure eritziz, eman behar zuen guzia emateko du eta fruitu emaitza onurakorragoak espero ditugu.

Eskola bada. Eta, Jurgiren eritziz, eskola batek berekin du familia baten elkartasuna. Eta hala izan behar du, elkartasunak handiagotzen gaituelako eta norberekeriak urritu eta ttikitu. Hau da ber-berak oraintsu esana.

Egonezinez urduri bizi den maisu honek, presa du eskola sendo eta zabal bat lortzeko. Ideien etorri azkar eta ugaria duen gizona, eta asmo guztiak bat-batean finkatu nahi dituen, pentsa bezain azkar egintza ikusi nahirik. Korrika iragan nahi ditu aspaldiko urteetan lo edo gauaren lausoan galdu genituen herri sentimenetatik urruntzen gaituzten une luze haiek.

Eskola hau ez zaigu aski. Zerbait ugariago, zabalago eta sendoagoa behar dugu maisuaren eritziz. Baina ukatu ezinezkoa dugu egungo eskultura eskola. Elkar-lanean ari ez badira ere, elkarren kideko dira; guziek iturri bateko uretik edan dutenez gero, lehen ikasketa berdinetik sortuak dira. Eskola iratzartu

zuen eta bere eragile izan dena, *Jurgi Oteitza* dugu, gure arte historian tokatzen zaionez.

Iratzarte honek, egungo pintura ere kutsatua du, baina ezin esan dezakegu pinturan, gaur egun, eskola berezi bat dugunik, plastikazko arteetan eskola izateko behar den kidesasuna lortzeko duenez gero. Beharbada zerbait inportante lortzeko momentu punterengo batean bizi gara, nabari den kezka eta dinamika ikusirik. Arte berriek daramazkiten joerak ikusirik, badaiteke, kidesasun baten inguruko era inoiz ez burutzea. Eta pintore bakoitza *narotasunez abiatu da, bakoitzak bere gisara jardunez, eskolen joera eta loturetatik urrunduaz.

Ongi merezirik ospe handia duten pintoreak baditugu, mende honen hasierako euskal-eskolaren jatorrietan sustraituak eta bertatik eboluzioari jarraituaz edo loturik; eta beste asko, *oinburuak ukatuaz, zerbait berri sorteraiaz. Baina eskolatzat joenezakeen era zihur batera heldu gabe.

Eskolak behar duen heldutasun hau, eskulturan nabarmen aurkitzen dugu: ez beharbada nahi bezain indartsua eta hedatua, baina bai eskola deitzeko hainakoa.

Eguno euskal eskultura bere era berezietz ezagutzen da, familia bat gorpuzten du, elkar giroko kontzientziatik heldutako zerbait, eta honen lehen eragile eta maisu *Jurgi Oteitza* dugu.

Elkar giroko arte honek, maisu bat izatetik aparte zer berezi duen? Arbasoen sustrai zaharretan sakonduaz, lehen gizonen arte era zaharretaraino joaz eta gaurko gizonei naturalezaren aldakuntzetatik dimentsio berriak deskubritu dizkio. Eskola osatzeko agertu ziren jarraileak: *E. Txillida*, *N. Basterretxea*, *R. Mendiburu*, *R. Ugarte*, *Larrea*, *Azpiazu*, *G. Andonegi*, *T. Egibar*... bakoitza bere erak hartuaz eta landuaz joanez. Maisuaren fruitu eta irakaspenetatik abiatuaz, familiaren barnean, bakoitzak bere gisako erak burutu ditu. Artista *andana honek euskal artearen historian arlo berri bat landu du.

EUSKAL HERRIKO ARKITEKTURA

J. I. Linazasoro

Euskal Arkitekturaz mintzatzea ez da gauza simplea, eta lerro guti batzutan egitekotan areago. Ez da, gainera, egundaino Euskal Herriko Arkitektura hartuko lukeen estudio egokirik egin. Arkitektura Monumental arloan egin dena Nafarroari eta Arabari buruz egin da eta, orokorki Erromaniko eta Gotiko garaiei dago-kielarik; Herri Arkitekturari dagokionez Gipuzkoako eta Bizkaia-koari atxikirik egin da.

Saiakera erdi-oso hauek nolabait zuritzeko, Euskal Herria ere konplejua dela esan beharko dugu. Kultura eta Politika arloetan homogeneitasunik gabea da gure herria; eta historia joriagoa izan dugu guztionak diren etnografian eta herri kulturaren. Ger-tatzen ere da geografiaz ere arras desberdinak izatea eta hau Arkitekturari garrantzi handikoa zaio.

Esate baterako, nekez aldera daitezke Pirineo hegaletako Erronkari eta Zuberoako lur gogorretako Arkitektura eta Gipuz-koako edo Bizkaiko Kantauri ertzekoa. Larriago ginake Ebro iba-rretan kokaturik dauden Nafarroa eta Arabako zenbait eskualde-takoarekin alderatu nahi bagenitu.

Geografia ezberdintasunak ez ezik, atzerriko kulturen era-ginak ere, (hego aldean bereziki) etengabe jasan behar izanak, zeharo galerazten du molde bakar batean gure kultura zertzea,

kasu hontan etxe herrikoari —egurasti aldakorraren menpekoari— gagozkiolarik.

Arkitektura herrikoia eta monumentotako ezberdintasuna egun-gor arkitektura aztertzerakoan ere nabari da. Peninsulako ekonomia desarroiloaren aitzindari Gipuzkoa eta Bizkaia izan dira. Aldiz, Arabak eta Nafarroak gure mende honen erdi alderaino nekazaritzan jarraitu dute. Itsasertzeko eskualde industrializatu, lantegiztatu, horietako arkitektura arazo berritan murgildu da eta Araba eta Nafarroakoek oso atzetik darraikiete planteamendu berri horien ezartzerakoan.

Lan alferra litzake artikulutxo hontan Euskal Arkitektura erabateko berririk adierazteari ekitea. Ez da gure asmoa izen eta gerta-egunen zenbait dato enziklopediko eskaintzea, Euskal Arkitekturak bere baitan duen zenbait gai arras interesgarri aipatzea baizik; arestian genioenez, gaurkoz alferrikako litzake gure Arkitekturaren ikusketa oso eta orokor batez baliatzea, jarraigari baino galgarriago lirakeen sinplifikatzetan eroriko ez bagara.

Euskal Herria *Bertakoen Eskualde*-tzat jo ohi da maizenik. Hau egia den ala ez, ez naiz hasiko aztertzen; ene ustetan, peninsulako gainontzeko eskualdeetan bezalatsu, zein guti zein gehiago, atzeritako kulturen eragina nabarmen zaigu eta zaio Arkitekturari ere.

Atzerriko eraginak eta berri bereko ekintzak estilo historikotan zertzen eta zehazten dira. Kultura berriaren lehen ekarle Erromatarrak izan genituen. Iruñea eta beste zenbait hiri nagusi berauei zor diegu eta Irunen berriki aurkitu da harako garai hartako arkeologi aztarna garrantzizkorik. Iruñean, Nafarrerria hauzoko karriken taxukeran ere nabari da haien urbanistika aztarna. Gerora, Erdi Haroan eraikitako Erromaniko eta Gotiko Arkitekturaren aztarna interesgarriak badugu, Araban eta Nafarroan bereziki. Komentutako feudal legeek —Leirekoak bereziki— eta Santiagora Bideak arras lagundu zioten Erromanikoaren hedatzeari eta on-

dore jakingarri ugari utzi ere. Honen lekuko da *Leireko elizpe (cripta)* oso garrantzizkoa, plastika indar berezidun aztarna arkaikoa; halaber *Eunate-ko Eliza* ederra, arkuz inguratutako aurrekalde ederrean halako espazio egoki bat sorturik eta Peninsulako Landa-Erromanikoen adinako dena. Garai honetan kultur mugak ez zeuden zehatz ezarriak eta aragoitar eta frantziatar maisurik ari da Nafarroan lanean, Araban burgalesak ari ziren gisara; *Armentiako Elizaren ataria* dugu, lur honetako arkitekturaren lekuko ederrenetakoa. Xuberoan *Jondone Bladiren Hospitaleko elizatxo*a dugu Frantzi hegoaldeko erromanikoaren lekukorik osoenetakoa eta honen izar-antzeko sapaia nabari du espainitar eragina, Nafarroako Torres del Rio-koak bezala bere islamdar jatorria adieraziz.

Landa-Erromanikoa (*románico rural*) aipatu dugunez, ez dezakegu aipatzeke utz *Muskariako Katedrala*. Hiñ-Erromanikoa (*románico urbano*) da eta arras interesgarria; sapaia gotikoa Zisterko joerak moldatua, Nafarroako *La Oliva-ko Elizaren* (Gotikoa hau, Torres Balbás-en ustetan) eragin bera duena, baina neurritz Erromanikoa, argiaren erabiltzeaz lekune edo espazio patetikoduna.

Frantziatik Nafarroara bidean datorkigu Gotikoa, Erresuman Frantziako Dinastiak agintzen zuen garaian. Elizetako barnea handi izan arren, xehetasunen eta diseinu apainen begi-goratzea galerazten ez duenetakoa, *Iruineko San Fermin* eta *Leireko anpliapena*, adibidez, *Herriberriko Gaztelua* eta *Iruineko Katedralaren elizpea* ere eskualde hontako arkitekturaren ondorio jakingarri direlarik. Laburtzearen, diseinuaren txukuntasuna eta proportzioarekiko sen zorrotza aipatuko dugu, Peninsulako beste Gotiko aztarnekina alderatzerakoan. *Gazteizko Katedral zaharra* ere estilo beronen adierazle dugu, Karlos III.aren (1387-1425) agintzaripean egina bait da; *Bilboko Santiago Eliza-ko* eta *Geta-*

riko San Salvatore-ko elizalde-gainak (*triforio*) horien aldakuntza dira, eta gero mintzatuko gara hauetaz.

Gipuzkoan eta Bizkaian badugu Gotikoaren mota jakingarri bat ere: *zutabe-elizak (iglesias columnarias)*, gerora Peninsulan zehar hedatuak. Guztiak berantiarrek dira, Errenazimenduaren mugatakoak; zutabe klasiko ikaragarritzko handiak dituzte, gotiko sapaiañen euskarri direnak eta Areto-Eliza deritzaten altura berdineko Eliz-barneak sortzen dituztenak. Aipatzekoak dira *Ber-garako Santa Marina, Eibarko San Andres*, etab. Nafarroako Gotikoak duen proportzioarekiko sen zorrotz eta xamurraren kaltetan, nahiago izan zuten hauetan lekunearen eta eraikitzairen handimina ase. Gotiko izena eman ohi zaienetatik bereizteko, argia urri izateak ere laguntzen die.

Gipuzkoan eta Bizkaian, Errenazimendua eta Gotikoa zutabe eliza hauen bidez lotzen dira elkarrekin, baina ez beti: *Donostiako San Telmo*, adibidez eta orohar, garai hartako Hiri-arkitekturatzat jo behar da eta Jauregi eta Udaletxeen multzoan sartu. Bada arkitektura huts ez den beste arkitekturaren elementu eskolaturik (*elemento culto*): erretaula eta eliz-aurreak (*fachada*). Platereskoaren ondotik Eskualde guztian ugari hedatuko zirenak. Aldare-buruei dagokienez, Joanes Antxietakok Nafarroan eginiko aipatu beharko dugu. Migel Anjel-en ikasle izandako honek, Tafallako eta Iruineko Katedralak eraiki zituenen bereziki, eskola berri arras jakingarria sortu zuen. Gerorako utziko dugu Jauregi eta Udaletxeen gaia, herri-arkitekturaren eta Urbanistikaren bereizgarri garrantzizkoa bait da.

Neoklasizismoa ere berandu sartu zen gure eskualdean. Silvestre Pérez-ek ekarri zuen (eta, agian, honen ikasle zen *Ugartemendiak*) eta Gernikako, Bilboko, Gasteizko eta Donostiak zenbait eraikitzañatan parte hartu zuen. Arkitektura mota honek ze ikusi handia zuen gure eskualdeko hirigintzañen konzeptu berriak erabakitzerakoan. Plaza Nagusi berri ugari egin zen, berauetan

urbanistika berri baten aldamenean Donostiako Udaletxea bezalako zenbait etxe ikuskarri sortuz; Urbanismo soluzio interesgarriker ere sortu zen; hauetaz, gero ihardungo dugu. *Iruineko Katedralaren aurrekalde (fachada)* (Ventura Rodríguez-ena) ederra ere gogoan hartzekoa da; Italiar Barrokoaren eragina oso da nabari Erromanikoa oinarrizko duen dorrebidun aurrekalde hontan. Klasizismoen aldatze zoragarria da.

Erremantizismoak eta honen irakaskintzak eragin txikia izan du gure eskualdetan. Donostiako etxe-zabaldiko (*ensanche*-ko) etxe bakan batzu eta Iruineko zenbait Komentu aipa daitezke.

Eta, azken joera modernu batzu aipatu behar lirake, eta ez ditugu isilean utziko Donostiako eta Bilboko zenbait *Art Nouveau* multzo garrantzidun (*Gimon*-en etxe bat edo beste, Bilbon; Donostiako Prim kaleko etxe eta atari, *Arbide*-ren etxea —egun galtzeko zorian dagoena— etab.). Erabat, XIX. mende azkenetako giro eklektiko orokor batetan zebilen *Art Nouveau* delakoa eta gertakizun bakan izan zen.

Mario Camiña-k eginiko *Gorlizko Sendaetxea* ere eraikitza enpiriko berri inportanteenetakoa da.

Gure mendeko 30eko urteetan zuztatu zen Arrazionalismoa gure eskualdean, Donostian (1.930) sortu bait zen *Gatepac* delakoa, eta *Aizpurua*-ren lanek, urri izanarren, badute leku bertako bai internazional mailako historiografian. *Club Náutico* eta *Café Madrid* (hau berriki lurrera dute) donostiar arkitektu argiaren egintzak dira eta garaiko Arrazionalista onenekin alderatzekoak. Bilbon, *Arzadun*-en (Kikunbera etxea), *Zuazo*-ren (Korreos etxea) eta, bereziki, *Ispizua*-ren (Briñas-ko eskolak) egintzek arrazionalismoaren barnean joera expresionistago bat zehazten dute: *Zuazo*-ren kasuan, holandar joera paraleloan (*Wendingen*-en) gertuago daude. Azkenik, *Victor Eusa*-ren Iruineko egintza aipatu behar dugu; gizon bakarti bainan indar sortzaile handia; hiriko herri-ikuspegia itxuratzen eta etxe modernu ederrenen (La Mi-

lagrosa, Erruki-etxe, Apaiz-etxe eta hainbat etxe arrunt) erakitzen esku izan duena.

Gerrate ondoak era historiko zaharrak berriitu dizkigu, oraindik hain garbi ez dauden ikurren arabera.

Gaur egungo arkitektura aitzindaria arkitekto bakan batzuen ekintza da, Peña Gantxegi (Gipuzkoan), Redon (Nafarroan), Fullaondo eta abarrena bereziki. Lehenengoa dugu, agian, enpirismo joera jator baten jarraitzailerik argiena. Gure eskualdeko arkitekturaren sortzaile eta berritzailetzat jo dezakegu; berebiziko "herri-arkitektura" multzo batzuen bidez onik atera du Motrikuko herria eta "En-tzus" etxea litzake, agian, ikusgarriena. Gipuzkoan bada ere jarraitzailerik eta Unzurrunzagaren taldea eta beste zenbaitek hortan dihardu. Nafarroan Moneo aipatu behar dugu eta honen obra den Zezen-Plaza, lehengo etxe baten handitzea dena, bereziki; eskualdetik at diharduenarren, Saenz de Oiza, nafarra, Madrileko Torres Blancas-en eta Gasteizko txalet inportante baten egilea. Moneo-ren eta Oiza-ren joeratan Peña-renean baino eragin Naturalistagoa dakusgu.

Arkitektura historikoa aztertzen luzetxo ihardun ote dugun beldur naiz; gure eskualdeko arkitektur-kultura aztertzerakoan, ordea, maiz aski ahaztu egin ohi da eta, gure ustetan, ez luke horrela izan behar. Aitzitik, beharrezko deritzagu euskal arkitektura herrikoia aztertze edo analisi sakonari.

Berriz ere, eta bereziki, Euskal Herriko desberdintasuna dugu hauzitan.

Hegoaldean (Nafarroako Erribera eta Arabako Errioxa) herri handiak ditugu oraindik. Mediterraneoko kulturen (Islam-goarena bereziki) eragina nabari da harako arkitekturaren eta horren eredu bi ditugu: Karka eta Muskariako Parte-Zaharra. Adriluz eta manposteriaz eginiko arkitektura da nagusi eta gorago, Arabako lurraldeetan, harrizkoa. Herriaren karrikaen-moldaketa nahiko laberintokoa da sarritan, Muskaria eskualdeak eragina bait du.

Plateresko eta Barroko Jauregi (adriluzkoa, gehienetan) anitzek ikusmolde berezia damaiote hiriko hiri-ikusketari. Honako Jauregiek sarritan dute goi-solairu bat, lehen mandio izandakoaren aztarna, agian, eta goi-etxebizitzari egurasteko eta berotik babesteko egoki zaio. Muskarian Lege-Zaharren Enparantza aipatzekoa da, herriko diseinuan Barrokoak izan zuen eragin bereziagatik.

Nafarroa erdi-aldean eta Arabako *Conchan* txikiago dira eta bakanago: herrixkak dira eta zenbaitetan erromatarren Landa-etxeek (villae, fundi) sortuak.

Iparralderagoko arkitekturaz zura gehiago erabili da eta etxeak bata-bestearengandik berezirik daude gehienetan, herrixka etxe bakan multzoa delarik. Egun dirauten gehienak XVIII. mendekoak dira, zurezko estruktura eta manposteria kare-berritua dituzte; harrizko ertz eta atari inportanterik (gero eta Baztandarrago) bada ugari. Elizak Erromaniko dira gehienetan, arras herrikoiak, Elizbarne bakarrekoak eta sarri, Gazolar-koa lekuko, atari ederdunak. Herrien xehetzaile dira.

Nafarroako Kantauri-aldeko hegaletako arkitektura "Euskal Arkitektura" topikoki deritzanari dagozkio. Baserriak ugari, herriak gero eta etxe bakanagoen multzo. Baserri gaia ere aipa dezagun aurretik, Gipuzkoako eta Bizkaiko herriek izaera dutela esan beharra dago.

Errege gazteluek XIII. mendean birreraikitako hiribildu (*villa*) inportanteen ingurutan baserri bakanak daude. Bergara, Arrasate, Tolosa, etab. honen eredu jakingarri dira; erabat, hiru karrika paralelo dituzte eta horien lotzeko zenbait karrikatxo batetik bestera, Eliza erdian dutelarik. Eredu osoena, halere, Gasteiz dugu eta honen eraikitza neoklasikoa (*Los Arquillos*) eta Olagibel-en *Plaza Nagusia*, esate baterako, maisu-lanak dira), alde aurretik ezarritako oinarri idealen aplikapena maisuki egiten bait zaio urbanistika honi. Parte Zaharra eta Hiri Berriaren arteko gain-

beheraren soluzio den Los Arquillos harako urtetako urbanistika garaienetakoa da, Peninsulako besteen artean. Hiri hauek, normalki, Enparantza ederrik ere badute, sarritan irekiak, eta berrietan Udaletxeak, Pelotalekuak eta Elizak lekune trebeki lortuak mugatzen dituzte, jatorri herrikoi eta laztasunik gabe.. Pelotalekua da (hontaz gero ariko gara), agian, euskal urbanismoaren elementu bertakoena. Enparantza hauek mugaturiko etxeak landuak izan ohi dira, Arrasateko Udaletxe Barroko zoragarria bezala, eta honek adierazten digunez, Arkitektura ikasiaren eta herrikoien arteko elkar-lotze jator bat, herri-taxuketa herrikoi batetan oinarriturik, gertatu da.

Itsasertzeko herriak

Hauetaz mintzatu beharko azkenik. Hauek ere birreraikiak izan ziren, gazteluen eskuz, XIII. mendean. Arrantzale etxeak dira bereizgarri, erabat Gotiko joerakoak, lehenen etxe-bizitzatik garaienerainoko eskilari zuzenak etxea alde-alde zulaturik. Aipagarri dira Hondarrabiako, Getariako, Ondarruako arrantzale hauzoak, besteak beste. Getarian, Gotikoaren eredu ikusgarria da Eliza, lurraren gainbeherari egoki ezarria. Bi sarrera du: goiko kaletik korurakoa bata, beheko eliz-barnerakoa bestea. Elizpea ere badu eta karrika nagusia portuarekin lotzeko iraganbide ikusgarria ere bai. Herri arkitekturaren Gotikoa hornitze jatorriat jo dezakegu. Euskal urbanismoan arkitektura Monumental herriari zein errazki lotzen zaion ere pentsarazten digu.

Baserria

Multzo bakana, baserria, da *jatorriz*, zenbaiten ustetan, Euskal arkitekturaren berezkoa. Horrela den ala ez, ez da oraindik erabaki, ez bait dugu hori ikasten gehiegi ihardun, ez zer ikasirik

ez dagoelako, noski; oraino egin diren azterketak ez dira ere jakintza-bide zuzenetik ibili. Bereizgarri zaiena aipa dezagun: bere buru den etxea da, etxebizitza, ikuilu eta *hazitegi* bere baitan bait ditu. Eraikidura handikoa da gehienetan eta Europa erdi-aldeko onenekin soilik alderatzekoa den habe handiko teilatuak estaltzen du. Eskualdetik eskualdera badu aldaketarik eta Gipuzkoan, Bizkaian eta Iparralde deitu Euskal Herrian (hots, Laburdi, Zuberoa eta Behe Nafarroan) zehar hedaturik dago.

Zuberoan nahasiagoa, batasun gabekoa da sarritan eta Piriniotik harunzko eragina nabari zaio. Gaia, ene ustetan, ikasteke dago eta ez dugu konklusiorik ezarriko. Jatorriz landuak izanarren, arras herrikoi diren Jauregi-Dorreak ugari ditugu. Ahaide Nagusien ondorio eta emaitza diren garrantzizkorik bada Bizkaian eta zenbaitek (Abadinokoak) Errenazimenduaren eragin nabarmenik jasan du. Nafarroan, Donamaria eta Arraioz-koak Erdi-Haroko eta berezkoagoak dira.

Euskal Herriko eredu herritar dira, halaber, ibaitik harunzko Elizak. Laburdikoen eta Garazikoen goi-solairuak daduzkate, bizantino eta paleokristauen andrategien antzekoak. Bereizgarri dira Donibanekoa, konpokaldetik ohizko Gotikoa, eta Itsasu-koa. Zuberoakoak apalagoak dira kanpandorre hirukoitza herriaren eta bere bereizgarri dutelarik; Pirinio inguruko herriok hartxabala erabiltzen dute bereziki etxe eta galtzadagintzarako. Gipuzkoan, Zumarragako Antigua-k Laburdikoen eragin ber-bera du, haiek baino zaharragoa izanarren. Bere zur-lantza eta eraikidura ika-ragarria Laburdikoekin alderatzekoa bada bederen.

Bada, haatik, herri lanon artean beste gai jakingarri bat ere. Pelotalekua, alegia. Euskal Herriak duen elementu berezkoena, agian. Herriko leku berezian egon ohi da kokatua, Nafarroa Erdi-aldean hasten da ugaltzen bainan Iparraldean (Laburdin, bereziki) da arkitektura joeren arabera erabilia. Sarakoa aipatzekoa da;

zuhaitzak ditu gibel-aldean eta eser-mailak erregebideari goi-beherakan jarraitzen diote.

Oraindik estudiatzeke dagoen beste elementurik ere bada: hilerri, arraska, ermita, gatzaga etab. Ikusgarriak dira Azpeitiko arraska neoklasikoa eta Añana-ko (Araban) gatzagak, bainan horiei buruzko ikasketak egiteko daude. Historiografiak, estilistika-fitxen gordeleku hotz soil-soila ez den arteino, ez lituzke elementu hauek ahaztu behar.

Aipatzeke ditugu, oraindik, arkitektura hiritarraren azken ihardunak eta Industriak eta trenbideek eskualdean izan duten eragina: Donostiako Ensantxe berebizikoa, Kortazar-ena, hiria birreraikitzeke Ugartemendiaren lehen plan galduaren jarraipena, joan den mendeko urbanismo neoklasikoaren eredu jakingarria; Bilboko eta Donostiako herri-etxe landuen ahaztutako etxegintza; Tolosako zenbait etxe eta Azoka, garai berekoak. XIX. mende azkenetako eta XX.aren hasierako arkitekturaren eredu jakingarri dira.

Beste Industri arkitekturà bat ere bada Gipuzkoan, 1840ko lehen industriatik hasi eta gure egunotako arrazionalista berri eta jakingarrietaraino. Trenbideko estazioak ere estudiatzeke daude eta hirien desarroiloan eragin handirik izan dute.

Ikasi behar handia dugula birresango dugu, aspertzeke. Gai interesgarria daiteke anitzentzako eta ene lantxo honek interes hau berpizten lagunduko balio pozik ginake. Ez ditzatela arkitektura modernoaren *pastillek* eta *jardin berdeek* (konsumo-gizarteko etxe arin eta fabrikekin batean) ideia-joerak ito. Aski genuke hau, besterik gabe.

EUSKAL MUSIKA

Jose Antonio Arana Martija

1. ATARIA

Gure Euskal Herria ezagutzeko garrantzizko asmoa darama *Jakin*-en liburu honek. Gure herria ezagutu eta maitatzeko saio aipagarria. Historian zehar lortutako infraestruktura eta supraestruktura aztertzen dira hemen. Eta liburu hontan xertatzen dut nere lana; supraestruktura horretan, euskal kulturaren zati bezala, euskal musika estudiatuaz.

1. 1. Kultura eta musika

Gure euskal kulturaren ezerezaren tesia gogorki finkatu zuen Unamuno pentsalari sakonak —erdalduna noski—. Euskaldunok sortu dugun kultura ez da horientzat euskal kultura jatorra, beste kultura nagusi baten barruan sortutakoa baino. Eta mito hau apurtzea beharrezkoa zen. Bide hortan lehenengo lana geure kulturaren jakineza betetzea zen, eta igaro mendearen azkenengo urteetatik lan garrantzitsua egin du arlo hortan inbestigazioak, gure izaera, apalki baztertua, argitara ekartzean. Hortaz gainera, tesi haien aurkako reakzio bat biziki sortu da azken egunotan

herriaren kontzientzia iratzarriaz eta gure kultura bizieraziaz. Gure gaitasuna aitortu denez gero —herri guztiek sortzen dute dagokien kultura— euskaldunak zorionez ari gara gure kultura gehitu eta gaurkotzen. Bideak estuak dira noski: batasunaren eza, herri heziketa bereziaren gabetasuna, diru laguntzaren hutsak, herri eta jakitunen arteko bateratze eza, eta abar. Baina boron-daterik ez zaigu falta, eta indar berri bat lortzeko problemak agirian ikustea nahikoa da. Problema artean, musika dago.

1. 2. Euskal musikaren agerpenak

Gure egunotan munduan zehar dira aipatuak euskaldunen musikarako gaitasuna, baita Euskal Herriko kultura barruan musikaren agerpen ugariak ere. Lehendabizi, bere musika agertzeko dituen esanbideak erabili ditu euskaldunak: abesti eta dantzak berez sortu dira Euskal Herrian.

a) Banaka eta taldeka abesten du euskaldunak. Unamuno bera ere ohartu zen: irudimen baino sentimendu gehiago dugu euskaldunok, hizkuntza idatzia barik kantaria dagokiola euskaldunari; bertsolaria musikoa da lehenago, eta gero poeta. Horra hor gure kantariak, gure *abesbatzak, gure *kaperak.

b) Erromatarrak aintzina ohartu ziren euskalduna dantzaria dela. *Vasconizare* lateraz *eusko erara* dantzatzea zen. Eta Voltairek eta bestek axioma bihurtu zuten hori. Horra hor gure dantzariak, gure dantzari taldeak. Eta hor dago mundu guztian, ballet arloan, *pas de basque* izenarekin ezagutzen den dantza planta.

Baina hortik kanpora ere badaduzkagu euskaldunok musikaren beste agerpen batzuk: *eresgailuak. Izturizko txistutik (20.000 urte daduzka eresgailu honek) gure egunetara musika tresnaok ugari erabili ditu euskaldunak: txistua, banaka eta taldeka, mu-

sika bandak, organua, batez ere. Ez dira hauek Euskal Herriko eresgailu bakarrak, bai jatorrizkoak.

1. 3. Arlo hontan hutsak

Asko izan dira hutsak, eta huts horiek egindakoari eta egiten ari garenari balio gehiago ematen diote. Gure euskal izaeraren funtsezko gaia izan den musika, lotua izan da beti gure Herrian: musikaren heziketa aberatsen eskuetan izan da beti, heziketa hau lujo bezala eta ez herriaren eskakizun legez erabili da beti. Beharrian hau ofizialki emendatzen ez den artean, badute betebeharra Akademiek, Eliz-kaperek, Abesbatzek eta gainerakoek.

Baina beste huts garrantzitsu bat ere badago. Hizkuntzaren batasuna jarri dugu helburutzat, eta hortan ari gara gehienok. Eta ez gara konturatu —Donostik esan zuen bezala— aintzinatik heldu zela Euskal Herria musikaren batasunera. Baina kordinazio eta zuzendaritza falta dugu musika arloan. Hizkuntzaren batasunerako eta gaurkotasunerako lanak Euskaltzaindiak zuzentzen ditu, baina nor da musikaz gauza beraz arduratzen denik? Noiz batuko ditugu banakako ahaleginak, bilakuntzak programatzeko, abesti eta partiturak bildumatzeko, grabazioak egin eta motatzeko, heziketa planifikatzeko, eta abar?

1. 4. Itxaropen bizia

Euskal Herriaren itxaropena dut. Honen musikak etorpide bat badadukala uste dut. Bere Historiaren protagonista izateko ahalmen eta eskubidea dadukala uste dut, herriaren eta herriarentzako ertia sortzeko eskubidea. Ez minoria edo gutiengoan ertia, ez alferkeria edo oporretako ertia, herri biziaren ertia, sofritzen duen eta lanean ari den herriarena baino. Bere Historian zehar Euskal Herriak musika soziala eman du —funzionala esango

genuke gaur—: toberak, eresiak, soinuak, ardo-kantak, haur-abestiak, eta abar eman ditu. Beharrian batzuei erantzun die beti gure herri musikak. Kulturaren zati bat izan da alde hontatik.

Etorkizunari begira, gure musika gertaturik dago gaurko teknika onartzeko. Ez dugu inoiz onartu Zarlino sortutako *eskala temperatua*: gure xori abeslaria ez da inoiz kaiolan ohitu. Ostera, *eskala mikrotonala* munduan 1.923 inguruan sortu bazen, urte asko lehenago zedukan gure musikak Arnold Schönberg-en *hamabi soinuen teknika*. Aintzinatik ibili dira teknika horiek gure bertselarien ahotan. *Politonalki erabiltzeko egokia dela batek baino gehiagok esan du. Behin baino gehiagotan esan zidan Almandoz-ek, euskaldunok inor baino hobeto gaudela harmoniarako gaiturik. Baina izaera hau irrati, telebista eta musika-makinek makaltzen dute. Inbasio hontaz konturatu behar gara eta tresna horiek gure Herriaren zerbitzura hainbat arinen egokitzeko ahalgindu.

2. HISTORIA

2. 1. Kronologi aldiak

Gure Musika Historiaren aldiak eta Historia politikoarenak ez dira berdinak. Euskal Herriko kulturaren Historiak ez du zirikusirik liburuetan mugarriak jartzen dituzten gertaerekin. Gure herria gertaera horiengandik urrunduta bizi izan da. Ostera, gure musikaren aldiek badute zirikusirik Europako musikaren haroekin. Historia labur hontan, Kultur Historiaren kronologia erabiliko dugu, ba.

2. 2. Historiaren

Gure musikaren hasieran ez zen izan, ez, Tubal lehenengoa. Mito hau, zorionez, apurtuta dago. Ling-Lu, edo Apolo, edo Orfeo izan zirela musikaren sortzaileak, ipuinak baizik ez dira. Darwin, Rousseau, Herder, Bücher eta Alexander Ellis, 1880an Etno-Musikologia zientzia sortu zuena, bat etorri dira Spencer-ekin hizkuntzaren doinutik musika datorrela esatean. Orain 40.000 urte sortu zen hitza ludian. Magdalenien aldian (orain 12.000 urte) sortu ziren hizkuntzak. Neolitiko aldian berezitzen da soina. Ordurako gizonak ritmoa arkituta zedukan. Eta Neolitikoan jaio ziren lehenengo melodiak. Gure artean ere orduan jaio zaizkigu hasierako abesti eta txistua. Geroago agertzeko dira beste eresgailu batzuen tinbre edo *ozentasunak.

Sasoi hontan, eta munduko kronologiak eskatu baino lehen, aurkitzen dugu Izturizko txistua, Ipar Euskal Herrian, eta Atxetako korneta, Gernika inguruan. Eresgailu hauek izango ziren, beharbada, Estrabonek gure artean ikusi zituen *flauta* eta *trumpeta*. Garai hontakoak ziren Greziako *Apoloren Ereserkia* eta *Katolophyromai Abestia*, gure aintzinako zortzikoekin, lehenengoa, eta Berrizko Ezpatadantza eta Oinatiko Banakoarekin, bestea, zerikusirik dadukatenak, Azkue eta Madinaren ustez. Garai hontakoak dira, baita, gure Mutil Dantza eta Edate Dantza ere: Estrabonek aipatutako *Ardo dantza* ote da hau?, dio Caro Barrojak. Nolanahi ere, Historiaurreko musikaren agerpenak dira, banaka edo taldeka azalduak. Taldekako musika agertzen zaigu Arronizko Harrian, Iruine inguruan, orkestako zuzendari bat diriduela.

Historiaurrean Euskal Herriak bere lur gainean inbasio bi ikusten ditu: keltarrena eta erromatarrena. Lehengoak gure jatorrizko musikan bere kutsua lagatzen du eta ordutik hona gure musikak beste Europako abesti keltarrekin antza badu. Ostera, erroma-

tarren inbasioa politikoa izan zen eta ez zuen laga gure musikan hondarrik. Eta honela, gure jatorrizko musika, grezitar eta keltarren kutsua onarturik, sartzen da Historiako ateetatik.

2. 3. Erdi haroa (450 - 1450)

Seigarren mendetik hamairugarrenera Euskal Herrian geldi-
diro batean ezarri zen Kristauera, eta beronekin batera gregorian musika era. Denbora hontan, ez zuen gure herriak musika era berri hori onartu: VII. mendean, kronikek dioten bezala, San Amandoren aurka bertsolari bat jarri zen. Baina azkenean, oraindik berriak ziren elizetan, gregorianoa nagusitu izan zen. Gertaera honen ezaugarritzat, XI. mende inguruan aurkitzen dira Eliz Liburuak, eta eliz-ateetan eta absideetan ordutik hona agertzen dira musikuen irudiak.

Sasoi hartan Iruinean zegoen Euskal Herriko musikaren bihotza. Bertan aurkitzen dugu IX. mendean Leodegundia erregina zenaren eztai-kantua. Abderraman II.aren jauregian zegoen Kalan abeslaria ere euskalduna zen. Nafarroako erregetxea zen Europako musikuen, batez ere frantsesen, helburua. XIV. mendean Iruinean erabili zen, lehenengoz Europan, *nota minima* orduko *hosbakarra apurtzen zuen kortxea antzekoa. Lehenengo musikuen baten izena bertan Iruinean ezagutzen dugu: *Jose Anttonena* (Anchorena idaztietan, 1.436 urte inguruan).

Baina lehenengo garai hau igarota, euskal musikaren muina Gipuzkoa eta Bizkaiaruntz doa. Azpeitian jaio zen 1.461ean *Joanes Antxieta*, polifonista ospetsua, eta urte batzuk gutti gorabehera, Azkoitian, *Gonzalo Martinez Bizkargi*, musikaren teoriko handia. Bertsolari batzuk ere baditugu, izen eta guzti ezagutuak: *Antto Etxeleku* (1.424), *Arnaldo Ursua* (1.412), *Garzea Txurri* (1.428).

Mende hartako egoera agertzen digu herri musikak: guda-
katzen zebiltzen orduan oinaztar eta ganboatarren taldeak, ha-

maika erreketeta eta hilketa Euskal Herrian zehar sortuaz. Leloren Kantua eta Altobizkarko Kantua gezurrezkoak agertu direnez gero, hori daduzkagu, ostera, *Beotibarko Kantua* (1.321) *Urrexolako Kantua* (1.388), *Akondako Kantua* (1.390). *Ahetzeko Anderea* (1.422) *Milia Lasturen Eresia* (1.429), *Abedainoren Kantua* (1.443) *Arrasateko Erreketaren Kantua* (1.448) *Olasoren Kantua* (1.450), *Martin Bainezen Kantua* (1.464), *Salinasko Kondearen Kantua* (1.471), *Joan Lazkanoren Kantua* (1.474) eta erdal liburu batean aurkituriko *Perutxoren Kantua*. Aldi hartan kantu hauek beren soinua izanarren, ez ditugu gure egunotan ezagutu; bertsolari antzeko soinua izango zen ene ustez. Baina aldi hartako hiru abesti heldu dira gure egunetara soinu ta guzti: *Alostorrea*, *Urtsuak zazpi leio*, eta *Berterretxen Kantoria* (1.434), Azkue, Donosti eta Salaberriren bildumetan aurki ditzakegunak. Euskal Herrian ezagutzen diren soinuak zaharrenak hiru abestiok dira noski.

2. 4. Polifonia (1450 - 1600)

Europako musikaren Haro Modernua (1.450-1.750) zati bitan estudiatzen da: lehenengoa, 150 urtekoa, 1.600 urte ingurura arte doa (urte hortan Monteverdiren Orfeo opera lehen-aldiz abestu zen, eta azken urte hortan Polifonia apaltzen zihoan); bigarren zatia, beste 150 urtekoa, 1.750. urte ingurura arte doa (Bach urte hortan hil zen eta ondoren Erromantismoa hasi). Gure artean ere Haro Modernu hau Antxietaren jaiotzak (1.461) eta Oxinaga, organista famatuaren heriotzak (1.754) mugatzen dute. Hirurehun urteko haro hori, European bezala, zati bitan estudia genezake: lehenengoa *eresgile eta polifonisten zatia; bigarrena (Barrokoa) organulari eta beste eresgailu jotzaileena.

Lehenengo polifoni aldian, Antxieta azpeitiarra da gure musikurik sonatuena. Aita Donostik osotu ditu haren musikaren 185

orrialde; bertan ematen zaizkigu gero Santestebanen bilduman agertu zen abesti bat, eta zortziko bat ere. Aldi hontakoak dira lehen aipatutako *Bizkargi*, Azpeitiako *Joan Lopez Larrutaren*, Iruineko *Joan Santxez Eskoz*, Arrasateko *Martin Ibainez Etxebarria* (1.507), Oiartzungo *Joan Larrunbide* (1.510), Iruineko *Joan Uriz* (1.525) Balmasedako *Lope de la Cruz* (1.556) eta abar. Gure arteko organulari eta *kapelmaixuak banatzen dira kanpoko nonahiko elizetatik:

Iruine: Otxagabia, Frues, Rioja, Etxarren, Falzes, Errea, Nabarro, Lopez.

Bilbo: Nabarro, Matanza, Isaba, Kalbo, Txamiso, Intena.

Orduina: Aleman.

Orreaga: Azparren.

Baiona: Mitxelin.

Valencia: Isasi (Hernando eta Jose).

Lisboa: Albarado, Garro.

Burgos: Burzeina.

Granada: Garai.

Sasoi honetan sortzen dira baita eliz-kaperak ere, Baionakoa, Arantzazukoa, eta abar.

2. 5. Organulariak (1600 - 1750)

Hamazazpigarren mendearekin hasten da arte arloan Barroko aldia. Polifonia apaltzen doa eta honen ordez musika mota berri batzuk sortzen dira: opera, oratorioa bereziki. Hauekin batera indartzen doaz eresgailu laguntzak eta orkestra hasiberria. Aldi hontan Espainian Literatur eta Pintura garaitze handi bat lortzen da, baina musika geroago eta makalago aurkitzen da. Euskal Herrian, ostera, aldi berean, somatu ezinezko indarra hartzen doa musika. Polifonia, Europan bezala makaltzen joanarren, organulariak eta beste eres-jotzaileak ugaritu egiten dira.

Organua da indar gehien hartzen duen eresgailua, eta Euskal Herriko eliza guztietan jartzen da sasoi hontan. Lan ugaria dute euskal organu egileek: *Joan Bautista Teileria, Josep, Pedro* eta *Bentura Etxebarria, Jazinto Rio, Nikola Bristet, Zipriano Apeztexea, Antonio Bidarte, Pedro Liborna* eta abar aurkitzen ditugu herritik herri organu berriak egiten.

Organu berriarekin batera ugaritzen dira organulari eta kapelmaixuak: Ehun urte zehar Euskal Herrian bada hamaikatxo. *Organulariak:*

Mitxel, Garzia, Gaultier, Arrazkue, Oilo, Beinza, Egiguren, Argarate, Gaztelumendi, Zarate, Lerban, Sese, Maron, Arostegi, Otxoa, Zuaznabar, Armaola, Gaminde, Urroz, Zegama, Iribarren, Urzaiz, Durocher, Legorreta, Uriarte, Oxinaga, Agirre, Zabala, Gamarra, Iturriza, eta abar.

Kapelmaixuak:

Artiaga, Ugarte, Heredia, Arriola, Sastre, Egues, Ladron de Gebara, Urrutia, Ardanaz, Araia, Fabro, Bolibar, Zubieta, Otxoa, Herdoiza, Zailorda, Urroz, Ezkarregi, Iribarren, eta abar.

2. 6. Herri musika (1450 - 1750)

Goazen berriro herri musikaren harira. Hiru mende hauetan aipaturiko musiku ikasiek, gehienek behintzat, herriko musika baztertuta eduki dute, eta herri musika hau ez da bere estalkitik irtengo nazionalismoa etorri arte. Badaude hala izateko arrazoi batzuk: irakaskintza erraz bat zabaltzeko, baserriak bananduta daude; herri musika agertzeko inprimatzerik ez dago (Iztuetaren egunetara ez da musikarik irartzen), *eskala tenperatua euskaldunentzako gogorra da. Bestaldetik, nahikoa du herriak bere txistu eta trikitrixarekin, eta bere sutondoko abestiekin, ez ditu oraindiko organuaren ozentasunak eta elizkizunen musikak eta latinak ulertzen eta.

Baina apurka apurka eliza eta herriko musika hurbiltzen doaz. Hamaseigarren mendean saio berri bat hasten du Elizak Euskal Herrian: elizkizunetan euskera erabiltzen ari da. Orduetik datoz herriaren eliz abestiak: Santa Agata, Kandelario, Urte Berri, Gabon kantak, eta abar. Eliz kutsua dute, baita Oinatiko Gorpuztiko Dantzak (1.541) eta jai hortan Markinan (1.610), Tolosan (1.622) eta Oiartzunen (1.682) egin zirenak ere, azkenengo herri eta urte hortan 51 dantzarirekin. Eta eliz kutsua dute, zantzarik gabe, Gipuzkoako Goiherri abesten diren *Josepe ta Maria* koplak, Gernika aldeko *Marijesiak*, Portugalen aurkituriko 1.640ko *bilantzikoak* eta abar. Eta nola aipatu ez Zuberoko *Pasturalak*, XVII. mendea bete zuten gure antzerkirik zaharrena: Herelle Jaunak agertu eta aztertu ditu 75en testu eta musikak, zuberotar bezala, oso jatorrak.

Gure abes-sortetan biltzen diren abesti asko ere mende honetakoak dira: *Jeiki-Jeiki*, *Goizean Goizik* (1.633), *Zazpi aihera baditut* (1.657), *Xori kantatzaile* (1.660), *Ozaze Jaurganian*, eta abar, eta aldi honen azkenean sortu zirenak: *Urzo luma*, *Jaun baruak*, *Urtsuan hil*, *Xorinoa kaiolan*, *Salbatore*, eta abar.

Baina eliz kutsu gabeko dantzak ere badira aldi honetan, eta axolazkoak noski: 1.715.ean Iruineko Gotzai Jaunak debekatua zien apaizei dantzan egitea. Dantzan ohitua zen gure herria. Eta txistulariak ere, beste eres-jotzaileak bezala, ugariak ziren aldi hartan: *Txomin Likona*, Lekeition (1.573), *Juan Bautista Barinaga*, Portugaleten (1.705); eta txistulari taldeak: *Baionakoa* (1.550), *Erreteriakoa* (1.576), *Eibarkoa* (1.669), Bilbon ekin zuen (1.676) *Nafarroako taldea*, Gernikako Batzar Nagusietan ekiten zuen taldea (1.724), eta abar. Herrietik kanpora ere aurkitzen dugu Portugalen (1.525) *Garamendi* txistularia.

2. 7. Erromantismoa eta herri musika (1750 - 1850)

Barroko azkena European batera dator Juan Sebastian Bach eta gure Jokin Oxinagaren heriotzarekin. Ondoren agertzen da Haydn eta Mozarten *klasizismoa* eta hor ere baditugu gure Arantzazuko klabezinistak. Gamarra, bilbotarrarekin eta Aranaz, tude-latarrarekin, hil da Euskal Herrian Polifonia. Gertaerak hala zirela jaio zen Beethovenekin (1.770) orkestaren iraulpena, Chopin eta Schumannekin pianoaren indarberritzea, eta Schubertekin (1.811) *lied*-earen agerpena, herri abestien garaipena. Erromantismoaren barruan sartuta gaude.

Berrogeitahamar urtetan zehar, 1.750.etik 1.800.era, erromantismoari sarrera ematen dio Euskal Herrian hainbat musikularik:

Organulariak:

Oxinaga, Kintana, Maritxalar, Ubirixaga, Urreta, Melon, Lonbide, Basterra, Legia, Ugalde, Uribe, Zamakola, Joly, Lezea, Arze, Arpide, Zubieta, Saralegi, Arriaga, Murgia, Agirre, Bidondo, Lasa, Bidaurre, Setuain, Gailaga, eta abar.

Kapelmaixuak:

Larrainaga, Ibarzabal, Etxebarria, Egiguren, Sostoa (denak Arantzazuko Kaperako zuzendariak), Arteaga, Oarabeitia, Mujika, Gamarra, Aranaz, Oruina, Estorki, eta abar.

Era hontakoak ziren Azkoitiako batzarrak (*Caballeritos*-enak), Gasteizko Mantelinen etxeko batzarrak, Donostiako Rocaverde-ren etxeko batzarrak, Bilboko Mazarredo eta Villabasoren etxeetako batzarrak, Baionan burges etxeetan egiten zirenak. Batzar hauetatik sortu ziren Garat abeslaria eta Joan Krisostomo Arriaga, Mozart bezala klasikoa.

Batzar hauetatik kanpora sortzen dira Akademiak eta Filar-

moni Biltokiak: Bilbon 1.818.ean zegoen Akademiari eskaini zion Arriagak bere *ereslanetatik zati on bat. Suizo Kafea eta Iturri-bideko pelotalekua izan ziren urte askotan musika tokiak. 1.834.ean eraiki zen Bilbon Hiriko Teatroa, gero eta orain Arriagaren izena daramana. Donostian 1.839an sortu zuen Santesteban *Maixuak* lehenengo Filarmoni Biltokia, eta urte haietan Iruinean sortu zuen Mariano Garziak Musikal Akademia. Akademia horietatik irtetzen dira gure musikulariak: *Madrilera* (Herrasti, Mendizabal, Gaztanbide, Aranguren, Arriola, Zabalza, Gorriti), *Pariser* (Arriaga, Albeniz, Lacy, Gelbenzu, Aldana, Reparaz, Santesteban, Sarasate), edo *Milanera* (Arrieta). Iradier eta Eslaba Madrilent jartzen dira irakasle, eta Baionako Alard (Sarasateren irakasle izan zena) Parisen.

Bitartean, herri musika gure Herriaren giroa betetzen ari da. Bost urte barruan herriaren aurrean hiru musikal antzerki *antzezten dira euskeraz: Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* (1.759), Sor Miserikordiaren *Gabon Sariak* (1.762) eta Xabier Munibe, Peñafloidako Kondearen *Borracho Burlado* (1.764). Azkenengo antzerki hau da, nere ustez, herri musika eta eskolatua, biak batzeko egin zen lehenengo saioa.

Herri musikak pauso handi bat ematen du. Iztueta jaio zenetik (1.767) jarriko genuke euskal musikaren aldi garrantzitsu berri bat. Harekin erdi batera jaio zen Pernando Amezketarra, bertsolarien aita; eta hemen esan beharko da bertsolarien musika, edo bertsolarien bertsoen doinuak direla Euskal Herriko musikaren gidari eta muina. Joan Barrutiak, Eibarko txistulariak, eta Joan Bautista Bareinok, Gernikako txistulariak, irekitzen diote famaren atea Iburguen donostiarrari. Egun hortan dadukagu Parisen abeslari Garat tenora, eta Frantziako Gortean abesten ditu: *Xori kantatzaile*, *Argizagi ederra*, *Gaztetasun bainerabila*, *Adios ene maita*, *Aitarik ez dut*, eta beste holako herri abestiak. Nolako musika du, gero, Herri txiki horrek?, diote Parisen. Eta hango Gobernuak

aginduta, Charles Bordes dator gure Herrira gure abestiak bilzteko. Gevaert belgarra ere hemendik igaro zen eta frantsesak eta belgarrak, biek, goratzen dute gure herri musika.

Iztuetak, Txahok eta beste musika biltzaile batzuek argitaratzen dituzte abesti sortak. Horiekin batera agertzen dira herririk herri bertso paperak. Txistulariek eta bertsolariak alaitzen dute gure herrietako enparantza, eta edonondik sortzen dira abesti eta soinu jatorrak. Gure musika-erromantismoa denok osatzen dute.

2. 8. Abertzaletasuna eta herri musikaren garaipena (1850-1936)

Nazionalismoa da musika arloan, herri musikaren garaipena. XIX. mendearen erdirantza Europa guztian sortzen da italiano-keriaren aurkako reakzioa: Araja, Salieri, Cherubini, Farinelli dira musikaren *jimelak. Horien aurka jartzen da biziki Cui errusotarra: *beharrezkoa da atzerriko horrenbeste couplet, cavatina eta romanza aldentuta, herri musikaren osagarria bilatzea*. Gure Herrian ere italianokeria hori muinetaraino sartzen hasita zegoen: guretariko zortzikoak zikinduta zeuden eta edonondik sortzen ziren, pianoa laguntzaile, *zortzikotxu koipeak*, Azkue Jaunak esan zuen bezala.

Baina laster etorri zen reakzioa. Glinkak eta *Bostak* Errusian, Smetanak eta Dvorakek Txekoslovakian, Griegek eta Sibeliusen Eskandinabian jo zuten nazionalismoaren tronpeta. Euskal Herrian ahalegintzen dira lan hontan Akademiak (Sainz Basabe, Santes-teban, Bonifazio eta Jose Maria Etxeberria, Gorriti, Iraizoz, Mokoroa), Orfeoia (Kleto Zabala, Aureliano Valle, Sekundino Esnaola, Remijio Mujika), Musika Bandak, Euskal Jaiak, eta abar.

Musikalariak, musikagileak, eres-jotzaileak gure Herrian ugaritzen dira. Eta Madrilen *género chico* delakoaren inguruan hersten diren artean, gureak Europara zabaltzen dira: hor doaz Europan zehar *Gortazar*, *Gimon*, *Isasi*, *Guridi* eta abar teknika berriak lortzera. Mende hontako lehenengo urteetan Parisen daude *Usan-*

dizaga, Azkue, Guridi, Almandoz, Donosti, Etxebeste, Teileria, Aranbarri, Eskudero; Bruselen Gabiola eta Guridi bera; Erroman Landazabal, eta Aita Jose Domingo; Alemanian Valdes, Azkue, Isasi, Sorozabal. Teknika berriak lortuta, Europa mailan jartzen dute gure musika herrikoia.

Santesteban, Villehelio, Lamazou, Salaberri, Duvoisin, Michel, Manterola, Bordes eta beste batzuen abesti sortek gai eta melodia gozoak aurreratzen dizkiete musikagileei beren ereslanetarako: *Pudente* (Santesteban), *Iparragirre* (Gimon), *Gernika* (Paul Vidal), *Txanton Piperrri* (Zapirain), *Artzai Mutila* (Ortiz San Pe-laio), *Ramuntxo* (Pierne), *Maitena* (Kolin), **Anboto* (Zapirain), *Urlo* eta *Ortzuri* (Azkue), eta 1.910.eko izugarritzko lanak: *Mendi Mendian* (Usandizaga), *Lide ta Ixidor* (Intxausti) eta *Mirentxu* (Guridi). Azkuek 1.917.ean eta Donostik 1.921.ean argitaratzen dituzte abesti sorta ikusgarriak. Geroago datoz Guridiren *Amaia* eta gure egunetan Eskuderoren *Zigor*.

Musikagai onekin osatzen dira *abesbatz, banda eta txistuentzat partiturak. Eta horrela, herritik sorturiko musika, *musikagileek apainduta, berriro doa herrira orfeoi, banda, txistu, organu bitartez. Asko dira, izatez, daduzkagun ereslanak. Ezinezko lana denak edo gehienak aipatzea. Bi aipatzekotan Aita Donostiren *Preludioak* eta Guridiren *Hamar Euskal Melodiak* aipatuko nituzke. Eta hontaz galdera bat: Noiz izango ditugu musikoteka batean bildurik eta behar den bezala kidekatuta ereslan guzti horiek?

2. 9. Gure mendea

Gure mendea, musikan, guda ostean hasten da. Orduan etetzen garraski larogei urte zehar hartutako bultzada. Eta reazioa, berriro hasi beharra, zaila izan zen. Baina herri bizi batek ezin ditu galdu bere izaera eta berezitasunak, eta beroien artean, mu-

sikarako gaitasun ukaezina. Eta geldiro baina sendo gaitasun hau argitara dator, betiko antzera: bertsolariek, txistulariek, organulariek, orfeoiek, bandek, eta abarrek jatorrizko musikarekin lotura bat josten dute. Gure abeslari berriek, Iparragirrek legez kitarrak eskuan harturik, beren bihotzeko etorria abesten dute. Euskal Musikaren Jaiek, zorionez, gazteriaren izpiritua bizkortzen dute. Ez da ez hil gure Herria eta honen berezitasun den musika bizirik dago. Mende honen Historia ezin idatz dezakegu oraindik, egiten ari bait gara.

3. BEREZITASUNAK

3. 1. Zalantzak eta eztabaidak

Gure musikaren berezitasuna aspaldidanik eztabaidatua izan da. Arlo hontako zalantzak argitzen hasi ziren Etnologiaren metodu berriek musikaren analisi bat egiteko irizpideak eman zizkigutenean. Baina analisi ondoren interpretazioak agertu ziren eta ondorengo zalantzak, mende honen lehenengo urteetan zehar.

Aburu sail bi bana ditzakegu: Donosti, Azkue, Uruinuela, Madina eta Gorostidi izenda ditzakegu talde batean, eta Gaskue beste taldearen buru. Lehenengoek, euskal musika berezia dela diote, berton jaio eta hazitakoa, keltar eta gregorianoaren kutsua izanarren. Gaskuek, oster, berezitasun hau ukatu zuen eta keltarren musikatik zetorrela aitortu.

Aita Donostik Burgos, Salamanca, Asturias eta Britainako kantategien ikaslan sakon batean ohartu zuen 1.400 estudiantutako abestietatik % 1 zirela euskal abestiekin berdinak, % 6 antzerakoak, eta % 93 desberdinak. Catalunya eta Gaztelako kantategia-

rekin Gaskuek berak egin zuen gonbarazioak ondorio erdi berdina eman zuen. Baina Donostiren kontra bere tesia finkatutzeko, Britainan % 58 abesti direla antzekoak aitortu zuen. Baina eztabaida hontan kontuan izan behar dugu Gaskuek bere ikaslana 1.913an egin zuenean ez zeudela oraindik argitaratuta Azkuek eta Donostik bilatutako kantu-sortak, eta Gaskuek erabilitako abestiak ez zirela denak guztiz euskaldun jatorrak.

Eztabaida hauek alde batera utzita, beste eztabaida tekniko bat ere sortu zen musikagileen artean: herri musika harmoniarako gai ote zen ala ez. Ezezkoan zegoen Ravel ziburutarra, herri eresgai bat apaintzea ez zela nahikoa eta. Baina gure musikagileak Europara irten eta teknika berriak ikasi ondoren, euskaldunen harmoniarako trebetasuna agertu zen, baina ez gaurko *doinubizi eta *doinularri hutsetan jositako harmoniarentzat; euskal musikagileek abendaz eta gure herri musikaren aberastasuna gozatuaz politonal bidetik herriari dagokion musika hornitua egiteko trebeak dira. Asko dira Ravelen iritzia gainditu dutenak eta munduari abotsetarako eta eresgailu eta orkestrarako euskal musika berezi bat eman dutenak: Guridi, Usandizaga, Pagola, Arregi, Beobide, Landazabal, Gabiola, Azkue, Isasi, Teileria, Zubizarreta, Donostia, Almandoz, Mokoroa, Sorozabal, Franco, Garbizu, Aranbarri, Iruarizaga anaiak, Madina, Urteaga, Otaino, Olaizolak, Eskudero, Rematxa, Uruinuela, Erauskin, Ugarte, Esnaola, Gorosarri, Aita Jose Domingo, Gonzalez Bastida anaiak, Santiago, eta abar. Eliz musikan ere punterengoak dira Goikoetxea, Valdes anaiak, eta abar.

3. 2. Euskal musika, Euskal Herriaren musika

Baina, zein da Euskal Herriaren musika bereziar zaila da mugatzea, noski, musika arloan beste gure kulturaren arloetan bezala gertatzen baita: kanpotik herriratutako berriak geureganatu, egokitu egiten ditugu. Pelota jokoa, kartak, txapela geure

nortasunez jantzita ditugu. Musikarekin ere berdin gertatzen da: jota dioguna gure kulturak Nafarroako Erriberan geureganatu ez duena, beste herriko alderdietan egokituta bizi da. *Habanerak* eta *napolitanak*, ostera, beste lorategiko lorak legez dira Euskal Herrian.

Zeintzuk dira, ba, mugatzeko irizpideak, kriterioak? Aintzina-ko kutsua dadukala gehienetan euskal musikak esango nuke: gure abestietatik % 12, eskala ezosoetan ezarrita daudela zeritzan Uruinuelak. Horrezaz gainera, Greziako abestiak bezala, euskal abesti asko enharmonikoak dira, hau da, jatorriz abesteko tono erdiekin gabe laurdenekin erabili behar dira. Ostera, gregorianoan gertatzen den bezala, gure abestietatik asko diatonikoak dira, tonu osoarekin abestu behar direnak. Testuari buruz gregorianoarekin desberdintasun bat badago: gure musikan *ereski edo nota bakoitza bere silabarekin batera doa.

Beste berezitasun bat ere badauka gure musikak: batasuna. Hizkuntzak emandako batasuna. Baita ohiturek, ogibideek eta ikuspegiek emandako batasuna ere.

3. 3. Melodia, ritmoa, tonalitatea, gaiak

Euskal musika, funtsean, melodikoa da. Eta lehen esan dudan bezala, silabikoa. Ez dago lelorik. Testu bakar batentzako askotan melodia bat baino gehiago aurkitzen dira.

Ritmo neurtuak askotan izanarren, desberdinak ere ugari dira: 5/8, 7/8, 9/8. Eta melodia zehar, askotan, konpasa aldatu egiten da. Konpas gabeko abestiak ere badaude, gregoriano antzera: *Belatsa*, *Arranoa bortietan*.

Zortzikoari buruz zeozer esan behar-ko da: ritmo hau ez da Euskal Herrikoa bakarrik, eta euskal musikaren ritmo bakarra ere ez. Azkuek bildutako 1.001 abestietatik, 55 bakarrik dira zortzikoak. Aita Donostik oharrerazi zuen Gipuzkoan eta Bizkaian:

baizik ez dela zortzikoa sortzen. Aranzadik eta Donostik hainbat zortziko aurkitu zituzten beste herri batzuetan, Finlandian, Laponian, Britainan, alegia. Baina joan den mendeko *zortzikotxu koipeen* mitoa apurtu behar bada, baditugu zortziko eder eta gozoak: *Urrundik*, *Urso xuria*, *Xalopin xalo*, *Gendia lodi dator*, *Artizarra zeruan*, *Bordon dantza* eta abar.

Eskala tenperatuak eta doinubizi eta doinularriaren sinplifikatzeak gure herri musikaren aberastasuna txirotu egin dute. Alderdi batetik, gregorianotik herriak onartutako tonalidade aberatsak ahanzi ditugu, eta bestetik eskala tenperatuak *doinudardar zehatzak ematera behartzen gaitu gure enharmoniko berezitasuna galduaz. Lehenengo akatsari begira, herriak erabili dituen lau edo bost tonalidade (gregorianoko 1^o, 2^a, 7^a eta 8^a, alegia) bitara hestututa geratu dira gaurko abestietan. Eta bigarren problemari begira, gure eskala askatuak ahantzirik, pentagramari lotuta, txoria kaiolan legez, geratu gara: gure eskala askatua, *Hartzen dut hartzen*, *Ez dut nahi ezkondu*, *Txorinoa kaiolan* eta holako abesti batzuetan Bordes, Gallop eta Donostik oharrerazi zigutenez, eskala tenperatu gogorrari finkatuta geratu da. Sinplifikatzearekin aberastasuna galdu dugu. Hala ta guztiz ere, badaude oraindik aintzianako erako abestiak (*Goizian goizik*) eta gaurko tonalidade bietan abestuarren doinu zaharren itxura dadukatenak.

Doinularriko kantategia dela euskal kantategia diote batzuek. Ez da egia, doinubizian abesten bait dira nahigabe asko. Beren saioetan, bertsolariek tonalidade berdinarekin gai alai edo tristeak abesten dituzte.

Garrantzitsua da abesti batean honen *abestitz edo kantu gaia. Melodiak eta hitzak badute zerikusirik, eta ez doaz elkar-tuta bakarrik, elkarri egokiturik joan ohi dira biak. Esate baterako, *Horra hor goiko arestitxu baten* abestian melodiak gora jotzen du *goiko* esatean. Bestaldetik, gure herri musika, orain diogun bezala, funtzionala da: herriak, kantu bitartez, agertzen ditu bere pro-

blemak. Eta lehenengo aldietan herri abestiak guda-kantak izan baziren ere, bake garaietan maitasuna eta seaska, dantza eta jaia, ipuinak eta ogibideak izan ziren gaiak. Orain ere herriaren problema sakonak dira gure abestiaren gaiak. Eta hala, kanta-kantari, saminez eta alaitasunez doa Euskal Herria bere musikaren historia osatzen.

EUSKAL-KIROLAK

R. Bozas-Urrutia

Kirolak. Euskaldunen kirol zaharrak, kirol jator maitagarriak. "Sport" edo "deporte" dute izena mundu guztian indar-jolasek. Erabil ditzagun hitz arrotz horiek herbesteko jolasketak izendatuz, baina gorde dezagun gure hitz jator hura geron jolasak adierazteko. Nik behintzat halaxe egingo dut txosten labur hontan. Euskal-kirolak, horra.

Kirol horiek arretaz aztertu eta funtsez ezagutzeak, euskal gizonaren beraren izate barrukoa zehatzago ezagutzen ere lagun dezaiguke. Gizona nolako, kirola halako. Izan ere, giza-izakeraren ispilutzat har daitezke, beraren izakerak sorreraziak. Horregatik galdetzen du gure idazle ezagun batek: zer dela-ta gure korri kalariak zezen plaza bateko *uztaiari biraka, eta munduko lasterkari guztiak zuzen-zuzen aritu? Zer dela eta gure haizkolariek enborrak lurrean etzanda erdibitu, eta ez zutik, basoan dauden bezala ta gainerako haizkolariek ebakitzen duten modura? Zer dela-ta gure harri-jasotzaileak burdinezko "halterak" jaso gabe, mendiak adinako harri beldurgarrien jasotzeari eman? Zer dela-ta gure arraunlariek *tosta aldagaitzak dituen treneru astunak bultzatu, beste herrietakoek ontzi lirainak bultzatzen dituzten bi-tartean? Zer dela-ta botatzen zuen palankariak euskaldun palanka sonatua, aidean jiraka eragin ondoan edo izterpetik, Olinpiar

jabalina-igorleak bezala bota gabe? Hitz bitan, zer dela-ta euskaldunek asmatu beren indar-jokoak horren era nabarmenean, beste guztiek bezala asmatu beharrean? Ez dagokigu guri erantzuna ematerik, Eman dezatela jakintsuek, etnologoek, ahal badute.

Euskal kirolak, gehienak behintzat, eguneroko lanbideetatik sortuak direla badakigu. Lan hori, ogia irabazteko ez baina norberaren gaitasuna jendeen aurrean erakusteko egiten denean, kirol bihurtzen da, jolasa da orduantxe eta ez lana. Elkarren antzeko, edo behinik behin elkarren betegarri diren bi sentimendu sumatzen dira hontan: lanean beti aurrera joateko gogo prestua batetik; gainontzekoak baino langileago, abilago, azkarrago... hots, gizonago agertzeko hirritsa bestetik. "Hi bahaiz, ni areago". Harrokeriazko grina ta joera.

Zein ote dira kirol bihurtu diren lanak? Ez diguzu esango —zuek neri galdetuko didazute— pilota-jokoa, adibidez, inongo lanbideetatik sortua dela! Ez beharbada; bai, agian, gudutik, gerratik. Guduak makina bat kirol, joko ta dantza sorrerazi du. Zergatik ez pilota-jokoa? Gudua, gero ta gero ere, lana da eta...

Gogora gaitezen gure baserritarra herrietatik urrun bizi izan dela mendetan zehar. Baserriko lanak askotarikoak izanik, ikasi behar izan du denetik zer bait: harotz lanak, *zurgintza, hargintza, okintza, ikazkintza, etab., lurrak berak eskatzen dituenegainera. Edozein lantegitan dago saiaturik eta trebeturik. Horregatik askotxo dira hiruzpalau jokutan nabarmentzen direnak: segalari zalu, haizkolari bipil, harri-jasotzaile azkar, probalari ernea.

Gaurko nor-gehiagoka ta zein-lehenagoka horiek —alegia, nork belar gehiago epe berean ebaki, hamar hamabost arruako harri bat ehun aldiz nork jasoko, palanka astuna zeinek urrutirago bota, hamabost enbor ordubetea nik erdibitu baietz, hemendik harako bidean nor azkarrago ibili, txalupa itsaso zabaletik kaiaraino zeinek lehenago eraman... — lehiaketa horiek baserri bereko lan-

gileen edo senideen arteko temak izango ziren hastean, edo hauzoko-koen arteko eztabaidak, gehienez ere.

Harrokeriaz hitzxo bat esan dugu lehenago. Hona hemen *bultzagai berri bat: zerbait irabazteko kutizia, lilura. Huskeriak izango ziren lehenbizikoan: afari-meriendaren bat, zato bete ardo, lan-tresnaren bat... dirurik ez duenak ezin dirurik arriskatu. Dirudun eginez gero, bai. Orobat egingo zuten jokarien lagunek, bakoitzak bere gogokoaren alde zerbait jokatu. Diru-arriskurik ez duen lehiaketak ez du jendearen gogoan inoiz ere berotzen eta. Poliki-poliki, hauzo barneko burruka ixil eta erdi lotsati haiek gero ta ausartago egin ziren, eta halako batean herrietako plaza agirikoetara agertu ziren, lotsarik gabe, buru-zut, dena hots eta zalaparta, menditar, baserritar eta kaletar guztiek beren gogora ikus eta atsegin izan zezaten. Eta, noski baino noskiago, dirupuska bat irabazteko aukera ere bai. Jakina, apustu kontuetan baten irabaziak besteren galduak dira. "Jokoa ez da errenta" esaera hau zentzu onez beteta egon arren, gutxitan hartzen dute haintzakotzat gure apustuzaleek. Apustu-hauzi honek hamaika iskanbila, hamaika hauzi ta esames sortu du bazterretan, makina bat moral-zalaren luma dantzarazi egin du goian eta behean. Kirolaren aurpegi zatarrak dela, etxe askoren hondamen negargarria dela, grina itsusi zantarra dela... Noski, kirol hutsa, "kirol-kirol" soila ederrago, atseginago izango zela mila bider, ezpairik gabe.

Apustu zale ez naizelarik, eta ez moral-maixu (moral-zalea izan arren) ez dut hortan nere sudurra gehiegi sartuko. Ikusten dut hala ere, ez duela grina kaltegarri honek gure herria bakarrik kutsatzen; mundu osoko herriak kutsaturik daudelakoan nago. Euskaldunak, bestalde, apustulari izanez gainera, benetako kiroltzale ta kirolari ere izan dira betidanik, asko edo guti. Futbol estadioetan, *bat-bateko markagailutik zintzilika egoten diren milaka kinielazale horiek esan ote lezakete beste hainbeste?

Dirua ez-ezik, kirolarien eta beraien sorlekuen izen ona ta

ohorea ere jokatu ohi da zeingehiagoka horietan. Herri bateko ordezkaria beste herriren batekoari nagusitzen zaionean badirudi herria berbera dela zapaltzaile ta nagusi. Harrokeria horrek herrien arteko ezagutza ta adiskidetasuna sakondu ta hestutu beharrean, etsaigoa ta ikusi ezina sortu ohi ditu sarritan. Eta hau, nik uste, apusturako zaletasun edo zalekeria baino kaltegarriago da ta saminago. Batez ere, odol bereko herrien artean.

Ezer guti esan digute kirolei buruz euskaldun idazle zaharrek. Gure herri xehearen ohitura jator prestuak ez bide zitzaizkien maitagarri. *Erdeinuz begiratzen zieten, haietaz axolatzea gutitizat zedukaten. Herriak berak berriz, idazten ez jakinki eta... Horregatik ez dakigu deus ere gure aurretikoen balentriez eta egintza harrigarriez kirol-barrutian.

Iztueta izan ezik. Kulturadun herri-gizona izaki, bere herri-tarren usadioak, zaletasunak, eta zalekeriak ondotxo zekizkien harek. Eta horiexetaz ederki idatzi zuen bi liburu ederretan. Irakur dezagun zer esaten digun apustuez mintzo delarik:

Agirian daramazkiten soineko alegereaz bezin ondo janziak joaten dira Gipuzkoako nekazariak partidu ta apustuetara, ixil zizkuetan ezkutuan oi daramazten zortzi dukatekoz; zeintzuben ikusten diran maiz aski, beren neke izerdizkoa beste etorririk inondik ere ez dutenak izan arren, ontzako urreak bostnaka, amarnaka, eta ogeinaka ere ifinten, nork bere gogokoaren alde.

Eta dirurik baldin ez bazuten? Orduan zernahi gauza jokatuko zuten: behiak, abereak, etxeko tresnak, jantziak...

Ikusi izan ditugu plaza agirikoan gizonak beren soñetako txamarra ta gerrikoak ifinten, batak bataren, eta besteak bestearen alde.

Eta kirol-saio horiek sorrerazten zuten giroaz, Iztuetak berriro:

Probintzia onetako barri ez dakiten gizon arrotzai, inoiz edo berriz suertatu zaiotenean partidu edo apustu oetakoren bat jokatzen ikustea, arri ta zur egiñik gelditu izan dira bertako jendearen prestutasunaz. Partidua jo-

katzen dabillen bitartean plazako jende guztia ikusirik, ojuz eta deadarka dagoela, nor bere gogokoaren alde eginal guztian, esan izan diezate kanpotar oiek aldame-neko lagunai, ezen, partiduak dirauela edo bukatuta-koan, nai ta naiez izan bear dutela plaza artan, aserre gogorrak, burruka andiak, eta eriotza negargarriak ere. Banan gero beren galdu-gordeak egindakoan ikusi izan dituztelako alkarrekin daudela anaitasun andian, batak bestea gonbidatuaz berriz jokatzeko partiduren bat mol-datzen, autortu izan dute garbiro, ezen, bere begiaz ikusi ez dabenak, ezin sinistu dezakeala zenbatetaraño-koa dan Gipuzkoatarren gizabidezko ondradutasun pare bageko maitagarria.

Iztuetak “gipuzkoatarra” idazten duen lekuan “euskalduna” ipintzen badugu, ez dugu, seguru asko, zaldibiar argiaren pentsa-mendua salduko. 1845. urtean idazten zuen Iztuetak. Ordutik honera aldakuntzarik izan baldin bada —eta ederrik izan dela nork uka?— harako gizabide miresgarriari dagokion aldetik izango da nonbait, ez ordea zaleen sua ta grinaren aldetik. Hau ez da inolaz ere epeldu, hura berriz bai ahuldu.

Autore berak esaten du zein ziren bere denboretan gipuz-koarren —euskaldunen— jokoetarik gogozkoenak: pilota-jokoa, idi-dema, haizkol-jokoa, palanka partidua, ahari-jokoa, pultsuan, saltoka, lasterka eta makilkariena.

Haietarik bat edo beste galduxa dugu gaur: palankaririk, saltolaririk, pultsolaririk... non aurkitu?

Palanka-jokoa

Palanka-jokoa bera ez baina hura botatzeko euskaldunek ohi zuten tankera, gutik egin zuen Olimpiada-barrutian ohore guztiez agertu ta nagusitu ez bazen. Izan ere, bizkaitar palankari ta kirolari bipil bati, ohorezko leku hartan “jabalina” euskal-erara botatzeko, ilusio ta itxaropen bizi-az prestatzen ari zela, norbaiten berritxu-

keriak eta beste askoren beldurrak itxi zioten goreneko lekuetara iristeko sarrera.

Hiru gisatan botatzen da palanka gutartean: *biraka*, *bularrez* eta *izterpe*. Beste izenez: *jira erdian*, *zuzenkara* eta *zangope*.

Pultsolariak

Pultsolariak ere zeharo aienatuak ditugu begietatik. Orain mende-erdi bat duela, han eta hemen ibiltzen ziren beren sasoa erakusten. Haltera-zaleen gisara aritzen ziren haiek, burdinezko nahiz harrizko pixuak buruaren gainetik jasoaz, besoak goratuta. Denbora hartako pultsolarien ondorengoak dira gaurko harri-*jasotzaileak*.

Harrijasotzaileak

Kirol hontan ere adakuntza politik izan da. Joan den mendearen azkenetan kargajasotzaileek agerraldietan erabiltzen zituzten harriak ez zeuden arau berdinean jarriak. Pisuz eta tankeraz, nork bere aukerakoak hartzen zituen. Zaila zen horregatik haien arteko konparazioak egiten, hoberena nor zen jakiteko biderik ez zen eta. Arteondo famatua izan omen zen saiotarako harri haiei gaur duten tankera ta pisua eman zizkiena. Harrez geroz lau harri-mota izaten dira saioetan legez erabiltzekoak: kubikoa, koadroa (edo errektangularra), zilindroa ta borobila edo bola. Lehenbizikoak dira, astunenak ez-ezik, jasotzen traketsenak ere bai. Ez du oraingo indartsuak burutik gorago altxatzeko beharrik, aski du sorbaldetaraino jaso eta bertan galgan ipintzea; baina gehienetan hamarna minutuko hiru txandatan egin behar du lanbidea, eta hori, esku-lekurik ez duen 18 arruako harri batekin, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula! Zilindroa da lauetan arinena,

zazpi, zortzi... edo hamar arrua "baizik ez" du pisatzen eta. (Arruak, ez ahaztu, 12,5 kilo ditu).

Arteondoren egunetatik honuntz harriek aldakuntzarik ez dutela izan, esan dugu, bainan hori ez da egia osoa. Zilindroak batez ere *nozitu ditu itxuraldatze batzuk, erraztasun handiagoa bilatu beharrez, beti bidea zelaitzeko nahian. Lekutan dago grekoen izpiritua! Mota guztitako neke ta eragozpenak asmatzen zituzten haiek beren kirolarien gaitasuna handitzeagatik. Funts gutikoak dira bilbotar idazle baten hitz horiek, alegia, gaurko jasotzaileen markak zaharreneak baino guztiz hobeak direla, gaurko indartsuak atzokoak baino hobeak, ordu-erdian harria aldi gehiago jasotzen dutelako ta gehiagoko gabe. Lehen esan dugun bezala, ez da hontan ere konparaziorik egiterik, zahar haiek jasotzen zituzten harriak eta oraingoek altxatzen dituztenak oso desberdinak direlako, pisu berekoak izan arren; haiek ez zuten gaurkoen heltzekorik. Eta alde hortatik lotsagarrizko oker handiak egiten omen dira gure kirol jokoetan. Harri zilindroak, adibidez, kainoe zahar baten itxurak hartu ditu, edo lore-potu batenak. Zilindro itxurarik guti edo bat ere ez du. Lehengoa behetik hasi eta goraino zen zilindro. Heldu-lekuak, behatzak sartzeko lekuak, tiki-tiki zituen eta ez gaur bezala. Holako harriekin ez da harritzeko marka onak egitea. Egingo zituzten, bai, zaharrek ere, hainbeste erraztasunik izan balutē. Arrazoi handiz dio "Basarri" k: "Bakar batzuek kenduz gero, gaur ere zenbatek onduko luke gerra aurrean "Ziaran-zar"ek bederatzi arruako zilindroarekin egindako marka? Izan dadila kondizio berdinetako harria: benetako harri sistema zaharrekoa... bestela bentaja handiarekin jokutzen da". Eta gero eskatzen du zilindroa, benetako zilindroa izan dadila, lehenago ohi zen bezala.

Bai, bada oraindik Euskal Herrian gizon indartsurik. Baina, lehen hainbat bai ote? Ez ote doa gain-behera euskal-arraza sendoa? Ezetz uste dute zenbaitek. Lehen baino hobeto jaten dela

orain, bitamina ta holako gauzez ongi hornitutako janariak... bai eta, diot nik, sekulan baino edari biziagoak edaten ere! Lan gogorak gogortu zuen euskalduna; eta kirolak. Lan biguin eta erosoak biguindu egingo du erabat, non-eta kiroletan ordaina bilatzen ez duen.

Eta, gai honi bukaera emateko: jakitunek diotenez, kirolezko ohitura hau harrobietan sortu zen. Aitzinako euskaldun harginak txit famatuak ziren. Heurek egin zuten Escorial jauregi gaitza. Bizkaitar nahiz gipuzkoar jasotzailerik hoberenek harrobiz aberats diren lurraldeetan dute sorlekua.

Idi-demak

Idi-demak ere oso gustagarri dira Euskal Herrian. Izkiria-tzaile jakintsu batek esan zuen, orain asko duela, hiltzeko zorian zegoela ohitura hau. Igerle txarra gertatu zen; bizi-bizirik irauten du, inoizkorik bizien. Baina guk ez dezakegu jolaspede soila den hau, kiroltzat har. Animalien kirolaz inoiz jardunez gero hau ere azalduko genuke pozik. Orobat asto-demak ere. Arrazoi beragatik utziko ditugu isilean ahari-talkak eta oilar-burrukak ere.

Korrikalariak

Korrikalarien ekinaldiak, berriz, biziro atseginak dira, pres-tuak, aitzaki gabeak. Grekoek zeruetaraino gorapatzen zituzten beren lasterkariak, ohorerik handienak haientzat izaten ziren.

Zer esanik ez dago, gure korrikalarien egikerak eta Greziako estadioetan aritzen ziren lasterkarien estiloak ez dutela elkarren antz handirik. Oraingo lasterraldi gehienak zezen-plazetan egiten badira ere, lehen mendietan zehar egiten ziren; holako herritatik halako herritara korrika joatea, bakoitzak nahiago edo ezagunago zituen bidexka ta bidetxiarrak aukeraturik. Lasterkari haiek ma-

kilatxo bat eraman ohi zuten eskuan; zertarako ote zen hori ordea, inork ere ez daki xuxen. Kamioetan barrena ere egiten dira, asfaltodun errege-bideetatik: Zarautzetik Aiara, Tolosatik Berastegira, Bilbotik Durangora; baita tarte luzeagoetan ere: Bilbotik Iruñera, joan eta etorri. Mendi-zehar edo "cross-country" horiek jendeak ez ditzake ongi ikus, tarteka baizik, zangoarinak igarotzean bide-ertzetan jarrita edo-ta tontortxoren batera igota. Hau kontuan harturik, zezen-plazetan ematen dira gaur egunean korrika-saio asko, agirikoak zokoratu gabe ordea. Sarrera pagatu behar da, baina ikusleek eserita ikus dezakete lasterraldi osoa. Ez da ordea, zezen-plaza laster egiteko lekurik egokiena. Beti ere alde bakarrerantz uztaiari itzulika ibili beharrak, zango bat bestea baino gehiago nekarazten du. Lurra ere ez ohi da behar bezalako trinko zanpatua; baina euskaldun korrikalarien xede ta asmoa ez da *abiada-lehiaketarik egitea, *iraupensaiok baizik.

Lanean ote du sustraia kirol-mota honek ere gure artean? Ba ote zen Euskal Herrian gizonik, bere ogia irabazteko laster egin behar zuenik? Ez dakigu ta ezetz uste dugu. Lurralde handi zelaisuetan bai, baziren *mezulariak, premiazko mezuak, ahozko berri edo albisteak hiri batetik urrutiko hirietara eramaten zituztenak. Baina gure Euskal Herri menditsu honetan ez da holakoen premiarik egundo izan, Mendi tontorrez-tontor irrintzika, oihuka, deihadarka igortzen zituzten albisteak gure aurretikoek, edo bestela, suak *eratzekiaz eta turuta joaz.

Makilkariak eta

Palankariak bezala, makilkariak, makil-urrutilariak, saltolariak eta txingolariak ere itzali zaizkigu. Betirako ote? Hala uste izatekoa da. Nolanahi ere, irakurle jakingurak Iztueta-ren *Gipuz-*

koako Dantzak liburua horriatu nahi badu, xehetasun politik aurkituko ditu. bertan jolasketa horiei buruz.

Estropadak

Gorago aipatu ditugu lehortarraren lanbide premiazkoenak eta gauza askotarako duen atzaparra. Esan ahal liteke beste honenbeste itsastarreatatik? Itsastarrek, diotenez, beren lanbide jatorraz kanpo ez dakite gauza handirik. Horreatatik beren sasoi, balioa ta kemena erakusteko bide bat baizik ez zaio gelditzen: arraunak. Eta, lehortarrak bezain apustuzale ta temazale bait dira, haien artean ez da desafioen faltarik. Esaterako: baltsa edo arrain-leku batean arrantzan egon dira; arraina prezio onenean salduko bada, kaiera iritsi beharra da lehenbait-lehen. Arraunei gogotik ekin, gainerako txalupa guztiei aurrea hartu, patroa saiatu baten agindupean... eta hortxe dugu lasterraldia, kirol bat, nahi-ta-nahiezko ekintza batetik sortua. Lehen, arrain-saltzeko premia zuten xedea; orain, saria, ospea, ohorea.

Aipatzekoak dira, estropaden kontu hontan, Pasaiaiko *atoi-ontzi zaharrak ere. Garai batez, itsas-zabaletik portu barruraino bela-ontziren batek sartu nahi zuenean, atoian sartu beharra zuen, aize gabez, txalupa batek tiratua alegia. Lan hori egiten zuten txalupek askotxo kobratzen omen zuten. Hiru ziren Pasaian, baina, noski, atoi-aldi bakoitzeko bat aski zelarik, zeinek egingo, ta ontzia lehenik iristen zuenak egin, besteak aho bete hortzekin utzita. Horreatatik beladunen bat sumatu orduko, heldu berriaren bila abiatzen ziren hirurak arineketan. Hona ba kirol bat lanlehiaketa batetik hastea duena.

Aspaldiko mendetan ere ezagunak ziren estropadak. Jaiera handia zieten erromatarrek. Eta Erdi Haroan sona handia izan zuten beneziatarren estropadak. Gure artean, auskalo noiztikakoak diren. XVIII. mendekoen berri badakigu, baita XIX.ekoenak ere.

Non-nahi egiten ziren, eta itsas-zabalekoak ziren ospetsuenak, alegia, Kantauriko porturik-portukoak. Baina estropaden antolaketa benazkoa, 1890 urtean guti-gora-behera hasi zen taxutzen. Bilbon, Donostian, Donibane-Lohitzunen eta Baionan ospatu ziren estropada ikusgarriak; baina Donostiakoak dira guztietan aipagarrienak, eta gaurdaino iraun duten bakarrak. Zein-nahi portutako treneruak ageri ohi dira Donostiako estropadetara: Orio, hiru Pasaia, Getaria, Ondarrua, Zarautz, lehengo urteetan; gero haietaz gainera, Hondarrabia, Santurtze, Zumaia, Bermeo, Portugalete, Sestao. Baita itsastar ez diren lekuetatik ere: Lasarte, Oikina, Usurbil, Aginaga, Errenteria (itsas-gizon bulartsuen kabi famatua inoiz izana), Oiartzun... Tolosa ere bai, noizpaiz. Eta Euskal Herriaz kanpotik ez guti: Santoña, Ciérvana, Castro Urdiales, Pedreña, Santander, Peñacastillo... Oriotarrak gertatu izan dira gehienetan txapeldun. Donostiarrek ere ez dute lan txarrik egin, dozenatxo bat bider garailari irtenik; baina kontu hontan ez du horrek gauza handirik adierazi nahi; besteak baino sarriagotan agertzen denak badu irabazle gelditzeko aukera gehiago ere; Bidasoaz haraindikiko portuetan ere ospatzen zirela esan dugu, aspaldi batez, eta ez nolana hikoak; baina arraunari eta belantziari *lurruna nagusitu zaienez geroztik arraunketak ere zeharo itzali ziren. Hori ez da gertatu mendebaleko gure itsasegian.

Sega-apustua

Garai batean, baso, baratza, labore-soroak, nonnahi zabalzen ziren Euskal Herrian gaindi, bai eta harritza, elkor eta malakarrak frango. Belardiak, aldiz, urri. Baina gauzak asko aldatu dira handik hona. Basoak-eta bakanduz, soilduz eta aienatuz joan diren neurri berean, belar-soroak ugaritu egin dira. Baita segalanak ere, eta jakina, segalariak. Hauek inoiz baino trebeago izanik, ez da harritzeko sega-apustuak ere maizago ta nabarmenago

gertatzea. Segajokoak, beraz, lanean du hasiera, etorkia, beste askok bezala.

Sega-saioak egiteko tokia kontu handiz aukeratu behar da; edozein belar-soro ez da ona saioetarako, nahiz eta arrunteko lanerako ona izan. Leku erosoan egon behar du; alde guztietatik hesitzeko erraza izan; ahal bezain zelaia, harririk gabekoa, belar luze ta ugarikoa. Komeni da ere, automobilentzako toki zabaltxo bat aldean aurkitzea, ikusleek nahi adina erraztasun izan dezaten

Saio guztiak ez dira era berdinean egiten. Baina hau, euskal-joko guztietan gertatzen den gauza da. Lege bakarreko saiorik ez. Oinarrizko tankera bakar batean bermaturik, bereiztasun ugariak onartzen dira. Ager dezagun hemen edozein jokotako (kontratuari esaten zaio "joko") puntu bat edo beste: «Belardia aukeratu, gero zatika banatzen da eta zati horiekin bi sail edo arlo osatzen dira, lurrez eta belarrez halatsukoak. Burrukaldia hasi baino lehen zotz egingo da, ea segalari bakoitzari zein arlo tokatzen zaion. Segalari bakoitzak hiru sega erabil ditzake gehienez ere. Eta izango ditu lau laguntzaile: erakusle bat, harriztaile bat eta bi eskubaredun. Eskubaredun laguntzaile horiek, ebakitako belarra biltzen dute, gero balantza berezi batean pisatua izan dadin. Ordubetean belarrik gehien moztuko duena, irabazle. Alde bakoitzetik hamarna mila duro jokatzen dira».

Sega-apustuen ugaritzeak hobekuntza handia ekarri zion segari. Tresna bikain-bikaina da, izan ere, gaurko sega. Altzairu on-onekoa izan arren, aisa kamustu ta akastu egiten zaio ahoa, batez ere harriren batekin topo eginda. Zorroztu beharra izaten da holakoetan. Harraizta erabiltzen da hortarako. Zorroztarri tiki luzexka bat da hau. Baina saio bitartean ez du segalariak holako lanik egin beharrik, laguntzaileek egiten diote-ta.

Gerri biguina ta birika sanoak eskatzen ditu sega-lanak.

Orain arteko apustu gehienak "zeinek belar gehiago ebaki"ra

egiten ziren. Molde honek baditu bere akatsak: segalari zenbaitek ahal dezaketen guztia ebakitzea besterik ez dutela gogoan; “zenbatari” arreta gehiago ematen diote, “nolakoari” baino, txukuntasunari jaramonik egin gabe. Hau dela-ta molde berri bat asmatua izan da orain guti: “zeinek epe jakin batean belar gehiago ebaki” sistimaren orde, “honenbesteko” lauko-metro belar “zeinek azkarren ebaki” onartu. Segalarien eskubaredunek ez dute beren saileko belarra bildu behar oraingo egikera hontan, kontrarioarena baizik, honen ebaketaren akatsak agirian jar daitezten.

Belarra mozteko makineriak direla-ta, kolore askotako iriztiak emanak izan dira sega-jokoaren eta sega-lanaren beraren etorkizunari buruz. Erabat baztertu ta itzaliko dela diote zenbaitek, behin betiko agurra eman behar diogula; segarik ez, segalaririk ere ez! Beste askok berriz, ez dela diote arrisku hori, haiek uste duten bezain larria. Makineria horrek, onena izanda ere, ez duela zer egiterik gure mendietako soro zut gain-beherakoetan; holako tokietan esku-sega baino tresna hoberik ez dela eta. Nork arrazoia? Geroak esango du...

Haizkolariak

Alde batetik itsasoa, bestetik mendi-multzoak. Hezetasuna nagusi. Giroa lagun, baso-oihanak goi ta behe. Nahi adina egur. Horixe zen gure Euskal Herria orain denbora asko ez duela. Egur hortaz baliatzen ongi zekiten gure arbasoek. Zernahitarako ona bait zuten egurra: etxegintzarako, itsas-ontzigintzarako etab. Ikatza ere bai, harri-ikatzik ez zegoen denboretan. Horregatik, burdin-oletan erretzen zen gure basoetatik irtendako ikatzik gehiena. Egur-epaiketarako ez zegoen tresnarik aldi hartan, haizkora baizik. Egurgileak haizkoraz jo ta jo basoetan. Haizkora-hotsa hodeietaraino goratzen zen oihanetatik, plazetatik pilota-ukaldiaren hotsarekin nahasia. Lan-da-lan haizkolariak. Eta txitean-pitean erron-

kak, dixiduak, desapioak. Basotik herrixkara, hemendik hiri handietako zezenplazetara. Gero ta agiriago ta ugariago.

Ikasi dute haizkolariek, hainbeste urtetan zehar saio ta saio eginez, pagoarena dela beren ekitaldetarako egurrik egokiena. Baina zuhaitz batetik bestera alde handitxoa izaten da maiz, biak pago izanda ere. Batzuk xamur, ebaki-errazak, "ondraduak", besteak gogor, zital, trakets eta bihurri, egurra ez baina burdina diruditenak, edozein haizkolariren indar guztiak akitzeko aproposak. Jokaldietan maizenik agertzen diren enborrak, 53 ontzakoak dira. Ontzaka neurtzen baita enborra; alegia zenbat ontza dituen gerrian, itzul-inguruan, ez ordea lodieran. Asko erabiltzen dira hurrengo neurri hauetxek: 108 ontzakoa, 72koa, 60koa ta 32koa. Neurri horietako zenbaiti euskerazko izena ematen zaie, bainan kasu hontan ez zaio inguruari begiratzen, lodierari baino (diametro, alegia). Adibidez: 108 ontzako egurrari "kanako" esaten zaio. Izan ere, kana horrek gure artean, 0,83 m. baditu eta hauxe de 108 ontzakoaren inguruari dagokion diametroa (bestela esan, enborraren lodiera). Horren erdikoa denari, —54 ontzakoari— "kana-erdiko" deitzen zaio. 76 ontzakoari, berriz, "oinbiko", bi oineko lodia baita (0,55 m. guti gorabehera). Eta azkenik 36 ontzakoari "oinbeteko" izena ematen diote. Neurri zahar horien ohiturarik ez duenak, jakin beza hauxe: kanak (erderaz "vara") 0,83 m. dituela; oinak ("pie"), 0,27 m. eta ontzak ("pulgada") 0,023 m.

Tresna ederra, ederrik bada, euskaldun haizkora. Demajokoetan ekinaren poderioan bikaintasun parebagea irabazitako izkilua.

Haizkora-lana, saioetan, buruz-buru egin dezakete haizkolariek; edo bi-bitara. Edo batek, bikote baten aurka. Kasu hontan, bikotekoak txandaka aritzen dira: nahi dutenean txandaturaz bazuetan, enbor bat bukatu arte ezin txandaturaz besteetan. Paperean (jokoan) ipintzen dira kondizioak eta hauek gisa askotakoak

izan daitezke, jokalariek asmatu-ala. Hontan ez da mugarik. Bixikeriak ere ikusten dira; behin edo berriz, bizpahiru aziotako dema nahasiak ere egiten dira: "Ea hiru gauzetan nor nagusi?" Enborrak ebaki ondoren, hasten dira korrika, zezenplazako uztaiari jiraka, zenbait kilometro bete arteraino; edo-ta hamar arruako harri bana leporaino jasotzeari ematen dira... Haien sasoia! Eta ohitura da, ustez hobea den haizkolariak halako edo holako bentajatxo bat besteari ematea, esaterako, egur baten edo biren aldea, edo bestea baino beranduago ebakitzen hastea, etab. Eta zenbat egur ebaki? Noiz ta nola: zortzina, hamarna, hogeina enbor. Beste guztiak bezala, zertzelada horiek ere pape-retan seinalatzen dira alde zurretik.

Haizkora jokoak ez dira beti sortzen erronkatik, dixidutik, jotzaile biren edo gehiagoren tema batetik. Egiten dira ere Haizkora-txapelketak, Herri-agintariek edo Elkartasunek taxutuak. Kondizioak orduan, bidezko denez, ez dituzte jokalariek izendatzen, antolatzaileek baizik.

Pagadiz ongi hornitutako herrialdeetatik irten izan dira haizkolaririk iaioenak, lehen eta orain. Orain ere bai? Pagadi guti da orain Euskal Herrian; haizkolariak ere gero ta bakanago. "Euskal Herriko azken haizkolaria" izeneko ipuina idatziko den eguna hurbil omen dago, ondikotz!

Pilota-jokoa

Pilota-tokiak

Pilota-jokoa era askotara joka daiteke: luzean, errebotean, laxoan, pleka edo blean, paxaka; esku-huska, eskularruz, xisteraz, palaz, sare z etab.; pareta bakarreko lekuetan, ezker paretadunetan eta paretarik gabeko plazetan; frontoe estalietan eta estalgabeetan. Molde horiek ugari izan arren, pilota-jokoa beti bat eta bera, beti pilota-joko. Ez ohi da hori gainerako kiroletan gertatzen.

Eta zer esanik ez dago, joko-molde bakoitzak baditu bere lege bereziak, ez Federazionek ez Elkartasunek moldatuak, herriak mamituak baizik, bere ohitura zaharrak haintzakotzat hartuz eta finkatuz, eta haiexei men-egiten dietela zintzoki.

Esango genuke joko bakoitzari leku berezi bat badagokiola, eta batekoz bestera; baina hau esatea gehiegitxo esatea litzake, egiaren hurrengo. On da bestalde "kantxa" bakar batean jokoklase bat baino gehiago egin ahal izatea. Herri guztiek ez bait dute bi edo hiru plaza edukitzeko hainbat diru. Hona hemen pilotatokitian aipagarrienak:

Frontoea

Frontoe tikia, herrikoa. Hau da Bizkaian eta Gipuzkoan maizenik aurkitzen den joko-lekua. Aurrekaldean pareta edo harrisi bat altu xamarra; beste bat ezker aldean, hura baino apalagoa. Sarritan hirugarren bat ere bai, tikiagoa, atzekaldean. Hoge, hogeitamar edo 35 metro luze gehienez ere. Herri bakoitzak, dela aberats dela pobre izaten du berea, herritar denak beren gogora josta daitezen ezer pagatu gabe. Frontoe zaharrek lurrezkoa zuten zola (zotarrain); berriek ordea, zimenduzkoa. Zola-paretetan pintaturik pasomarrak, "kuadro" deritzaten sail batzuk mugatuz. Aurreko paretakoak hiru dira; ezkerrekoak bi pasomarra ditu: bataren eta bestearen artean jo behar du pilotak sakatutakoan; hortaz landa ez dira pasomarra hauek haintzat hartzen. Gehienek ez dute teilaturik. Gure lurraldea euritsua delarik, askotxo izaten dira euriak ondatutako pilota-partiduak. Orain, hala ere, agintariak zertzelada hartaz axolatzen hasiak dira, frontoetak estali eraziz.

Frontoe handiak. Edo luzeak, beste izenez "industrialak". Hiriburuetan eta herri handietan aurkitzen ditugu holakoak. Ikaragarriak, ederrak eta estaliak. Gauez, egun argiz bezalaxe ikus-

ten da haietan. 50etik 60 metro tarteko luzeak. Hiru paretek goratasun bera dute, 12 metro, berde ilunez pintatuta, pilota zuria ongi ikus dadin. Eserlekuak, ehunka edo milaka. Barneko telebisio ta guzti, kafetegian eta aretoetan dauden kinielazaleek patxada ederrean ikus ditzaten partiduak (hau Ameriketako nahiz Indonesiako frontoe eskergea haietan gertatzen da). Erosotasuna ta dotoretasuna nonnahi. Soberaxko ere bai, askoren iritziz.

Badugu honen antzeko beste bat, hura bezain polit eta egokia, bainan tikiagoa: 35 m. ditu luzeran. Eskuz jokatzeko txit aproposa, bai eta erreminta tiki xamar batzuez ere (gero ikusiko ditugunak).

Plaza laxoa

Edo "librea", nahiago baduzu. Ipar Euskal Herrian ezker-paretadun frontoe guti aurkitzen da. Eta erraldoi haietarik, gutiago; hiruzpalau, gehienera jota ere, itsasaldeko hirietan. Hangoak frontoe hutsak dira, aurreko paretak baizik ez dutenak. Murru horrek hamar metro gora hegaletan, gehiago erdi-aldean; zeren gaineko ertza konkorduna baita, *bizanziar hiru-horriko baten irudia ematen diola. Zenbait lekutan, konkor horrek mendi-tontor baten itxura hartzen du. Harri landuz eta argamasaz egina, eta sarritan kolore alaietz pintatua. Lurrean *lauza zabalak, paretetik urrunago eta zabalagoak; eta lauzez haruntzago, *zotarraina; gogor, trinko, ongi zanpatua ta zelaia; 60 bat metro luzekoa. Aldamenetan *behariantzako eserlekuak, harri luzez eta lerroz-lerro eratuak. Murruaren zabalera, 20 metrokoa, bataz beste.

Pareta horretan, gure frontoietan ikusten ez den gauza bitxi bat ageri ohi da: bi marra, behetik hasi eta sei-zazpi metroraingotzen direnak, batetik bestera beste hainbesteko tarte bat utziaz. Zertarako ote dira? Errebotean hartzeko. Zeren plaza hauetan, guztietan bezalaxe, joko-mota bat baino gehiago egiten baita:

eskuz nahiz palaz eta xisteraz; errebotean eta laxoan ere bai, baldin aski luze badira. Beti ez baina maiz xamar beste paretatxo bat agertzen da plazaren beste muturrean, murru handitik 100 metrotara. Erreboterako hori ere. Ez da, ordea, nahitaezkoa.

Plaza laxoari gure Iztuetak "plaza agiriko" izena ematen zion, ederki emana. Erabil ditzagun guk ere bi horiexek: laxo ta agiriko, "libre" hitza erderaz mintzatzeko gareneko utzita. Nafarroan ere aurki ditzakegu horrelakoak. Ederrenetarik bat aipatzekotan, aipa dezagun Leitzako plaza galant ederra.

Trinketa

Itzul gaitezen iparraldera. Horra hor pilota-leku bat guztiz beregisakoa, gure artean oso bakanetan ikusten dena: trinketa. Nolakoa da barrendik eta nola kanpotik? Baldin inoiz ikusi ez baduzu, nere hitzek ez dizute argi handirik emango, non-eta argazkiren bat begi aurrean ez dadukazun. Saia gaitezen halare antz ematen, gaingiroki bederik: Kanpotik, etxe baten tankera du. Jabe bakoitzak gogo duen bezala egin lezake. Barrukoa egiterakoan, ordea, ohiturazko egin-molde batzuri —ohitura lege, hemen ere— atxiki behar du. Joko-lekua, "kantxa", itxia da. Bainan, azter dezagun atalka; aurrekoa, arrunta da, 10 edo 11 metro gora, 9 zabal. Goiko ta beheko marrak, burdinaz eginak. Badu zerbait gehiagorik ere, baina hau geroko utziko dugu.

Hego-Euskal Herriko frontoiek ez dutena badu trinketak: eskuineko paretan, kantxaren luzera guztian (30 edo 32 m.). Baina ez da osoa, betea; lurretik 5,70 metrora du bere muga, ertza; hutsune handi bat ageri da hemen, ikusleentzako galeria batek betetzen duena, aurretik erreboteraino, aulki luzez hornitua. Noizik-behin, galeria honen gainetik beste bat luzatzen da, eta horien artean paretako zerrenda bat: bainan zerrenda hau ikutzen duen pilota, hutsa da, falta.

Ezker aldean ere bada, gure arteko frontoietan bezala, beste murre bat, bainan honek ere, besteak legez, ez du paret-itxurarik, bere galeria bat edo birekin, jendea koka dadin, eta eskuinekoari pare-parean. Baina bada alderdi hontan zerbait, trinketari bere nortasunik agiriena ematen diona. Ez dakit nola azaldu hitz soilez, baina zirt edo zart egin beharra dugu ta saia gaitezen. Irudi egizu kaiola antzeko transitu edo galeria bat (koneju-kaiola bat, nahiago baduzu) paretari itsasia, trinketa bera adina luze (30 edo 32 m.) eta 1,90 gorakoa kanpo aldean —hau da, joko-lekua jotzen duen hegian— eta 2 edo gehixeago barru aldetik, hots, pareta jotzen duen bazterrean. Konpreni daiteke, kaiola edo galeriaren bi aldeok duten goituera desberdina kausa dela, haren sapaia edo teilatutxoa, aldapatsu izatea, gain-beherakoa. Estalki edo teilatutxo horri “taula” esaten zaio (“table” frantsesez, “tejadillo” espainolez). Gain-beheratasun honek zer ikusi handia du jokoaren zertzeladetan.

Estalpe edo galeriaren kanpoko aurpegia (kantxari buruzkoa alegia) bi zati, edo zerrenda desberdinetan banatua dago; azpikoa, argamasazko pareta zerrenda bat da; gainekoa, burdinazko nahiz harizko sare batez osatua dago, tarteka-marteka *hesola batzuen bitartez teink atxikia. Sare horri —nahiz burdinazko nahiz harizko izan— “sare” deitzen diogu (frantsesez “filet”, espainolez “red”). Sare atzean, kaiola barnean noski, ikusliarrak esertzen dira, hestutxo bada ere. Partidua bukatuta izaten da lepo-mina frango.

Esan dezagun hiztxo bat atzeko paretaz, errebotetz. Hau ere ez da osoa, erdizkoa baizik. Badaduka eta, berari itsasia, harako koneju-kaiolaren zati bat, ezkerrekoari jarraitzen zaiona. Hontan ez da sarerik izaten. Barne hortan egoten diren behariek, beraz, badute arriskutxo bat: pilotaren nahiz pilotariaren beraren zartadakoren bat hartzekoa. Joko-lekuaren inguru guztiak kristalezkoak balira, ez legoke halako arriskurik, eta jende gehiago sar zitekeen... Nik hala uste.

Eta bukatzeko, goazen, agindu bezala, aurreko paretean aurkitzen diren zenbait bitxikeriez mintzatzera. Bi dira: a) “ttanburra” (frantsesez “tambour” eta “pan coupé”; espainolez “tambor” —Hego-Amerikan— eta “fraile” Espainian bertan). Aurrekoak eta eskuinekoak elkartzen direnean, ez dute kantoi edo angulo zuzenik egiten, aleka bat baizik. Horixe da “ttanburra”, aitzineko “jeu de paume”-takoen oroitzapen bat. b) “Xilo” (edo Zulo) du izena besteak. Leiho-zulo baten itxurakoa da ta beheko pasomarrari eta ttanborrari hurbil dago. Leku horietan pilotak jotzen duenetan ezin igarrizko joera txoroak hartzen ditu. Pentsa, bada, zer nolako bihurrikeriak eta ikur-makurrak egingo ez ote dituen!

Trinketa ez da euskaldunek asmatua. XVI. mendeko Frantzia du sorrera. Mende hartan eta hurrengo bietan ere trinketa asko eraiki zituzten handikiek, “courte-paume” deritzan jokuan aritzeko. Euskal Herrian ere baziren hamaikatxo. Erraketaz jokatzen ziren haietan handikiak; baina euskaldunek, XVIII. mendearen azken urteetan, tankera berri bat eman zioten “courte paume” jokoari. Erraketa arbuiatu eta eskularria erabili, pilota handitu eta lege berriak asmatu zituzten. Honelaxe jaió zen gutartean “pasaka” jokia. Iparraldeko trinketerik zaharrenak hauexek dira: Baionakoa, Urruñakoa, Donibane-Lohizunekoak, Sarakoa, Hazparnekoa, Ezpeletakoa, Ahurtikoa (Urt) eta Luhosokoa. Hego-aldean ere, Mutriku-ko trinketea ez da atzo goizekoa.

1800. urtetik aurrean zabaltzen hasi ziren trinketak Hego Euskal Herrian eta Iztuetak haien kontra botatako ahapaldiak gora beheara, hartze handia izan zuten. Baina hemengo jendeak agiriko jokia maiteago zuen eta trinketaren erreka ez zen iraunpen luzekoa izan. 1880. urtean inguru Argentina-ko pilotariek —euskaldunak, jatorriz— eraberritu egin zuten trinketeko jokia, “paxaka” arbuiatu ta honen ordeaz “pleka” onartuz, esku-huska. Ipar Euskal Herrira etorri ta sona handi-handiko partiduak egin zituzten

haiek hemengo pilotari hoberenen aurka. Lehiaketa haiek guztiz ongarri izan zitzaizkion pilotari, jendearen zaletasuna biziagotu ta euskaldun plekarien gaitasuna areagotu egin zutelako.

Pilota-lekuak. Laburpena

Orain arte aipaturiko pilota-leku horiek oso egokiak dira jokomolde guztietan aritzeko, eta horiexek dira Munduko Txapelketak jokatzeko onartuak daudenak.

Blazy Jaunak, *La pelote basque* bere liburu baliotsuan, zortzi pilota-toki mota aipatzen ditu: Soropila (gure artean "pilota-soro" deitzen duguna, alegia) baserri-plaza ("place rustique") herriko plaza laxoa, erreboteko plaza, ezkerreko paretaduna, trinket estali gabea, trinket estalia eta frontoe industrialia (luzea ta motza). Bainan besterik ere badago: nork ez ditu ezagutzen gure *arkupeak*? Elizako nahiz Udaletxeko arkupeak berak dituzu horiek; batzuk txit taxuzkoak, besteak zernahi ostopoz, *xikanez eta engainuz josiak. Pilotarien mintegirik bikainenak ditugu azken hauek. Bertan saiatzen den pilotariak ez du inongo kantxaren ikararik. Hantxe gaitzen da, trebetzen da, zailtzen eta zimeltzen da, begia zorrozten zaio, ta gerria leuntzen, *jokutria ta maltzurkeria guztiak errotik ikasten ditu. Ez da harentzat eskola hoberik. Orobatsu esan daiteke elizetako murruez ere. Leku onak, horiek, mutiletan zaletasuna ernetzeko ta trebetasuna azkartzeko.

Pilota-soro edo soropilak, asko edo gutti, Euskal Herri osoko eskualdeetan zabaldurik zeuden aspaldi. *Ordokietan nahiz mendikasko zabaletan hedatzen den sorotxo bat da; lurra zelai-zelaia du, goroldioz edo belar motzez estalia. Beren herrietatik urrun egon beharrak diren artzainen jostalekua zen soropila. Bertan jokatzeko ohitura ahaztuxea dago gaur egunean.

Trinket-erdiaz ere zerbait esan genezake, interesgarria bait

da; baina, Pilota-Buruzagien baimenik ezin *ardietsirik, ez du aurkitu ahal izan ongi ezagutua izateko aukerarik, merezi duen bezala.

Erremintak eta joko-motak

Pilota-tokiak ikusi ditugu begirakada arin batez, pilota-funtzioa jotzen den antzokia, nolabait esateko. Ikus ditzagun orain nolako antzerkiak ematen diren beraietan, eta zein tresna, izkilu edo erreminta-modu erabiltzen den bakoitzean. Zer esanik ez da, gure azalketa hau laburra, osogabea izango da, joka-tokiez egin dugun agerpena bezain azalekoa. Joko molde bakoitzaren legeak xeheki ezin agerturik, hasi-masiko ikustaldi arin bat eman-go diegu.

Pilota

Pilota-jokurik izan ote liteke pilotarik gabe? Galdera irri egingarria hauxe! Pilota, gauza biribil hori, zuri nahiz beltz, bizi nahiz motel, larruzko nahiz gomazko, trinko nahiz barren-huts, kizkidun nahiz kizkigabe, beti pilota, jokuko pertsonaiarik agiri-riena, aintzindari ezinbestezkoena, pilotariak maite duen eta hala ere indar eta kemen guztiaz zigorkatu ohi duena, paretean lehertu nahi balu bezala.

Euskal pilota-joko gehienek larruz estalitako pilota nahi dute. Barru-barruan daduka beste pilotatxo bat, kautxozkoa, ikaragarrizko bizitasuna ematen diona: "kizki" esaten diogu honi (esaten genion behinik behin; ez dakit orain ere erabiltzen ote den izen hori, ala ahazturik dagoen). Kizki honen inguruan, hari ta artilea, ederki teinkatua. Azkenik larruzko estalki bat edo bi —zein jokorako den— zortzi baten itxurazko bi zatik osatua. Aspaldi batean pilotak ez zuen barneko kizkirik. 1830. urtean

edo, kautxoa industrian zerbait izaten hasi zenean pilotagile bati buruak eman zion pilotan ere sar zitekeela. Burutapen honek ondorio harrigarriak ekarri zituen.

Barren-hutsezko pilotak ere badira, barruan haizea, ta azala, gomaz egina. Lehen, kautxorik ez zenean, haizedun pilotak larruz estaltzen ziren. Palaz aritzeko oso erazkoak ziren haiek, eta halaxe egiten zuten Iruñeko pilotazaleek hiri hartako karriketan barrena, XVIII. mendean. Aipa dezagun ere —gurea izan ez arren— Ameriketako indioek erabilitako pilota kautxozkoa; handi, pixu, gogorra zen; bainan haiek ez zuten eskuz jotzen, ez palaz ez erraketaz, baizik ere ipurdiz, eta barkatu.

Tresna galdegiten duten jokoetan, handiago ta gogorrago izaten da pilota, baita pixuago ere. Paxakarakoak dira pixuenak, bekoz-beko joko-moldeen artean; plekako jokoetan berriz, punta-saskirakoak.

Plekako jokoak

Pilota, kautxoari esker, eraberritu zenean, jokoak berak aldakuntza izugarria ezagutu zuen. Pleka-ko jokoak goraldi harrigarria hartu zuen. *Ple* edo *ble* deitzen dugu, pareta batean pilota joeraziaz egiten den jokia. Aspalditik da ezaguna, baina gizonek ez zuten haintzakotzat hartzen. Haur xeheriaren jokia zen. Lehen go pilota motel haiekin joko horrek ez zuen adineko jokolarien gogo berotzen. Luzean eta errebotean nahiago zuten haiek, bi taldeak bekoz-beko jarririk egiten diren jokoetan alegia, tenisen bezala. Paretaren bitartekorik gabe urruti-urrutira botatzen zuten pilota, eta axola guti zitzaien honen *punpa (botea) motel eta labur izan zedin. Paretetan jo ondoan berriz, pilotak ez zuen urrunera joaterik. Horregatik ez zen inor ere —haurrez eta zaharrez kanpo— paretari buruz aritzen. Baina pilota biziagotzen hasi zen bezain laster, pleka aritzea guztien gogoko egin zen. Joko berria-

ren gorapenak, bidenabar, joko zaharraren galera ekarri zuen. Honen maitatzaile zintzoek uste izan zuten betikotz galdua zela. Ez zen, zorionez, honela gertatu; bizirik dago gaur ere, badu bizirik irauteko gogo ta, irudiz, indarra nahikoa ere.

Honela, ba, bi sail handi ditugu pilota jokoetan: bekoz-bekoak (edo zuzenak) alegia, bi taldeak bekoz-beko jarririk eta soka edo marra baten bidez bi bazterretan banaturik jokatzen diren joko zaharrak (luzea, laxoa, errebotea, pasaka); eta plekakoak, pareta bati begira egiten diren joko berriak (eskuz, palaz, xisteraz etab.).

Esku-huskako jokoak

Esku-huska jokatzen dira Euskal Herrian ehunetarik larogei ta hamar pilotari. Edozein txokotan, zein ere ttikia den, joka daiteke eskuz.

Zeintzuk dira esku-huska egin daitezkeen joko motak, eta zein plazetan?

Lehen aipaturiko harako plaza laxo haietan aritzen da esku-huska, pleka. Buruzburu, binazka, hirunazka. Gauza hauetan zerbait dakitenek diote plaza agiriko horietan jokia ez dela izaten albo-paretadun plazetakoa bezain interesgarri ta kilikagarria. Aspergarri xamarra, behar bada. Ezkerreko paretak aldiz, gatz eta piperra ematen dio jokoari. Ez da sekulan aspertzekorik, pilotariak onak izatekotan. Eta zer esan trinketeko jokoaz? Hemen, begi zolia ta zango arin eta sendoak behar dituzte jokolariek —aurrelariak bereziki— beren bazterrak ongi gordetzeko, pilota bizkorra tanbur, xilo ta sare haien inguruan jauzika dabilenean.

Esku-huskako jokoen artean *botaluzea* sartu behar dugu. Zuberoako zenbait herrixkatan ez bada, arras galdua dago gaur. Laxoa bezalakoxea da, bainan eskularru gabeko laxoa. Ere muak ere, tikixeagoa behar du. Mahain jokia ere honen antzekoa da.

Sakea egiteko, mahain baten gainean punpaerazten du botariak pilota.

Luzean, errebotean eta pasakan ez da esku-huska jokutzen, eskularruz eta xisteraz baino.

Pala

Eskua utzita, goazen erremintez mintzatzera. Zaila da pala, zailik bada. Garbitasun handia nahi du. Honekin ez da erdipuerdiko pilota ukaldirik ez txirristarik egiterik; ez atxikirik. Jo ta seko bidali, bainan ez nora nahi ta nolana bidali, behar den lekura baizik. Esan dezakegu bada beste tresna guztiak baino prestuago, ondraduago dela pala. Eskua bera baino garbiago, noski; honekin, palaz bezala jo behar litzake beti ere; bainan atxikia ere eginkizun da eskuz, eta ba omen dira pilotariak bidegabezko molde hortan trebe egin ondoan, legez onartua izan dadila nahi luketenak.

Edozein frontoe handitan joka liteke palaz, ezker paretadun nahiz plaza laxoetan. Frontoe ttikiagoetan jokatzeko, pala ttikiagoak erabiltzen dira. "Pala motza" eta "palatxo" (paleta) eta pala zabala. Pilota ere motelagoa behar du tresna horiekin egiten den jokoak. Molde honi bekozpe ilunez begiratzen diote tradiziozaleek, maritxukeriatzat dadukate eta. Baina pentsatu behar lukete frontoe handietako jokoak edozeinentzat ez direlarik, zerbaitetan aritu ta atsegindu behar duela pilotazale zintzo arruntak. Badu hortarako eskubidea, ta erraztasunak eman behar zaizkio, nik uste.

Pala motza ta palatxoarekin, larruzko pilota erabiltzen da. Bainan pala zabala (palantxa) ere badago, gomazko pilotarekin aritzekoa. "Paleta argentina" izena ere ematen zaio, ta joko

lekurik egokiena trinketa du. Txit ikusgarria da; begi oneko pilotari zalu ta arinak eskatzen ditu.

Euskaldun batek, Gabriel Martiren-ek asmatu zuen pala zabal hau, pampetan bizi zela, 1920. urtean. Ongi gogoratzen naiz ni lehenbiziko paleta haietaz; ez zuten gaurko itxurarik; laukoak ziren, etxekoandreek haragia xehetzeko erabili ohi duten ol horien irudikoak.

Eskularruak

Esku-huska jokatzek ez zion min handirik ematen atzapar gogorreko nekazariari, baina hirietako zalduntxoei mingarri zitzaien. Eta hala, eskuak zaindu beharrez zurezko nahiz larruzko tresnei laguntza eskatu zieten, eskularrua, pala ta pala itxurazko erraketa batzuk taxutuaz. Noiz gertatu zen hau ez dakigu zihur, baina Frantzian XVI. mendean erraketa horiek nonahi izan ziren onartuak. Euskaldunak esku-huska ta eskularruz (edo goantez) jokatzen ziren XVIII. mendean, A. Larramendiren arauz. Nekazariak ere bai, aldi hartako pilotak ikaragarri gogorak eta pixuak bait ziren, eskuen galgarri. Lehengo eskularruak eskuaren heinekoak ziren eta ez oso lodiak; zenbait lekutan —Frantzian eta Italian— esku bakoitzean bi jartzen zituzten. Poliki-poliki eskuazpiko alderdia gogortuz, luzatuz eta makurtuz joan zen. Holako tresnarekin pilota beste modu batez jo zitekeen, mekanismo berri batez: eskularru barnean txirrist egin zezakeen pilotak, eskuturaldetik hasi eta behatzen puntetaraino. Eta hauxe dugu *erremonte*-jokoaren sorrera. 1800. urtean guti gora-behera gertatu zen hau. Garrantzi handiko pausoa izan zen hori dudarik gabe.

1846. urtean inguru, Mauleko pilotari bati gogoratu zitzaion berrikuntza harrigarri bat: eskularru makur luzexka hura makurrago ta luzeago egitea alegia. Kako baten antzeko eskularru honekin pilota puntatik heldu, erdiraino sartzen utzi eta berriz

puntatik igorri egiten zen. Honela jaio zen *puntako joko*a. Erremonteko mekanismoa ere egiteko ona bait zen, asko zabaldu zitzaizkion bideak jokoari (luzea ta errebotea ziren erabilienak).

Xistera

Handik guti barru —1857.ean hain zuzen— hamalau urteko mutiko batek *xistera* asmatu zuen (ez esan gero “txistera”!). Gaztain zurezko eskularru bat besterik ez zen, hau baino arinago, erabiltzen errazago. Mutilek berentzat asmaturiko tresna hori laster askoan adinekoek ere onetsi ta onartu zuten, erreboterako lehenbizi, plekarako ondoren. Esan dezakegu gezurrik gabe, ge-roztik plekako jokoak lortu zuen eta gaurdaino gorde duen ospe ta hartze ona, kizkidun pilotari ta xisterari zor diela. Joanes Dithurbide, izengoitiz Gantxiki Harotza zeritzan harako mutiko harek. Bainan, nik dakidanez, gure euskaldun *pertsulariek ez diote egundo beren goresmen-kanturik bat ere eskaini.

Xisterarekin, eskularruaren mekanismo berarekin jokutzen da. Pilota haren barruan gelditzen den egonaldi laburtxoari, *atxiki* deitzen zaio.

Euskaldun plekariak, xistera hori eskuetan zutela, joko berria mundu guztian ezaguterazi zuten. Pelotarietan aintzindari ta nagusien nagusi, Eibarko Txikito izan zen.

1887. urtean, xistera lirain honek aldaketa handi bat jasan zuen. Luzeago, hestuago, makurrago ta sakonago egin zen, errebesetik errazago joka ahal izateko moduan. Egia esan, eskuin aldetik jokatzek asko nekarazten du besoa, batez ere besagainka (besoa goraturik) jotzen denean. Errebeseko jokoarekin, bada, asko irabazi zuen besoak, bainan jokoak berak asko galdu: lehen-go garbitasuna, liraintasuna ta bizitasuna galdu ere. Atxiki ttikiaren ordezt, atxiki handi itsusi bat egin zen kantxetako jaun eta jabe. Xistera sabelandi honek bere joko zikinarekin denbora gutian

joko garbia zokoratu zuen arras, herbestean eta Euskal Herrian, batez ere Bizkaian eta Lapurdin. Bainan Bizkaian ez zuen bizitza luzerik izan. 1910. urterako, palak hartua bait zuen haren lekua, Amerika ta Xinako frontoetan aurkitu zuen kabia ta ordaina; bizkaitar pilotariek eskualde haietan lortu bait zuten hemen ematen ez zitzaiena: ospea ta dirua. Eta halaxe gertatzen da gaur ere: Euskal Herriko pilota-eskoletan trebetuz gero, herbesteko bidea hartzen dute gure pilotaririk hobereenek.

1920. urtean, gizaldi berriko jokalariek askitxo hobetu ta txukundu zuten joko, lehengo xisteraren garbitasuna ematen ahalagindu ziren eta. Lapurdin berriz, erreka handia izan zuen, "Kanbo-ko Xikito" pilotari bikainari esker. Hau zahartuz gero, gain-behera hasi zen joko zikina, eta lehengo joko garbia berriz, goraka.

Izen batzuk ematen zaizkio xistera sabeldun honi ta beroni dagokion jokoari: zesta-punta, xistera handia, atxiki handia... bainan herbestean beste izen bat ematen diote guztiek: *Jai-alai*. "*Jai-alai*" zen lehenbiziko frontoe askoren deitura; gero ordea, joko bera bataiatu zuten honela amerikanoek.

"*Jai-alai*" honek frontoe handia eskatzen du. Baina plaza laxoetan ere erabiltzekoa da. Beroietan jokatu zen eta fama irabazi zuen "*Kanbo-ko Xikito*"k.

Erremontea

Honela deitzan zaio, jokoari ez-ezik, jokorako erabiltzen den xisterari ere. Puntarakoa baino zuzenago ta sendoagoa; sabelik gabea. Beharrik ere ez, joko hontan atxikirik ez bait da egiten; garbi-garbia da, pilota ez da momenturik ttikienean ere bertan gelditzen: goitik sartu, irrist egin eta beste muturretik tximista bezala ateratzen da. 1904. urtean izan zen asmatua, bainan esan dezakegu lehengo xistera ttikiaren ondorengo zuzen-zuzena dela.

Frontoe luzetan ibiltzekoa da, bai eta plaza laxoetan ere; baina ipar-aldekoak ez dira joko molde hontara ekarriak. Nafarroan eta Gipuzkoan ditu bere jarraile zintzoenak.

Xistera ttikia

“Petit gant” (goante ttiki) deitzen zaio frantsesez. Lehen esan dugunez, xistera handiko jokia Lapurdin gain-behera hasi zenez gero, lehengo joko garbia bere xisterarekin goratzen hasi zela berriz ere. Xistera hau zaharraren eta sabeldunaren bitartekoa da. Hura baino hestuagoa, hau baino zuzenago ta ez hain sakona. Harekin egiten den atxikia, lehengo atxiki ttipia da, garbia. Plaza agirikoetan, laxoetan alegia aritzen da joko-garbian. Partidu gehienak hiruazka jokatzeko dira 50 tantotara.

Erreboteko jokia

Jokoetan ederrena ta nobleena omen da. Bidasoz beste aldeko euskaldunek ez dute izango behar bada xehetasun askoren beharrik hari buruz; gainerakoek bai, nik uste. Eta, ederra delako ta gure herrialde hontan ere haren susperraldia somatzen delako, beste joko ezagunagoei baino leku zabalago bat hemen eskaintzeari egoki derizkiogu.

Plaza edo lekua. Lehenik ezagutzen dugu: 100 metro luze, 16 m. zabal. Buru batean harresi bat (erreboteko paretia). Gibe-leko aldean beste bat, ttikiagoa, aurki daiteke. Paretetik 32 metrotara lurrean markaturik dagoen *pasomarrak* bi laukoluzeko (errek-tangulo) ezberdinetan banatzen du plaza, eremua. Paretaren eta marraren arteko alderdiari, *errefera* edo *erresto* deritza. Besteari, alderdi handiari, *botea*.

Erreferan, paret-ondoan, zerrenda bat, 6,50 m. zabalekoa, hiru zati edo laukotan zatitua: barnea da hori (Ikus 233. orr.).

Jokalariaik. Bost dira alde bakoitzetik. Bi, pasomarra ondoan jartzen dira, eskularru motz bana dutela. Hirugarrena, atzerago, beste biak gibel-aldean, pareta ttikiari hurbil. Azkeneko hiru horiek xisteradunak dira (Oharra: joko-garbirako xistera bera da hau).

Tantoen kontaketa. Erreboteko partidak 13 jokotara ematen dira eta tenisen bezala kontaktzen da: 15, 30, 40 (ez ordea 45), joko.

Sake edo botea. Boteko jokolari batek (botari) egiten du sakea, pilota botarrian punpa eginerazita. Botarria, pasomarra gainetik ipintzen da. Esku huska jo behar du eta harrizabaleruntz igorri (hiru lauko haietarik erdian dagoena alegia), zola lehenik eta pareta gero ikutuaz, edo bestera, pareta lehenik eta lauza gero.

Tantoak. Tanto bakoitza, kintze batekin, nahiz *arraia* batekin bururutzen da. Noiz den kintze ta noiz den *arraia*, hona ikusleak duen lanbiderik nahasiena.

Hiztegitxo. PIK: Paretak eta lauzak elkarrekin egiten duten zokoan pilotak, bete-betean jotzen duenean, "pik" gertatzen da. Ez du egiten punparik orduan, arrastaka ateratzen da ta itzul ezina da. PIK-ONDO: Txokoan bertan ez, apurño bat gorago edo beherago jo ta gero, "pikondo" gertatzen da. Itzulkizun da hau, zaila bada ere. PARETA: Paretean lehenbizi, lauzan gero jotzen duenean, esaten da "paret" egin duela. ERREBOTE: Lauzan lehenbizi, paretean gero jotzen du kasu hontan. ERREFERA (Errestoa): Paret-ondoko jokalariaiek zaintzen duten eremua. BOTE: Gibelego jokalariaiek zaintzen duten eremua, alderdirik handiena.

PASOMARRA: Plaza, edo eremua, bi alderdi ezberdinetan bereizten duen marra. BOTARIA: Pilota sakatzen edo botatzen duen pilotaria. BOTARRIA: Hiru zangodun alki-irudiko tresna bat, gainaldea oker, goitik behera duena. ERREFERARI: Sakea itzul-tzen duen pilotaria. PASOMARRALARI: Pasomarra ondoan jar-

tzen diren pilotariak. HARRIZABAL: Paret ondoko laukoetarik bat, erdikoa, (B), zimenduzkoa, non-eta pilotak sake ondoan erori behar bait du. 6,50/5,50 m. ditu. BARNEA: Hiru laukok (A B C) bat eginik osatzen duten zerrenda, eremu hestua. ARRAIA, xaxa: beheiago ikus. ARRAIALARI, xaxari: Kintzeak eta arraiak kontaktzen eta kantatzen dituen gizona.

ARRAIA: Errefera edo errestoko jokalariek badute besteen gainean abantail handitxoa, gorde behar duten eremua besteena baino bi aldiz ttikiagoa delarik. Hala bada, botekoak ezin igaro dira errestoko aldera (eta hauxe dute helburu nagusia) harik-eta hemengoak bertatik uxatzen dituzten arte.

Eta handik uxatzeko, badute bote--aldekoek aukera bat, urre-giltza bezalakoa den bide bikain bat: *arraiak*. Esan gabe doa, berak bakarrik direla arraiak egin ditzaketanak. Erreferariak berriz, kintzeak, besterik ez.

Noiz seinatzen da kintzea, ta noiz arraia? Hona jokoaren muina: pilota airetik edo-ta lehengo punpa ondotik hartu ta igortzea, pasomarra gainditueraziz.

Berexkunde bat. Pilota batek arrastaka doalarik ere iragan dezake pasomarra. Eta arrastaka doan pilota gelaraz daiteke, ez ordea itzul.

Boteko jokalariren batek pilota huts egiten duen, edo pasomarra ezin gaintitu duen, edo plazako mugarriz haruntz zuzen-zuzen (airetik alegia) bidaltzen duen bakoitzean, kontrarioak, errestoak alegia, kintze bat kontaktzen du bere alde.

Erreferako jokalariren batek pilota huts-egin duen, edo pasomarra ezin gaintitu duen, edo-ta plazako mugarriz haruntz zuzen-zuzen igortzen duen bakoitzean, kontrarioak, boteak alegia, konta dezake bere alde, nahiz KINTZE bat, nahiz ARRAIA bat, *noiz-nola*.

Arraia da: a) pilota —norbaitek hutsegina ala ez— errestoan gelditzen edo gelerazten denean, b) Pilota, lurra ikutu ondoan, plazako mugetatik kanpora ateratzen denean (erres-

toko eremuan noski) bainan barnetik landa. d) Errestalariren batek sakea itzultzerakoan huts egiten duenean.

Beste berezitasun bat. d) kasu hortaz landa, barnean geldituko nahiz huts-egindako pilotak, arraia ez baina kintze bat ematen dio kantrarioari, hau da, boteari.

Arraia nola erabaki. Taldeetarik batek 40 egin ondoren jokatzen edo erabakitzen da arraia. Joko berean bi arraia gertatuz gero, bata bestearen ondotik jokatzen dira.

Arraia edo arraiak jokatzerakoan bi taldeak eremuz aldatzen dira; ta hauxe da botekoen helburu nagusia.

Arraia edozein tanto bezalaxe jokatzen da, baina beti ere kintze bat ematen du, kintze batekin bururatzen da, sekulan ez beste arraia batekin.

Arraia jokatzen ari delarik, alegiazko pasomarra bat seinalatzten da, ta ez zaio kasurik egiten egiazko pasomarrari, ez balego bezala; aurrerago seinalatzten da, paretari hurbilago. Gezurrezko ta behin-behinezko pasomarra hori, xaxariak markatzen du arbasta bat nahiz ikurrintxo bat lur gainean ezarriz, arraia egina izan den tokian. Gisa hontan errestoa ttikiago egiten da, eta hura gorde behar duen taldeak —lehenago botean zegoenak alegia— bentaja handia badu. Errestotik botera igarotako taldeak berriz, eremu handiago bat gorde beharko du, pasomarraren aurreratze hura kausa dela.

Pasaku

Hau, "courte" (esku-azpiko joko laburra edo, euskeraz) delako joko zaharraren ondorengo jatorra dela esan dugu. Trinketetan ematen da, baita arkupeetan ere, erdian sare edo soka bat luzatuz, zabaleran. Honen gaintetik igorri behar da pilota. Eskularru motza eta pixu handiko pilota erabiltzen dira. Pasaka bizirik dago oraino hor nonbait. Baztan aldean badu

errekasta polita gaur ere, eta txapelketak ospatzen dira noizetik noizera, arkupetan.

Laxoa

Honelaxe esaten zaio Pirinioetan guk *luzea* esaten diogun jokoari. Errebotearen arbasoa da ta bote-luzearen anaia. Ez du paretaren beharrik; jokalaria, talde bakoitzean, lau eskularrudun dira; botariak ez du esku-huska sakatzen, eta botarria ez da pasomarra ondoan ipintzen, plazaren mutur batean baizik. Bi taldeek egin ditzakete arraiak. Hauek eta kintzeak, errebotean bezalaxe kontatzen dira.

Behinolako batez, esku hutsez jokatzen zen laxoan. Gaur egunean, eskularrurik gabe jokatzen denean, *bote-luze* du izena, eta plaza motzago bat behar du.

Sarea

Sare-jokoa aipatuko ez bagenu, gure txosten hau ezosoa legoke. Blazy jaunak dioenez, "courte paume"ko erraketaren endekatze bat besterik ez da; guk berriz, gure baserritarren "matsarda"ren ondorio hobetua dela uste dugu. Ez da honekin pilota kolpez igortzen, atxiki ttipia eginez baino.

Larruzko pilota arin bizi bat eskatzen du, baita eskumutur sendoa ere. Trinketean luzitzen du ederrenik. Argentinar ta uruguayarrak dira joko hontan buruzagiak. Bainan gure artean ere gain hartuz doa azken urte hauetan.

Pilotarien bi sail nagusiak

Pilota-jokutik bizimodua ateratzen duen pilotaria, *ofiziokoa* da (profesionala). Kasu hontan "industrial" frontoetan aritu ohi

du langile gisa, bertako Enpresaren zerbitzuplean, honek seinatzen dituen lan-saria kobratuz eta agintzen dion egunetan jotatuz. Zestapunta, erremonte ta pala-pilotari guztiak dira ofizio-koak, bai ta esku huskari *andana bat ere.

Beste sailean, "zale" edo "afizionado" (frantsesez "amateur")-ak sartzen dira. Ez dute hauek dirurik kobratzen (legez behintzat). Sail batekoen nahiz bestekoek ekintzak *Federazioek* (Alkartasunek) antolatu eta kontrolatzen dituzte. Eskualde bakoitzak izaten du holako Elkartasunen bat: Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Euskal Herri ("Pays Basque"), Errioxa, Biarno (Bearn) "Côte d'Argent", Languedoc... Espainiako Federazioak ditu bere menpean alderdi hontako Elkartasun guztiak; Frantzia aldean berriz, "Fédération Française de Pelote Basque"-ren agindupean daude. Beste nazio batzuek ere badute berena, hala nola Argentina, Chile, Mexico, Filipinas, Italia etab. Horiek guztiak alkarturik Federazio Nagusi edo orokor bat osatzen dute: "Federación Internacional de Pelota Vasca". Ez du honek, "vasca" hitz hori gora-behera, euskal izenik. Nola bataia genezake? "Euskal pilotaren Nazioarteko alkartasuna" ala?

F.I.P.V. horrek, edo E.P.N.A. honek noizean behingo txapelgoak eratzen ditu munduko pilotaririk hobereenak elkarrekin neur-tueraziz. Txapelketa horietan ordea ez dute sartzerik euskaldunen joko jator eta gutar zenbaitek. Orain arteko txapelgoak hauexek izan dira: Donostian 1952. urtean; Montevideon 1955. ean, Baiona-Hossegor-Biarritzen 1958.ean; Iruñen 1962.ean, Uruguay-en 1966.ean, Donostian 1970.ean. Baita Mexicoko Olimpiadan ere (1968) parte hartu zuten gure pilotariek; bainan oraindak ez du Elkartasunak lortu ahal izan Olimpiada guztietan agertzeko esku-bide osoa.

ERREBOTE



32 m.

66 m.

16 m.

hizkuntza. literatura

EUSKAL HERRIA ETA EUSKARA

Alfonso Irigoyen

Euskara, historian zehar, proba larriak jasana da. Erromatarren garaian mendebal aldeko hizkuntza guztiek, Mediterraneo-koak ez diren isletakoak izan ezik, galdu arterainoko eraso hartu zuten eta latina nagusi gelditu zen, baina gure hizkuntza, ordea, ez zen zeharo suntsitu eta gure egunak arte iraun du bizirik. Halabaina, zutik eta tente heldu bada ere gureganaino, ez da Euskal Herri osoaren mintzabide bakarra izatera iritxi, zeren eta sekula ez baita euskaldunen administrazio-hizkuntza izkribuz behintzai izan, ez erromatarren garaian eta ezta geroago ere, kasu bereizi eta bakanen batzuek alderdi batera utzirik. Begien bistan dago egoera hori makur handi bat izan dela gure hizkuntzarentzat eta apurtu ez den ekilibrio bati eskerrak ia bi mila urtetan belaunik belau ogeigarren mendeko gizononganaino aldatu da.

Badirudi, ordea, ekilibrioa eten beharrean dagoela egungo egunean eta berriz ere proba larriak jasaiten ari dela gure hizkuntza. Oraingo eraso ez da inola ere erromatarren garaikoa baino ahulagoa, askozaz ere bortitzagoa, baizik, orduan baino obeto prestatuak bagaude ere zenbait arlotan geureari eusteko. Gizarteko komunikazio-tresna batzuek etxe barruraino sartzeko ahala dute eta batez ere orain urte batzuek zabaldu den telebista euskaldun-

tzen ez den bitartean, eta oraingoz ez dugu gure esku hori egitea, beste gudu bat gal dezakegu eta beren mende dutenek irabaz gure kontra. Eskolaren auzia ere gure alde jarri beharra dago orain baino neurri askozaz ere handiagoan.

Erratzeko arrisku gehiegirik gabe esan dezakegu euskara baserritarren, abeltzainen, arrantzaleen eta bestelako langileen —olagizonak esate baterako— hizkuntza izan dela. Merkatalgo nagusirako, ordea, ez da aski izan eta ezta auzietarako ere. Kristau-erlijioa edatzea ere latina edatzearekin batera egin zen, gauzak amaseigarren mendean neurri batean bederen nolabait aldatu ziren arte. Aldatu ere ez ziren Euskal Herri osoan berdin aldatu. Batez ere iparraldean izan zuen lehenik euskal literaturak indar, beste alderdian erdara zela nagusi izkribuetan, teoriak gure hizkuntzaren alde jokatzen bazen ere. Egoera hau erromatarren garaitik aurrera, bederen, zetorren, administrazio-hizkuntza bakarra, eta arrazoi horregatik beragatik inperialismo edo kolonizazio-hizkuntza, latina zenez gero. Harrezkero handikiak bide horretan zehar ibili izan dira.

Gogora ekar dezagun Prudentzio laugarren mendearen azken aldeko latin-idazle kristaua, Kalagurri hiriarri oso lotua eta agian bertan jaioa. Orduko baskoiakatik dio: *Bruta quondam uasconum gentilitas* (noizbaiteko baskoien jentiltasun burugabekoa) (1). Eta beste alderdi batean: *Nos Vasco Hiberus diuidit — binis remotos Alpibus — trans cottianorum iuga — trans et Pyrenas ninguidos* (Ebro baskoiak bereizten gaitu [Erroma-tik], bi Alpeak daudela... Pirineo elurrez betean atzean) (2). Garai haretan Kalagurri baskoia zen nonbait, gehiago edo gutxiago erromanizatua. Geroago Euskal Herri osoan sartu zen apurka apurka kristau-erlijioa,

(1) *Peristephanon* 1. 94. *Obras Completas*, Madrid 1950. Funtsean I. Bergmann-en edizioa segitzen du (*Aurelii Prudentii Clementis Carmina* CSEL, 61, Vindobonae 1926).

(2) *Peristephanon* 2. 537-540.

aurreko garaietan asitako latin-erdaldun bihurtzearen abiada ahul-
duari indar berriak emanik dudarik gabe. Baina, dirudienez, ez
zuen aski botere izan zeharo erdalduntzeko batez ere iparralde
menditsua, eta, askozaz ere geroago, Eleiza bera ere neurri ba-
tean bederen euskaldundu egin zen.

Nafarroako erreinua bera ere latinezko administrazioari indar
emanik agertzen zaigu Historian. Euskara izkribuetan erabiltzea
gauza bitxia eta bakana zen, nonbait. Egia esan, visigoto eta
frankoen garaian latinez ere ez dirudi kronikarik egin zenik.
Behintzat ez da ezer gure ezagumendura heldu. Orduko berri
eskasak besteen kroniketatik dakizkigu. Har-eman gaiztoetan gen-
biltzan eta beti gaizki mintzatzen dira gutaz. Ilun ageri zaizkigun
garaiotan erdalduntzearen indarra ez zen beste alderdi batzuetan
koen parekoa, agian, visigotoak eta frankoak beren hizkuntzak
zeharo galtzera heldu baitziren eta euskaldunak ez. Badirudi geroz-
tik ageri zaigun hizkuntza biren ekilibrioak oinharriak eginik zituela
ordurako. Baliteke hori izatea latinezko kronikarik ez agertzearen
arrazoia.

Gure hizkuntza ahoz mintzatua izan da batez ere eta ez
izkribuetan erabilia eta hala iraun du bizirik menderik mende,
kontra zituen indar guztien artean gailen aterarik. Baina kontrako
indarrok ere mila urte igarota ura bere bidean.

Dударik ere ez dago izkribuetan ere erabili izan balitz erro-
matarren debekuaren indarra galdu bezain aguro ekilibrioa bere
alderago eroriko zela. Baina urak joandakoan ezin egin da pre-
sarik. Gainera Orienteko izar ditziratsua argia latinez zetorren,
dena kristau bihurturik. Gure artean ez zen Ulfilas bat sortzea
posible izan, hizkuntza gotikoan izan zen bezala, eta inork ez
zuen liburu saindurik euskarara itzuli izan, amaseigarren mendean
Ioanes Leizarraga protestante beraskoiztarrak, beste batzuek lagun
zituela, egin zuen arte. Eleizak latina zekarren. Kristau-erlijioa
boteretsuen eskuetan tresna egokia gertatu izan zen eta zerga-

iturria leku askotan. Amaseigarren mendean bakarrik, protestanteen erasoaren ondoan, asi zen kristau-dotrina euskarara itzulirik argitaratzen. Erdarak, ordea, ez zuen izkribuen eremuan bere leku garaia galdu arlo txiki batean izan ezik. Gogora dezagun latina, inperialismoaren hizkuntza izanik, herriak menderatzen ziren neurrian edatu izan zela eta ondorengoa den erromantze-erdarak hartu zuela haren lekua euskararekin zuen tira-biran.

Visigotoen garaian badirudi baskoiak alderdi batzuetan eremuz erritu egin zirela izan zituzten burruka eta aurrera-atzeretan. Garibay-k dionez (3):

“Los Vascones Nauarros, conjuntos a los Pireneos, no contentos de las guerras passadas començaron a molestar y robar la España Tarragonesa de las riberas de Ebro, a cuya resistencia saliêdo el Rey Suinthilla los apaziguo, y en punicion de su audacia y daños les compeliò en este año, que ya era de seys cientos y veynte y dos a fabricar en las tierras de sus fronteras vna ciudad llamada Olit, que agora es villa del reyno de Nauarra, cabeça de vna de las cinco merindades en que està diuidida en nuestros dias el reyno de Nauarra. Esta villa de Olite en la lengua Cantabra, que era la mesma que estos Vascones habluan, es aun oy dia llamada Erriuerrri, que significa tierra nueua, como lo era esta por ellos edificada, aunque otros corrompiendo el nombre dizen Arriuerrri, que significa piedra nueua”.

Autorearen garaikoak ez diren notiziak San Isidororengandik hartuak dira. *Erriberri* erdarara “Terranova” bezala itzultzea zeharo egoki dago, *herri* hitza bere esan nahiean eremu kutsu bat duela ere erabili izan baita askotan. Esate baterako, hor ditugu anitz lekutako toponimo *Goierrri* forma dutenak. Goyaldean gertatzen

(3) *Los quarenta libros del Compendio Historial de las Chronicas y Vniversal Historia de todos los Reynos de España. Compvestos por Estevan de Garibay y Camalloor, de nacion Cantabro, vezino de la villa de Mondragon, de la Provincia de Guipuzcoa, Barcelona 1628, tomo I, p. 285, capitulo XXX. Lehen edizioa Amberes-en egin zen 1571 urtean.*

dira beti. *Ergoyen* ere kasu berean dago. *Erriberri* hitzak zentzu hori baldin badu, eta dudarik gabe badu, inoiz baskoiak Olite aldea ere galdua izan dute. Hala ere, mendebal alderago, Ebrotik beherantza agertzen dira, esate baterako Ojakastron, euskararen aztarrenak amairugarren mendean. Euskararen eremua edatu egin ote zen alderdi horretan arabeen nagusitasuna makaltzen zen neurrian? Edo arrasto zaharren bat ere gelditzen ote zen lehendik? Horra hor egin daitezkeen galderak?

Euskararen mugak ez zeuden Olite-tik urrun Garibay-ren garaian eta joan den mendean Luis Luziano Bonaparte-k egindako mapetan gutxi urriturik agertzen dira.

Dena dela euskara eremuz atzerantza joan da harrezkero eta gaur egunean Olite bera ere mugatik urrun gelditzen da.

Nola geldieraziko dugu, ez bakarrik mugak galtzea, ezpada mugen barruan bertan galtzen duen erabiltzearen maiztasuna?

Gure egunotan euskara bateratua prosa komun baterako edatzen ari delarik aurrerapide handi bat egin dugu euskaldunok, baina ez da aski hori, asko baldin bada ere. Hizkuntzak, edozer gauzaren gainetik, mintzatua izan behar du egiazko bizia duela iraun nahi baldin badu eta ez herri komunitate batek gogoan duen gomuta hutsa izanik. Gomuta hutsa izatea ere bizitzeko modu bat da, alegia, baina beste maila batean dago eta ez da osoa.

Gizarteko komunikazio-tresna nagusienak geure esku izaten ahalegindu behar dugu. Horiek dira geure etxeko ateak irikitzeke behar ditugun giltzak. Eta uste dut etxean bizitzeko eskubidea badugula eta ez dela gehiegi eskatzea.

HERRI LITERATURAZ

Piarres Lafitte

Ez Eskual-herrian, ez bertze nehun, ez du herri batek deus ere asmatu. Edozoin asmu, edozoin pentsamendu jende bakar baten ganik heldu da, gogoia beti norbaitena baita, eta ez sekulan moltzu batena.

Gero, bai, herri batean ahoz-aho, beharrez-beharri hedatzea-rekin, herrikotzen ahal da, eta horra nola aipa daitezken herrikantu bat, herri-ipuin bat, eta berdin, orören buru, herri-literatura bat.

Haatik eskualde batean asmatu, erran edo idatzi guziak ez dira literaturan sartzen: izen hori ez zaie zuzenki emaiten ahal, nolazpait landu eta apaindueri baizik: hortakoz behar dute usaiak kanpoko zerbait gai edo arrimu, hori gerta baitakioke ez xoilki bertsuari, bainan halaber hitz *laxoari.

Gaiez den bezanbatean, nork ez daki erresumaz erresuma dabiltzala, mugez axolarik gabe, gehienez nehork ezin erranez nun noiz sortuak diren, toki bakotxean leku-usain berezi bat dariotela.

Halare zombait iturburu ez ditzazkegu uka, xehetasun batzu hor baititugu salatari: adibidez, *Misere*, *Robert-le-Diable*, *Marie Valentine*, *Juan Soldado*, *Vendome*, *Donkixot*, *Trentekuxilo*, eta gisa bereko izenak nunbaitik etorri zaizkula bixtan da.

Bertzeak bertze, hiru mendez, Troyes eta Frantziako Tolosa-tik *Bibliothèque bleue* delakoak zenbat liburuxka urdin ez deizte saldu, etxez-etxe zabiltzan bizkarkarien bidez: hortik *jalgi zaizku pastoral eta ipuinak *hebroka; eta nola ixil gure kantu askok *Occitania*-koeri deieten zorra, musikaren eta hitzen beren aldetik?

—Zorigaitzez, zion Ithurriague ene adixkide zenak, gure arbasoek ez zakiten erdara axaletik baizik, eta bertzalde nekez itzul zezaketen eskuaralat.

—Zorionez, diot nik: horrela ekarriak baitziren beren *mailleguen errotikago aldatzerat eta beretzerat.

Hau ere ezagut dezagun: baizik-eta suiet batzu iragan direla egiazko ixtoriotik, ipuinerat; eta ipuinetik ala kantura, ala antzerkira.

Ez da erraiteko baizik itsaso nahasi batean murgiltzerat edo pulunpatzerat goazila, herri-literaturaz mintzatzerakoan.

ipuinak

Hitz laxoz ipuinak dira nausi Euskaldunen herri-literaturan.

Ipuin izen horrek estaltzen ditu kontu, kondaira, ixtorio-mixerio eta alegia, hots zerbait kondatzen duten guziak, edestia salbu.

Asko mendez gure etxetako mahaina edo supazter-xokoa alegeratu dute, bereziki afal-ondoetan, familia ohera gabe, *eleketa eta jostaketa bildua zagolarik. Bazuen ipuinak bere lekua berdin, ezkontza edo bataio-bazkari luzeetan, artoxuritzetan, ihiztari edo ogi-joile bilkuretan, igande, jai edo merkatu arratsek betetzen zituzten ostatueta.

Ahoz-aho zabiltzan bai eta beharrez-beharri, batzu laster ahantzirik zaudela, bertzeak aldiz orroitzari errotik lotuak.

Ipuin-zaleak izan dira, izkiribuz hartu dituztenak gal diten

ez nahiz, ezarri baitituzte han-hemenka barreaturik joan den mendeko eta gure huntako aldizkarietan.

Handik *andana bat bil daiteke; ba eta oraino ere xahar bakar batzuen ahotik oraino idatziak ez diren zonbaitzu.

Bainan ez da beharrik lan guzia egitekoa. Biltzale *suharrak ukan ditugu. Arrotz ala euskaldun, hiru dotzena hurbil kondatzen ditugu. Izenda ditzagun aipatuenak bederen: Cerquand, Webster, Vinson, Arcaya, Monteiro, Barbier, Ariztia, Iribarren, J. M. Barandiaran, R. M. Azkue.

Heien bildumak batetaratzuz *Corpus fabularum Vasconiae* eder bat baginuke, hamabi ehun ipuinekin, hetarik kanpo uzten ditugularik, nahiz pollitak diren, euskaralat itzuli dituzten Perrault, Grimm, Andersen, Cervantes, Andreiew eta bertze arrotz askorenak.

Mota guzietakoak badira eta gaiak ardura nahas-mahas ateratzen. Halere, klasatzekotan, bortz *taldetan ezar ginezazke.

Lehenik zertako ez eman paganu sinestari *eratxikiak: hor ginituzke Mari eta Maiu, Mikelats eta Atarrabi, Odei eta Eate: hor *lamiak eta maideak: hor basa-jaun-andereak, Axko eta Tartaroa, beren inguruko *iretxu eta bertze lagunekin.

Bigarrenekorik, Ebanjelio-izunetarik bilduak eta zabalki *emendatuak: edo berdin sainduen alegiazko bizitzetarik: hor atxeman ginezazke Jesus eta Jondoni Petri Eskual-herrietan ibilki; Zakeoren ixtorio bitxiak; Haur prodigoaren balentriak, Sen Grat, San Nikolas eta bertze hainitzen mirakulu espantagarriak: debru, aingeru, eta arima herratu zer nahi, sorgin, *hazti, *belagileak ahanzi gabe.

Hirugarrenekorik, basa-edestikoak. Aspaldiko gertakari batzuen kondaira, *kanore izpirik gabeko xehetasun harrigarritz aldatua. Gisa hortan kondatuak zaizku errege, gurlari, pilotari, mariñel, eta bertze gizon aipatu hainitzen zori on ala gaitzak. Luis handiari, Gazteluberri jaunari, Santa-Cruz apezari, Perkaini,

Pello Montvieux itsas-gizonari dagozkien ipuinak mota hortakoak dira.

Laugarrenekorik, ixtorio-mixterio batzu, iduripen hutsezkoak, neholako oinarri gabekoak, hala nola Midas-en minarena, Urregile xerriarena, Zozoarena, Xixtu *xarmatuarena, eta bertze.

Bortzgarrenekorik, ezar ginezazke bertze guziak, iduri gertatuak, bainan izpirituz emanak, gehienak jostagarri hutsak.

Maizenik aipatzen zaizkun jende-motak talde hoitan guzietan dira: errege-erreginak, medikuak, apezak, sakristauak, buhamia edo jitoak, guardak, soldadoak, makiñunak, mozkorrak, *jujeak, ohoinak, atso gaixtoak, zozoak, jokolariak, amerikanoak, arrotzak.

Kondatzale bakotzak bere jeinu berezia duelarik, ez da harritu behar ixtorio berak itxura desberdinak ukan ditzan bilduma batetik bertzera.

Bizkitartean badira ohidura batzu gehienetan hauteman ditzutenak. Huna zombait adibide:

Ipuinak maiz hitz bertsuekin hasten dira (*Bazen behin munduan, Askotan gertatzen den bezala, Aldi batez berria hedatu zen, baizik eta...*)

Hitz bertsuekin bururatsen (*Ontsa bizi izan baziren, ontsa hil ziren, hortan fini da ixturioa,—Hala bazan ala ez bazan, eman hori halabazan.—Egia bada sinets, ez bada egia ez sinets,—Geroztik pasatuez ez dut izan berririk*).

Ipuinetan ohargarri da zoin usu *hirunazka* datozin jendeak eta gauzak: “bidean heldu ziren *hiru* gizon, edo *hiru* neska, edo *hiru* soldado; norbaitek asmatu behar *hiru* egia, errepikatu *hiru* hitz, jo behar atea *hirutan*”.

Epeak ere manera berezi batez neurtzen dira: *urte eta egun* baten buruan; *handik zazpi* edo *hamalau* urteren buruan. *Bedertzi-urrena*, beti **tentu* gaixtoko eguna...

Mintzairaz den bezenbatean zer erranen dugu? **Ardurenean* bakun eta arrunta dela, herrian herrikoa, hitz-zuhurrez, ditxo

apaindua, arrabots-soinuz *emokatua (*kisk-kask, zipli-zapla, hinki-hanka, brau, frixk, krik eta krak...* eta abar); gaia gordinskoa delarik ere, hitzak bana bertze poliki hautatuak, nehoi gaitzi ez ditzen.

Oro har, jostagailutzat dauzkate Euskaldunek beren ipuinak, eta ez lizateke zuzen hoiaren arimaren jujatzea, oinarri ahul eta arin hortarik: gure gustuko, enganagarri lizateke.

Hitz laxozko bertze josteta batzu

Hitz-laxoari datxizko asko ele kasta, hala-nola prediku, ebanjelio, epixtola, edo prefazio-ihakinak. Orok gogoan dituzkegu Itsasuko Zanpagaray-en omeliak, Bidarraiko 24 *agotak aipu dituen epixtola, fraile salatari baten prefazioa, edo bere *gelariari bazkariaren manatzeko erreter batek egiten duena.

Bertzalde nola ez aipa, *galarrots batzu hasi gabe irakurtzen ziren alegiazko errege, enperadore, president edo prefet-en aginduak; maskaradetan *xorrotzek emaiten dituzten hitzaldi jostagarriak, notariak egiten dituzten ordenu eta ezkont-kontratuak; ihauteri, maiatz-arbola edo tobera-munstra, auzietako lege-gizonen *tartarikak?

Atsotitzak

Erdi hitz-laxo, erdi neurtitz, huna atsotitz edo hitz zuhurrak. Euskaldunek lehenago nasaiki bazerabilzkatzen: laket zituzten erran-bide motz, argi eta ozen horiek, mende zaharretako adimendu guzia hetan bildua izan balitz bezala. Azkuek egin du atsotitz bildumarik aberatsena, 2936 zenbakirekin. Berak aipatzen ditu haatik bere aintzineko famatuenak: Zalgize, 1596ko bilzalea, Oihenart, Bela, Moguel, Voltoire, Darthayet, Landerretche eta bertze.

Asko idatzi da euskal atsotitzez. Nola ahantz Francisque-
Michel, Urquijo, Veyrin, Leon, Etchart-ek gai hortaz eginikako
lanak? Heien arabera, errangune horiek sakonki salatzen dute
herriaren *eitea bere gogo-bihotzetako *zeihardura berezienekin.

Halare zombait aldiz elgar gezurtatzen dute, eta bada kantu
bat desbide andana bat argitaratzen dituen. Adibidez:

Laguna lagunari beti iduria:
Nolako aita eta, halako semea;
Uriaren ondotik heldu ateria:
Aita biltzale batek haur xahutzailea!

Amiltzean harria ez da gorolditzen.
Gizon ibilkariak zer ez du ikasten!
Busti nahi ez dena urean ez sartzen:
Irriskatu gaberik nork du deusik biltzen!

Ikus bertze koplak *Kantu, kanta, khantore* liburuan (51.
orrialdean).

Bertsuak

Herri-olerkiak asko molde besarkatzen du gutartean. Apalena
da *Kilixki-kalaxka* bertsua: ez du berenaz deusik erran nahi, nahiz
bere soinuez eta tankeraz beharria perekatzen duen:

Lan-lan-lan
laran, laran, laran, lan, lan.
Lan-lan-lan
laran, laran, lan, lan.

Trikiti-trikiti-trikiti-tin
trikiti, trikiti-trikiti-tton!

Kilixki-kalaxka gehientsuak lotzen zaizkie zerbait erran

nahi duten hitz batzueri. Haurrek beren berex-kantuetan maiz darabilte modu hori:

Harriola, marriola, kin-kuan-kin,
portan zela, portan min,
segera, megera,
kiru, karum, pek!

Bertze kantu batzuetan ere gerta ditake holakorik:

Horien bien ezteietara
Erregea zaldiz heldu da,
rrau, rrau, rra,
rrau, rrau, rra,
Ezpata gerrian, rrau, rrau, rra!

Ni hiltzen naizenean,
trala, tralala, lala-la...

Donostiako iru damatxo
Erreteriyen dendari:
josten ere badakite, baña
ardoa eraten obeki,
eta kriskitin, kraskitin
arrosa klabelin,
ardoa eraten obeki.

* * *

Hain zuzen, kantua da gure herri-literaturaren apaintzale lehena. Zonbait mila badira bildurik. Heien bila ibili diren musikazale suharrenak izan dira Salaberry Maulekoa, Charles Bordes, J. Barbier, bainan oroz gainetik Aita Donostia eta Azkue.

Euskal-kantuak zonbat diren orotarar, ez guri galda. Bada sehaska-kantu, haur-kantu, dantza-kantu, eske-kantu, amodio-

kantu, eztei-kantu, *deitore-kantu, laneko kantu, soldadu-kantu, mariñel-kantu, ostatu-kantu, pilotari-kantu, herriaren aldeko kantu, alegia-kantu, irri-kantu, laudorio-kantu, *mendekio-kantu, jendetasun-kantu... Badira alegerak eta trixteak; badira hunkigarriak, ederrak eta pollitak; badira *entrabaleko hainitz, eta zenbait bakar gaixto eta xikinak. Mota bakotzak hartze luke ikerpen berezi bat.

Euskaldunek koplaka neurtzen dute olerkia, eta ez erdal-dunek bezala neurtizka. Bertsu edo bertso hitza bera neurtitz moltzoa zaie, puntu edo rima bera duten ber.

Neurtitzaren legeak ez dira hertsiak. Ez dira konda bokalen azentua, ez labur-luzetasunak. Hiatoen axolarik ez. Dieresi, sineresi, elisioak behar arau baizik ez dira erabiltzen. Musikak matatzen ditu tankerak eta silaben kondua. Izaitez, hogeit bat neurtitz mota baditugu (luzeenak 18 silaba), eta dotzena bat bertsu mota (luzeenak bederatzi puntu).

* * *

Bertsu *zaharrenek* badute beren *begitarte berèzia: itxurapenak errex, bizi eta motz; ele alfer guti, lokarri guti: ideiak hitz-erdika erranak, *aieruz esandakoak, entzuleari utziz heien ikur sakonaren asmatzeko atsegina, sendimenduzko logika bati esker. Adibidez:

Halzak ez dik bihotzik,
Ez gaztanberak ezurrik:
Enian uste erraiten ziela
aitunen semek gezurrik...

Etxian eder gerrena...
Etxekandere lerdena,
Zure erriko erraztun hortaz
eros niro Baiona.

Eder zeruan izarra,
errekaldeen lizarra...
Etxe ontako nagusi jaunak
urre gorritz du bizarra.

Bertsolaritza

Bertsolariak zonbaitek aipatu dituzte nasaiki eta *ximenki. Luma puntarat heldu zaizkigu Lekuona, Iturriague, Zabala eta Onaindia jaunen izenak.

Lauek erakutsi daukute ahotik hortzerat bertsu kantatzeko ohidura munduko lau hegaletan hedatua zela lehenago. Baina leku gehienetan galdu da, guk zorionez oraino atxikitzen dugularik.

Egia erran, ez da nor nahi bertsolari jartzen ahal: bertsolari-gaiak behar du ausartzia frango, jendearen heraberik ez, gogomihia zalu, hitz hainitz ikasia, idurimena aberats, boza argi eta azkar, zentzu eta oharpen erneak, bai eta kantari dohain zerbait.

Baitezpada bertso batean ez da behar poterik. Poto egitea da bertso berean hitz bat bi aldiz erabiltzea, ez bakarrik puntuetan, baina nun nahi. Adibidez, Domingo Kanpaña-ri bota bertsoak lege hori hausten du, lau aldiz *mando* dakarrelakotz:

Mando baten gañan Domingo Kanpaña,
ez dijoa utsikan mando orren gaña.
Azpian dijoana mandoa da, baña
gañekoa ere, bada azpikoa aña:
mando baten gañan bestia, alajaña.

Bixtan da goraxeago aipatu ditugun euskal neurtitzeri emanak zaizkien errextasunak, bertsolaritzan ere *haizu direla. Baina bertsularia ez da bakarrik bere hitzen jabe: derabilan musika ere guti edo asko molda dezake gogoratu hitzekin uztar dadin. Adibidez: silaba baten orde biga heldu bazaizko burura, bi kortxea

emanen ditu kantatzean beltz baten lekuan: silaba bat eskas balu, alderantziz.

Halere joko bihurria da tipus-tapas bertsu baten ateratzea. Teknika berezi bat galdatzen du.

Emán dezagun Mattin eta Xalbador buruz-buru ari direla, Mattin alegia laborari, Xalbador deputatu. Luzaz zoin bere bizi-bidearen alde ari izanik, Mattinek behar du bertsu batez auzia *trenkatu.

Berehala pentsatzen du, bakoitza bere hartan egoitea dela hoberena. Azken hitzak gogoan ditu:

Ni laborari nago, zaude deputatu

Idea hori haatik polliki erakartzekoa da, bi ofizioen abantailak aitortuz:

Zure ohore hoiek enaute tentatu
gure lur-lanak ere bereak baditu.

Bainan zertako ez has jendetasun hitz batez? Eta huna bertsoa:

Adixkide maitea, ez otoi gaitzitu:
Zure ohore hoiek enaute tentatu:
gure lur-lanak ere bereak baditu.
Ni laborari nago, zaude deputatu!

Ikusten den bezala, azken neurtitzak *manatu ditu bertze puntuak, eta bertze ideiak ere.

Ez da haratik ez hunatik, inomine batean lan horren egiteko, gogoaren mekanikak behar du ongi olioztatua!

Holako kasuan Ligueix batek bertzela itzulikatuko zuen *berseta*:

Ekiak argitzen dü zelütik bazterra,
Liliak alageraz ezarten alorra.
Nik heben arrapizten düdalarik lürra,
Zü goiti deputatü zuaza Parisera.

Ziberotarrek ideiak iduripenez estaltzen dituzte, bertsuaren betetzeko, ez baitira beti gaizkiago ateratzen.

Gaiez ez du balio mintzatzea: erran ditake zer nahitaz artzen direla gure bertsolariak, baina beren jakitatearen mugetan.

* * *

Bertso-paperen ontzaileak bertzen teknikaz ber-beraz baliatzen dira. Bainan badute astia, eta gogoeta egon ditazke hitz egokia edo neurri xuxena atxeman arte.

Ez uste izan halare tipus-tapas artzaileen heinerat heldu diren baitezpada. Ezagutu ditugu bertsolari batzu, luma eskuan biziki ahul zirenak; baina, aditzaleen aintzinean, sukar batek harturik, *pindarka botatzen baitzautzueten bertsoa, xuxen eta bizi-bizia.

* * *

Bertze bertso mota zonbait aipa ditzagun laburzki. Gehienetan trufa edo *murrika dakarkete.

Trikiti-kopla, motz-motza, zirikatzailea:

Ai mutil anka luze,
zozo-armario:
gantzonzillo-borlea
bernatik dario.

Xarnegu-kopla, mintzairak nahasten zaizkuna. Huna Etchahun Barkoxe-ren etsenplu bat:

Sed libera nos a malo, sit nomen Domini.
Vamos a cantar un canto para divertir.
Yan dögünaz gerozti xahalki huneti.
Eta edan ardua Jüranzunekoti.
chantons, mes chers amis,
je suis content pardi,
Trinquan d'aquest bun bi.
Eta dezagün kanta kantore berri.

Elgarri lotuak dira: latina, española, frantsesa, kaskoina eta euskara.

Gehienetan bi mintzaire dira bakarrik nahasten:
Eskuara eta frantsesa:

Bettiri Uhartekoa, ah qu'il était bon chasseur!
Erbi txar bat atxeman du sasi batian par bonheur.

Euskara eta española:

Por andar con las rubias
emen nau galduta
como los solterones
geldituz sobrauta...

Euskara eta inglesa:

Today-ko neskati
jasten da pretty,
powder ipiñi eta
enseguida all ready
Side-walk-ien pasatzen dan
people guztiari
begia giñatu eta
come on right in, honey...

Jostatzeko, *fatrasia*-k ere egiten dira, buru-buztanik gabeko bertsu errebesak:

Entzun nezazu, Frederik!
amets berdea bederik,
Arrosa tuntun gaberik,
lurra zeruan osorik...

Xuberotarrek, ardi zain daudelarik mendian, elgar *laidos-
tatzen dute, irri-egiteko, bota-erreferaka: zer nahi erranikan ere
legea da ez samurtzeko. Adibidez:

Pettek

Sagartzian, sagar eijer,
Liliak, üsü arroser;
Asto-errua, hire ezpainer.
Xikito!

Jüsefek

Karesa, zamari hunentako,
hitz goxo zentzüdünentako
Orrua dena horetako.
Xikito!

Ikusten ahal du irakurleak, bertsu mota hau hiru pontukoa
dela eta beti *xikito* hitz berarekin bururatzen dela. *Josteta hori
deitzen dute *xikito*-ka artzea.

Herri-teatroa

Teatro xumea: Teatroa, biziaren itxura eta *ihakina den ber,
laket zaio herriari. Jende xeheak haalik ez du berenaz bakan
baizik emankizun handietarat jo egiten; aski zaizko ager-aldi
xumeak.

Asko kantuk, beren elgar-hizketekin, antzerki-puska batzu badirudite, eta bertularien arteko saio hainitzek ere bai.

Are gehiago, naski, bertze josketa zonbaitek.

Itzal-xinuz (*ombres chinoises*) edo panpina-mugimenduz (*marionnettes*), ume ginelarik, gure *amasa eta izabek komedixka pollitik ateratzen zaukuten. Adibidez:

- Itsu trixte bat nuzu,
Eske nabila ikaran.
Nitaz urrikal zaitze.
—Ongi etorri zarela!
Olagaraian zare!
Nahuzu ogi puska bat?
—Milesker, enuzu gose,
ederki askaldua nuzu!
—Nahuzu baso bat arno?
—Milesker, enuzu egarri,
Egun ez da hain bero.
—Nahuzu arropa zerbait?
—Milesker, badut ongi bestitzekoa.
—Nahuzu zerbait diru?
—Ya! baditut ehun mila libera.
—Zer nahuzu ba, ixtant baten aterbe?
—Jauregi eder bat badut, anderea.
—Zertara heldu zare bada: ez naiz itsu sendatzaile.
—Huna egia, andere gaixoa:
enaiz batere itsua:
Gazteluberriko primua naiz,
itsutuki zaitut maite
eta ezkontzaz zure galdatzeko
hunar at jin naiz eskale.

*Liho-kardatze eta arto-xuritzetan ere, jostatzeko egiten ziren alegiazko *aharrak, ala bertsuz, ala hitz laxoz; gaia zer nahitaz hartzen zuten: doteaz, gizon-gai baten hautatzeaz, etxeko lanez, moda berriez. Elgar-hizketa horiek Baxenabarren *disputak*

deitzen zituzten, Nafarroan *errandoak*, Ataunen *Zelemín ta Zelemon*:

Ama, begira zazu
leihotik kanpora

hitzeekin hasten den kantuak *disputa* hoién aire zaharra dauka, bainan huntan amak ez dio alabari erasiarik egiten.

Xaribari edo galarrotsetan, *suiet*-en etxe bazterretan barrea-tuak ziren arrabost-egilek "errak, to"-ka salatzen zituzten *gaz-tigatu nahi omen zituzten gertakariak. Adibidez

—Errak, to!
—Zer duk, to?
—Badakika berri?
—Zer berri?
—Gurdoenean oiloa nausitu zaiola oilarrari?
—Zer ari dituk? Oilarra erruten?
—Ez oraino, bainan oiloa kukuruku egiten!
—Josepe dea oilotu?
—Ba eta Margaita oilartu...
—Berri horren ohoretan
jo adarra errepikan
klan! klan! klan!

—Errak, to!
—Zer duk, to?
—Jakín duka berri?
—Zer berri?
—Josepek salda galdatu,
Ogalea ukan baitu...
—Ez dea errebelatu?
—kontentu zukan, kontentu!
—Arnoak ez bide ziók burua berotu,
—Ez kafeak ere zainak altxatu...

—Berri hoiien ohoretan
jo adarra errepikan
klan! klan! klan!

Eta gisa hortan jarraikitzen ziren gauak gauari, elgar-hitz eta arrabots, *tuta, zartain, eltze-gogor, oihu, irri-karkaila.

Alegiazko auziak ere baziren tobera-mustretan, ihaurterietan, kabalkada batzuetan: zombait aldiz frango ausartak ziren, baina batzuetan ez zuten izpiritu eskasik. Ikus *San Pantzar*-en jujamen-dua (*Gure Almanaka*, 1972, p. 52-55).

Pastoralez; Ordu bide dugu Xubero-ko pastoralen aipatzea. Aspaldikoak dira. Oihenart-ek dio, hamaseigarren mende erdit-sutan Etchegaray delako batek Donibane Garazin *Artzain gorria* agerrerazi zuela.

Bainan eskuz eginikako berrehun bat kopia gelditzen baitira han-hemenka barreaturik, zaharrenak XVIII. mendekoak ditugu, ez dakigularik xuxen badiren hetan aintzinagoetarik aldatuak.

Hérelle jaunari esker, hainitz gauza ikas ditake pastoralen teknikaz; baina dugun erran *deplauki textoak berak ezin ukan dituela funski ikertu, ez zakielakotz eskuara izpirik eta laguntzalek axaleko lan ahula egin ziotelakotz, jakingabez eta lasterregiz. Baditake hor astia lukenarentzat iker-sail bat baliosa.

Pastoral-gaiak azken denbora hautaraino ezar zitazken sei taldetan: 1. Testament zaharra; 2. Testament berria; 3. Sainduen bizitzak; 4. Klasiko zaharrak; 5. Ipuinak; 6. Kondaira. Berrikitan sartu dira Euskal-suiet batzu, orai arte ez zelarik hoietarik *bihi bat ere ageri: Santxo azkarra, Etchahun, Berterretxe, Xikito, De Troisville, eta abar.

Arrotzen ganik hoinbertze mailegatzea eskualtzale zombaitek gaitzetsi dute aberzaletasun-eskas bat bezala: guk nahiago dugu hortan ederretsi Xuberotarren idekidura.

Zer nahi den, pastoral baten *eraikidura arras bakuna da.

Hastean, *aitzinperediku* batean, *ekaiaren laburpen bat, aditzalek konprenitzeko gisan zer gertatuko den. Gero xehe-xehea gauzak heldu dira neholako batasunik gabe, noizetik noizera artetik satandantza batzu edo ibilketa batzu emanaz. Bururatzean, *azken peredikia*, ikusien bildumarekin, entzulek ez ahanzteko.

Oro bi puntuko bertsu edo *breset* libroz erranak dira, mintzaire hanpatu batean, erdarazko hitzen beldurrik gabe, iduri eta arrozkeria horiek edertzen baizik ez dutela.

Funtsak erakusten du beti ongiak gaizkiarekin deraman gudua, nahiz azkenean, Jainkoa lagun, onak irabazle ateratzen diren. Erran gabea, tzarrek debruak dituzte *sustatzaile.

Pastoraletan agertzen dira segur handi-mandiak: errege, printze, aita saindu, apezpiku; bainan berdin ermita, eskale, artzain, eta heien inguruan aingeru eta satan-kume zombait. Nahiz maiz aipatua den, Jainkoa ez da behin ere ikusten, ez eta Jesus-en begitartea ere.

Teknikaz zer erranen dugu?

Antzoki edo teatro-lekua bakun-bakuna dela, taulada huts bat, bazterrik gabea. Zolan oihal handi bat, eskuin gaixtoen atea, ezker onena. Erdian arte bat, zombait aldiz aita-saindu eta aingueruentzat. Zombait *kadira. Oihalaren gain-aldean, soinulariak.

Ohar huni: gaixtoek ez dute nehun urdinik, ez eta onek gorririk. Gaixtoak sartzen edo ateratzen direnean, musika berezi batek laguntzen ditu; onak ere berenaz lagunduak dira.

Urratsak ez dira oro berdin: erregek badute beren liturgia, bertzek berena, eta onak ala gaixtoak diren arabera, oraino jestuak bertzelakutzen dira.

Guduak jeneralen artean iragaiten dira. Bi lerrotan emaiten dira elgarri buruz. Hasten dira desafioka, laidoka, eta "batalla"ren airea musikariek botatzean, gerlariek dantzatzen dute beren gudua, elgarren ezpatak tankeran joz.

Antzoki lau kantoinetan zaintzaleak baitira armatuak, batek

airean *zizpatiro bat emaiten duenean, neskatxa zerbitzari batek oihal bat hedatzen dio lurrian, hilen den soldaduari, erortzean, ez dakizkion bere arropa baliosak fundi.

Guduak *ardura handizki apailatuak dira. Etsaiak zaldiz heldu dira antzoki ingururat, eta taulen gainekoak kanpokoekin badituzte elgar-hizketak.

Bertze hainitz berezitasun balitazke altxatzeko, bainan biziki luze loake. Pastoralen ikusteko tirria piztu baginu irakurlen baitan, ez lizateke gaizki!

* * *

Xuberoan izan dituzte lehenago *irri-egiteko* pastoral batzu. Eraikidura bertsua dute, bainan funtsa arras bertzelakoa. Gaiak biziki ausartak, mintzairia gordinskoa, han-hemenka zikina ere. *Ez da harritzeko aspaldiskotan bai prefetek, bai auzapezek, debekatuak baitituzte. Hogei-ta-hiru kopia zahar gelditzen dira, linguistikari buruz ikertu behar litazkenak. Euskara hobea dute pastoral *handiusek baino, nahiz arruntagoa.

* * *

Arrasateko Gabon-antzerkia: Orok badakigu pastoralak Erdiaroko *ministerio* deitu eliza-antzerkien ondokoak direla. Teatro hori Europako eskualde gehienetan bizi izan da, gero eta pasarte tzarrez nahastekatuago. Apezek eta herrietako buruzagiek kondenaturik eta ohidurak galdurik, emeki-emeki iraungi da, doi-doia han-hemenka zerbait orroitzapen utziz, Oberammegauen edo Xuberon bezala.

Euskal-herrian pastorelez kanpo badea haren *hatzik? Iduri luke baietz. Hemezortzigarren mendean, Barrutia izeneko eskribau arabar batek (1682-1759) Arrasaten ondu zuen euskeraz "Acto

para la Noche Buena". Izena erdaraz ukaiteak ez gaitu harritu behar. Pastoral batzuek ere frantsesezko titulua dakarte: *Les quatre fils Aymon, La Prise de Constantinople* eta holako.

Gaia Jesusen sortzea du, beraz elizakoa: bainan Ebanjelioari josiak zaizko, hein bat polliki, hameka xehetasun alai edo hungigarri, dantzak eta kantuak barne. Gainera, harat hunat garamatza erdi-komedia horrek, Betlemetik Arrasaterat, Herodesen urtetarik Fernando gogo-ilunaren egunetarat. Oro abilki antolatuak eta urtuak daude, maisu-lan batean bezala.

Barrutiak, euskera-mordoiloa erabilia gatik, (zonbaitek orduan uste baitzuten espñola euskeratik sortua zela!) obra ederresgarria egin du, Pastoraleri nausi dena.

Nekez sinesteko zaiku, antzerki bikain hori —euskerazko hoberenarentzat jo baitute norbaitzuk— bet-beran sortu dela aita-amarik gabe. Badu kanore, giro hartan, aintzinekoak ukan zituela, ahulagoak segurki, bainan errege-bidea nolazpait ideki ziotenak.

FUNTSEZKOAK

Orai arte aipatu dugun herri-literatura gehiena jostakina zen, gai handiak zerabiltzalarik ere.

Bi hitz labur bederen hartze dituzkete funts gehiagoko gure kantika, hitzaldi eta gutunek.

Ez dituztea ondorio baliosenak ukan, gure arbasoen kulturari eta mintzairari buruz?

Eskual *kantikek* girixtinoen arimak hazi dituzte. Hiru mendez obra ttipi hoi biltzale hainitz izan da, zor handienak dauzkiegularik Inchauspe, Hiriart-Makola, Daranatz, Laharrague, Donostia, Vegel eta gain-gainetik Gabriel Lerxundi aita beneditanoari.

Abesti horiek, nahiz bertze hizkuntzetakoen gai eta sendimendu

ber-berak dariozketen, nortasun bat derakuste: ez dute heiek bezanbat *hasperen eta *zinkulina guri botatzen. Gizonki, neurri gehiago dadukate, fedezko erakaspena lirika-oldarrari nausitzen zaiolarik. Ez dituzte zainak *inarrosten, ez nigarrak jauzarazten, bainan gogo argitzen, nahia oneratzten, bihotza *izariz hunkitzen.

Banago aski hurbildik izan diren ikertuak.

Bainan gorago ezar ginezazke gure lehenagoko apezten *predikuak*.

Heien igandetako hitz-ñoa bazen zerbait gure herrietan; as-teko solas-bide bikainetarik bat. Haurrak elizatik sartzean, galde egiten zitzairen zer erran zuen jaun erretorak; gizonek ostatuan, haren piko eta erasiak onesten edo gaitzesten zituzten, bi baso arnoren artetik; iturrian eta *lats-harrian emaztek ere aipu zituzten haren ele pollit edo biperdunak.

Alabainan prediku hoitan aditzalek jende xehearen hizkuntza bera entzuten zuten, apurño bat apailatua naski, bainan bere egun guzietako gatz eta lilurez, ez den *mendrenik gabetua.

Duela hogeita-hamabi urte dei bat egin ginuen, ez zenez norbait hasiko apeztegi apeztegi ibiltzen, apez *zenduen prediku-keta. Izan omen zen abiadura zerbait, bainan ez zuen iraun. Orai berriki atseginez irakurri dugu xede horri lotzekotan zaizkola gazte zombait. Jainkoak lagunt ditzala. Ezen, gure iduriko, lan horrek abantail gehiago derakarguke, ipuin eta kantuek baino, ez balitz ere hizkuntza-jakitategaren onetan baizik.

Elizaz kanpoko *hitzaldiak* askoz bakanagoak izan dira. Bizkitartean aspaldi danik baliatu dituzte bai politika-biltzarretan, bai euskaltzaleen bilkuretan, bai laborarien arteko solas-aldietan; eta —hau berria dugu— irratietan.

Hoitaz ere uste dugu on lizatekela *arta hartzea.

Euskaldunen arteko *gutunak* ez dira literatura handian sartzen. Zorigaitzez hainitzek ez dute erdaraz baizik idazten, nahiz

azken denbora hautan emendatzen ari diren euskerazko gutun-egileak. Konprenitu duteke, gure etxeko mintzaireak beduela, guretzat segurik, Axular handiak aipu zuen, eta erdarek ez duten "zapora" edo "gozo" bat.

EUSKAL LITERATURA LANDUA

Aita Luis Villasante, O.F.M.

Ba ote dugu literatura landurik?

Euskeraz literatura landurik ote den galdetu beharko litzake, hasteko. Izan ere, askok uste du euskeraz ez dela behin ere literaturarik egin. Maila landu hortakorik ez behintzat.

Hori egia ez dela jakiteko, gaur eginik dauden Euskal Literaturaren Historiak, Antologiak eta abar irakurtzea aski da.

Literatura hori guti ezaguna dela, eta orduan, askorentzat, ez balitz bezala dela? Bai, baina hori beste kontu bat da. Gutti ezaguna herrikoen artean, eta gutiago oraindik atzerrikoetan.

Behin baino gehiagotan kontatu dut neuri inoiz gertatua. Donostian zen. Autobus batean sartu nintzen, Nafarroako herri batetara joateko. Esertokian eseri eta liburu bat irakurtzen nuen. Halako batean, ene aldameneko jaun batek, itsumustuan, hauxe esaten dit:

—Perdone, Padre, pero es que no puedo aguantar.

—Pues ¿qué le pasa a Vd.?

—¿Dónde estamos? Entré en este auto, y todos hablan vascuence. Vd. saca un libro para leer, y también el libro está en vascuence. Yo siempre había oído que los catalanes han tenido un Verdaguer y los gallegos

una Rosalía de Castro, pero que los vascos no han tenido escritores ni libros en vascuence.

—Pues ya ve Vd. que no le han informado bien...

Eta hala aritu ginen biok euskal literaturaz mintzatzen.

Egia hauxe da. Gutu ezaguna dela literatura hori, are geron artean ere.

Hori zergatik gertatzen den, ez da zaila argitzen. Eskola arazoa eta irakaskintza arazoa gaizki planteatua eta gaizki soluzionatua izan da Euskal Herrian. Gure herriaren hizkuntzak ez du sarrerarik eskolan. Euskaldunak euskeraz irakurtzen eta idazten non ikasi ez daduka. Eta beraz, hizkuntza hortan idatzirik denaren berri jakiteko biderik ere ez.

Euskal literatura, oso ugaria eta zahar-zaharra ere ez dela, aitortu behar da. Literario balio aldetik maila gorenekoa ere ez. Baina bere ttikian baditu zenbait pitxi, zenbait obra estimagarri.

Gure eskasia hau esplikatzeko, kontuan eduki behar da Euskal Herria hizkuntza ttiki eta berezi baten jabe dela. Eta hain zuzen, guztiz bestelakoa eta inguruko hizkuntzak ez bezalakoa delako, oso beranduraino ez da landua izan. Horrek ez gaitu gehiegi harritu behar, European mendez-mende gauzak ekarri duten martxa ikusiz gero. Europako mendebalean latina izan da hizkuntza landu bakarra, eta geroago latinaren kume diren hizkuntzak. Euskerak mirakuiluzki bizirik iraun du Europako mendebal parte hontan, baina bere basa itxuran, herri xumearen hizkera bezala (nekazari, artzain, arrantzale eta olagizonena).

Bazter-herria

Tierra apartada deitzen zitzaion Euskal Herriari. Hots, bere gisa edo moldera bizi den herria, bazter-herria, besteetarik lekutua (ez geografiaz, baina bai izaeraz, mintzoaz, ohiturez eta aparteko giroagatik).

Joan mendeetan kultura eta letrek halako loraldi bikaina ezagutu duten lekuen artean, alferrik bilatuko dugu Euskal Herria. Pixka bat bazter-alde edo zoko egiten zen gure herria egintza hoietaz arduratzen zirenentzat.

Aita Larramendik XVIII. mendean Aita Berthier-i Loiolako bakartadetik karta bat egiten dio, eta hara zer dioen bertan:

...este país infeliz, donde apenas hay más libros que los de San Antonio, en montes, prados, valles, bosques, ríos y precipicios (**Corografía**-z batean agertu zen eskutitz hau Barcelona-n 1882. urtean; ikus 282 orrialdea).

Edozeinek daki San Antonio Abadearen imajinetan zein liburu ageri den: txerrikumea...

Liburu eta holakoren bila joateko ez zen, bada, toki aproposa Euskal Herria.

Horrek ez du esan nahi gure artean jende ikasirik eta buruz jantzirik ez zela. Bai, bazen. Baina beren ikaste guztiak latinez edo beste erderetan egin ohi zituzten. Eta euskeraz mintzatzen jakinarren, zerbait idatzi behar zutenean, hizkuntza landu horietan egiten zuten.

Era horretara, halako bereizte bat, leize moduko bat egon da jende ikasi eta herriaren artean, hizkuntza alde horretatik. Jende ikasia, handikiak eta gizarte goi mailakoak erdalzale, eta herri xehe arrunta, euskaldun. Izan dira, noski, hontan ere espezioak. Esan nahi dut, kultoen artean ere euskeraren balioa eta harrokeria sentitu eta aldarrikatu dutenak ez dira falta izan (hor daude, esate baterako, euskeraren apologistak). Baina gehienetan, leize hori egon dela, ezin da ukatu.

Hori egia izanik ere, ez da hortik segitzen gure aurrekoak guztiz basatiak, traketsak edo bertute gabeak zirela. Ez ditzagun gauzak nahas. Norbaitek esan zuen eskolak zabaltzen diren neurrian, presondegiak itsi egiten direla; baina hori ere egia ez izan.

Letrentzat oso giro onik egon ezta ere, pixkaka kristautasunak erro sakonak egin ditu gure herrian, eta hau, gizarte bertute askoren lur hautatua izan da. Hala aitortzen du Humboldt-ek Murga-ri egindako eskutitzean (*Axular* ene liburuan dator aitorrera eder hori, 87 or.).

Mendeak ere bana-banaka aztertu beharko lirake, zehazkiago mintzatzeko. Palatinadoko Enperadore batek (Federiko II.ak), bere gaztaroan (1538. urtean) osterata bat egin zuen Toledo-ra. Bide hartako xehetasunak idatzirik daude. San Adriango haitzulora heltzeko gorriak pasatu behar izan zituzten, elur eta bisutsagatik (negua zen). Kontakizun honetan Segura eta segurarrak ez dira oso toki onean gelditzen. (*Una pequeña odisea navideña*; Caja de Ahorros Municipal de Vitoria, 1971).

"Literatura" hitzaren zabalgoa

Euskeraz guti idatzi dela badakigu iadanik. Eta idatzi den gutzia, *Literatura* ote da? *Literatura* hitza nola hartzen den. *Literatura*, *littera*-tik dator (letratik, alegia). Hitz honek, ordea, enplegu bat baino gehiago du. *Lengua literaria* esaten denean, idazteko erabiltzen den hizkera mota esan nahi da. Eta sentidu zabal baina jator batean, idazten den oro, literatura da. Baina beste sentidu hertsia eta berezi batean, literatura, kreaio lanei deitzen zaie, nahiz hitz lauz nahiz poesiaz egiten diren kreaio lanci.

Egia da euskal literaturaren historiaz idatzi dugunok, orotarik sartu izan dugula, hots, literatura hitza sentidu zabalean hartu izan dugula. Baina horrek ez du esan nahi bata bestetik bi sentidu horiek bereizten ez dakigula.

Izan ditugu geure arrazoiak hitz honen sentidu zabalari lotzeko. Izan ere, bere hedadura guztian harturik ere, urri xamar da gure literatura. Baina batez ere, gaur gure hizkuntzak dituen

premiei eta behar-izanei atarramendu on bat bilatzeko, gure idazle zaharren ezagutzeak asko lagun dezaiguke. Horregatik, idatzi den oro edo gehiena, ezagutzera ematea komeni zen.

Gure idazle zaharretan bada anitz, literario aldetik (kreazio aldetik) begiratuta, oso balio ttikikoak edo beharbada ezteusak direnak. Baina horiek berberak, sarritan, hizkuntza maisu bezala oso jatorrak izan daitezke. Eta besterik ez bada, lekuko batzuk dira. Alderdi hau, gaur gauden egoeran, ez da bat ere gutiestekoa. Exenplu bat jar dezadan: literato edo poeta bezala, Lizardi maila goi batean jartzekoa da. Agirre Asteasukoa, berriz, elerti alde hortatik, hutsaren pareko da; baina hizkuntza maisu bezala, maila goi batean jartzekoa, Lizardi bera baino gorago, noski. Hontan ere ez ditzagun gauzak nahas.

Poesian landuago ikusten dugu euskera, prosan ez hainbeste. Eta prosa barruan sail batzuk izan dira gutiago edo gehiago landuak (behar hainbat landu denik ez dugunarren). Baditugu eremu batzuk ia bat ere urratu gabeak. Elaberria, teatroa eta periodismoa joan den mendean hasten dira, halako iraupen eta jarraitasun batekin, behintzat.

Elizari egin zaion salaketa

Joan mendeetako euskal literaturari gain begiratu bat botatzen badiogu, laster ohartzten gara gauza batez: literatura hori, neurri handi batean, elizgizonen obra dela. Trentoko Kontzilioak agindu zuen eliz predikuak herriko hizkuntzan egiteko. Eta dotrinak edo katiximak herriko hizkuntzetan argitaratzeko.

Orain ez gara ondo konturatzen, baina aro berri baten hasiera izan ziren agindu horiek. Protestanteek ere liturgia herriko hizkuntzan egiten zuten; eta Leizarragaren itzulpenak hortarako eginak dira.

Dena dela, Protestantismoari ateak itsi zitzaizkion. Baina

Trentoko Kontzilioak agindu zuena betetzea ere ez zen ondorio gabe izan Euskal Herriarentzat. Horra herri ttiki bat, hizkuntza berezi baten jabe dena. Kristau erlijioari buruzko jakintza latin eta griegoz emana zen baitipat. Latinaren kume diren hizkuntzetan ematea ez zen hain zaila. Baina euskeraz? Hizkuntza hau guztiz bestelakoa zen; basa itxuran zegoen, gainera, guztiz landugabea. Elizaren agindua beteko bazen, ordea, zerbait egin beharra zegoen, eta hala hasi ziren elizgizonak katiximak, predikugaiak, deboziziozko liburuak eta abar euskeraz ematen.

Gizarteko beste estamentuak lo zeuden bitartean, Eliza bakarrik mugitu zen. Nagiki hau ere, gure ustetan, baina mugitu zen, halere, eta eragin horri eskerrak sortu eta indartu zen euskal literaturaren abiadura. Hutsune handi eta nabari batzuekin, noski, elizgizonek eremu edo landa batzuk bakarrik landu bait zituzten. Baina idazlangintzako tresnaren oinarriak berek eman zizkiguten.

Jakina da zer salakuntza egin zaion gure egunetan Elizari, beronen euskal zaletasuna dela eta. Elizgizonei —esan ohi da—, herri xehea azpian edukitzeko, ongi baino hobekiago zetorkiela euskera. Berak bakarrik ziren trebe euskeraz idazten eta predikuak egiten. Herri xeheak euskera beste hizkuntzarik ez zekien bitartean, apaizek ematen zioten eskola besterik ezin jakin zezakeen. Horrexegatik landu omen dute apaizek euskera: herri xehea beti azpiko, beti beren mendean edukitzeko...

Murritzte eta sinplifikazio ikaragarriak egiten dira gauzak horrela ematean. Nolanahi ere, Elizaren eta euskeraren artean halako lokarri bat egon dela gure artean, ezin da ukatu. Eta Pastoral aldetik gauza begiratuta, apaiz bati baino gehiagori iruditut zaiola, herria, euskaldun huts izanik, gaur eguneko pentsakera eta ibilera makurretarik hobekiago gordeko zela, hori bai: hori pentsatu duenik izan da, noski. Horrela pentsatzen zutenak, eta pentsakera horren araura obratzen zutenak, ikuste laburretakoak zirela esan daiteke, agian, zeren, luzarora begiratuta, egoera

hori ezingo zen mantendu. Baina horrela obratzean ez ziren intenzio beltz makurrez ari, herriari beren ustez onena opa bait zioten.

Hauzi hau, gainera, Kondairaren argitan ikusi behar da. Erlijio eta politikaren kondizionamenduek izan dute hemen beren zer-ikusia. Edozeinek daki gure aroko gertakaririk handiena eta ondoriotsuena zein izan den: Frantziako Iraultza nagusi hura (1789). Iraultza hura burgesiaren lana izandu zen, ez herri xehearena. Iraultza hark gizonaren eskubideak, askatasuna eta abar aldarrikatzen zituen; baina beste aldetik zentralismorik gogorrena ezarri zuen; euskaldunen lege berezi guztiak *ezabatu zituen; frantsesa ez, beste hizkuntza guztiak Frantziatik *erauzi nahi zituen; kristau erlijioaren etsai amorratua bezala jokatu zen, ta abar.

Eta Frantziako jokaera hori bera zekarten Espainian Erreboluzio horren zale edo ondorengo bezala azaldu zirenek: liberalek.

Orduan, jakina, beste aldeko indarrak Karlismoa indartzera joan ziren: euskal zaletasuna, erlijio zaletasuna, fueroen aldeko indarra, ta abar.

*Bitaratze hori kondaira gertakarien ondorioa izan da, bada. Alde batetik: erdera eta zentralismoa maite zutenak, demokrazia zaleak, erlijioarentzat *higuina edo axolagabetasuna agertzen zutenak. Beste aldetik, berriz: euskera eta euskaldun fueroak maite zituztenak, erlijioari atxikiak, errejimen zaharraren alde zeudenak.

Gaur eguneon, zorionez, eskema hertsia horiek gaindituak direla uste dugu. Gaur badakigu euskera herri baten ondasuna dela, herri osoarena, alegia, eta ez duela talde bati edo alderdi bati loturik eta uztarturik egon behar.

Literatura euskalkitan zatikatua

Literatura hau euskalkitan banatua azaltzen da, gainera. Lapurditarra, Gipuzkoarra, Bizkaitarra eta Zuberoarra: horiek izan dira lau euskalki literarioak. Horietaz kanpo ere zerbait idatzi

da literario ez diren euskalkitan, baina lau tradizio horien barnean sartzen da gure literaturarik gehiena. Beraz, hizkera mota bat baino gehiago erabili da gure artean. Ortografian, gramatikan, hitzetan eta joskeran ez datoz beti bat hizkera horiek.

Hori zergatik horrela izan den, ez naiz ni hemen argitzen hasiko, baina dudarik gabe, historia gora-beherak dute hemen ere azken hitza. Euskaldunak beti zatikatuak bizi izan dira. Hara zer dioen Humboldt-ek:

Es, en efecto, bien extraño que la desgraciada nación vasca haya sido tan desgarrada, que se halle uno perplejo cuando quiere darle un nombre general. No hay, en efecto, ninguno que usen unánimemente los Franceses, Españoles y Alemanes (G. de Humboldt, **Correcciones y Adiciones**, RIEV XXIV, 462).

Euskalki bakoitzak bere tradizio ttikia sortu zuen, hango bereko aho hizkuntzari guti asko lotua.

Gainerakoan, honelako gertakariak ez dira gure artean bakarrik gertatu. Grezia zaharrean, adibidez, lehenik dialektuak landu ziren (eskualde bakoitzak berea), baina gero griego orokarra, arrunta, *koiné* izena duena, onartu zuten denek. Euskera batu edo orokar horren premia bizi-bizia nabari da gure egunotan. Euskal Herri guztirako balio lezakeen tresna bat, alegia, batez ere idazlanetan erabiltzekoa.

Euskal literatura zaharraren partizioa

Pixka bat konbenzionalki, hiru arotan egin daiteke literatura honen partizioa. Lehen aroa: Aita Larramendiren aurrekoa. Bigarrena: Larramendik bere eraginaz sortutako susper aldia. Hirugarrena: XIX. mendeko azken aldetik gure egunok arte. Gutti asko, atalgite hau Orixek egin zuenaz bat dator (Ikus honen "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra", *Euskal-Esnalea*-n 1927.

urtean agertua). Gauzak pixka bat sinplifikatuz, hiru eskualde, hiru gidari edo buruzagi, eta hiru mende jartzen ditu berak: Lapurdi, Gipuzkoa, Bizkaia; Axular, Larramendi, Sabino Arana; XVII. mendea, XVIII-XIX.ak, eta XX.a.

Bai. Gauzak handizka hartuz, horrelatsu izan dira. Xehetasunetan sartzen garenean, ordea, eskema hauek zehaztasun gutiz eginak direla ohartzen gara. Hala ere, neurri batean, lagun dezaigukete. Lapurdi aroa, esate baterako, ez da XVII. mendekoa bakarrik, orain arte dirauenez gero.

Bi Euskal Herriak (ipar aldekoa eta hego aldekoa), bakoitza bere bidetik, elkarren artean harreman handirik izan gabe, ibili direnez gero, hobe derizkiot bakoitzari dagokiona atal banatan emateari, eta mendez-mende izan diren idazlerik aipagarrienak aipatzeari. Hori bai, gehienetan, izenak aipatzeaz eta oharren bat edo beste eginez bukatuko da gure egitekoa, eman diguten lekuak ez bait du gehiagorako tarterik uzten.

XVI. mendea

Literaturagintzan Ipar aldeko Euskal Herria azaltzen zaigu aurrelari. Ia 250 urtetako bentaja daramakio hemengoari.

XVI. mendeak bi izen ospetsu utzi dizkigu: Detxepare eta Leizarraga.

Euskerazko lehen liburua *Detxepare*-k egin eta Lehetere-
ren laguntzaz Bordele-n 1545. urtean argitara zen. Titulua ere halakoxea du, *arranditsua (latinez): *Linguae Vasconum Primitiae*: Euskeraren lehen *zituak. Olerki liburua da, oso laburra (51 orrialde). Olerki horietarik batzuk aberkoiak dira, beste batzuei erlijio sentimendu sarkor eta bizi-bizia darie, beste batzuk, azkenik, erotiko samarrak ere bai. Nolanahi ere, Detxepare poeta handia dela, ezin uka daiteke. Gaur eguneon, Txertoa argitaldaria egin dako edizioari eskerrak, denon eskuetan dira Detxepare-ren

olerkiak, jatorrizko testuan eta gaztelaniazko eta frantsesezko itzulpenaz.

XVI. mendeko beste izen handia *Leizarraga* dugu. Kalbinista zen. Eta Nafarroako erreginarenekin aginduz, eta haren kontura, atera zituen hiru liburu 1571. urtean: *Testamentu Berria* osorik, *Kalendrer*a eta *ABC*. Itzulpenak dira liburuok. Hala ere, lan *eskerga burutu behar izan zuen Leizarragak bere obra guzti hau euskeraren orduko egoeran egin ahal izateko. (Ez zen bakarrik aritu. Laguntzaileak ere izan zituen). Beskoitzeko herrian gorazarre bat egin zion Euskaltzaindiak 1971. urtean. Egileari eta haren lanei buruz berri franko da egun hartako hitzaldietan (Ikus *Euskera*, 1972, 127-154).

Bi *erraldoi bakarti bezala azaltzen zaizkigu Detxepare eta Leizarraga XVI. mendean. Eta bion obra baliotsua izanarren, hurrengo mendeetan baztertua izan zen. Bata protestantea zelako eta besteak, ustez, lasaikeriari ateak zabaltzen zizkiolako, biak zokoratuak izan ziren. Detxepare-ren liburua, batez ere, betiko galtzeko zorian egon da. Ale bat bakarra salbatu zen hondamenditik, eta horri eskerrak egin ahal izan dira gure mendeko birargitalpenak.

XVII. mendea

XVII. mendeak euskal literaturaren loraldi edo susperraldi dexente bat ezagutu zuen Ipar Euskal Herrian. Susperraldi honen ardatza Lapurdiko eskualdean kokatu behar da. Marinel herria dugu Lapurdí, itsas bazterreko probintzia. Eta garai hartan euskaldun arrantzaleek Terranovarainoko harat-hunatak egiten zituzten. Donibane Lohitzun eta Ziburu ziren Lapurdiko porturik handienak, eta hain zuzen, Donibaneko ingurua dugu literatura honen sorlekua eta zentrua.

Bertrand de Etxauz apezpikuak fraide komenturik jarri zuen

Donibanen (1612), eta handik guti, laguntalde bat ikusten dugu, apaiz, fraide eta midiku batzuek osatua, eta horiek, batak bestea zirikatuz eta berotuz, euskeraz idaztera eta liburuak argitaratzera jartzen dira. Libururik gehienek erlijio gaiak erabiltzen dituzte. Bada haatik itsasoko nabigazioneaz eta *al baiteruen ofizioaz ere zerbait.

Maila behezagoko idazleen izenak ixilduz, baditugu bi guztiz aipagarri eta gogoangarriak: Etxeberri Ziburukoa eta Axular. Eta beste bi, gutiesteko ez direnak: Oihenart eta Tartas.

Etxeberri Ziburukoak hiru liburu utzi zizkigun, bertsotan eginak: *Manual Debozinezkoa*, *Noelak* (argitara berri da hau Donostian), eta *Elizara erabiltzeko liburua*. Orain bitxi iruditzen bazaigu ere, otoitzak eta Jainkoarekin egiteko solasak bertsotan ematen dizkigu Etxeberri. Eta arrazoi hau ematen du hortarako: euskaldunek izugarritzko zaletasuna dutela bertsoetarako.

Beste izena *Axular* dugu, Sara-ko erretorea, Urdazubi-n jaioa, Salamancako Unibertsidadean goi mailako eskolak eginak (Etxeberri ere ez zen norrahi, "Doctor Theologus" deitzen bait diote bere lagunek).

Axular-ek *Gero* liburua eman zigun, euskeraz egundaino egin den libururik famatuena. 1643. urtean argitara zen. Arnasa handiko liburua, prosa ongi *trenpatua eta trebatua darabil. Bekatariak eta kristau nagiak Jainkoagana ekarri nahi ditu Axular-ek, eta hortarako direnak eta ez direnak aipatuko dizkizu, jakituria zabal eta harrigarri baten agiriak emanez. Nahiz eta liburua guztiz orijinala ez izan, euskaldunari begira eginak izan da. Euskeraren baliamentuak ongi ezagutzen ditu egileak, eta obra honetan argitara bezala eman ditu. Hildo sakona utziko du Axular-ek, batez ere Lapurdin. Beste nonbaiten mintzatu naiz luze Axular-ek, eta ez noa gauza berak berriz esatera (*Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, Jakin, Arantzazu, 1972).

Ailande Oihenart zuberoharra dugu mende hontako beste idazle landu bat. Gizon eskolatua, kulturaz jantzia, liburu jakintsuen egilea. Kondairagile eta jurista bezala baditu liburuak latinez eginak. Euskeraz, berriz, *Gaztaroko neurtitzak eta atsotitzak*. Oihenart-en euskera irakurtzean, bere sasoinetik kanpoan dabilen idazlea iruditzen zaizu, askotan: hain da garbizale eta purista! Aita Olabideren tankera hartzen zaiola esan du inoiz Mitxelenak. Olerkari gisa, ordea, ez du benetazko poeta baten indar sarkor hori, Detxepare-k bezala.

Tartas-ek, azkenik, Behe Nafarroako euskeraz idatzi zuen. Haren liburuetan bada, bat, nahiko bitxia, baina bai orijinala eta interesgarria ere: *Onsa hilzeko Bidia*, 1666. Darricarrère jaunak 1911. urtean, liburu honen bir-argitalpena egin zuen RIEVen; baina oraindik ez da aski istudiatua izan.

XVIII. mendea

XVIII. mendean ere Ipar Euskal Herriak idazle lerrokada eskaintzen digu, baina gehienetan itzulariak edo orijinalitate ttikikoak dira: *Xurio*, *Haraneder*, *Larregi*, *Baratziart*. Hizkuntza aldetik, ordea, balio handikoak dira idazle hauek ere.

Marinel herria zela Lapurdi esan dugu. Baina ekonomi alde-tik halako *beheititze bat ezagutu zuen mende honetan, Terranovarako bidea ta abar itsi egin zitzaiolako. Literaturaren urritzea ere hortik etorri ote zen galdetzen du Lafitte-k.

Salvat Monho (1749-1821) apeza Erreboluzione Handiko nahasmenduek poeta bihurtu zuten. Haren poemak Lafitte-k eman dizkigu orain berriki (*Poèmes Basques de Salvat Monho*; Bayonne, 1972).

Etxeberri Sarakoa, Lapurdin jaio eta Gipuzkoan midiku bezala bizi izana, izango da beharbada mende hontako prosistarik handiena. Zoritxarrez, haren lanik gehienak ilunpetan egon dira,

Julio de Urquijo jaunak argitara zituen arte. Eta orain berriki Lur Editorialak zati hautatuak eman dizkigu.

Harriet-ek gramatika bat eman zigun euskaraz eta frantsesez konposatua, frantsesek euskaraz eta euskaldunek frantsesez ikas zezaten (1741).

* * *

Mende honen beronen azken aldera hemengo Euskal Herria (hego aldekoa esan nahi dut) bere lozorrotik esnatzen hasten da, Larramendiren eraginari eskerrak. Ilungune bat baino gehiago dago oraindik jesuita honen bizitzan. *Gigante frustrado* deitzen dio Tellechea Idigoras-ek (*Corografia*-ren edizio berrian, p. VIII). Salamancako Unibertsidadean irakasle izan zen zenbait urtez, baina bizitzako zatirik handiena Loiolako bakartadean eman zuen. Dohain handiak zituen, dudarik gabe, baina bai akatsak ere. Polemikari porrokatua, eztabaidan garaile ateratzeari begiratzen dio egiari baino gehiago, adarra jotzea gustatzen zaio. Dena dela, euskeraren alde jarri zituen bere dohain eta akatsok. Erderaz egindako bere obrekin (gramatika, hiztegia ta abar) gure gizon eskolatuen gogoia euskerarengana erakarri zuen.

Larramendi baino lehenago baditugu hemengo aldean atso-titz bilduma batzuk, kristau dotrina batzuk eta eliz liburu ttiki bat edo beste: *Kapanaga*, *Olaetxea*, *Ochoa de Arin*. *Mikoleta*-ren lantxoia ere hor da, baina hau XIX. mende hondarrean argitara zen. Orain, ordea, liburu mordo dexentea argitaratzen da (eta argitara gabe gelditzen dira beste batzuk, tarteko oztopoak ezin gaintuz). Aita *Kardaberaz*, *Mendiburu* eta *Ubillos* dira ezagunenak eta bai aipagarrienak ere. *Mendiburu*-k giputz-goinafarra erabiltzen du, eta *Kardaberaz*-ek sartalderunzko giputz suerte bat.

Sor Luisa de la Misericordia-ren izenaz ere atera zen olerki liburuxka bat. Larramendiren lekukotasunari eskerrak dakigu

orain *Peñafloridako kondea* dela beronen egilea. Beste teatro lan bat ere: *Borracho burlado*, jaun horrena da (erdizka bakarrik dago euskeraz). Eta teatroa aipatu dugunez gero, mende hontakoa da *Barrutia*, lan guztiz nabarmen baten egilea: *Acto para la Noche Buena*, baina ehun urte baino gehiago egon beharko du lotan lan honek ere. Hiru obra hauek (Sor Luisa, Barrutia, Borracho) Auspoan bir-argitara dira (Auspoa, 48).

XIX. mendea

XIX. mendean barrena Euskal Herriak, neke, burruka eta zoritxar askoren artean, euskera lantzen egin duen ahalegina ez da makala eta ez hutsa izan.

Ipar aldean hor dugu *Duhalde*-ren liburu mardul trinkoa (*Meditazioneak gei premiatsuen gainean*), mende hasierakoa. Erdi aldean, berriz, *Duvoisin*, Bonaparte Prinzipearen laguntzaileak, beste gauza askoren artean, *Laborantzako liburua* eta Biblia osoaren itzulpena egin zizkigun (Retana jauna ari da orain Biblia hau berriz argitaratzen). *Hiribarren*-ek *Euskaldunak* poema argitaratu zuen. *Daskonagerre*-k *Atheka gaitzeko oihartzunak* (elaberria). Eta azken aldera ezin utzizkoak dira *Arbelbide*, *Lapeyre*, *Lapitz* eta *Joannategi* prosista bikain-bikainak, eta *Elizanburu* eta *Adema* olerkariak. *Hiriart-Urruty* kazetalaria bezala gailentzen da. Honen lanak ere, *Lafitte*-k bilduak, *Jakin*-ek argitaratu ditu.

* * *

Hego aldeko Euskal Herrian ere urrats handi bat egiten da mende honen aurreko aldean. Hor ditugu *Mogeldarrak* (hiru idazle, bat emakumezkoa): beste lanen artean, *Peru Abarka* eta *Baserritarren etxeko eskola* dira orijinalenak. Hor dira, baita ere, *Añibarro*, *Iztueta* (Gipuzkoako dantzen biltzailea), *Iturriaga* (*ale-

gilari eta eskolarako gaien egilea). Sermoi bilduma bikainak eman zizkiguten *Agirre Asteasukoa-k*, *Gerriko-k*, *Astarloa-k*, *Fr. Bartolome-k* eta *Lizarraga Elkanokoa-k* (eta argitara gabe dira oraindik *Otaegi*, *Añibarro* eta *Zabala-renak*).

Mendearen erdi aldera aipagarri dira *Uriarte* (Bonaparte Prinzipearen laguntzailea), *Lardizabal*, *Azkue* (aita) eta *Bilintx* (olerkariak azkeneko bi hauek). Azken aldera, berriz, *Soroa* teatrogilea, *Arrese-Beitia* olerkaria, *Beobide*, ta abar. 1880. urte inguruan halako berbizkunde bat nabari da, *Euskalerrria* aldizkari-az, Euskal jaien antolatzeaz eta oinarriko obra on askoren argitaratzeaz. Azken aldera somatzen da Sabino Arana-ren astindua ere. Kontzientzia esnatze baf ekarriko du euskeraren alde. Damurik, indar honek, direzio on baten faltaz, itsu kolpe asko emango ditu.

XX. mendea

XX. mendean, Ipar Euskal Herrian, honako izen hauek dira aipagarri: *Barbier*, *Elissalde*, *Otxobi* (alegilaria), *Etxepare* jaun midikua (prosista) *Larzabal* (teatrogilea), *Iratzeder* (olerkari jainkotiarra) eta *Lafitte* (kazetalaria eta kritikalaria).

* * *

Hemengo aldean, berriz, *Domingo Agirre* eta *Etxeita* elaberriren egileak, *Kirikiño* eta *Urruzuno* ipuinlariak, *Lizardi*, *Lauaxeta*, *Orixe* eta *Salvatore Mitxelena* olerkariak. Lan galanta burutu dute, gainera, azterketari eta biltzaile bezala, *Azkue* eta *Urquijo-k*, *Altube* eta *Campion-ek*. Bilketa eta azterketa horien fruitua jaso du gaurko gizaldiak.

Agirre-ren elaberriak (*Kresala* eta *Garoa-k*) aparteko tokia irabazi dute euskaltzaleen estimazioan beren euskera txukun eta

ongi "zigortu"agatik. *Lizardi*-rekin, berriz euskal olerki lirikoak egundaino jo ez dituen gainak harrapatu ditu. *Orixe*, bai olerkari eta bai itzulari bezala ere, gailurtu da. *Euskaldunak* poeman, Euskal Herri zaharraren irudi bat utzi digu Orixek, pixka bat idealizatua beharbada, baina egian sendo oinarrিতua, halere. Domingo Agirrek bere *Garoa*-n berdintsu jokatu du.

Baina giza izpiritua ez dago behin ere *egoitza batetan (Axularrek esango zukeen bezala). Eta mugak jo direla uste duzunean, berehala hasten da gizona bide berrien bila. Hortaz ez dugu zer harriturik. Literatura guztietan ageri da lege hori. Eta gurean ez agertzea seinale txarra izango litzake.

Egungo egoera

Azken orduko izenak ematen ez gara hemen hasiko. Baina honako hau behintzat esan beharra dago: orain arte gorritu gabeko lurrak urratzen ari dela euskera: pentsamenduzko gaiak, gai didaktikoak, irakaskintzakoak ta abar, geroago eta gehiago argitaratzen dira. Gizonak gaur dituen esakizun guztiak azaltzeko, tresna egoki bihurtu nahi da euskera. Gaurko editorialetarik ateratzen diren tituluak irakurri besterik ez dago.

Arestian esan dudan bezala, aurreko gizaldian egindako azterketen *mozkinak gure gizaldian jaso dira. Izan ere, hauxe izan zen Urquijo jaunaren kezka bizia: euskal idazlangintzarako tresna gertutzea; eta hori, hizkuntzaren oinarri, iturri eta tradizioan bilatu zuen. Hortarako zen *Riev* delako aldizkaria. Hortarako eman zituen argitara idazle klasikoen lanak. Hortarako bildu zuen euskeraz joan mendeetan edozein euskalkitan argitara diren liburu ttiki eta handi gehienen liburutegi joria. Azkue dugu beste biltzaile neka-ezina (herriaren ahotik batez ere bildu zuen honek). Eta herriko euskeraren dohainak eta izaera aztertzen, Sebero Altubek egin du lana gogotik. Horregatik, jaun horiekin zordun garela aitort-

tu beharra dago. Hobeki ezagutzen dugu gaur euskera aurreko gizaldian baino (saiets edo alderdi batzuk behintzat), baina hori bera ere aurrekoei zor diegu. Tresna, berriz, ibiliaren ibiliz asko findu, trebatu eta gaitu da. Gerra aurreko "Argia" eta orainge "Zeruko Argia" bata besteaz elkar jo besterik ez dago. Orain euskeraz erabiltzen den tematika, ordukoa baino askoz zabalagoa da. Purismoak euskerari jarri zion "corsé" horrengatik izango zen, beharbada, baina alde ederra dela ordutik honera ezin uka daiteke.

Euskal liburuak asko ugaritu dira azken urteotan. Zazpi egunetik zazpi egunera bat agertzen omen da, batez beste. Kalitateari begiraturaz, denak ez dira maila berean jartzekoak, bistan da. Elaberritan eskasago gabiltza, saiakeratan aberatsago. Badira gauz politika, sozial, filosofi edo linguistika gaiak azaltzen dituzten liburuak, eta hizkuntzari ia ohartu ere gabe irakurtzen dituzunak. Hortan urrats handia egin da.

Euskaltzaindia

Bukatzeko, Euskaltzaindiaren egitekoaz hitzerdi bat esango dut. Euskera gauzetan gidari eta zaindari izateko Euskaltzaindia sortu zen. Iritzi, joera eta kolore guztietakoak daude bertan. Baina bidea erakusteko betebeharrari ezin dio uko egin. Gidari kargu hau betetzekoan, ordea, pixka bat atzetik ibili beharra daduka sarritan. Hau da: epe bat hartu behar izaten duela bere hitza esan baino lehen.

Aranistek sortutako sasi hitzen eta berrikerien aroa zenean, Euskaltzaindiak ez zuen behingoan bide hori ez onartu eta ez galerazi. Bide bat zen, esperimendu bat, alegia. Eta epea behar zen, iritzi ongi heldutako bat izan arte. Denborak erakutsi du hortik ez goazela inora. Eta orduan mintzatu zen Euskaltzaindia.

Gero besteen bolada etorri da: erderatiko hitzez jositako euskera darabiltenena. Eta batzuek galdetzen dute: Zergatik ez du

hori kondenatzen Euskaltzaindiak? Baina hori ere esperimentu bat da. Sail berriak urratzen dabil hizkuntza, eta aurretik ezin jakin daiteke, askotan, nondik jo behar den. Berriz ere lehengo jokaera hartu du Euskaltzaindiak: ez onetsi eta ez gaitzetsi, oraingoz behintzat.

Egia da 1959. urtean agiri bat eman zuela euskal hitzei buruz. Baina horrek ez du erdalzaleen joera onesten. Beharrezkoa zen agiri hura garbizaleen gehiegikerietarik hizkuntza begiratzeko, eta epe luze baten ondoren, gauza aski heldua eta *umoa zegoenean, eman zen.

Berdintsu gertatu da euskera idatziaren batasunaz ere. Batasun hortarako bide bat erakuts zezala eskatu zitzaion Euskaltzaindiari, beronen sorrera egunean berean. Eta berrogetamar urtetako epea hartu du erantzuteko. Baina azkenean, eskola premiek eta egungo idatz premiek erantzun hori gehiago ez luzatzea eskatzen zuten. Eta Euskaltzaindiak, *aztamu askoren ondoan, saio eta azterketa askoren ondoan, agiri bat eman zuen 1968. urtean, batasunerako bide hori proposatuz. Euskaldun guztioi euskalki jakin bat har arazitzea ez, baina guztiona dena, euskalki guztien *guna, euskera orokarra, oinarritzat hartzea. Hau izan da Euskaltzaindiak hautatu duen formula, bidea.

Euskaltzaindiak bidea erakutsi du, bada. Berak ez du inor behartzen, baina gidari izateko duen eginbidea ere ez daduka salgai. Badakigu Euskaltzaindiaren bide honi kontra handia egiten diola gaur zenbaitek, baina beste bide hobeago bat eskaintzen ez duten bitartean, horri lotuko zaio Euskal Herria, segurki.

Gauza hauetan tensioak eta eztabaidak egotea, derrigorrezkoa da. Baina horien artean eta horiek gora-behera, bere bete-beharra bete behar du Euskaltzaindiak, bide erakusle eta gidari izango bada.

euskal lana

ARTZAINGOA ETA NEKAZARITZA

J. M. Satrustegi

Euskal Herria, beste herri zahar askoren antzera, abeltzaingo eta nekazaritzatik bizi izan da betidanik. Axolarik haundieneko gauza deritzaigu, beraz, gaurko joera eta gertakizunen azterketa egiterakoan, lehenagotik datorkigun barne mina ikastea. Izan ere, mendez, mende izan dituen kezka saminak zain haundiak bota ditu herrian; ogibide honek bere egitura eta kutsua itsasi dizkio gizonari, eta asmakizun nahiz esaera bereziak xertatu herri jakintzan.

Besteak beste, mendizale da gure artzaina. Belar on eta iturri mutur guztien berri badaki. Haize lodi eta laino printza guztien asmo izkutuak txiki txikitatik ezagutzen ditu. Inguruko mendi eta muino guztiei hartua die nolabaiteko hizkuntza: batak harri *erauntsia dakarkio, eta besteak hegoa. Batzutan egutegitzat darduzkate eta bestetan ordulari dira. *Hamarretako malkorra* esaten zaio Arakilgo Huarten haitz mutur bati; *Hamaiketako herria* ere badute. Ordu horietan musukatzen omen zituen iruzkiaren ikutuak. Esamesak ez du adierazten uda garaian ala neguan gertatzen ote zen. Zaharrei galdetu behar.

Nahiz eta batzutan huts egin, itsu itsuan jarraitzen zieten

sineste zaharrei. Urdiain-go artzain batek ardiak etxera jeitsi omen zituen menditik, eguraldi zoragarri batez. Zerk eman dio gaur gizon honi!! ziotsan jendeak. Ilunabarrean artaldea bordan sartu eta non esaten dioen suhiari:

—Gaur ikusi diat... “un demonio”!

—Zer ikusi-uzu bâ?

—*Itsuspuru*-n lainoa!! (Urdiain-go Haitzkibel-ek duen mendi gorena, Probintziako mugan). Ardiak etxera ekarri ttat...

—Ardiak etxera?

—Ez haiz, ez, laiatzera fango bihar! Denbora txarra heldu-ok.

Gauaz ez zuen artzain gizajoak lo haundirik egin; bazuen bere kezka. Bein eta berriz jeiki eta leihora zihoan eguraldiak zer zioen ikustera. Argitu baino lehenago, ixil-ixila artaldea aurrean hartu eta berriz mendira. *Itsuspuru*-ko lainoak joko txarra egin zion

Nekazariaren lanak, bestalde, badu arriskurik. Egunoroko lur iraultze, ereite eta jorrak aski ez dituela, bildur beltzez inguraturik ikusten du bere etorkizuna. Lana alde batetik dela, euriak eta beroak egin behar izaten diote beste gainerako guztia. Berak bat eta eguraldiak hamar.

Gau eta egun, negu eta uda, hala bizi-behar horrek neurritsu egiten du gizona eta bildurtti. Izerdi guztien emaitza lainotan dakus eta behin baino gehiagotan ezer gabe gelditu ohi da. Badaki ezin dakizkiokela gauzak beti ongi atera. Bizitzeko behar duena jasoko ote duen bildurrez bizi izan da bere denbora guztian. Horrexegatik da fidagaitz.

Aurrekoengandik ikasia du bere jakintza nagusia. Nekez aldatzen ditu bere lan tresnak. Aurrerapenik haundienari trabak ezarriko dizkio lehenik. Ikusiaren pasioz eta ezinbestean onartuko du. Lailaz lurra iraultzetik, abere gorritz bultzatutako “brabant” delakoarekin lana egitera, ez zen berehalakoan aldatu gure nekazari asko. Ez zuten era hortan landutako ereintzarekin sinesterik. Esku lana bera “zer” bat zen haientzat, hazia edo euria bezala. Eta

politita gertatu zen, gainera: lehenbiziko burnizko tresnak erosi zituztenek neke gutirekin egin zuten lana, baina uzta haundirik jaso ez lehenbiziko aldian!

—Ikusten dut! zioten besteek. Hori ez duk onezko gauza. Etxean entzuten nien nik hori. Madarikazioren bat zekarrelakoan zeuden batzuren batzuk, eta kosta egin omen zitzaien deabrukeria hortan sinestea.

Hori bera gertatu da tratore berriekin, eta ez da noski madarikazio konturik. Axaleko lurra iraultzen zuten laiatzean; tresna berriak, aldiz, *hondalana. Inoiz ikutu ez ziren lur hotzak bizkarrez gora uztean haziak ez zuen girorik eta ezin uztarik eman. Urte pare bateko iruzki eta negu gogor bateko izotzak *ergeintzen du lurra.

Nekazarien eta artzainen burubideak eta bizitza aztertzea oso zaila da. Heuren barne-min horietan sarturik egotea komeniko litzake, noski. Badu lurraren eta oihanen ikuspegi berezi bat berriekin borrokan bizi izan den gizonak. Era berean, haren izaera eta sinestea, euri eta ekaitzen nortasuna edo haren menpekotasuna, gaur nekez uler daitezkeen gauzak ditugu. Iturri apalenetik xurgatu beharko dugu, beraz, gure jakintza egarri hau asetzeko ura.

Herri jakintza

Herrien jokabide bereziak aztertzen dituen saiakerari *Herri-Jakintza* deitzen diogu. Folklore beste hizkuntzetan. Herri-jakintza esateak ez du, inola ere, herria alde batetik eta ikasien mundua bestetik jarri nahi. Ez. Herri-jakintza ez da bigarren mailako ikasgaia. *Etnos* delako herri izakera, arraza, gizona bere joan etorri guztien soka ikusten duela, mendez mende idatzitako liburu jakingarri baten orri aberatsak dira. Bere hizkuntza berezia du; baita bakoitzarentzat bere sentipen eta barne lokarria ere. Giza

talde bakoitzaren ohitura, burubide eta ekintzari dagokion bildumari diogu Herri-jakintza.

Ingurutik datorkion indarrak mugatzen du, batzuetan, gizona; kanpotik barnerako joerak. Itsas gizona txalupari eta sareei loturik biziko da, nekazaria lurrari bezala; lanbide oso ezberdinak. Artzainari, berriz, menditik eta *bazketatik datorkio egunoroko ogibidea. Ez da berdina lur beroko eta elurtetako bizitza. Inguruko indarrak ditu hauek, gizonak; eta bakoitzari bere eran erantzun beharko dio bizitzan. Erantzun hortan ikusiko da norberaren zaletasuna eta berau da bigarren indarra: barnetik azalerako bultzada. Indar bi hauen bildumak ematen du herri baten nortasuna; eta horren azterketari deitzen diogu Herri-jakintza.

Hala esanik gauza erraza dirudi; besterik da egunoroko gertakizunen sare estuan hariak hartzea. Bizitza bera aldakorra da haurtzarotik zahartzarora doan gizona bezala. Ez da askako ur geldia, *eihara azpiko burrunba biziko *zurrua baizik. Sasoi bakoitzak, beste alde, bere giro berezia du, eta gizon bakoitza bere garaiko giroan ikusi beharko da, arraina uretan bezala.

Baketsu ikusten ditugun herriak, jendea bezala aldatuz joaten direla esan nahi dugu. Aldatzen ez dena heriotzera doa. Bizi legea da.

Era guztietako aldaketak izan ditu gure herriak. Inguruko herriekin hartu-eman estuan bizi izan da lehenik, eta denen aurreapenez baliatu zaigu. Erabat *sordesa izango zen hori egin ez balu. Euskal Herria kukupeko basapixtia bezala bazterturik bizi izan dela uste zutenek, erabat huts egin dute. Harri-aroko jatorritik bagatoz ere, ez gara orduko ohitura eta bizimoldetan finkaturik gelditu. Gure mutilak ez dira ahuntz larru latzetan sartuta agertzen igandetako dantzalekutan. Ikusi besterik ez dago. Nortasuna, hain zuzen ere, ez da berekoitasunarekin uztartzeko gauza. Hainbat gutiago *petral baten ertzean josita bizitzeko sortu den zorria. Eta nortasun haundiko herria izan da gurea.

Itxiak izan garelako ikuspegia ez da gure ekintzarekin ongi itsasten. Bai itsas ertzean eta bai lur barneko jokabidetan beren izena oso gora utzi duten euskaldunetz beteak dira mundu zabaleko bideak. Herri baten nortasuna aurrerapen guztiez baliatu eta bere jazkeraz egindako gizon trebez hornitzea da. Ez gara haitz-zulotako mamutzak bezala iheska bizi. Inguruan izan ditugun herrien aurrerapenak geure jakintzari itsasiaz joan gara, eta haien joskera asko gelditu zaigu. Guregana datoz gaur jakintsuak, hain zuzen, gu baino indartsuago izan ziren herrien berri zehatz jakiteko.

Herriaren barneko aldakuntza alde batetik, eta beste herrialde guztiengandik izan dugun txertoa gogoan dugula aztertu beharko da, nekazaritza eta abelzaintzatik bizi izan den Euskal Herriaren gaurko egoera. Gertakizun hauek guztiok beren kutsua uzten dute herriaren bizian eta Herri-jakintzak, orduan, aztertu beharko du: 1) *zer nondik datorren* eta, 2) *eta nolakoa den orain*.

Abeltzaingo hutsetik nekazaritzara aldatzea garrantzi handi-diko urratsa izan zen bere egunean. Artzaina, bazkak eta urak daramaten erromesaren antzeko gizona genuen. Etxe sendorik, harrizko egonleku jakinik ez zuen askotan. Ura eta iruzkia ziren haren ondasun nagusiak. Nekazaritzak, aldiz, egongarri egin zuen gizona. *Etxea* egoitza eta aurrekoekin lokarri bezala ikusten zuen; eta *Ama Lurra* emaitza guztien oinarri. Esames eta burubide asko nekazaritzako giroan sortuak ditugu.

Aldaketa, beraz, gogoan eduki behar den herri muga bat da. Orain ere, gaur eguneko aldaketaren arazoa ez da axaleko apaingarri bat. Lurrarekin borrokan hazi eta hezi den gizonak, haitzurra eta mendia utziaz, beste lanbide bati jo dio. Uda parteko egun lasaien berri bazekien artzainak ezin du olagintzan halakorik sumatu. Zortzi orduko lanari lotuta bizi denari zer axola gariaren erdoiak eta larreak! Euria bada, aterpea merke; eta idortearekin ereintza egiterik ez badago, bizkarrari eragin. Urrutiko zerba:

da harentzat, eta *besteren minak begitan logure*, esaera zaharrak dioen bezala.

Olagintzako gizonak, bestalde, baditu berebiziko lanbroak. Erlauntzaren antzeko bizitegitan pilaturik, burni tresnak, lan ordu eta nagusien kopeta txarrak betetzen diote burua. Izerdien saria ez da beti neurrikoa. Ezinbiziaren larritasunak, batzutan, eta bera baino hobeki dabiltzanen mailara heldu ezinak erretzen du haren on guztia.

Mendia, bitartean, leihotik urrun ikusten den tontor bitxia da. Gizonari haize garbia bidaltzen dion auspoa dela esan ohi dio Telebistak: eta tresna horrek hala dioelarik, egia izango da. Ez daki iruzkia sortaldetik ateratzen ikustea zer den; eta landare guztien ernatzeak eta lore politak ezer guti esaten dio. Lanbide berriak burubide berri; eta gaurko kezkarri, gaurkotasunez jantzi-tako erantzuna bilatzen saiatu behar; ezin besterik egin.

I. ARTZAINA

Nahiz eta hemen nekazaria eta artzaina batera hartzen ditugun, biak bi dira nortasunaren mailan. Bakoitza bere lanbide bereziaren seme eta burubide ezberdinen lekuko.

Artzaina alde batetik bestera ibili ohi da, gehienez, artaldearentzat bazka egokien ondotik. Baditu bi joera: negu partekoa eta udakoa. Mendi-goian aldeko artzainak lurralde epelera jotzen du neguan. Itsas hegiaren deiarri jarraitzen diote gertuenekoei; eta Herribera aldera dihoaz besteak.

Artzain larre bideek, Erdi-aroko paperetan agertzen diren *Alchonbideek*, garrantzi handia izan dute Herri-jakintzan eta ez dira behar bezala aztertuak izan. Erronkari eta Saraitzu aldeko artzainak Zarragastelu (Carcastillo) eta Bardenetara jeisten ziren orain bezalaxe. *Alchonbidea*, altxatzetik datorrela uste du Julio

Caro Barojak. "Alzada", erderaz, artzain herria omen da; eta *altxunbidea* (alchonbidea), artzain bidea (1).

Luzaideko ardiak Xubero aldean egoten dira neguan. Beste batzuek Donibane Lohizune inguruko bidea hartua dute lehen-danik, eta hortan jarraitzen. Hego aldeko Nafarroan badira Bizkai aldera jotzen dutenak, besteak Probintzian bertan gelditzen dire-larik. Maiatza da mendira itzultzeko garaia.

Udako bazkak. Hortan ere alde handia dago herrialde batzuta-tatik bestetara. Andia menditik gertu dauden artzainek Zunbelz-ko benta inguruko belarrak hartzen zituzten lehenik. Andia berez idorra da; baina goizik etorri ohi da larrea. Sakana-ko artzain batzuek eta berdin Imotz, Araitz eta lehenago Ultzamakoek ere, Andia mendiko bazketara ekartzen zituzten beren artaldeak, gero San Ferminetan Aralarra itzultzeko. Aralar mendia hezeagoa da eta belar guriagoak ditu. Herriberako *borroek jaten zituzten hemengo ardiek Andian utzitako belar guztien zainak. Azkoyen-go (Peralta) artaldeak etorri izan dira gure denboran.

Artzainen ibilaldiak herri askoren harremanak estutzen ditu eta elkarren ohitura eta jakintzak kutsatzen. Jokabide askotan ikusten da. Oraingo artzain zakurra, esate baterako, beheretik etorria zaigu. Joakin Irigoyen, Urdiain-go artzainak esan zidanez, Lizarratik erosi zuen haren aitak lehenbizikoa. Herriberatik zetorrela diote beste batzuek. Ameriketatik sortua dela ere entzuna du.

*Artzanoak genituen lehenagotik, Zakur haundi indartsuok ez zuten artalderik mugiarazten, ez inguratzen; otsoengandik zaindu bakarrik. Ahuntzak bezain lasai sartzen ziren artaldean eta ardiak ez zieten bildurrik. Zakurraren arditarako joera gaizki ikusia zen, gainera. Ez omen zuten lorik egiten eta ardiren bat galtzen baldin bazen, haren ondoan egongo zen nagusia agertu arte.

(1) Julio Caro Baroja, "Notas de etnografía navarra" Rev. de Dialectología y Tradiciones Populares, Madrid, 1972; t. 1^o-2^o, pag. 23.

Otsoekin batera galdu zen gure mendietan artzano zintzoen kasta. Mende hontako hogei lehenbiziko urteetan, Urdiango artzainen berriak, Joxe Miel Barandiaranek eman zizkidanekin batera datoz. Mila bederatzirehun eta hogeian ikusi omen zuen berak lehebiziko aldiz azeri kastako zakurra. Urbasa mendian Ameskoa aldeko *Itzain batek omen zuen eta behi edo zalditan erabiltzen.

Zakurrarena adibide bat baizik ez da. Beste edozein gauzatan berdin gertatzen zen. Urbasa mendira zetozen Ultzamarren *joaleak aipatuak izan dira Sakana aldean. *Baztango farak* esaten zaie gaur egun ere Urdiain-en. Berentzat, Baztango sutebietan moldeztuak izan ala Zubieta eta Ittunen, axola gutikoa da. Ifar aldetik zetozen eta baztandarrak esaten zitzairen. Bertako txintxarriak Iruinetik eta Arabako Kontrasta-tik ekartzen zituzten.

Gauza askotan elkarren kutsua hartzen dute artzainek; beste askotan berriz bakoitza bere bidetik doa. Berekoitasun haundia ikusten da jokabide batzutan. Urbasa mendian, esate baterako, joale mihietatik bakarrik ere ezagutzen ziren Amezkua ala Burunda aldeko abereak. Batzuek eta besteek, adar puntekin ezartzen zizkieten mihiak; burundarrek puntatik zulatu eta lodienaz behera, amezkoarrek, berriz, lodienetik hartuaz mutur zorrotzena beheraka. Garrantzi gabeko zertxo bat ematen du honek eta alde haundia dago batetik bestera. Amezkoarrek mugimendurik txikienarekin ere bazekiten behia edo zaldia non zebilen; burundarrek ez. Hauen joale mihia burni gainean lo gelditzen da aberea larrean edo *abaroan dagoenean eta ez du jotzen. Amezkoarrek berriz mihi punta atzera begira jartzen diote eta mugimendu guztiak txintxo adierazten ditu. Beti elkarrekin eta bakoitza bere bidetik. Ohiturak hartu eta bere horietan jarraitu.

Txabolak

Txabola da artzainaren etxe erdia. Sortetxeak hainbat garra-

tzi du askotan beretzat. Herri inguruan baino ordu gehiago erretzen du artzain askok mendiko txabola ondoan.

Artzainak txabolaren gain duen eskubidea mugatua izaten da; ez da jaun eta jabearen eskubidea. Ez du nahi duena egiterik. Nafarroan, esate baterako, legez erabakia zen noraino erabil zezakeen, eta nondik aurrera ez.

Teila. Teilak jabetasuna adierazten zuen eta ezin zuten txabolarik teilaz estali. Harrizko estalkiak ohi ziren, oholezkoak ere bai. *Iratze eta lurrez ematen zieten gaina beste batzutan.

Atea. Urbasa mendiko txabolek sarrera bat idekia edo eskuz idekitzeko eran behar izaten dute, han gertatzen denak erabil dezan.

Aralar eta Andia mendian bezala, artaldeak dira artzainei txabolen eskubidea damaien bakarrak. Ardiak kentzean txabola utzi behar.

Ongi begiraturuz, neguan han eta udan hemen; artaldea duen bitartean badu txabola eta gero ezer ez; toki loturarik gabeko bizitza da artzainarena. Badaki bere ondasun guztia makilaz eta zakurrarekin zaintzen duen hura dela, eta hortara zuzentzen ditu bere urratsak.

Duenaren agertzeko bildur da. Zenbat ardi duen galdetu eta nekez aterako du inork ur garbirik. Multzoa badela erantzungo die arrotzei. Adiskiderik hoberenei, berriz, hirutatik bi aitortzen badie, ez dago gaizki. *Artzainak haserretu eta gaztak agertu*, esan ohi da. Inork ez bait du bestela haien berri jakiten. Haien izaerari loturik dago.

Bazkak ditu helburu nagusi. *Segetu haundiz eraman ohi ditu bere biharamuneko asmoak. Mendiko joan-etorri guztiak xeheki jasoko ditu. Badaki jendea nondik nora dabilan, baina bere burua erakutsi gabe. Bere bazken kaltegarri baderitzaio mintegi bati su ematen bildur guti. Oihanen etsairik haundiena ahuntza izan omen da beti. Artzainak irabazten omen zion bakarrik.

II. NEKAZARIA

Nekazaria etxaldeari loturik bizi da eta bere aurrekoen izenari itsasirik ikusten du izate osoa. Etxearen jarraipenak garrantzi handia du beretzat. Elizako hilobia (edo hilarria) etxaldearekin doa.

XVIII. mendean etxearen izena hartzen du, berea galduta, kanpotik datorren nagusiak. Ezin ziren *funtsak banatu; bat behar zen etxerako. Eta estualdietan senideak etxea jasotzen edo zorrak ordaintzen laguntzera behartuak daude. "Etxeko sua, etxeko hautsarekin estali behar dela" esaten da. Hortarako itsas beste aldera joan beharra balitz, joan egiten da; eta zorra jasotzekoa eginda-koan, berriz itzuli.

Bere gauzak goratu egiten ditu, noski. Zortzi gurdi belar sarri eta hamar direla esateko bildur guti. Bere lurak dira beti hobere-
renak; haietan bezalako uztarik beste inon ez. Haundikeriak etxaldearen omengarri; eta etxeko baten lotsagarrikeria, etxearen lotsa.

Premia handi batean lurak saltzaturik, etxeko urrenek dute lehen eskubide. Legeak ontzat emana du Nafarroan ohitura hau eta odolekoen eskutan gelditzen den etxaldea ez da galdua.

Nekazariaren izaera ongi ulertzeko hiru puntu aztertuko nituke: *lurra*, *etxea* eta *hauzoa*.

Lurra

Lurak garrantzi handia du nekazariarentzat. Artzainak bazka du helburu, eta nekazariak lurra. Belarra jan eta beste lurralde batzutara doa hura; ez da lurrarekin lotua. Nekazariak, aldiz, lurak ematen badu ez badu, bere horietan du gogo. Hasarre asko sortu ohi dute elkarren arteko mugek. Nekazaria jabe eta artzaina jale.

Hego aldeko herrialdeetan ez bada, euskal nekazariak ez du bere lurrik banatzen. Altsasu eta Urdiain barne direla, Sakanako

herri batzutan esku zabala baino haundiago ez diren baratzeak ere banakatu egiten dituzte. Batzeak ematen du gero lana. Ba-koitzarentzat bere hura da hoberena eta ez luke inoiz trukatuko. Konzentrazioa delako lur batzea etorri delarik, ehuneko berrehun irabazita ere, barne-min horrekin gelditu da jendea.

Gure aurrekoek ez zuten erdibitzeko asmotan hartzen etxaldea. Osorik gorde eta ondokoei osorik uzteko eskatzen zioten gurasoek oinordekoari. Badira idazki jakingarriak. Oinati-ko Gevaratarrek, esate baterako, XII. mendean, seme bati Oinati-ko lurralde guztia uztean, inoiz ez puskatzeko baldintzapean egin zuten. Eta berak nahiz bere ondokoren batek etxaldea puskatzeko ausardia izango balu, antzinakoen madarikazio eta zeruko zorigaitz guztien ixuria opatzen dio. 1149ko idazkia da (2).

Lurra norberaren zati bat bezala da. Nere etxean entzuna diet Arbazu-ko *maizter batzuen gertakizuna. Hitzartutako epea bete gabe kendu zizkien nagusiak gain-gaindik gizenduak zituzten lurrak, eta ezer gabe atean utzi. Larre mutur bat besterik ez omen zuten berena eta, *puskak eskuan, haren erdira jo zuen etxeoandreak. Erdi erdian eseri eta "*hemendik behintzat ez naute botako*", esaten izan behar zuen negarrez.

Lurra, bestalde, inori ukatu ezin zaion zerbait da. Bizi dena lurraren baliatzaile da; *goian zerua eta beherean lurra* esan ohi da ezer ez duenaz. Esames zaharretan denen berdintzale ere agertzen zaigu: *ez omen d aitor lur faltan hil gabe gelditu*; eta aberats goseenak, guzien buruan, metro pare bat lur asko omen du asetzeko.

Ez da esames kontua bakarrik. Lur batez jabetzeak badu bere legea. Ohitura bereziak ziren herrietan. Asko eta asko galdu izango zaigu; beste asko, berriz, sal-erosketako agiri zaharretan jasoak dira.

Urdiain-en bakoitzak bazuen bere etxe ondoan *Iarraina.

(2) Oinati-ko Ladron de Guevara-tarren azken-nahia.

Larrain hori ez zen etxaldearena, Herriarena baizik. Urtero San Juan bezperan muga ikusketa egiten zen eta herri-agintariak bildurik, larrainetako mugarriak begiratzten joaten ziren. Larraina zedukan nekazariak hantxe egon behar izaten zuen, agintariak etorri arte mugarria zaintzen. Teila batekin gurutze gorria egiten zioten ontzat emana zela adierazteko. Gerri biribileko harri landu haundiak dira mugarri horiek. Karrikak zimentatzean galdu da ohitura zahar hau. Ez zen, beraz, erraza etxe aurreko lurrez nagusitzea.

XVIII. mendean, *pentze, alor edo baratze bat erosten zuenak *lur berrian sartzea* egiten zuen. Lege gizonak eskubiko eskutik hartuta zeraman barnera. Erositako lurrean atzera eta aurrera ibiliko zen lehenik; belar bat edo beste zainetik atera eta *zohi batzuek harturik, ezker eskubi botatzen zituen. Haren lur berrian zirenen kanpora bidaltzea zen jabetasunaren beste ezaugarri bat. Hau dena, herritarren aurrean eta egunez, inork susmo txarrik izan ez zezan. Sakana-ko agirietatik jaso dut.

Etxea

Nekazariaren etxea egoitza da, alde batetik; eta aurrekoekin zer ikusi haundia duen lokarri, bestetik. Sutondoa, *sularda, jainkozaletasunaren pizgarri. Etxea ez da lau hormako gorputz hila; barne harek badu etxeoentzat bere arnasa gozoa.

Herri batzuek multzoan dituzte beren etxeak. Beste askok, baserri sakabanatuak. Zer dakigu joera hontaz?

Kanpion-ek bere garaian oso ongi esan zuenez, Aragoi eta Gaztelaniako muga aldean, herri guti eta haundixkak dira. Bakan emanak. Ibai zabalen ertzean egon ohi dira eta herrialde askoren anka *aztala *nozitu dute. Euskeraren kutsu gutiko herriak. Mendi aldean, berriz, herrixkak sarri, eta euskal kutsua ugari (3).

(3) Arturo Campión, "La Personalidad euskara en la Historia, el Derecho y la Literatura" (Conf. leída en Bilbao. 27-IV-1901 pag. 11.

Euskaldunaren joera bakardadekoa da. Behartua ez delarik, berez, askatasuna maite du; bere bizitza *lekukorik gabe egitea. Gipuzkoarrek diotenez, aspaldi batean Oiartzun-ek etxe bat baizik ez omen zuen. Etorri da, nunbait, bigarrena egiteko garaia eta ez dio usai ona sumatzen lehen zegoenak: *aldexko-aldexko hauzuak ongi izateko*, esan omen zuen bere baitan. Eta orain dator jatorrena; hiru kilometro gutienez bazitekeen batetik bestera, Gertuegi harantzat (4).

Nafarroako herri franko indarka egina da. Batzutan erregeei komeni zitzaielako; lurraldeen nagusiek agindurik bestetan. Sakana, esate baterako, etsai guztien bide zabala izaten zen. Arabatik zetozenak eta Probintziatik su ematen zutenak hortik zebiltzen beti txandaka.

XIV. mendean ate hori indartu nahian, zazpi-zortzi herri txiki-ekin Huarte Arakil sendotzea nahi izan zuen erregeak. Karlos II.k bazuen 1355ean beste egitekorik. Normandia aldera joatera behartua izan zen, Evreux-tarra zenez eta hango gauzak gaizki zebiltzala ikusirik. Luis, bere anaiaren gain utzi zituen huartearren istiluak.

Ez zitzaien oso ongi erori berria. Hauek ziren hustutzer a zihozten herrien izenak: Agiregi, Etxabe, Mendikoa, Arkidoain, Blastegui, Ilardia eta Epeloa. Amurgin, Ursegi eta beste zenbait ere bazen. Negu sarreran zen eta *zurak mozten hasteko agindu zien. Behin eta berriz etorri behar izan zuen erregearen ordezkariak jendea bultzatzera. Hiru karrika nagusi izango zituen herriak eta 140 bat bizitegi.

Nere etxe pobrea erregearena baino hobea, zioen nunbait jendeak. Ez zuten beintzat erregeak eskainitako haietan sartu nahi. Ondasun guztiak kendu eta espetxean sartuko zituela entzutean, derrihorrean aldatu ziren. Ez zuten urte bat egin Huarten, erdiak beren

(4) Echegaray. "Anuario de Eusko Folklore" (1925) pag. 102.

zaharrera itzuli bait ziren 1356an. Kontuan hartzekoa da gure kondairan guti aipatzen den herri-mina. Baina, nagusiak agintzen duen lekuan lotzen bait da astoa, joandako bidez itzuli behar izan zuten baserritarrak.

Ez zen hortan gelditu hauzi honen gazi-bizia; 1357an baso aldera doaz berriro jende gaixoak. Larrainarik ez zutela zioten eta lurrak ere ez zitzaizkiela esan bezala banatzen. Erregearen erabakia, orduan, gogorra izan zen: bizitegi zaharrak errotik botatzea. Herri bildua.

Bestaldera gertatu zen Luzaide-n (Valcarlos-en). Hamalau etxe ziren zaharrenak, beste horrenbeste lapurrek jasoak, esames zaharrek diotenez. Bakarka dira denak, hamasei bat kilometrotan, bide bazterrean eginak. Ostatzatik bizi ziren, Konpostela bide nagusia handik bait zetorren (5).

Lurralde hauek guztiak Leyre-ko fraideenak ziren 1110ean Nafarroako jaun haundi batek utziak. Geroago, 1271ean Orreaga jabetu zen denetaz. XVII. mendean bertako biztanleek borroka gogorra izan zuten eliz-gizonekin, beren etxe eta lurrez jabetu nahian. Gora behera askoren ondotik epaile nagusiek arrazoia eman zieten 1646. urtean. Etxe berriak egiteko baimena ematen zien erabakiak, baina *lehengoan ondoan* jasotzera behartzen zituen Hala sortu zen eliz inguruko etxe multzoa.

Agindu honek eragozpen gogorrak zituen abeltzaingotik bizi zen jende harentzat. Etxea herrian (karrikan) eta borda beren funtsetan izaten zuten. Etxeak baino garrantzi gehiago zuen askotan bordak; baziren bi eta hiru borda zituzten etxeak ere.

Frantziako gudateak aldatuko zituen gauzak. 1793an sartu ziren Paristarrak herrian, eta ez zuten etxe bakar bat ere zutirik utzi. Hiru urtez egon ziren bertakoak iheska. Itzultzean, non sarturik ez zuten eta bordetan moldatu zituzten beren bizilekuak.

(5) J. M. Satrustegui, "La Puerta de España en el Camino de Santiago". (Pamplona, 1962).

Legez eragotzi zietena bere bidez lortu zuten. Geroztik Luzaide herri sakabanatua izana dugu.

Norbaitek etxea erosten zuenean, *legezko jabetzea* haundikiro egin ohi zuen. Urdain-go agirietan ikusten dugunez, lege-gizon bati deitu eta haren aurrean ate nagusiak bere eskuz ideki eta itxiko zituen. Gero barnera sartu eta egoitzaz jabetzen zen; azkenekotz, barnean zirenak kanpora bidaltzearekin, jaun eta jabe gelditzen zen. Horien guztien berri jasotzen zuen gero lege-gizonak.

Zenbait lekutan etxeoandreek ere bazuten etxe berrian sartzeko ohitura berezia. *Eliz-hartzea*, berriz, etxeoandre berriak ezkondu eta ondoko igandean egiten zuena: meza denboran ogia, argizagia eta dirua eskaintzen zizkion apaizari.

Aipatu ditugun Huarte-ko etxeak *errezkadan daude; elkarri itsasiak. Berdin gertatzen da Arruazu, Arbizu, Etxarri eta Sakanako beste zenbait herritan. Hau ere ez da euskaldunaren berezko joera. Mandazain izanak dira urdintarrak eta etxeak elkarren ondoan zituzten bide-kurutzeetan; baina bakarkako bizitegiak, etxarte txiki batekin besterik ez bazen ere, elkarrengandik bereziak. Gogoan hartzekoa berau.

Hauzoa

Gizona etxeari loturik bizitze horrek elkar arteko lokarriak sortzen ditu herrian. Bada bizitzan norberak egin ezin duen zenbait lan eta bata bestez baliatu beharra sortzen da orduan. Nunbaiteko biztanleek elkarrekin dituzten harremanak adierazten ditu *hauzo* hitzak.

Era askotakoak dira lokarri hauek. Multzo batean bildurik dagoen herrian biztanle guztiak izan ohi dira *hauzoko*. Bide egite, harritze edo egokitzeak *hauzalanez egiten dituzte. Berdin

iturri garbitze eta hesi berritzeak. Eskubide osoak berekin daramazkien zerga da hauzalana. *Hauzalan, etxean jan eta kanpoan lan.*

Lekuan lekuko ohiturak dira hauzalan kontuan. Gaur Urdiain-en, urtean *eskuzko* lau hauzolan egitera beharturik dago sendi bakoitza. Abere gorririk duenak, uztarriz beste bi egun sartzen du. Behi bakarra baldin badu, berriz egun bakarra. Beste norbaitekin osatzen dute bikotea; **ikidien* ibiltzea esaten zaio. Hauzalanera ez doanak **ixuna* ordaindu behar izaten du.

Hauzalanean dabilenak **pinta* bar ardoren eskubidea du herriaren kontu. Txartel bat ematen zaio bakoitzari, edatekoa jaso dezan. Duela urte guti arte, lau pinta ardoak beste horrenbeste ostatutatik jaso behar izaten ziren. Txartelak berak markatzen zuen zein ostatutarako emana zen. Denei gastua egiteagatik zen noski; bainan askori ez zitzaion atsegin. Orain beste alde batera egiten dute; urte bateko ardo guztiak etxe batetik jasotzen dituzte, eta beste urtean bestetik. Ez da hori denetan hala egiten. Herri bakoitzak bere ohiturak dituela adierazteko aipatu dut Urdiain-goa. Herria biltzen den gelari ere *hauzoa* deitzen diote.

Oso zabalduak diren herrietan, baserriek beren artean egiten dute hauzoa. Beraiek zelaitzen dituzte bideak eta berdin urak biltzen. Etxeko gorabeheretan garrantzi gehiago du bazter-etxetako hauzoak. Baserri bakoitzak badu lehen-hauzo bat, edozein beharretan lehenbiziko deitzen zaiona. Luzaide-n, gehienetan, elizara bidean bakoitzak duen aldamera izaten da. *Ardi-mozte, belarketa, arto zuritze* eta beste lan berezietara beti deitzen zaio. Etxean makurren bat gertatzen delarik harengana jotzen dute. Eta hiletak direlarik lehen-hauzoa da **kurutzeketari*. Honen gain uzten da sendagileari jakinaraztea, agintariei eta apaizari berri ematea, zilo egileari deitu eta gomitak egitea. Bere gain dira zuzenketa guztiak.

Batzutan ez dira, zuzen, aldamenekoak lehen hauzo. Lu-

zaide-n gauza jakingarri bat jaso nuen. Herria noizbait batua izana delarik, oraingo baserriek, diren lekuan, garai hartako hauzoak jarraitzen dituzte. Marimaiteneko Klara hil zelarik, bere hauzoa Bidart zela adierazia zien aurretik. Marimaite karrikan dugu eta Bidart bazter-etxea. Hauzo zaharra.

Bermio-ko baserriarrek gurdi bana zimaurre eman behar izaten zioten nekazaritzatik bizitzeko asmotan ezkontzen zen bakoitzari. *Sastoue* deitzen zuten. Luzaide-n bildotsa eskaintzen zion artzain bakoitzak ardiak larratzen hasi nahi zuenari. Gero otordu bat ematen zien berak, **axuri bazkaria*. *Zur *lorrak* ere baziren. Etxea nahiz borda berritu behar zelarik, zurak ekartzen laguntzen zuten hauzokoek. Arbazu-n (Arruazu) hauzalanez egina dute eliza nere gazte denboran. Norbera joaterik ez zuenak mutil bat bidali behar zuten.

Norbaitek gaixorik nahiz ezbeharrez lanak atzeratuak dituelarik, igandetan lanera joaten ere ezagutu dut neure sorterrian Meza garaian jakinarazten zuen apaizak eta horrekin bazen lana egiteko baimena.

Hauzoa izan da herri giroan gure herriak eman duen urratsik jatorrena. Berekoitasuna garaitu eta elkartasunean sartzea zen. Bakoitzak zezakeen mugatik aurrerago jotzea. Eta honek asko esan nahi du. Batzutan, odolekoak baino areago hartzen ditu hauzoak; eta lehen hauzoa, dudarik gabe, familia baten lagun hurrena da.

HERRI GIROA

Lanbide ezberdinak gizonari izaera berezia xertatu badio ere, bada, bestalde, herri giro bat gauza askotan berdintzen dituena. Izan ere, inguruak garrantzi handia du edozeinen bizitzan.

Dirua.—Ez zen gure herrietan dirurik ikusten. Behar beharrez-koenak betetzeaz kontent zen jendea. Beraiek biltzen zutenarekin asetzen zuten gosea. Jaki guti aldatzen zuten: talo asko, *zuku eta esne, eta txerriak ugari. Ogi xuria igande eta festa buruetan.

Ardoa maite zuten garai hartako gizonak, baina dirua falta. Hauzoan edaterik zutenean, orduan ase behar. Urdiain-go Kapaxo herriz herri ibili ohi zen *iteinak saltzen. Gutu bazen guti, beti zuen sosa berekin. Aste guztirako atera omen zen behin, bere itzulia ematera, eta herri buruan ostatura sartu ezatarria leuntzera. *Zahagitik atera zion ostalariak ardo beltza. Badator aste hondarrean etxera eta berriz sartu ostatuan.

—Bai ahal dakizu zahagi hau noiz askatuta dagoen? gal-detzen dio etxekoandreak. Duela astebate, zuri emandakoan...

Emakumearen ametsa gona gorria izaten zen. Uzta garaian *igitaitzera joan eta irabaziekin gona erosten zuten lehenik. Etxean gelditu zirenek, berriz, gonadunak haunditzat jotzen.

Gona gorriarik ez zuenak zenbait egun jorran sartu eta saritzat, festa egunerako gona uzten zioten. Urdiaindar bat Santa Marina-ra besteren gonarekin joan zelarik, jabea joan omen zitzaion ondora.

—*Gonia, habil poliki poliki!* esan zion.

—*Gonia, habil nundinahiti!* erantzun omen zion besteak. *Arto jorran hiru egun l'ardi pasaturik juzkanat hiregatik.*

Iritsi ezin hortan pareko ziren herritar guztiak, nekazari eta artzain. Hiruzpalau mila duro zituenak lanik egin beharrik ez.

Nolabait bizi nahi-eta, oilo eta txerriak hoberenak saldu egiten ziren. Txarrenak etxean jan. Aho asko ziren sukalde bateko etxekoandreak txerri gizona eraman saltzera.

—Zuen etxean bada horren beharra! Zertarako saltzen duzu? esan omen zioten. Hil eta jan!

—Ai Mattin! Eta zerekin busti? Ezpalekin!

Jakintza.—*Itaurreko esaten zitzaion soro lanetan abereen aurrean zebilanari. Inoiz bederatzi-hamar urte orduko eramaten zituzten haurrak lanera. Eskolak ez zuen estimurik. Ez hori bakarrik; kaltegarritzat zedukaten ikastea. Lumak daduka mundua galdurik, esan ohi zuten. Apezgaiak beste ikaslerik ez zen herrietan. Bada ipuinik asko gai honetaz. Besteren kontu jale, gezurti eta lapur da ikaslea ipuinetan.

Soldadutza beltza izaten zuen,, hori dela-ta, gizajo askok. Asto eta motz bezala zedukaten euskalduna.

Eskola giroak ere ez ginduen asko laguntzen. Irakasle erdal-dunak ziren gehienetan eta ezin zieten hurrek ulertu. Erderaz mintzatzera behartzeko sekulakoak asmatzen zituzten. Zorigaiztoko eraztun bat ibili ohi zen eskuz esku. Azkenik euskeraz egin zuenari botatzen zioten. Bazekien gero zer zetorkion. Egurra.

Jo ere, ez nolana; minik biziena egiteko eran. Behatzak puntaz gera multzoan ezarririk erortzen zitzaien makila. Duela oraino bospasei urte, Nafarroako irakasle batek konpasarekin mihia hartuz, mihi azpiko haragia urratu zion haur bati. Odoletan joan zitzaion amari. Irakasle horrek berak erregla baten hegal biziaz buruan idekitako zuloa ez zen hiru ilabetez itxi. Eta egunoro egiten zioten sendakuntza. Azken berri hauek 1969an jasoak ditut. Haur horien gurasoek esan zizkidaten.

Egia da, bestalde, herri gehienetan beste giro bat sortua dugula. Gaurko gurasoek eskola haintzat hartzen dute: *gure haurrak gu baino gehixeago izatea nahi genuke*, entzuten diegu. Berez burubide jatorra da, aita-amen aldetik. Hemen dator kokka. Irakasle euskaldunak ezagutu ditut nik, esames horretaz baliaturik beren sorterritik euskera bota dutenak. Arbazu-n, herriko semeek kalte haundiagoa egin dute euskera kontuan, irakasle arrotz guztiek baino. Gure hizkuntza zaharra omen zuten oztopo nagusia nere herritar irakasletxo horiek, beren eskolatik nunbaiteko inje-

niadore mordoaa ateratzeko. Eta bai kendu, bai, euskaltzaletasuna eta euskera!

Egoketa hauen ondorea da gaurko *lixiba. Era askotako indarrak ahalegindu dira gure nortasuna zapaltzen. Garai batez ez zuten gauza haundirik lortzen. Gure herriak bere bidea zeraman; eskolara joan nahi ez bazuten, artzain bidaltzen zituzten Urbasa mendira. Gaur bide hortatik ez dago ezer egiterik. Eskola behar; eta eskola gure aurka sortua da.

Nere aitaren denboran Hauzo-etxeko bigarren eztaian zituzten eskolak. Aragoiko andere bat omen zuten zuzendari. Leporaino egin zituenean, ikasleek elkar hartu eta goi-goiko leihotik bota nahi izan zuten. Hartu eta leiho ertzero eramane ere bai... Hasarre bizian agintariengana joan zelarik, handik alde egitea hobe izango zuela erantzun omen zioten. Eta kalte gehiegirik izan ez zezan, etxe aldatzea Hauzoak ordainduko ziola gainera.

Gaur ez, Herri txikienetako alkateak ere, nahiz euskaldun *purpuritak izan, euskeraren eta euskal gauzen aurka puzturik dute burua. Politikatzat hartzen dute betidanik ezagutu duten heziketa jatorra.

Ezin daiteke inolako azterketarik egin gertakizun hauek kontuan hartu gabe. Eta soka hontan berdin harrapatua, nekazaria nola artzaina.

Sinesmena.—Gure aurrekoen sinestea barregarria omen zen. Bitxikeriaz beterik zegoela ohartu da gaurko gizon jakintsua. Ilunpetako ibilketa zen hura; argiaren semeak gu, nunbait.

Gauza bat galdetu nahi nuke nik: zer da bitxikeria? *Bahiaz iturritik ura ekar nahi izatea, bitxikeria litzateke neretzat. Berdin, eguzki eder baten itzala eskuz harrapatu nahi izatea. Gauzak bere izate eta girez kanpo hartu nahi izatea da egiazko bitxikeria. Gaurko pentsabidea bitxi izango zen duela berrehun urte; eta astakeria da iragan denboretako bititza oraingo moldez epaitzea. Bakoitzari berea.

Nekazaritzako aroa, izadiarekin hartueman estuko heziketa zen. Ez zen ezer itsu-itsura gertatzen. Euri eta haize, negu eta uda, eguzki eta elur, behar beharrezkoak denak, indar izkutuen eraginez zetozen. Bi indar aitortzen zituen: Jainkoaren eskutik dator on eta mesedegarri den oro; deabruaren xixpatik, berriz, txar eta kaltegarria.

Ona eta txarra ere ez ziren, berezko on eta txar; norberari ongi ala gaizki heldu zitzaion neurrian baizik. Euria ona da idorte haundi eta bero garaian. Baina, euri hori bera zigor haundia daiteke atergabeko eurretan. Eguzki begia atsegingarri eta zeruko dohain berezi bezala hartu ohi da udaberri euritsu baten atzetik. Ez hala udazkeneko izurri den idortean. Bere ikuspegi bereziaz ikusi izan ditu, beraz, gizonak gertakizun guztiak.

Ona eta txarra iturri ezberdinetatik datozela sinetsi duenez gero, borroka baten soka ikusi ditu gertakizun guztiak. Goi-goiko, ala barne muinetako kezka deiturik, gizonak beti izan du Zer eta Nor sakon horren galdera. Era askotako erantzunak ere aurkitu izan ditu. Aztikeria eta sinesmena izan dira horietako bi.

Aztikeria.—Majia antzera har dezagun hitz hau. Indar izkutuen alorra da Majia. Gizonaren kezkarri erantzuna emateko, joan-etorriko bidea hartzen digu aztikeriak. Hortarako norbait edo zerbait du bitarteko. Aztiaren bidez jasoko du gizon apalaren nahikaria eta indar-izkutuak eragiteko duen kemenez betearaziko. Beste batzutan, edozein gutun eta tresnatxoren bidez lortuko du.

Sinismena.—Sinismena ere goi mailakotara zuzendua da. Indar-izkutuen ordez Jainkoa du helburu; eta aztiak apaizari utzi dio bere tokia. Otoitza eta eskaintza ditu eragile.

Euskal Herriko gizonak, azken mende hauetan behintzat, aztikeriaren barne eragina eta kristau heziketaren jantzia zekarzkie elkarrekin loturik. Nolabaiteko indarrez lortu nahi irrika zuena eta kristau kutsuko hitzak eta gauzak erabiltzen ditu. Ez dut jokabide txarra zenik esan nahi; ez hoberena ere. Kristautasu-

naren argibideak ez zituen gizonen ekintzak aldatu; nekazaria tresna berekin lanean, eta artzaina bere bazketan utzi zuen. Beste maila bateko argibidea ekarri zuen, bien itsasketa denborarekin egiten den zerbait izaki. Egiten doa. Bitarteko gizaldi horietan nortasun haundiko gizaseme eta santuak izan ditugu. Aldaketa sakonen garaian gara orain eta ez da azkena; beste urrats bat.

Hala ulertzen da gure herrietako elizkoitasuna. Euritzeko eta atertzeko letaniak; erauntsietan konjuruak, eta saguak edo *mamutzak lekutzeko ere elizkizun bereziak. Hori, halare, guti esatea da. Guztien egileari apalki egindako konjurua otoitz jator gerta daiteke. Eta otoitzik hoberenarekin nahastutako nolabaiteko indarkeria aztikeria huts, era berean.

Beste jokabide batzuetan garbiago ikusten da. Oraintxe arte, norbaiten zorigaitza edo heriotza lortzeko argizagia bihurritu eta edozein aldaretan pizturik utzi ohi zuten. Gorputzaren antza hartzen zioten *tortxari, eta bizia (anima) ikusten zuten argian.

Elizako liburutan ere badira ohitura zaharretatik gelditutako gauzak. Hiru *bahazikor (harri *pikor xuri) hartu eta suari botatzeko erakusten zioten erauntsien aurka ari zen apaizari. Sinesmenez egin beharra, noski; bestela aztikeria zela idatzia zegoen. Luzaideko artzainak Ibaineta ganean otoitz hau egiten omen zuen harri erauntsia zetorrelarik:

*Abarrika la Frantzia

Valcarlos también

guarda mi etxola

y Pentze haundia también.

Azoletako emazte bati hartu nion. Bere aitasori ikasia.

Meza bera ere aztikeriaz hartu izan da behin baino gehiagotan. Luzaide-ko apaizari ifar aldeko euskaldun bat etorri zitzaion behin, "exkomunione" meza bat eman araztera. Oso erraza da, zion berak; *nik manatzen dut, zuk emaiten... eta ene etsaiak leher egiten.*

Nik hemen aipatutakoa ez da gure herriaren jokabide berezia. Garai hortan, beste eskualdeak bide berdintsutik joanak genituen. Gure artean zer gertatzen den jakiteko, munduan zehar nola zebiltzan ikasi behar! Ez gara inoiz herri itxi bat izan, eta gaur ere ez. Itsasoz eta lehorrez, mundu zabaleko haizeek eman izan digute euskaldunoi aurpegian.

Badira, halare, herri bakoitzak bereak dituen kezkatxoak. Nafarroako egoera, esate baterako, oso berezia da Euskal Herriko giroan. Bizitza baketsu eta elizkoi batetik, fraide eta serora harrobi izatetik, bat-batean, beste aldera joan bait gara.

Nafarroa

Nafarroako dirua, diruduna noski, oso berekoa izan da. Olagintzaren aurka agertu da gure denboran. Burni lantegi eta beste, etsaiaren adarrak berekin zekarzkien tresna ikaragarri bezala ikusten zituzten, bai dirudunek eta bai gure eliz agintariek. Nunbaiteko jende arrotzez beteko ziren kristalezko Iruine garbia eta gure herri politikak. *Ohitura zuriak* erre kara botatzea izango litzake; porrot egingo luke gure *sineste zaharrak* eta hainbeste Rekete-ren odol gorria ixuri ondorean, marxista gorritz beteko omen ziren bazterrak. Duela urte guti arte, gure buruzagiek ez zuten Nafarroan fabrikarik nahi.

Berrogei bat urte galdu genuen "asepsia" behar hortan. Birtartean oso aurrera joana genuen *Añamendi aldetik hain gertu dugun Europa zaharra; edota gu oso atzera geldituak. Berez europazale izandako Nafarroa honek, gaurkotasunaren eta etorkizunaren trena galdu zigun negargarriro.

Baina, gurekin edo gu gabe, mundua bere bidez zihoan eta olagintza sartzen joan zitzaigun etxean. Itsasoz beste aldera joan beste biderik ez zuten mutilak ogibidea hemen ikusten hasi ziren, eta neguan etxera etorritako basa-gizonak ez ziren udaberrian

Italia, Suiza eta Frantzia aldera itzuli. Bide guztiak atzerritarrez bete zitzaizkigun, aldi berean.

Olagintzak bizibide hobea sortu du alde batetik. Inor ez da dendara oliba artoaren truk hartzera joaten. Gona haundi beharrik ez dute gure emakume gazteek; ardoa arruntegi zaie mutilei. Autorik hoberena, garestiena, zaie langileei ere atsegin, besteren etxean errentan biziko bada ere. Salerosketaren erregetza da bazterretan nagusi, eta sukalde zokoetako borrokarik gehienen iturri. Aldekoak mokoan ezitia, eta guk ez. Dirutzaren erresuma.

Politika.—Hogeitahamaseiko *gataskatik oso politizaturik zeuden gure herriak. Zuriekin joandakoek nola orain zartagia kirtenetik utzi! Berak dira zuriak, eta gorriak besteak. Etxean odola ikusi zuten beste aldekoek, berriz, bihotzean dute arantza kokatia. Gauza asko dabil azpitik *sor-sor.

Talde politizatuak ere baditugu, bestalde. Talde asko eta alkar irentsi ezin dutenak. Taldexkak, askotan. Talde horietan sartzan ez dena burgesa da, nahiz eta bizitzeko eskas irabazi. Mailarik apaleneko langileari berdin lotzen zaio hitz hori, taldekoa izan ezik.

Politika da, bakoitzaren politika, herri xumearen konzienziatze jatorra. Beste guztientzat, iraultza.

Eliza.—Ez da haintzat hartzen. Ez du askorentzat ezer onik. Dena txarra. Ixilik egon delarik, diruaren morroi genuen; kapitalisten tresna. Apaizak mintzatzen hasi direlarik, beren burua agertu nahian dabiltz; berriz ere agintzen jarraitzeko prestatzen. Baza politikoa jokatzan ari. Duela urte guti, neskatxentzat igaritegi bat eta hesiz itxita, mutilentzat beste bat behar zen Iruinen. Soinekoen besamotzetan neurtzen zen, metroz, bekatua. Dantza lotua zen herri festetako arazo nagusia.

Hau zen azken denboretako giroa. Hautsi dira bai, hautsi, hesiak eta *hesolak! Beste norbaitek aztertuko digu olagintzako giro hau.

EUSKAL OLA ZAHARRAK

Joseba Intxausti

Lantxo honen izenburutik bertatik mugatu nahi nuke idazlan honen *hesparua. Euskal Herriak izan dituen industri mota denak ikutzeko asmorik ez dut: *burdin *meatzetatik jaió ziren ola zaharrak ikutuko dira bakarrik. Euskal *meagintza eta *burdinolak ikusiko ditugu, baina *ontzigintza eta *harmagintza alde batera utziaz. Eta hori ere oso gaingiroki egin beharko da, artikulua laburrak eta gaiaren zabalak hortaraxe mugatzen bait gaitu.

Euskalduna, "homo faber"

Euskal Historia bere *luze-zabalean piska bat ikusmiratu duenak badaki euskal gizona langilea izan dena, lanari emana. *Artzantza eta *laborantza zaharrenetatik hasita, aurrera jo zuen langile harek. Gure herri *xumeak ez du konkista sonaturik egin; baina, sorterrian eta herbestean, lanari emana agertzen zaigu bere hemengo egonean eta nonahiko ibilietan.

Euskal lana, nahitaez, bertako geologia, geografia eta klimari loturik egin izan da. Geddes eta Caro Baroja-ri jarraiki nahi baldin bazaie, Euskal Herria lau lurralde modutan bana liteke: Kostaldea,

Beterria, Goiherria eta Mendialdea. *Kostaldea*, marinela eta arrantzalea da, eta, industriaren alorrean, hor kokatzen da *itsasontzigitza. *Beterriak*, *hiribildu (villas) eta baserriak izan ditu gehienbat, etxe-bizitza barriatuak alegia; beterritarra, nekazaria da, lurra ere *emankorra izan bait du. *Goiherriak*, apalagoa izan aurreko lanean agertu da nor eta zer den mendialde horietako *Mendialde* garaienetara jotzen baldin bada, berriz, (Pirinioak, Aralar, Aizkorri, Gorbea) hantxe aurkituko ditugu euskal artzainak; baina, hauen ondoan, baita oso bestelako *bizi-moldeak dituzten *egurgile, *ikazkin, *meatzari eta *olagizonak ere. Liburu honen hurreko lanean agertu da nor eta zer den mendialde horietako artzaina. Orain, besteak ezagutu behar ditugu. Euskal industrigitza zaharra mendietan jaio zen, eta *burdingintzari toki nagusia dagokio bere egurgile, ikazkin, *mandazain eta meatzariekin. Geroago jaitsiko zen ibarretara eta hain bikaina izango zen Kostaldeko ontzigitzaraino ere.

Basoak eta meatzak sortuko dute euskal industria zaharra. *Burdinari bere ibilbideak urratuaz egin da euskal industri lanaren historia*: meatzariak, burdinaren bila zulatu zituen mendien erraiak; burdina basoetara iritxi orduko, lanean hasi zen ikazkina, *haizeolak mantentzeko; burdinolak ibai-ertzetara jaitsi zirenean, olagizon, *herrementari eta *arotz bihurtu ziren herrixka eta hirietako euskaldunak; ibarretako burdina kostaldera heldu zenean, itsasontzitegiak sortu zituzten langileok: harrez gero (XII. *mendiaz gero batez ere), posible zen itsas-bide berriak asmatzea, burdina eramanez eta era guzietako arrantza eta merkatalgoa eginaz.

Lanaren bideak irekiaz mamitu da Euskal Herria, herriherriaren zuztarretatik. Hein handi batetan, lanbideok eman diote europear *jitea gure herriari, lanerako asmatu, hartu nahiz zabaldu dituen tekniken bidez (Caro Baroja). Eginahal hortan jantzi da herriaren nortasuna, ez bakarrik —gutiagorik ere— artzantzan eta laborantzan. Euskalduna, gizon teknikoa gertatu da (*homo*

faber dio norbaitek). Euskal industri moldeen *emankortasuna, ordea, bereziki burdintgintzan nabarmendu zaigunez, industri *ekinbide honen hariari jarraikiko zaio idazlantxo hontan, zindoki sinesten bait du artikulugile honek lanbide hori izan dela gure historiaren gailurretako bat eta, nahiago bada, gainerako ekinbide emankorrenen iturburua ere.

I. EUSKAL HERRIKO BURDIN MEAGINTZA

Meatze lanak ez dira gaurkoak Euskal Herrian, oso zaharrak baizik. Beharbada Burdin Haro deitu hartatik bertatik datozki-gunak. Badira, izan ere, euskal lurretan, hipotesi hau frogatuko luketen aztarnak. Gipuzkoako *jentilbaraztetako kultura, badirudi burdin kultura bati lotua jaio eta hazi zela. Horixe izan liteke gure Hallstatt (600 bat urte K.a.). Bizkaian, berriz *trekuharriak dira burdin lurretan lekutzen direnak. Esan dezagun, ba, Megalitos garaiko *eraikuntzok badutela zerikusirik burdingintzarekin. Euskal toponimiako *Aia* *tokizenak (Gipuzkoan baditugu hiru hola-koak, Araban *Aiala* eta *Araia* ere bai eta oraindik harago ere Logroño-n, *Aiabarrena*) burdin tokietan aurkitzen ditugu. Eta jakina da, indoeuropearren *Ayas* hitzak *burdina* adierazten zuena. Etimologia posible horren arabera, *indoeuropearrendik ikasi ote zuten euskaldunek burdingintza? (Laborde).

I. 1. Historiako zenbait une

*Historiaurreko datuok nahiko ilunak baldin badira ere, erromatarrekin argibide gehiago jaso litezke. Plinius Zaharrak *Naturalis Historia* izkiriatu zuenean, ezaguna zen Euskal Herriko burdin aberastasuna (XXXIX. liburua, 149. zenb.). Harek aipatzen duen

burdin mendia, *Somorostro* izango litzateke. Gipuzkoan ere aipagari da erromatarrek ezagutu zuten *meatoki bat, Oartzunen Aiako Harriaren azpian dagoen *Arditurri*, alegia. Erromatarren *Oiarso* hiriarri lotua zegoen *meaztegi hau, eta lan luze eta neke-tsua egin ziren bertan: 200 bat meatzarik egin zuen lan lurpeko *meazpideetan eta beste hainbestek *meazkiaren *garraioan (Gaskue). Dena dela, *Arditurri* zulatu zenean, *berun bila egin zen gehienik.

*Erdi Haroaren lehenengo partean (XII. menderaino edo), euskal meatzeen *emana oso urritu zen. Hemengo meagintzaren berrikuntza, Europakoaren ondotik dator, eta —mugatuago esateko— XII. gizaldian Europa gehienez sumatzen den *zuzperraldi biziaren ondotik. Hamaikagarren mendetik aurrera, banditugu testigu jakingarriak: San Millango Agiria (1025. urtekoa). Dokumentu hartan herriz herri ematen zaizkigu Arabako hauzoek Monastegi hari eskaintzen zizkioten burdin-oparien albisteak. Mende eta laurden geroago Donostiako Foruak ere (1150) ez du ahanzten *burdingaiaren *merkatalgoa.

Hurrengo mendean, hamairugarrenean, Europak ezagutu zuen Lehenengo Errenazimenduan ere parte hartu zuen euskal burdinak. Lau meatoki nagusi dira orduko European: Ingalaterra, Suezia, Alemaniako Harz eta, laugarrena, Euskal Herria. Brugge-n (Brujas/Bruges) eta Ingalaterran bertan ere salgai dago euskal burdina, Genicot eta Le Goff-ek aitortzen dutenez. 4.000/5.000 tonelada dira urtero Gipuzkoa eta Bizkaiko kaietatik Europara doazenak (Bautier). Pizkunde berri baten atarian aurkitzen gara, beraz.

Erdi Haroko azken mendeetan sendotu baizik ez da egingo *merkataritza hau. 1348-1350 urteetako *Izurrite Beltza gorabehera, *goraldi horrek berean jarraitu zuen, XV. mendean goi *erpina jo arte.

XV. mendean, (Bizkaiko) Jaurerriari merkatalgotik

zetorkion bere ekonomi indarra burdinean oinarritzen zen (Kortazar).

Egia da: Gaztelako *artileak leku nabarmen bat izan zuen garaiko bizkaitarren merkatalgoan; baina pasadizoko *merkatalgaia zen artilearen ondoan, burdina izan zen beti aberaspiderik opa-roena. Pundu hontan, gure koiuntura eta Catalunya-rena kontrara doaz: *fargues* direlakoak *erorialdi luze bat hastera doazenean, euskal *ola zaharrek *gorabideari ekiten diote, XVIII. mendea amaitzean dena itzulipurdikatu arte. 1794az gero (Gonbentzio Gerratik, alegia) euskal burdingaiari Ingalaterrako atea hertsit egingo zaizkio, eta XIX. mendeko bigarren erdiari itxaron beharko zaio *Industri Iraultzak dakarren zuzperraldia ezagutzeko.

1. 2. Euskal meatokiak

Meatzeak ez daude euskal lurraldeetan berdinki barreiatuak, baina bai erruz. Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa Garaia dira *burdindegiz aberatsenak. Geografiari dagokion barreiakuntza ezberdina ahanzi gabe, meatzerik *ustiagarrienak (esplotagarrienak, esan nahi dut), Bizkaiko Jaureerrian aurkitzen ditugu.

Bizkaian (Gipuzkoa batean ez bezala) meatzeak leku-lekutuak aurki daitezke: Enkartzioetako Somorrostro da Bizkaiko burdindegien bihotza. Hego-sortaldetik ipar-sartaldera goazela, 24 kilometro ditu luzean burdinaren eskualde honek, zabalean 2/8 kilometro daduzkala. Basauriko San Migel-etik Santandere-ra doa meatokia.

Burdin meatzeen esplotaketa Euskal Herri osoan egin zen, baina alderik gabe, Bizkaikoa izan zen nagusi eta buru. XIX. mendeko Industri Iraultzak ekarri zuen arrakastaren aurretik ere, bereak eta bost emanak zituen gure meatzeak. XVI. mendetik XIX.aren erdi alderaino, urtero 40.000 Tm. aterako ziren batz bestea (Adan de Yarza). Zoritxarrez, ezinezkoa da produzio haren

estadistika zehatz bat osatzea (Kortazar). Legizamon eta Salazararren artean izandako hauzi bati esker, jakin dezakegu hala ere zerbait: *bide-zerगतan (*peaje*) bakarrik, urtero 104.000 *marai kobratzeko lain *burdinki ateratzen zen Somorrostrotik Lapurdira XVI. mendearen haseran. Zeharkako datuok argi diezagukete zerbait bikaitar meagintzaren zenbatekoa.

Salmentarako bi irtenbide zituen meagintza honek: kanporako salmenta eta Euskal Herrian bertan olek eramaten zuten burdingaia. Bai batean eta bai bestean, meagintza hau itsas-bizitzari oso erantsia dago. Gogoan har dezagun, bide batez, Erdi Harotik XIX. menderaino luzatu zen burdingintzak emankortasun laburra duela, gizaldiz gizaldi euskal meatzari eta olagizonek ezagutzen zituzten teknikak ez bait ziren ia berri (Lefèbvre). Gaskuek esan digunez, meagintza harek lehenengo batean ez du *eztandagailurik erabiltzen. Suaren laguntzarekin *zartaerazi egiten zitzaion burdingaiari eta, gero, ziriekkin zatitu. Teknika hauek ezarritako produzio ugaritasunaren mugetan, euskal meatzetako burdinak salmenta erraza zuen.

Meatze lanak, sarritan bestelako bizi-moldeekin oso batean bizi izan dira gure baso-mendietan. Meatze handien inguruan gertagarri zen aparteko bizi-modu bat sortzea, hau da, meatzariari bereziki zegokion bizi-modu bat. Baina hori oso gutitan gertatzen zen, gure meatzeak ez bait dira gehienetan hain handiak. Maizenik, baserritarra edo laboraria bera bihurtzen zen meatzari negusasioan, meatze lana baserriko ekonomiaren lagungarritzat hartuaz. Holakoetan, artzaina nahiz nekazaria, hala berean zen meatzari eta *olagizon.

Bizkaiko meatoki handiek sortu zuten lehendabizi meatzari eta olagizon (*nahiz* olagizon) hutsa zen "ofizioko" langilea. Eta olagizon hauek, zenbat eta eskolatuagoak izan, hainbat eta urrunduagoaz joan ziren euskal gizarteko beste bizi-moldeetatik. Bizkaiko *Jaurerrietik hasita, beste herrialdeetan gero, gizarte mota

berri bat ekarriko zuen horrek, hiri bizitzara geroz eta emanagoa. Eta, jakina denez, gizarte aldaketa eta taldekatze hauek lege berriak ekarri ohi dituzte historian, gizarteari eskubidezko oinarriak ezarri nahiez.

I. 3. Meatzeak eta euskal legeak

Erdi Haroko Europan meagintzak nahiko tratamendu berezia izan zuen legearen aldetik. *Feudotiar jaunek berek ere, ekonomiak bortxaturik, beste langile askori baino askatasun zabalagoa eman behar izan zieten meatzariei. Meatzarien gizartea, Europan, "Estaduaaren barneko beste erresuma bat izan zen maizenik" (Nef). Meatzeak eta meatzariak *legeria aparteko bat izan zuten. Pirinioetan, Normandian, Ingalaterran eta beste hainbat tokitan, benetan ikustekoa zen meatzarien gizarte haiek zuten jite berezia.

Euskal Herrian ere holako zerbait gertatu zen meatzariekin, eta areago oraindik meatzari hau benetako olagizon *bilakatu zenean. Meatzeak lurraren ondasunak zirenez, gainerako lur-ondasunei euskal legeak eman izan zien trataera berdintsua eman zitzaion meatzeen *jabegoari ere. *Lege Zaharretan eta *Udaletako *Arautegietan argi dago meatzeen jatorrizko jabetza norena zen: herriko semeak ziren jatorrizko jabeak, hauzo-lagunei zegokien eskubide hori, nahiz eta batzutan tokiko jauntxoek, gehiegikeriaz, jabetza hura berenganatu nahi izan.

Arazo hontan Erregeekin edukitako eztabaidek gonfirmatu besterik ez dute egiten herritar guzien eskubide hau. Alfonso XI.ak eta Isabel Katolikoak izan zituzten hontan beren handi-mandikeriak Bizkaiari buruz 1348 eta 1484etan, eta berdin Erregina honek Gipuzkoaz ere. Baina berriz ere lehengora eta betidanikora itzuli zuen arazoa Bizkaiko Foru Berriak (1526). Salazartar eta beste jauntxoen egintzen kontra joan zen (Erregeenaren aurka bezalaxe)

euskal herrialdeetako *lege-borondatea. Eta, gehienetan, garaile irten zen, gainera.

II. EUSKAL BURDINGINTZA

Siderurgia hitza itzuliaz darabilgu hemen *burdingintza*. Ikusi dugu arestian, meatzeak *ustiatzeko euskal laborariak izan duen joera. Joera hau, hain zuzen, burdin meatzeetako zereginetan nabarmendu du batez ere. Eta, hortik, berehala pasa izan da euskal nekazaria olagizon izatera ere, hau da, burdingintzara ere. Bigarren ogibide espezializatu bat zuen, orduan, baserritarrak. Lanbide bikoitz hau (meatzariarena eta olagizonarena) burdin meatzeak berak ere baino zabalduagoa izan da Euskal Herrian, Erdi Harotik honakoan bederen.

Olagizonak —beren erro zaharrak antigoaleraino eramanaz— euskal mitologian ere sartu dira. Ez da, izan ere, batere harritzekoa, hainbeste mila gizonen ogibide zen hau (meatzari eta ikazkinetatik hasita mota guzietako olagizon eta ontziegileetaraino) herri xumearen *ameskai gertatzea: gizarte eta izpiritu-bizitzaren kontakizun mitiko asko piztu zituzten burdin lan haiek (Barandiaran). Burdinaren *elkorra, suaren jolasa, Mariren ikustaldiak eta olagizon zailduen trebetasunak, nahasian dabiltz herrietako *sineskizunetan.

II. 1. Burdingaiaren bideak

Burdina lantzeko, ola zaharrak burdingaia, minerala, behar du, baina baita —eta gehiago, hain zuzen— ikatza ere. Burdinak eta ikatzak elkar behar dute. Eta bion artean, meatzearen eta basoaren artean esan nahi da, bideak dira beharrezko. *Bide-sare

egoki baten eskasiak, meatzea bera ere ito egin zezakeen. Lur lehorrean, mando-bideek ibar-gora egiten zuten, mendi portuen bila; meazkia, ordea, (hain astuna, hain pisua!) errazkiago joaten zen, ibai-behera, itsasoraino. Hori zen —kalitatea aparte— bizkaitar burdingaiak zuen *abantaila bat: ibaia bertan eta itsasoa gertu.

Burdingaiaren ekarreramanak askori ematen zion jaten: 500 bat *zamari (mando eta zaldi), 450 bat gurdi eta 600 bat itzain ziren *garriatzaileak Bilbo inguruetan, Industri Iraultza hastean (1865). Baina, aurreko mendeetan, ez zen noski horrenbestekorik, oso berandukoak izan bait dira bide berrikuntzak Euskal Herrian, XVIII. mendekoak gehienbat.

1545etik dakigunez, burdingaia hiru *herenetan partitzen zen bata itsas-ontzigintzarako, bigarrena harma, iltze eta lanabesetarako, eta hirugarren partea herbesteko salmentarako. Herbestera egin behar zen garrioa salbu, Gipuzkoako burdinolak ziren meazki gehien behar zutenak. Meazkirik istimatuena bizkaitarra zenez, premiazkoa zen batetik besterako bideak zaintzea.

Bilbo aldean etengabea zen burdin garriorearen emana. Bizkaiko kaietako ontziek (Barakaldo, Plentzia eta Ondarruakoak *aintzindari) *errenderian jasotzen zuten burdingaia nahiz burdin landua. Portu eta mugetan errenderia hauek ziren burdinaren gordeleku: Gernika, Ondarrua eta Pasaian ezagunak ditugu orain ere izen horixe gorde duten herri eta hauzoak. Ibaien *bokaleetatik, zamarien bizkar iristen zen burdingaia oletaraino. Eta ola zaharrek ere gero eta gehiago zuten ibai behera etortzeko joera, edota esandako gordelekuak sortzen ziren ibaietan: halanola, Deban *Altzola*, Urolan *Bedua* edo Orian *Arrazubia* (Ciriquiain-Gaiztarro). Itsas-bidez eramaten zen Ipar Euskal Herrira ere burdina, *merkatalgai hau bait zen Erdi Harotik honakoan (Nafarroako gari eta artilearekin batean) Euskal Herri osoari ekonomi batasuna ezarri ziona: Donibane Lohitzun zen batez ere bizkaitar burdingaia

lur barnera zabaltzen zuena. X. mendetik zetorren, nonbait, ipar eta hegoaldeko euskaldunen arteko merkatalgo hau. XVI-XVII. mendeetan nahiko atzerapen izango du salerozketa horrek, Espainia eta Frantziaren tarteko gerrateak direla eta; baina orduan ere izkutuko ahaleginak (kontrabandoak) eutsiko dio harremanari. 1528 eta 1545eko debekuek ezingo dute ito gure merkatarien arteko irabazpide hau (Lefèbvre).

Bestalde, ez da ahanztekoa Penintsula barnerako merkatalgoa. Gipuzkoako Goiherri eta Oria *arroko burdina San Adriango bidetik zihoan Gasteiza eta, hemendik, Gaztelako *lautadara. Oinati, Mondragoe eta Bergara aldea Arlaban-go *lepotik barna iristen zen Arabako Hiriburura. Gipuzkoa eta Nafarroaren artekoa, Tolosa eta Berastegitik egiten zen Lekunberriraino. Zoritzarrez, bideok ez zuten ezagutu inolako *erosotasunik eta lur lehorreko bideak ez ziren ekonomi zuzpergarri gertatu oso berandu arte.

Gezurra badirudi ere, Bizkaiko burdinak (hain sonatua bera!) ez zuen bide egokirik, XVIII.ekoa bait dugu Orduinakoa. Erdi Harotik, bizkaitar zamariak Balmaseda eta Durangoko bideak hartzen zituzten, eta Gaztela nahiko urruti geratzen zen. Mendi bidexka eta *zeharbidetarik, berriz, neguetan elurpetan geratzen ziren. *Eskuarki, burgostarrek Balmasedan zedukaten beren burdin azoka eta bertatik eramaten zuten, guti-asko landuta, Bizkaiko burdin preziatua. Bilboren eta Burgos-en arteko artilearen hauziarekin ere izan zituen bere gorabeherak merkatu hartako salmentak.

Bizkaitik Gipuzkoarako harremanak berak ere ez zeuden, lur lehorrez, batere ongi eratuak, Durango-Berriz-Ermuatik etorriko zen kamino berria ere XVIII.ekoa bait da. Dena dela, jakina da gipuzkoar ola gehienak-edo bizkaitar burdinaz baliatzen zirena. Eginahalak eta bost egin ohi zituzten gipuzkoarrek, Bizkaiko burdingai landu gabeak, herbestera eraman ordez, Gipuzkoarako erraztasun bereziak izan zituzten. 1489an Errege Katolikoagana jo

zuten Gipuzkoako olagizonek, baita agiria lortu ere, Bizkaiko meazkia, gainerako erosle guzien aurretik, herrialde anaiari salzekion.

Bizkaitarrek merkatu ona zuten beren irabazpideetarako Gipuzkoan: Bizkaiko olak salbu, Gipuzkoa zen bizkaitar meazkiaren eroslerik onena (Churruca). Behera behar bizian zetorren XVIII. mendean bertan ere, Hondarrabiako kaian bizkaitar ontziak ziren ugarienak (arrantzaleenak kenduz gero, noski). Hola dio Tofiño-k 1789an.

II. 2. Euskal burdinolen *lekumena

Meatzeek eta basoek zuten erakarmen berezia burdinolak lekutzeko. Geroxeago, baita erreka eta ibaiek ere, burdin gorria lantzeko indarra eskaintzen bait zuten. XVI. mendean ugarituaz jarraitu zuten Gipuzkoa eta Bizkaiko burdinolak: Bizkaiak 80 zeduzkan mende haseran, 177 (107 handi eta 70 ttipi) XVII.lean. Gipuzkoak, berriz, XVII.aren haseran 118 (80 handi eta 38 ttipi).

Lantegiok oso desberdinki zabalduak zeuden euskal lurraldeetan. Kantauriko *mendikatearen hegoaldeetik ez zegoen, esateko, burdinolarik, Arabakoren bat aparte uzten bada bederen. Bizkaiak eta Gipuzkoak erruz zituzten burdinolak, Iparraldean ere bagenituen, batez ere XVIII. mendean (Amikuze, Baigorri, Orzaize, Larrau eta abarretan). Eta une hartan jaio zen asmo berri bat: Landetako ikatzarekin eta Bizkaiko burdinarekin (200 Tm.-rekin edo), ola berriak Baionan sortzekoa.

Luzea da Gipuzkoan eta Bizkaian, ola zaharrak zituzten herri eta hauzoen izen-saila. Txurruka eta Labordek eman dute beren lanetan ola haien zerrenda. Dena dela, bi *beharrizanen arabera hedatzen dira beti olak. Burdina eroso aurki litekeen tokietan: meatze inguru eta ibaietan, esate baterako. Baina nahiko sarritan, nahiko txundigarri den zerbait aurkitzen dugu: mendi

gorrian daduzkagula ola zaharrak eta berauen hondarrak. Zer gertatu da holakoetan? Arabako Aramaion, Nafarroako Orbaizetan (XVIII.ean), Gipuzkoako Goiherrian, Lapurdiko Saran olak idorrotzen ditugu. Holako anitz ikatzaren eta basoaren bila igo dira menditara, ez meazkiaren bila. Horixe gertatu zen XVIII. mendean: Iparraldean (eta burdinola tradiziorik gabeko tokietan) jaio eta hazi ziren lantegi batzuekin; izan ere, tonelada bat burdinetarako, bost behar bait ziren ikatzetatik (Las Hayas). Erosoagoa zen, beraz, lana basoan, handik urrun baino. Ashton-ek (Industri Iraultzaren historigileak) ere jaso du burdingintzak basoarekin zuen lotura hertsia.

Bizkaiko olak aski taldekaturik zeuden Galindo erreka inguruan (hau da, Barakaldo inguruan): garairen batean bai omen ziren han 70 olataraino (Las Hayas). Baina meaztegiei inguratze hau ez zen, nonbait, lege iraunkorra gertatu, eta basoak *erakarmen handiagoa izan zuen: gerora Zeanuri, Ubidea, Orozko, Otxandio etab. izan ziren ola talderik ugariak bildu zituztenak.

Arabakoen berri Landazurik ematen du: XVIII. mendean 18 bat omen zeuden Araban, Laudio, Aiala, Urkabustaitz, Villarreal, Arraia, Araiako Asparrena eta Gobia *haranean.

Burdingintzaren barnean —arestian esan da— hiru *eragile daude: burdina bera, basoa eta indarra (haizea nahiz ura). Langai hauek gorde eta bilatu beharrak kezkatzen ditu herri agintariak, lantegiok taldean ezartzeak ukan bait zitzakeen bere arrikuak: guzientzat egurrik eza, beste industriei (ontzigintzari Bizkaian, adibidez) *langaia kentzea, artzainei itzalpeak garbitzea (Zegama, 1781) etab. Ez da, beraz, harritzekoa, basoen mozketak legetuak izan baldin baziren, izan ere hortik etor bait zitekeen ekonomia osoaren hondamendia. Burdingaiaren eta basoaren arteko interesen sokatiran, badirudi (hipotesi aztergarri bat besterik ez da) Bizkaiak bere burdingaia defendatzen duela gipuzkoar ola ugarien kontra. Bestalde Gipuzkoak bere basoak

eskain diezazkieke bizkaitar burdinolei. Une batzuetan interesok elkar-osagarri izan zitezkeen, eta behin baino gehiagotan horregatixe eman zion Bizkaiak tratu berezia Gipuzkoari. 1689an, adibidez. Meatzearen eta basoaren arteko nahitaezko premia eta borrokak halako "ekologi dendun" (equilibrio ecológico) bat sortu ote zuen euskal herrialdeen artean? Eta herrialde bakoitzaren barnean zer? Ikustekoa eta aztergarria da noski arazo hau historigileentzat.

Beste maila batean ere harremanik agertzen da, ekonomi behar hauetan. Teknikari begiratzen baldin badiogu, bada bata-sunik Ipar eta Hegoaldearen artean, XVIII. mendean behintzat. Lefèbvre'k esaten digunez, Baigorri eta Larrau-eko oletan (bi eskualdeok Iparraldearen barne-barnean daude) bizkaitar teknikak erabiltzen ziren XVIII. gizaldian: bizkaitar *sukatilua zen han ere erabilia. *Ce qui montre que l'industrie métallurgique, était dans toutes les Pyrénées atlantiques orientales* (Euskal Herrian), *essentiellement biscayenne par son origine et par ses moyens de fabrication.*

II. 3. Nola lanegiten zen burdinoletan?

Burdinola bat zer zen eta bertan nola lanegiten zen jakiteko, halako lantegiren batera joan beharko litzateke. Nahi duenak Legazpian du bat, "Mirandaola", eta herriko jai nagusietan ikus daiteke han zer-moduz lanegiten zen oletan. Oraindik ere begiz ikus daitekeenetik aparte, idazleek ere utzi digute berri aski. Garibai, Isasti, Larramendi, Berriz eta Joan Antonio Mogel-ek, esate baterako, badituzte deskribapen interesgarriak, ola zaharren lanbide eta teknikak agertuaz. XVII.aren azkenetan, honela agertzen digu ola haiek zer ziren Gipuzkoako legeak (1697):

Ferrería es una oficina o ingenio en que se funde el fierro, con la violencia del continuado fuego, fomen-

tado del viento, que respiran unos grandes fuelles, movidos de la fuerza de mucha cantidad de agua por medio de unas artificiosas ruedas que los agitan para encender en llamas grande copia de carbón, con cuya eficacia se convierte en género líquido de fierro el metal bruto, llamado generalmente vena, que produce lo más escabroso de las montañas de Cantabria.

Hortxe ditugu, beraz, lantegi hauetako langaiak: burdingaia-sua-haizea-hauspoak-ura-*tikinoiak (gurpilak)-ikatz-*agoa (burdin urtu nahiz *goria). Ola handi batean, hiruzpalau gela aurkitzen ditugu: *hauspotegia*, **gabitegia*, *ikaztegia* eta *meategia*. Lantoki hauekin batean, *gizategi* bat egon ohi zen. Ikaztegia eta meategia, ikatzaren eta burdingaiaren gordelekuak izan ohi ziren; gabitegia eta hauspotegia ziren benetako lantokiak, hauetan lantzen zen burdina. Bion artean aurkitu ohi zen **arrago-etxea sutegi*-arekin. Gizategian izaten zituzten olagizonek beren atsendaldiak.

*Zearroletan, hau da, urez ziharduten oletan, hiru ziren tresnarik ezagugarrienak: tikinoiak (ruedas hidráulicas), hauspoak sutegiarekin, eta gabiak mailuekin (martinetes y mazos). Indarrarena zen arazorik gogorrena burdinola batean: indarra behar zen sutegirako; indarra, berriz ere, hauspoak eta gabiak erabiltzeko. Zearroletan, urak mugitzen zituen gabiak eta hauspoak; haizeoletan, aitzitik, haizeak bete zuen egiteko hori.

Zalantzarik gabe, Joan Antonio Mogel-ek eman digu ola zaharretako bizitzaren albisterik irakurgarriena. *Peru Abarka*-n ikus liteke pasarte interesgarri hori (Itxaropena, 1956. 106-124 or.). Mogel-ek agertzen duenari jarraikiaz, badakigu olagizonen artean ofiziale mota desberdinak zeudela: *gatzamaileak*, *urtzaileak* eta *ieleak* aipatzen ditu. Hauezaz gain, baziren gazte ofizialegaiak eta peoiak ere, ola bakoitzeko lanaren arabera; ofiziale nagusiari *arotza* deitzen zitzaion.

Gatzamailearen eginkizuna, sutegira bota aurretik, burdingai errea desegitea zen (Isasti), burdingaia xehatzea. *Gatzamalliak txikindu edo jo biar dau agoe guztietarako mia malluka txikar bategaz, batian belauniko daguala, bestean albokerara etzunda, zelan otuten jakon*, esaten du Peru Abarkak. Gatzamailearen lana oso gogorra zen, nonbait, Mogel-ek zera esanarazten bait dio Peru-ri: *Oneek bai bene benetan irabazten dabeela jan biar dabeen ogija euren bekokiko ta korputz guztiko izerdijagaz*. Gatzamailea zen ofizialerik apalena, bera bait zen lantegiko mandataria ere, olagizonei ardoa eta behar zirenak ekartzeko. Etengabeko lana zuen gatzamaileak, bereak egin inorenetan lagundu eta mandatuak egiten.

Urtzailearen (fundidor) betekizuna sutegikoa zen: meazkia sutegian urtu behar zuen urtzaileak. Hortixe zetorkion, hain zuzen, bere izena ofiziale honi. Burdingaia eta ikatza, urtzaileak daramazki sutegira, berak zaintzen du dena, *agoa* atera arte: hauspoak eragin eta geratu, *agoekirtena* goritu, burdingaia begiratu, eta, gainerakoen laguntzarekin, burdingaia bere punduan denean atera. Urtzailearen zeregina, nekagarria da batez ere bero galdatan dabilelako, eta bizkor ibili behar du burdingai gorria honda ez dakion. Lau bat ordutako lana du agoe-aldi bakoitzak urtzai-learentzat.

Denen artean agoa gorria sutegitik atera denean, hasten da ilearen (laminador) lana: urari eman eta bapatean ekiten dio gabiak bere dinbidanbakoari agoa landuaz, burdingaia trinkatu, mehatu eta *irunduaz. Izigarri da lantegiko durundia. *Ingudearen gainean, gabiaren azpian, badoa agoa luzatuaz, zabalduaz, txapalduaz, behar duen neurria hartuaz ijeleak nahi duen burdin-barra izateraino. Lan hortarako, ondoan ditu ijeleak urtzailea eta gatzamailea ere. Ordu pare bateko lana izanen dute agoe-aldi bakoitzaren mailuketan.

Lanarena aparte, Peru Abarkak ederki agertzen ditu olagi-

zonen lantegiko ohiturak: lo-orduak, jatorduak, jazkiak eta lan-gileen arteko mailaketa. *Obrera* batez estalirik —goitik behera luze—, egiten zen lan burdinoletan. *Obrera* hauek “Mirandaola”n ikus litezke gaur ere. Buruan kapela, bekokian izerdi-zapia, ez jaka, ez galtzerdi, ez abarka eta prakarik gabe ikusi zituen olagizonak Peru Abarkak.

II. 4. Haizeolak eta zearrolak

Beste lantegiak bezala, burdinola ere ez zen izan beti batbera eta aldakuntzarik gabea. Mendeak zehar euskal burdinolek teknika aldaketa nabarmenak ukan zituzten, eta teknika berriekin batera lantegi bizitza ere berritu egin zen. Batez ere bada idazle guziek aipatu ohi duten teknika berrikuntza bat, arestian aipatu dugun burdinoletako indar-eskearekin zerikusirik zuena. Burdina, aski ugari aurkitzen zuen euskaldunak gure meatzeetan; baina burdingaia beti izan da lantzeko nekeza. Burdingintza lan gaitza da, hain zuzen indar handi bat behar delako. Laborantzak, edota industriako hainbat lanek, ez dute halako indar bortizik eskatzen.

Euskal Herrian, oletan gertatu zen gure lehenengo Industri Iraultza dei genezakeena: burdinolak, *haizeolak* izatetik *zearrolak* izatera bilakatu zitzaizkigun. Hots, mendietan zeuden olak erre-kondotara jaitsi ziren, uraren indar bizkorragoaz baliatzen asmatu zenean. Modernutasun ezezagun batez inguratu ziren gure olagizonak. Baina, hortarako, burdingintza zaharrak berebiziko teknika aldaketa jasan behar izan zuen. Asmaketa berriekin posible zen uraren indarrez hauspoak aisago erabiltzea eta gabi izugarri haiek errazki maneiitzea. Zearrolen asmaketak jite berri bat ezartzen dio, beraz, burdingintzari.

Baina nondik nora gertatu zen burdin-teknikaren berrikuntza hau? Laborde arduratu da gehienbat haizeolen esanahia argitzen eta berari jarraikiko natzaio puntu honetan. Esandakoetatik ba-

dakigu, burdinoletan, katramilarik nagusienetako bat hauspoak mugitzea zena. *Haizegailu hauek hiru teknika desberdin zituzten: *larru-hauspoena* zen zaharrena, *zurezko hauspoena* eta **haizearkenena* hirugarrena (Caro Baroja). Hauspoen teknikak izan ziren beti nagusi Euskal Herrian. Hauspo hauek ahuntzaren larruz egiten ziren, eta antigoalean giza-indarrez nahiz haizeaz erabiltzen. Zurezko hauspoak XVII. mendekoak dira (1620), eta geroxeago datoz hausporik gabeko *haizearkak* (1633). Haizearkek ez zuten aurrerapenik lortu, ikatz gehiago erretzen bait zen hauekin, burdin bera galdatzeko (G. Muxika). Huspoen egitura hobeto bat lortzen ere ahalegindu ziren Azkoitiako Zalduntxoak (1770); baina olagizonentzat buruhauste larriagoa izan zen beti ere, hauspoak nola erabili asmatzea zein teknikaz egin behar ziren jakitea baino.

Haizeolak anitzek aipatu dituzte: lehenik, Erdi Haroko zenbait agirik; Garibai-k (1571), burdinolen *sorburuak aztertzean (Lib. IV, cap XXVI); Etxabe-k ere bai (1607); Isasti-k (1625); Berriz-ek, bere *Máquinas hidráulicas de molinos* liburuan (1736), Larramendi-k bere *Corografía-n* (1756), Histori Akademiak (1802). Erdaraz *masuqueras* deitu zituzten *haizeola* haiek, eta euskaraz beste izen batzuk ere eman zitzaizkien: *jentilolak*, *agorrolak*, *jentiletxeak*. Izenok burdinola haien aintzinasunaren susmoa dakarte.

Laborde-k bilatu ditu Gipuzkoako Goierrian lekurik zeuden haizeolen aztarnak: Zerain, Legazpia, Zegama eta Segura. XII. mendetik bederen ezagunak ditugun (Donostiako Forua, 1150) haizeola haietatik ez zaigu iritsi labe, sutegi, etxe edo beste holakorik; baina aurkitu dira, Zerain eta inguruetan, burdinola haien kondarrak, **zepa* (escoria) alegia. Hain zuzen, haizeolek eta zearrolek teknika ezberdinak erabiltzen zituztenez, *zepak* ere desberdinak dira. Haizeolek mendietan utzitako zepa haiek ditugu gaur zerbait jakiteko aztarrenak (Laborde, 232-33). Zepa hauek dizdizariak eta kare-oxidorik gabeak ditugu (ez zuten, beraz, kare-

harririk erabiltzen burdina galdatzean); baina bai silize-arearik egur-ikatzarekin batean, honela, burdin forjagarriak lortzeko. Teknika oxidagarri bat zerabilten haizeolek, zepetatik ikusten denez, eta ez zen *ekoizpen handikoa.

Benetako aurrerapena, hala ere, ez zen bereziki labe-teknikak aldatuaz etorri; sutegiaren *lagungailuetatik baizik: haizeolak, ibaietara jaistean, *zearrolak* jaso ziren errekaldeetan. Europan XII. mendetik zetorren teknika bilaketa bati jarraikiaz gertatu zen zen hori; uraren indarrak baliatzeko teknikaz jabetzea alegia. Teknika-eboluzio bide hortatik etorriko ziren anitz makina, eta horien artean baita urez erabilitako *tikinoiak* ere. Tikinoi berriok hauspoak handitu eta gabiak indartuko dituzte (XIII. mendetik hasita) (Ducassé. Gille). Iraultza tekniko hau Euskal Herrian noiz gertatu zen jakitea zaila da. Caro Baroja eta Kortazar, bat datoz eztabaidan: XVI. mendean zabalduko ziren zearrolak Euskal Herrian, Balmasedatar Markos Zumalabe-k sartu zituen nonbait mende haseran, eta 1540 inguruan oso ezagunak ziren (Henao): 300 bat ola Gipuzkoa eta Bizkaian (1548).

Alabaina, euskal zearrolen agerpena Europakoarekin parekide ikusten du Laborde-k, eta badu hola pentsatzeko arrazoirik franko: Segura-ko dokumentu batean (1335) haizeolak eta zearrolak, biak agertzen dira. Hamaseigarren menderaino atzeratu gabe, euskal burdingintzaren iraultza hau, Europakoarekin batera gertatuko litzateke, XIII-XV. mendetan, azken zabalkundea eta hobekuntza XVI. eraino atzeratuaz. Honaino iristean, jakitekoa litzateke zernola lotzen den hau dena, garai berean (XIII-XV. mendeetan), euskal marinelek Mediterraneoan zeramaten lanaren emanarekin eta kostaldeko ontzigintzarekin; baina ez da hau horri erantzuteko lekua.

Dena dela, haizeolek luzaroan iraun zuten oraindik Euskal Herrian, eta XVII. ean ezagunak dira Goiherriko Zegaman bere-

ziki. Teknika aurrerapenak ez zuen berehala hondatu, beraz, haizeolen tradizioa, toki jakinetan lekutuak egoteak eta zearrolak, hasteko, eskatzen zuen gastuak atzera eragiten bait zion, lehenengo batean, olaren jabeari.

Ez da erraza gaurko batentzat ibaietako, ola berrien aurrera-pen-zentzuaz jabetzea. Dena dela, ikusi zuten garaiko olagizonek aurrerapen haren balioa. Berriz izan zen, hontaz ongien ohartu eta teknika berri hauetaz jakitun aparta. Edizio txukun eta garesti batean aurki lezake orain irakurleak haren liburu baliosa. Ez da guti goraiatu liburu hau eta beronen autorea. Azkoitiako Zalduntxoak ere arduratu ziren burdinolen teknikaz, baina benetako aurrerapide berririk asmatu gabe.

Zearrolak zabaldu zirenetik, berauen arteko berezkuntza batietik dator aurrerapidea orain. Hau da, burdinolak, beren lanetan, berezi egiten dira, espezializatu. Isastik eta Larramendik, adibidez ola handi eta ttipiak (*olatxoak*) berezten dituzte, eta berezkuntza hau Legeetaraino heldu zen. Handietan, burdingaia urtzen zen, eta garbitzen, *totxoak egiten ziren eta lantzeko moduan irteten zen burdina.

Lana berezten zihoan neurrian, olatxoek egiten zuten ondo-rengo lana. Holakoak, erruz aurki zitezkeen edonon. Beti ere, diru mordoxko bat biltzeko aukerarik zuenak errazkiago jaso eta eratzen zuen *errementaldegi bat olatzar handi bat baino. Olatxo ttipion egitekoa zen burdinoletatik zetorrena ttipitzea, moldatzea eta lantzea. Dena dela, ez ziren, gerora ere, erabat berezi ola handien eta ttipien zeregin apartekoak, handienetan beti zen posible burdina salmentarako zeharo lantzea. Azkenean, ola zahar guziek (benetako Industri Iraultzaren aurrekoak denak) egitekoa patxadaz eta eskas egiten zuten, geroko burdingintzaren abiada eta *emankortasunekin alderatzen baldin badira.

Sutegi eta labeen teknikak ere (ez haize-uren indarrena soilik) aldatuaz joan ziren mendeak zehar. Sortaldean metalgintza jaso

zenetik eta Euskal Herrian ahuntz-laruzko hauspoekin eta zuhaitzenbor handietan burdingaia urtzen zenetik, geroz eta hobeak izan ziren teknikak XVIII. mendeko zearroletara heldu arte. Elkarren atzetik etorri ziren sutegi modu berriak: *aterpe gabeko kare eta harrizko labeak, oletako sutegi katalana (XIV. mendean) eta XVIII. menderaino iraun zuen "bizkaitar sutegia". Ez da beti erraza sutegi hauen teknikak ezagutzen; baina burdinolek gizartearen zuten eraginaz jabetzeko, premiazkoa da egiten zutena jakitea.

II. 5. Burdinolen lanak

Burdingaiak bi bide har zitzakeen, itsasorakoa eta oletarakoa. Hau da, Euskal Herrian lantzeko erabil zitekeen nahiz merkaltagorako zuzenean. Ola zaharrek horixe nahi izan zuten: hemen bertan gure burdin-meaztegiei probetxurik onena atera. Erdi Haroan (XIV. mende haseran) Europako olategi handienak (Estiria-k, alegia) urtebetean ematen zuen burdina, ordu gutitan egiten zuen XIX. mendearen haseran lantegi handi batek bakarrik. Mende haietan, urri zegoen oraindik burdina Europan (Nef). Eta ekonomia apal hartan, euskal burdinolek gailur nabarmen bat jo zuten. Ospe zabala ukan zuen gure burdinak, eta ez Bizkaiko burdingaiak bakarrik, baita olagizonen burdin landuak ere: ezpatak, ontziak, *aingurak... Burdinola bakoitzak 1000/1500 kintal landu zitzakeen urtean (Gorosabel).

Burdin landuaren eskea bi tokitatik etor zitekeen: alde batetik, bake-garaietako tresnen beharrianak, eta, bestetik, harmadak ere bazuen harma berri eta hobeagoen premia. Bake aldietako emana hiru puntu nagusitara zuzen zitekeen: etxe bizitzara, laborantzara, itsas-ontzigintzara. Gerrateetan, berriz, harmaden eskea nagusitzen zen, gainerako eskeen gainetik. Gudaldiek —zentzu zabal batean bederen— lagundu egiten zieten olei (Th. Lefèbvre). Hala ere,

lanabesak egiten zituzten burdinolek —nahiz eta bapateko irabazpide bizkorrik ez eduki hortan— eta hori gorabehera handi gabeko irabazpidea izaten zuten: noiznahi ziren premiazkoak sukalderako pertzak, baserrirako laiak eta goldeak, lantegietarako iltzeak, aingurak, kateak... Aramaioko Ibarra, 26 oletan 52.000 dozena tresna egiten zituzten urtero zaldientzat: *perrak, *ahokoak, *oin-burdina, etab.

Harmagintzak eta ontzigintzak aparteko garrantzia izan zuten euskal industrian. Euskal ontziek Europako iparraldeetara jo zuten lehenik eta XIII. mendean gero Mediterraneora sartu ziren hango merkatalgoaren garrioz arduratzen zirela. Gero Amerika. Hemen aipatu behar dira aingura lantegiak ere (Tolosa, Hernani, Bilbo...), XVIII. ean Guilitastik berrituak. Euskal Herrian landutako harmak, berriz, Espainia eta Frantziako harma-gizonen eskutan, Europa guzira zabaldu ziren. Laburki gogora ditzagun zenbait euskal harmategi: Mondragoe, Eibar, Elgoibar, Bergara, Plazentzia, Eugi, Tolosa... Baina bi burdin-industria hauek toki berezia merezi lukete euskal historiaren barnean. Laga ditzagun bes-teren baterako.

Burdinola guziek ez zuten emankortasun bera. Hemezortzi-garren mendean, Azpeitiako oletan 4,6 Tm. ematen zuen bakoitzak; baina Gipuzkoa-Nafarroaren arteko mendialdean 36 toneladataraino iristen zen bakoitza; Otxandioko olek, berriz, 16 bat tonelada lantzen zuten urteko eta Aramaioko bailarakoek bederetzina (Th. Lefèbvre). Zenbaki hauen arteko aldeak ez gaitu harritu behar, ola handi eta zaharren artean ezberdintasun handia bait zegoen, eta handion artean ere bai: 1.755ean, Banka-ko olak 3.000 kintal kobre zerabiltzan bitartean, Larrau-ekoak 1.200 burdin baizik ez zuten lantzen.

II. 6. Burdinoletako langileak

Olagizonen matxinadak (1766koa adibidez) euskal langile-riaren historiarako utziaz, jaso ditzagun datu jakingarri batzuk, langile gizarte haren joanetorri nabarmena ahantz ez dezagun. Gorosabel-ek gogoratzen digun bezala, bizilagun asko ziren Euskal Herrian beren ogibidea lantegi hauei lotua zutenak: ikazkinak, meatzariak, mandazainak, olagizonak, merkatariak... Anitz ziren, euskal familietan, bizibidea burdinoletan finkatzen zutenak: ola barnean zihardutenak baino askoz gehiago ziren beti, kanpotik ari zirenak.

Eman ditugu lehentxeago oletako ofizialeen izenak: gatza-mailea, urtzailea, ielea. Bizkaiko Legeek (1440) abantaila bereziak ematen dizkiete langile hauei. Baina, lantegiotan lan etengabe egiten zenez, bakoitzetik ofiziale bat baino gehiago izan zitekeen. Bestalde, burdin-enbor handiak (totxoak) egin aurretik, eta ondoren ere, langile anitz bazen burdinoletarako beharrean. Basoko egurginak, ikazkinak, eta ikatzarentzat eta burdingaiarentzako garriatzaileak. Lehendabizi, Mendigurengo kofradiak (Araba) Arautegi berezia eman zion, Bizkaitik burdingaia ekarriaz lanegiten zuten mandazaien lagunarteari (1537); elkarte hauek bazedukaten, beraz, gizarte-inportantzia bat (Thalamas). Gero zetozen mota guzietako langileak: aingurari, harmagile, iltzegile, perratzaile, errementari eta arotzak. Bizkaian eta Gipuzkoan etengabeko emana zuen burdinak ibai gora, ibai beheara: burdin ola eta lantegietara, eta hauetatik azoka eta merkatuetara... Isastik esaten digunez (1626), ola bakoitzak —kanpoko besteak kontatu gabe ere— 30 ikazkin, mandazain eta olagizoni ematen zion lana.

Ez da erraza jakiten, mendeak zehar eta ola desberdinetan, langileen kopurua nola banatzen zen XVIII. mendean. Banka-ko lantegiak (kobrea lantzen zuen) bazituen 265 gizon barnean (1750), ikazkin eta mandazainak kontatu gabe. Baina ez ziren

noski, honenbestekoak beste ola handienak ere. Garai eta tokien arabera oso desberdinak izan ditugu euskal olak. Dena dela, 3.500 bat gizon bai omen ziren Gipuzkoan (XVIII.ean) burdinoletan lan egiten zutenak; Nafarroan, berriz, 680. Bienbitartean, Catalunya osoan, ez ziren 1.752 baizik.

Nor zen burdinolen jabea? Jakina da, Gipuzkoan eta Bizkaian burdinola asko jauntxoek eskuetan zegoena. Jabetza haren zentzua ezagutzeko berezketa aski egin beharko litzateke. Lehenik, denboraren harian jabetza harek zein eboluziobide izan zuen jakin behar da, eta eboluzioaren arrazoinak. Gero, burdinola handien parean, ttipien esanahi soziala ere ezagutzekoa litzateke. Ola zaharren historia zenbakiztatu beharrean dadukagu oraindik. Gainerakoan, ez da ahantzi behar, lur eta basoen *jabegoak *gobernabide bereziak ere ezagutu dituela Euskal Herrian, eta gobernabide harek zuzeneko zerikusia zedukala burdinoleta lanarekin.

Burdinolen gain jauntxoak eduki zezakeen jabegoa, beronek zedukan gizarte-gorentasun baten azalpena zen. Dena den, Caro Barojak azpimarkatu duena zera da: jaunaren *gorentasun hori, Euskal Herrian herbestean ez bezalako aurpegi batekin agertzen dela. Hemen, olagizonak bazedukan gizarte-kategoria ukaezin bat, lantegiko ogibideak, ez bait zion lapurtzen bere *aitorsemetasunik, eta, horregatixe lanaren "noblezia" honegatik, posible zen, gainera, olaren jauna eta jabea bera ere ekonomiako zeregin hauetan sartzea, jaunaren eta langilearen arteko hurbiltasun bat sortuaz. Hala ere, jauna ez zen aingeru, eta olagizon haiek behin baino gehiagotan *asaldatu ziren matxinadetan, 1766koan adibidez (Caro Baroja).

II. 7. Burdinolak eta euskal legeak

Meagintza eta burdingintzaren ekonomi eta gizarte-esanahia gogoan badugu, ez gara deus harrituko, Lege Zaharrak eta gainerako Arautegiek bigarren hau ere *legepetu eta zuzentzen badute.

Bai Bizkaian eta berdin Gipuzkoan, Lege Zaharrak *Ola-Alkatea* sortzen du. Bizkaian 1.440az gero legeri berezia ematen zaie olei, eta 1452ko Foru Zaharrak, Markinako Arautegiak (1474) eta geroago Berriak ere (1526) saiatuko dira burdingintza legetu eta bultzatzen. 1.440ko Ola-Forua (*Fuero de Ferrerías*), eta Foru Zaharraren XXXI, CLVI, CLVIII eta CLX kapituluak irakurtzekoak dira. Berdin Foru Berrian II. titulua. Orozko eta Enkartazioetako Foruek ere gogoan dituzte burdinolak, noski. Urreiztietako (Avelaneda) Batzarreak legetzen zuen burdinola haiei zegokiena.

Gipuzkoa zen, Bizkaiarekin batera, burdinola gehien zuen euskal *herrialdea, eta hemen ere legetua zegoen ekonomiaren hesparru oinarrizko hau. Jadanik Donostiako Foruak (1150) kontuan eduki zuen burdinaren *salmenta; Mondragoeko agirian (1262), eta Segurako Ola Foruan (1335) ematen dira zenbait arau lanbide hontaz. Hortarakoxe den Oiartzungo Ola-Foru eza-gunean, berriz, *eskubide-eraikidura oso bat ematen da oletarako (1338). Leizaran, Oria, Urumea, Deba arroetako olek ere lege bereziak zituzten (Muxika). Azkenik, 1697ko Foru Bildumak ere XXXVII. titulu osoa eskaintzen dio burdingintzari, lau kapitulutan banaturik.

Burdinoletako arazoei *hauzi-eskuera berezia emateko joera izan du, beraz, euskal Deretxoak, arazo hauetan sor zitezkeen *hauzigaiak Ola-Alkate baten ardurapean ezarriaz. Hontan ere badirudi *Lurraren ohitura zaharren bati jarraikitzen zaiola. Erregek emandako lege-abantailetan, Ola-Alkatea burdinoletako jabeek izendatzen zuten, eta ezagutzen ditugu, behin batean Erregek aurrea hartu zuelako, Durangon gertatu ziren liskarrak. Alkate izendapena jabeena zen, beraz.

Burdgingintzaren mundua oso zabala zen, eta inguruko ondatsun eta interes askorekin zerikusirik zuena. Bere lanetarako, meatzek eta basoak behar zituen, eta horiek denak hauzo eta udalena izan ohi ziren sarritan. Burdinolak behar zituen ibaietako urak ere

guzien ondasunak ziren, berez. Nola muga eta ezkon gizarte osoaren interes guziak? Lege Zaharrak eginahal guziak egingo ditu olen eskubideak zehazki legetzeko, baso eta ur premiak babesteko, lantegiei *lehenengotasun batzuk aitortuaz. Hola dio Bizkaino Foru Berriak:

...Y las tales Herrerías tienen necesidad de mantenimiento de Montes, para hacer carbón, para labrar Fierro. Por ende, dixeron: Que havian de Fuero, y establecían por Ley que cualesquier Montes, que son de comunidad en exido (si antes son cortados otra, ò otras veces para mantenimiento de Herrería) que los dueños de los tales Montes comunes, y exidos, sean tenudos de los dár para las Ferrerías, à dueño, y arrendadores de ellas... (XXVIII tituluán).

Euskal Herriko legeak babestu egin nahi du burdingintza, ahalegin pribatu hutsak lortuko ez zituen helburuetaraino iristerazteko: *errekin inguratzeko erraztasunak ematen ditu, eskubide zaharrak babestu egiten... Sarritan, olagizonen jokabideak *Lur Irekiaren eskubideak (artzainen artaldeak, nekazariaren lurak, udalen basoak...) arriskutan jartzen zituen. Lantegi kanpoko eztabaidagaiak eta barneko giza-harremanak ere gogoan hartu zituen legeak. Behin baino gehiagotan, Erregerengana joko dute olen jabeek, honen aterpe onaz baliatu eta merkatua segurtatu nahirik (1775).

Bestalde, Erregek ez zuen *zerga bidez probetxu handirik ateratzen. Bazen Bizkaian *quintalaje* deituriko errege-zerga bat: ez zen deus handirik. Kintaleko 16 *diru zahar* (dineros viejos) zor zitzaion Erregeri, baina kintal hori ez zen burdingaiarena, burdin landuarena baizik. "Diru zaharretan", 63.000 marai (maravedí) ordaindu zizkion Bizkaiak Erregeri 1506an (Kortazar). Zoritxarrez, ez dakigu "diru zahar" eta "marai"en arteko erlazio zehatza zein zen; bestela, datu hauekin, ongi ginake, bide batez, Bizkaiko burdingintzaren emana neurtzeko ere.

Bizkaiko Ola-Foruak (1440) betekizun hauek zituen: lantegi barneko harremanak gidatu (jabeen eta olagizonen artekoak, langileon artekoak...) eta olatik kanpoko harremanak zuzendu. Egiteko hauen ardura Ola-Alkateak eramaten zuen, legeen arabera. Alkate honen agintea *hauzi-agintea zen, burdinoletarako zedukan *lege-eskueraren muga berezien barnetan. Legearen axola berezi hau lagungarri bikaina gertatu zen burdingintzarentzat: Oiartzungo Ola-Forua, esate baterako, axolazkoena bilakatu zen gipuzkoar olentzat. Ikatza lortzeko eta meatzeen ustiapenerako erraztasunak, zerga-abantailak, olen bizitza gordetzeko eskubide zabalagoak eta abar ematen zituen Lege berezi harek. Lebe babesgarriok, ekonomi politika babesle, protekzionista bat ezartzen zuten, burdingintzaren alde.

II. 8. Burdinolak mendeak zehar

Badirudi, Europak XI-XIII. mendeetan ezagututako goraldian gertatu zela euskal burdingintzaren jaiio-berritzea ere. Haizeolak lehendabizi, zearrolak gero eta teknika berritze zenbait tarteko zela, ola zaharrek XIX. menderaino luzatu zuten bizitza. Lantegi haietan milaka eta milaka burdingilek eman zuen bere izerdia. Hala ere, histori albisteak jasotzean hutsune handi bat du gai hontaz historiografiak, eta ezinezkoa gertatzen da gaurkoz burdingintza haren emana *zenbakizatzea, koantifikatzea. Historigileak, maiz, ez datoz bat zenbatekoak ematean (Navagiero, 1525; Medina, 1545). Baina gertatuaren nahiko hurbiletik ote dabilen nago Serapio Mujika, ondoko berriok Gipuzkoarako ematean:

<i>Urtea</i>	<i>Ola handiak</i>	<i>Ola ttipiak</i>	<i>Burdin kintalak</i>
1625	80	37	120.000 (handietan)
1773	75	22	
		(eta 6 galtzairu lantegi)	
1776	94 (handi eta ttipi)		—
1789	75 (handi eta ttipi)		660.000

XVI. mende barruan, Bizkaia 80 oletatik 200etara igarotzen da (Thalamos), eta Gipuzkoak eta Bizkaiak 300 bat burdinola edukiko zituzten 1550ean (Henao). Esana dagoenez, Catalunya-ko *fargues* direlakoan erorialdiari, euskal olen bizkundera dagokie XVI. mendean. Zearrola berrituek ongi erantzuten diote Europa eta Ameriketatik datorren burdin eskeari: mende hartako gerrate eten-gabeek eta lur aurkitu berriek burdina eskatzen dute erruz. Euskai ontziak burdinez beterik doaz Europako iparraldeetara. Burdingintzaren *igo-behar honek XVII. mendearen barruan joko du bere erpina, Laborde-ren ustetan. Esan dezagun, Hogeitahamar Urteko Gerrate luzearekin (1618-1648) egokitu zela hori gure kondairan.

XVIII. mendean euskal burdingintza bidegurutze batean aurkitzen da: Ingalaterrak Industri Iraultza sortu du eta *norgehiagoka bortitza dakar merkatura. Hala ere, Gipuzkoak aukera berri bat izan zuen Ameriketako *Compañía de Caracas* (1728) delakoaren garaietan. Denbora beretsuan, edo beranduxeago, teknika berrien kezka ere biztu da Azkoitiako Zalduntxoengan (1791). Batak sorrezakeen kapitaltzearekin eta besteok asmatu nahi zituzten teknika berriekin, bazirudien euskal burdingintzaren egunsenti berria leher-tzera zihoala. Baina, ez kapitalik aski bildu zen, ez eta asmatu zen teknika berririk.

Estadistika batek 294 cla ematen ditu Bizkaia (180), Araba (20) eta Gipuzkoarentzat (94) XVIII. mendearen azkenetan. Zenbakiz nahiko hurbil dago oraindik hau Medina-k 1545ean ematen zituen 300 (300.000 kintalekin) haiekin; baina lantegiok bazuten, nonbait, ordurako heritasunen bat barnetik, edo ez zuten garaien eskakizunei erantzun ahal izateko adorerik.

Zenbait tokitan, hala ere, egiten da saiakera onik burdin-olei *hats berri bat emateko. Araia-n (Araba) 1772an jasoko da bat erabat berritua, eta Iparraldean gogoratzekoak dira Larrau eta Banka, jadanik aipatuak. Penintsula barruan aurrelari zen oraindik

euskal burdingintza, lege babesak ere laguntzen ziola. Ameriketako azoka geroz eta zabalagoa aurkitzen da; baina Ingalaterrako teknika berrikuntzak (Espainia eta Britainia Handiaren arteko gerrateak ere oztopo direla) lehiaketa gogorra sortuko du Mundu Berrian ere. Europako *Erdigunea eta Iparra dira aurea hartuaz datozenak.

1802an Gipuzkoak oraindik 94 burdinola ditu; baina 1860an 31 bakarrik dira: hirutatik bi hertsu dira, beraz. Eta, garai berean, 100.000 kintaletatik, 19.800etaraino erortzen da Gipuzkoaren burdin produzioa. Ez da batere txundigarri historia gogoan duen inorentzat: hemezortzigarren mendetik jasotako ajeen ondoan, hemeretzigarrenak ezarri ditu bere behaztopoak. Gerrateak (1808/14, 1832/39 urteetakoak batez ere) eta Amerika galtzeak ez dezake industri berrikuntzarik ekar. 1808/32etako urteetan *behera-behar geldiezinan doa burdingintza. Eta lehenengo karlistadaren azkenera arte ez da hasiko labe berritzea: 1841ean sortzen da Boluetako Santa Ana Soziedadea. 1855az gero kapitala ere bizkorrago dator burdingintzari laguntzera; baina 1880/90etaraino itxaron beharko du burdingintzaren iraultza egin zedin. Oraindik XIX. mendearen erdi aldean Euskal Herrian ez zegoen premiazko ez teknika, ez dirurik.

Bitartean herio-zorian aurkitzen dira ola zaharrak. Agonaldiaren urratsak honela azaldu dizkigu Serapio Mujikak Gipuzkoan:

<i>Urtea</i>	<i>Olak</i>	<i>Burdin kintalak</i>
1802	94	100.000
1847	51	24.000
1860	31	19.800
1865	18	11.200
1870	14	7.120
1875	4	1.800
1880	4	2.600

1880an hitsi zituen Gipuzkoak bere azkeneko burdinolak (Mujika). Bizkaian, berriz, bost urte geroago gertatu zen hori. Euskal Herriko ola zaharren hileta orduotan, aurreko mendetik zetozen gaisotasun eta aje guziak elkartu ziren, denak isilarazteko. Hemezortzigarrenak ondare pobrea utzi zion hemeretzigarrenari. Teknika atzerapen astun bat zekarten burdinolek: 1760tik, eta 1784etik berezikiago, bazebilen burdingintzaren iraultza Ingalaterran.

Industri Iraultza XVIII. menderaino atzeratu zen munduan, eta Ashton historigileak atzerapen horren zergatiak galdetzen dio bere buruari. Besteak beste, teknika arrazoiak aipatzen ditu berak eta burdingintzari gagozkiola, *errekin egoki baten falta* gogoratzen du. Cok ikatza Darby-k aurkitu (1709) eta *Cort-en metoduaren* bidez labe handietarako baliagarri gertatu zenetik (1784), burdinolak basotik ateratzen hasi ziren: burdingaia, harri-ikatza-*ren (cok)* bidez *galdatzea posible gertatu zen, beraz. Orduan jaio ziren *labe handi berriak. Burdinaren emana ugaritu egin zen bapatean Ingalaterran, eta merkatu ere bai (Ashton). Indar berri bat ere asmatu zen, burdinoletarako lagungarri zena: ura jasotzeko Watt-en bapore-makina (1769). Burdingintzaren teknika haro berri baten aurrean zegoen mundua, zalantzarik gabe.

Baina gure ibarretako olak ez ziren, alde batetik, hortaz jabetu, eta, oharturik ere, zer egin zezaketen? Harri-ikatza premiazkoa zen Iraultza hartarako; baina gure olek urruti zuten oso errekin hori, eta —besterik ezinean— egur-ikatzarekin segi zuten. Eta gure basoekin —ez teknikaz, ez kantitatez— ezin zitekeen Iraultzarik egin. Basoak galtzen eta mendi gora urrun-tzen zihoazen. Basoak ez zezaketen segurta etorkizuna, Bidarra-n, Arnegi-n, eta Baigorri-n (1786) ikus zitekeenez (Th. Lefèbvre). Teknika aldetik, 1832koa da Bilboko lehenen labe handia; baina geroagoko (1848) Boluetako labeak berak ere oraindik egur-ikatzez ziharduen. Hortik pentsa liteke zer-nolako modernutasun

eskasa izango zuten atzeratuak zetozen ola zaharrek. Ez ziren salbagarri ola haiek ez teknika aldetik, ez entpresara erakundearen aldetik, ez eta kapitaltze eskasaren aldetik ere.

XIX. mendearan parterik handienean esportazioa izan zen, geroz eta gehiago, aberaspiderik onena. Burdingaia atera, burdingaia saldu: hortik jo zuten gure merkatariak, burdin landuaren merkatuan ingelesak bait ziren lehiakide indartsuagoak. Bestalde, Ameriketako salpideak galduak zirenez gero, non aurki merkatu errazik, liberalismo *aterpe-ukatzailearen kontra? XVIII. mendetik zetozkeen kapitaltxoak ere ez zuten eduki kemen handirik, ez beharbada indarrak, *mendurakizun ilun haietan sartzeko (Txurruka). Euskal jauntxoei entpresarako adorea (eta dirua?) falta izan zitzaien.

II. 9. Mundu berriaren atarian

Burdingaiaren irabazpide berriak iratzarri zuten dirudunen nahiz diru-gosearen industri asmamena. Munduko koiuntura eta teknikek ito zuten euskal ola zaharra, burdingintza berriari toki emateko. Euskal meagintzaren haro modernuak ireki zion geroa *erneminik zegoen burdingintza eraberrituari. Hontaz jabetzeko, aski da estadistika labur bat:

<i>Urtea</i>	<i>Burdingaia/Bizkaia</i>	<i>Burd./Gipuzkoa</i>
1875	34.296 Tm.	17.038 Tm.
1880	2.683.628	9.336
1885	3.311.420	6.923
1890	4.795.876	?
1895	4.621.291	?
1900	5.361.796	19.902

Azken karlistadaren bukatzean horrelaxe zegoen burdingaiaren emana Bizkaian (34.296 Tm.), eta —dakigunez— aurreko mendeetarako emandakoaren azpitik (40.000 Tm. urteko). Hamar urteren buruan zeharo aldatu da egoera hori, eta nahikoak dira hamar urte burdingaiaren produzioa ehun aldiz doblatzeko. 1900aren inguruan joko da produzio horren *sabaia: 5.361.000 Tm. 1890an. Dudarik gabe, mendearen bihurguneko urteak izan ziren euskal meagintzaren urterik oparoenak.

Honela, XX. menderako, euskal meagintzak emana zion Euskal Herriari premiazko kapital hura eta beronekin batera burdingintza berria]. Euskal meatzeetatik jaiotako olagintza zaharrak, bere hil-orduan, iturri zaharretan aurkitu zuen, berriz ere, gerorako itxaropidea. Burdingintza modernuak, ezer egiteko, dirua behar zuen diruaren gain, eta kapitaltzar hori metatzen ere (ez lehen gaia ematen bakarrik) lagundu zuten meatzeek.

Europa, eske ta eske ari zen, Bizkaiko meazkiaren beharrez. Europak esplotatu zituen orduan Euskal Herriko errai aberatsak. Hango kapitalek (Orconera, Soci t  Franco-Belge, Krupp eta abarrek) bizkortu zuten meatzeetako gure lana. Hortik hasita kapitaldu zen Euskal Herriko goi-burgesia. Meatzariak (bertako semeek eta kanpotik guganatuak) emandako izerdi eta ahaleginek ekarri zuten burdingintza berria: *Este proceso de concentraci n capitalista fue posible por los resultados de la exportaci n del mineral de hierro* (Vicens Vives). Euskal burdingaiaren gain jaso zen "Altos Hornos de Vizcaya" (1902).

Euskal lur hontan bertan ditu, beraz, bere erroak Industri Iraultzako Euskal Herri berriak. Lur honek mamitu gaitu azken mendeon ere, Europari lotuta eta gure teknika-izpirituari eta historiaren hariari uko egin gabe. Eta herri langileak aurrera jarraitu nahi du.

bibliografia

EUSKAL ARTEA—J. San Martin

I.—Harri-aroa

- A. AGUIRRE, *Materiales arqueológicos de Vizcaya*. Bilbao, 1955.
- T. ARANZADI, J. M. DE BARANDIARAN y E. EGUREN, *Exploraciones de la caverna de Santimamiñe*. Bilbao, 1925-1935.
- J. M. DE BARANDIARAN, *El Hombre prehistórico en el país vasco*. Buenos Aires, 1953.
- J. M. DE BARANDIARAN, "La cueva de Altxerri y sus figuras rupestres". *Munibe*, t. XVI. San Sebastián, 1969.
- J. M. DE BARANDIARAN, *Lehen euskal gizona*. Donostia, 1972.
- J. M. DE BARANDIARAN y J. ALTUNA, "La cueva de Ekain y sus figuras rupestres", *Munibe*, t. XXI. San Sebastián, 1969.
- G. LAPLACE, "Les grottes ornées des Arbailles". *Eusko-Jakintza*, vol. VI. Bayonne, 1952.
- A. LLANOS, "Resumen tipológico del arte esquemático en el país vasco-navarro", *Estudios de Arqueología Alavesa*, t. I. Vitoria, 1966.
- J. MARINGER y H. G. BANDI, *Arte prehistórico*. Basilea, 1952.
- E. PASSEMARD, *Les stations paléolithiques du Pays Basque*. Bayonne, 1924.
- E. PASSEMARD, "La caverna d'Isturitz en Pays Basque". *Préhistorie*, t. IX. 1944.
- B. OTAEGI, *Lehen gizarteak*. Bilbao, 1971.

II.—Herri artea

- Anuario de Eusko-Folklore*. Vitoria-San Sebastián, 1921...
- T. DE ARANZADI, *Etnología del país vasco*. (Geografía General del País Vasco-Navarro. Vol. general) Barcelona, urtegabe.
- A. BAESCHLIN, *La arquitectura del caserío vasco*. Barcelona, 1930.
- J. M. DE BARANDIARAN, *Estelas funerarias del País Vasco.—Euskalerriko illarri-biribillak*. San Sebastián, 1970.

- J. CARO BAROJA, *Los Vascos*, San Sebastián, 1949.
 L. COLAS, *La tombe basque*. Biarritz, 1923.
 E. FRANKOWSKI, *Estelas discoideas de la Península Ibérica*. Madrid, 1920.
 J. A. DE LIZARRALDE, *Andra Mari* (vols. Guipúzcoa y Vizcaya). Bilbao, 1926-1934.
 H. OSHEA, *La Maison Basque*, Pau, 1887.
 L. P. PEÑA SANTIAGO, *La "argizaiola" vasca*. San Sebastián, 1964.
 L. P. PEÑA SANTIAGO, *Arte popular vasco*. San Sebastián, 1969.
 L. URABAYEN, *La casa de Navarra*, Madrid, 1929.
 VARIOS (batzuk egina), *V Congreso de Estudios Vascos*. Vergara, 1930.
 VARIOS (batzuk egina), *Arte popular vasco*. (Edic. Gurea). San Sebastián, urte gabe.
 P. VEYRIN, *L'Art basque ancien*, 1926.
 J. DE YRIZAR, *Las casas vascas*. San Sebastián, 1929.
 P. Y J. DE ZABALO, *Arquitectura popular del país vasco. Grafía y ornamentación de la rotulación vasca*. Buenos Aires, 1947.

III.—Erdi-aroa

- A. APRÁIZ, "La historia del arte del País Vasco", *Hermes*, t. II. 1918. *Arte* (Vcl. *Primer Congreso de Estudios Vascos*, pp. 741/842). Oñate, 1918.
Arte (*Diccionario Enciclopédico Vasco*, vol. III.—*Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*). San Sebastián, 1971.
Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra. Pamplona, 1910-1935.
Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. (tcmos: I, Rioja alavesa; II, Treviño y Campezo; III, Vitoria). Vitoria, 1967-1971.
 C. DE ECHEGARAY, *La tradición artística del pueblo vasco*. Bilbao, 1919.
 C. DE ECHEGARAY, *Arquitectura — Monumentos de Guipúzcoa. I—Monumentos religiosos. II—Monumentos civiles*. Barcelona, 1921.
 GAILLARD — LOJENDIO, *Navarre Romane*. París, 1968.
 J. A. GAYA NUÑO, *El románico en la provincia de Vizcaya*. Madrid, 1944.
 S. HUICI y V. JUARISTI, *El Santuario de San Miguel de Excelsis (Navarra) y su retablo esmaltado*. Madrid, 1929.
 M. LEKUONA, "Erromanikoa Gipuzkoan", *Egan*, 1957, 1958, 1960.

- J. SAN MARTIN, "En torno a los testimonios del arte románico en Eibar.—Aportación a la bibliografía para un estudio del románico en Guipúzcoa", *Boletín de la R.S.V.A.P.*, XXV (1969), pp. 409/422.
- J. DE YBARRA Y P. DE GARMENDIA, *Torres de Vizcaya*. Madrid, 1946.
- J. DE YBARRA Y BERGE, *Catálogo de Monumentos de Vizcaya*. Bilbao, 1958.

IV.—Pizkunde garaia

- A. APRAIZ, "La historia del arte del País Vasco", *Hermes*, t. II. 1918.
- M. A. ARRAZOLA, *El renacimiento en Guipúzcoa*. San Sebastián, 1967-1969.
- Arte* (Vol. *Primer Congreso de Estudios Vascos*. —Oñate, 1918—, pp. 741/842). Bilbao, 1919.
- Arte* (*Diccionario Enciclopédico Vasco*, vol. III.—Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco). San Sebastián, 1971.
- T. BIURRUN, *La escultura religiosa y Bellas Artes en Navarra durante la época del Renacimiento*. Pamplona, 1935.
- J. CAMON AZNAR, *El escultor Juan de Ancheta*. Pamplona, 1943.
- J. R. CASTRO, *La Escultura en Navarra en el siglo XVI*. San Sebastián, 1936.
- J. R. CASTRO, *Cuadernos de Arte Navarro* (vol. a. Pintura). Pamplona, 1944.
- J. R. CASTRO, *Cuadernos de Arte Navarro* (vol. b. Escultura). Pamplona, 1949.
- Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria*. (tomos: I, Rioja alavesa; II, Treviño y Campezo; III, Vitoria). Vitoria, 1967-1971.
- C. DE ECHEGARAY, *La tradición artística del pueblo vasco*, Bilbao, 1919.
- C. DE ECHEGARAY, *Arquitectura. Monumentos de Guipúzcoa*. (I—Monumentos religiosos. II—Monumentos civiles). Barcelona, 1921.
- M. C. GARCIA GAINZA, *La escultura romanista en Navarra*. Pamplona, 1969.
- J. M. HUARTE, "Juan de Ancheta: sus retablos y los de sus discípulos". *Rev. Euskalerrriaren alde*, 259.
- M. DE LECUONA, *El Arte* (vol. *Guipúzcoa*). San Sebastián, 1969.
- F. LOPEZ DEL VALLADO, *Arqueología* (Tomo general de la *Geografía General del País Vasco-Navarro*, pp. 825/985. Barcelona, urte gabe.

- L. DE MADARIAGA, **Pintores Vascos**. 3 tomos. San Sebastián, 1971-1972.
- F. SESMERO, **El arte del Renacimiento en Vizcaya**. Bilbao, 1954.
- J. E. URANGA, **Retablos navarros del Renacimiento**. Pamplona, 1947.
- J. YBARRA Y BERGE, **Catálogo de Monumentos de Vizcaya**. Bilbao, 1958.

V.—Euskal pinturaren eskola

- Arte** (Vol. **Primer Congreso de Estudios Vascos** —Oñate, 1918—, pp. 741/842). Bilbao, 1919.
- Arte** (**Diccionario Enciclopédico Vasco**, vol. III.—Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco). San Sebastián, 1971.
- Biblioteca: Pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana**. "La Gran Enciclopedia Vasca". Bilbao, 1973.
- R. CHAVARRI, **Maestros de la pintura vasca**. Madrid, 1973.
- M. FLORES KAPEROTXIPI, **Arte vasco**. Buenos Aires, 1954.
- M. LLANO GOROSTIZA, **Pintura vasca**. Bilbao, 1965.
- L. DE MADARIAGA, **Pintores Vascos**. 3 tomos. San Sebastián, 1971-1972.
- J. DE LA PUENTE, M. LLANO GOROSTIZA, G. PERALES SORIANO, **Arteta en el Banco de Bilbao**. Madrid, 1973.
- A. VALVERDE "AYALDE", **Ibar ixillean**. Donostia, 1970.
- Catálogo 50 años de pintura vasca (1885-1935)**. Madrid, 1972.

VI.—Gaurko eskultura

- N. Basterrechea. **Biblioteca: Pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana**. "La Gran Enciclopedia Vasca". Bilbao, 1973.
- J. D. FULLAONDO, **Jorge de Oteiza**. Madrid, 1967.
- J. DE OTEIZA, **Quousque tandem...!** San Sebastián, 1963.
- P. VOLBOUDT, **Txillida**. Barcelona, 1967.

EUSKAL MUSIKA.—J. A. Arana Martija

- ALMANDOZ, N. **Eusko irudiak**.
- ALTUBE, S. **El acento vasco en la prosa y en el verso**.
- ALTUBE, S. **El compás de zortziko**.
- ANGLES, H. **Historia de la Música Medieval en Navarra**.

- ARAIZTEGI, R. M. Cantos populares de Euskaria
 ARANA, J. A. Iconografía Musical en la Rioja.
 ARANA, J. A. Aránzazu y la Historia Musical del País Vasco.
 ARANA, J. A. Música Vasca.
 ARANZADI, T. El compás de zortziko.
 ARANZADI, T. Algunos 5/8 lapones y castellanos.
 AROZAMENA, J. M. Jesus Guridi.
 AROZAMENA, J. M. José M. Usandizaga.
 ARRUE, J. La Música de Iglesia en la H^a del País Vasco.
 ARRUE, J. La canción Iru Damatxo.
 AZKUE, R. M. Euskalerrriaren Yakintza.
 AZKUE, R. M. Música Popular Vasca.
 AZKUE, R. M. Cancionero Popular Vasco.
 AZKUE, R. M. La tradición en nuestra Música Popular Religiosa.
 BARANDIARAN, J. M. Euskalerrriko lehen gizona.
 BARANDIARAN, J. M. Excavaciones en Atxeta.
 BELAUSTEGI, J. J. Biografía de J. C. Arriaga.
 BELAUSTEGI, J. J. La música popular vasca.
 BELLO PORTU, J. Música de la calle en Tolosa.
 BORDES, CH. La musique populaire des Basques.
 BORDES, CH. Douze chansons amoureuses du Pays Basque.
 CARO BAROJA, J. Los vascos.
 CHAHO, A. Viaje a Navarra.
 DONOSTIA, J. A. Euskal eres sorta.
 DONOSTIA, J. A. Música y Músicos en el País Vasco.
 DONOSTIA, J. A. Notas breves acerca del txistu y danzas vascas.
 DONOSTIA, J. A. Essai d'une Bibliographie Musicale Basque.
 DONOSTIA, J. A. Instrumentos musicales del País Vasco.
 DONOSTIA, J. A. El gran polifonista vasco Joanes Anchieta.
 DONOSTIA, J. A. La canción popular religiosa.
 DONOSTIA, J. A. El elemento vasco en la tonadilla escénica.
 DONOSTIA, J. A. Notas de musicología vasca.
 DONOSTIA, J. A. Estudio comparativo de la música vasca y la
 de otros pueblos.
 DONOSTIA, J. A. Gabriel Pierne.
 DONOSTIA, J. A. Apuntes del folklore vasco.
 DONOSTIA, J. A. Minucias de folklore vasco.
 DONOSTIA, J. A. Cómo canta el vasco.
 DONOSTIA, J. A. Canciones de cuna vascas.
 DONOSTIA, J. A. Quelques caractéristiques de la chanson bas-
 que.
 DONOSTIA, J. A. La escritura del zortziko en 5/8.

- ECHARRI, B. Falso concepto de la música popular.
- ECHEGARAY, C. Orígenes de nuestra música popular y sus relaciones con la métrica.
- ELUSTIZA, J. B. Estudios musicales.
- ELUSTIZA, J. B. Antología musical.
- ERESALDE, J. Los esclavos felices.
- FAGOAGA, I. Pedro Garat, el Orfeo de Francia.
- FAGOAGA, I. Teatro lírico vasco.
- GALLOP, R. Los vascos.
- GALLOP, R. Ritmo y melodía en la canción popular vasca.
- GARBIZU, T. Música Popular vasca.
- GARBIZU, T. El zortziko.
- GASCUE, F. Nuestra Música Popular.
- GASCUE, F. Las gamas célticas y las melodías populares vascas.
- GASCUE, F. La conferencia del P. Donostia en Oñate.
- GASCUE, F. La simetría y el compás de 5/8.
- GASCUE, F. El compás quebrado de 5/8.
- GASCUE, F. Recuerdos agradables.
- GASCUE, F. El compás de zortziko.
- GAVEL, H. Bereterretxen kantoria.
- GOROSTIAGA, J. Antología de Poesía Popular Vasca.
- GOROSTIDI, A. Origen de la Música Popular Vascongada.
- GUERRA, J. C. Los cantares antiguos del euskera.
- HERELLE, G. La musique et la danse du theatre basque.
- ITHURRIAGE, J. Un peuple qui chante: les Basques.
- IZTUETA, J. I. Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira.
- JAURGAIN, J. Quelques legendes poetiques du Pays de Soule.
- LACARRA, J. M. Textos navarros del código de Roa.
- LEKUONA, M. Literatura oral vasca.
- LEKUONA, M. El cantar de Perucho.
- LEIZAOLA, J. M. Estudio sobre la Poesía Vasca.
- LOYARTE, A. Donostiarras del siglo XIX.
- MADINA, F. De música vasca.
- MANTEROLA, J. Cancionero vasco.
- MENENDEZ PIDAL, R. Poesía juglaresca y juglares.
- MICHEL, F. Le Pays basque.
- MITXELENA, L. Textos arcaicos vascos.
- ONAINDIA, S. Milla euskal olerki eder.
- OTANO, N. La Música en el País Vasco y la Música del País Vasco.
- PABLO, L. Aproximación a una estética de la música contemporánea.
- PASSEMARD, Une flûte aurignacienne d'Isturitz.

- PEDRELL, F. José Antonio de Santesteban.
 RIEZU, J. Flor de Canciones Populares vascas.
 RUIZ LARRINAGA, J. Un villancico vasco de 1.755.
 SACHS, C. Musicología comparada.
 SALABERRI, J. D. J. Chants Populaires du Pays Basque.
 SANTIAGO, R. De música vasca.
 SANTIAGO, R. El compás de 5/8.
 SANTIAGO, R. Ravel'en zortzikoa.
 SANTIAGO, R. Otrosí para el zortziko de 8/8.
 SOPEÑA, F. Historia crítica del Conservatorio de Madrid.
 SOPEÑA, F. La música vasca.
 TOMAS NAVARRO. Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica.
 URIA, T. Cronología de órganos.
 URIARTE, E. Estética y crítica musical.
 URUÑUELA, J. La música vasca y su ambiente propio.
 URUÑUELA, J. El folklore musical vasco en Araba.
 VARIOS. Crónica del IV Congreso de Música Sagrada; Vitoria.
 VILLEHELIO, M. Souvenirs des Pyrenees.
 ZELAYA, L. Nuestros Músicos.
 ZUBIALDE, I. El compás de zortziko.

HERRI LITERATURA (1).—P. Lafitte

- ARESTI, G. "Pedro I. de Barrutia". Euskera IV, 1959.
 ARIZTI, M. Amattoren uzta, 1939.
 AZKUE, R. M. Euskalerrriaren Yakintza, 4 tomo, 1935-1947. Cancionero popular vasco.
 BARANDIARAN, J. M. Materiales y cuestionarios de Eusko-Folklore. Anuarios de Eusko-Folklore.
 BARBIER, M. Légendes du Pays Basque d'après la Tradition, Paris, 1931.
 BORDES, C. "Musique basque" in La Tradition en Pays Basque.
 CARO BAROJA, M. Los Vascos (2), Madrid, 1951.
 DONOSTIA, J. A. Euskal eresi sorta.
 Editorial AUÑAMENDI Encicl. Gen. "LITERATURA" I, O.
 FRANCISQUE-MICHEL, Le Pays basque... Paris, 1857.

(1) Bibliografía hunek ez ditu liburu beharrenak baizik aipatzen.

- GURE HERRIA, Suppléments musicans de Nehor, Dufom et Dostia".
- HARITSCHELHAR, M. **Le poète Souletin Pierre Topet-Etchahun, 1786-1862** Contribution à l'étude de la poésie populaire basque au XIX siècle. 1969.
- HERELLE, G. **Etudes sur le théâtre basque** (5 vol.).
- IRIGARAY, A. **Euskalerriko ipuinak**, Zarauz, 1957.
- ITHURRALDE, P. **Murtuts eta bertze**, 1942.
- ITHURRIAGUE, M. "La littérature populaire basque", in **Visages du Pays Basque**, 1964 (2).
- LABAYEN, A. M. **Teatro euskaro** (2 tomos), S. Sebastián, 1963.
- LAFITTE, P. **Errepikan**, Baiona, 1944. Avec Etchemendi, **Kantuz** (2), Avec Dassance, **Kantu, kanta, khantore**, 1967. **Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule**, 1941.
- LECUONA, M. **Literatura oral vasca**, S. Sebastián, 1965.
- LERCHUNDI, G. **Kantikak**, Baiona, 1948.
- MANDRON, R. **De la culture populaire au 17 et 18 siècles**. Stock, 1964.
- MICHELENA, L. **Historia de la literatura vasca**, 1960.
- SALLABERRY, J. D. J. **Chants populaires du Pays Basque**, 1870.
- ONAINDIA, S. **Gure bersolariak**, 1964.
- URQUIJO, J. "El refranero vasco", 1919. Comentarios en RIEV, 1911-1935.
- VILLASANTE, L. **Historia de la Literatura vasca**, 1961.
- VINSON, J. **Le Folklore du Pays Basque**, 1883.
- ZAVALA, A. "Auspca" **Liburu sorta guzia**.
Bosquejo de historia del bersolarismo. 1964.

hiztegiak

Euskal Lurra. — J. L. Lizundia

abelgorri=ganado vacuno
apata= abad
apezpikute=obispado
arbel=pizarra
autobide=autopista
azpiegitura=infraestructura
aztarren=fundamento, raíz
bazkaleku=pastizal
berjabetasun=independencia
bokale=desembocadura
burdinola=fábrica metalúrgica
ekialde=este
errediza=mueble
eskualde=comarca
eskualdekatze=comarcalización
ganora=destreza
gurpil=rueda
gutia=menor (adibidez: *Gamarragutia*=Gamarra Menor)
haran=valle
hargintza=cantería
harmarri=escudo de armas
harro=cuenca
hausitegi alderdi=partido judicial

hegi=ladera
herrialde=región, pays
hibaiadar=afluente
hilduruko=testamento
jaretsi=obtener
jaurerri=señorio
konterri=kondado
Labe Garai=Altos Hornos
lautada=llanada
mairu=moro
meha=mina
mendikatc=sierra
mendilepo=vertiente de una montaña
merinalde=merindade
olguskera=pronunciación
onura=provecho
oreka=equilibrio
oski=zapato
partzoneria=comunidad de tierras, co-participación en la propiedad del suelo
udalbarruti=término municipal
zendea=cendea (udal bat osatzen duten herrien elkarte)

Euskal etnia eta jatorria. — J. Barandiaran

abelgorri=behi, zezen eta holakoen azkazikoa (ganado vacuno)
abeltsaintza=abereak oinarritua den bizikera
adarbakar=rhinoceros
adreri=ahaideen elkarte
ahotxabal=gezi-mihizto bat, ahoduna. ez muturduna
aier=grina; propensión, tendencia, apetito; tendencia
aivotz=ebakitzeko tresna zorrotz eta

zabala, igitaiaren antzekoa, baina gider luzekoa (machete)
aizkur=hacha; hache
albizitu=indartu
ametsa=quejigo; tauzin
antze-jakintza=habilidad, técnica; technique
apatz=zurezko ontzi bat
arbel=pizarra, marga; marné, schiste
arrangifer=reno; renne

arrankazi=arpón; harpon
arrate=puerto de montaña; col
arrauka-harri=kare-harri
ataka=portillo; passage dans une gorge
ausarki=abundantemente; en abondance
asal-leuneko=de superficie lisa; à surface polie
asal-zimurtu=de superficie rugosa; surface ridée
askazi=enda, arraza, leinu
askon=flecha; flèche
askurri=alimento; aliment, mets
astamakila=lanza; lance
astarnategi=hondakindegi; yacimiento; gisement
azti=mago; magicien
babegarri=refugio, abrigo, escudo protector; abri, refuge
bakarjabeke=apropiación privada; propriété privée
baratzaki=hortaliza; légume, herbe potagère
basaker=cabra montés; bouquetin
basahuntz=corzo; chevreuil
baster-otxi=casa de aldea, separada; maison champêtre
berun-harri=mineral de plomo; minéral de plomb
bestendu=alienar; aliéner
betizu=basabehi
burdinarri=mineral de hierro; minéral de fer
burdinori=bronce; bronze
bureztun=corona; couronne
edergailu=apaingarri
egitamu=estructura, distribución, plan; plan, ordre
chisa=caza; chasse
hortzi=sepultar; enterrer
eiho=moler; moudre
eraen=egintzaren zuzenbidea (gobierno, cuidado)
ertiko=gauza eder eta atsegingarrien egilea (artista; artiste)
ortilan=artegintza
osku-harrabila=osku-eihararen gaineko harria (piedra superior del molino de mano)
osku-eiharaharri=oskuz eraginez dabilen eihararen harria (piedra de molino manual).
oskuziri=mutur zorrozdun zotza, horrazkidekoa (punzón).
etsangu=cama
ezten=eskuleku edo giderdun ziria (lezna)
galiko=zanpagailua; martillo, maza
galale=gari-ale
galezkor=bikundako-horraz (imperdible)

garakoalde=eguerdiko eguzkiak jotzen duen alderdia (lado soleado)
garranga=amu-mutur hegalduna; aginlerroa (anzuelo, sierra)
gezi-mihisto=punta de flecha; flèche
gogiera=idea; idé
goimabe=gibeleko tresnalekua; departamento zaguero destinado al ajuar, muebles, queso, etc.
goldemutur=reja del arado
haiskorri=haitz ageria; peña pelada
haisto=labana; harrizko igeki edo orria, hegalean aho bat duena (cuchillo, machete)
haistur=goraiza
hantz=aliso
harbil=harkosko biribila; canto rodado
hargorri=hondar-harria; piedra arenisca
har-igeki=harrizko orria; hoja de piedra
harlaban=azal leuna duen haitza; peña lisa
harlanabes=harrizko (lanerako) tresna; instrumento de piedra
harlore=cris:al (calcita, cuarzo cristalizado)
harmailu=zanpatzeko harrizko tresna; maza de piedra
harmoko=harrizko muturdun mailua; pico de piedra
harmuno=harri-pila, batez ere hilobia inguratu eta estaltzen duena (túmulo)
harpe=lurpean zuloa, eskaratza bederen zelal duena (cueva)
harpiko=zulakaitza, buru batean aho zorrotza duena; beste burutik mailuz joaz, harriak edo zurak lantzen ditu.
harrespil=itzulian edo biribilean jarritako harri-errega; lehen haro bateko hilobia (Kromlech)
harririntza=harriari, joaz, irteten zalon atal xabala (lasca)
hartza=oso; ours
haunditxu=hinchazón; gonflement
hegaldun=hegalak dituen gezi-muturra (que tiene aletas)
hesoindu=oina jarri hesiari edo harresiari (cimentar)
hesikera=kultura; civilisation
hibabitoki=bi edo ur gehiago elkartzen direnoko unea (confluencia)
ibar=ordeka zelaia; valle, hondonada
idatzaroa=idazkien bidez gizakia berriak adierazten hasi zenetik aldia (edad de la escritura, época histórica)
igeki=orria; lámina, hoja
ihi=pizti, basapizti; animal

ikatzbil=ikatzeko pospila; cuenta de carbón, de azabache
ikutu azaleko=koskatxo arina; retoque superficial
inguma=gaueko mamu gaiztoa; genio nocturno
iratzon=gaueko argidun mamua; duende
irelu=aidetikako sasi-jainkoa; duende, fantasma, genio, numen
izearo=izakiaren sortzetik azkenerainoko tartea; proceso de existencia, período de existencia
izkilu=harma
izpel=ureko ihizi askoren azal edo estalki gogorra (concha)
izpelki=marisco; coquillage
jan-bilketa=recolección (alimenticia); cueillette
karraskailu=karraskatzeko tresna; rader; racloir
katamotz=lince; lynx
keinu-marra=signo grabado; signe gravé
konkordun=giboso; bossu
koska=muesca; encoche
kosko=canto, trozo de piedra; caillou
kutun=amuleto; amulette
kutunkideko=kutunaren egitea duena (de forma de amuleto)
kutzatila=urna; urne
labana=cuchillo; couteau
labarri=gaina laban ageri duen harria (piedra o peña lisa)
laburu=swástica; croix à virgules
lanabes=lanerako tresna; instrumento de trabajo
larmendu=besteetatik bereiztu; diferenciarse
larreki=belar; pasto
lerra=pino; pin
lerrobila=línea circular; circonférence
leze-harts=oso de las cavernas
leungai=leuntzeko tresna; alisador
lurgorri=burdin-harri buzintzua; ocre
lurrontzi=lurrez egin eta labean gortutako ontzia; recipiente cerámico, cerámica
lurrupe=lurpeko zuloa, hurgunea; concavidad subterránea
luzanga=laukiorra, luzean handiago zabalean baino (cuadrilongo)
malkor=gandik beherako harkaiztia; vertiente peñascosa, acantilado
mangolino="trochus monodonta"; mar-gurio; caracolillo de mar
margola="cardium edule"
marra=lerro-irudia; raya, dibujo
marraizko=zura, hezurra etab. izarrazko tresna (raspador)
masakor="nassa reticulata"; concha en general; coquillage

moha=menastagaia; mina, veta, mineral
menasta=metal; métal
murko-lerro=relieve, línea en relieve; relief
mutur-melar=puntiagudo; pointu
murili="mytilus edulis"; mejillón
ohikunde=costumbre; coutume
opor=zurezko edontzia; badira lurrez-koak era (taza)
ordeka=llano, vaguada; plaine
orein=ciervo; cerf
orkatz="capreolus capreolus"
oroia=etxe, soro, barrutiak estaltzen dituen lurraldea (el plano)
orri koskatu=lámina con escotadura; lame à encoche
orrixka=laminilla; lamelle
otaharriak=piroxen, feldespat eta beste gaiz osatzen den harria (de ofita; ophite)
saroi=sarobe, korta, kaiolar; majada
sastakai=puñal; poignard
suharri=pedernal; silex
sunbil=tronco; tronc
tastain=taladro; tarière
tinti=pendiente; pendeloque
tuturgabe=sin mentón; sans menton
txabal=llano, ancho; large, plat
txali=zurezko ontzi xabala (plato de madera)
txilar=brezo; bruyère
txilinkideko=caliciforme
txirrika=anillo; anneau, bague, rondelle
txirringila=rodaja; rouelle
uranbila=onda, oia; onde
urraida=cobre; cuivre
urrazal=cáscara de avellana; coque de noisette
urritz=avellano; noisetier
urtaro=estación del año; saison de l'année
ura-chiza=caza de persecución, batida, caza de ojeo; batue
ustaitxo=collar; petit collier
ustarkideko=estrangulado; étranglé
xapitola=atari harrésiz inguratua eta (batzutan) estalia (pórtico)
xanpagai=percutor; percuteur
zedarri=lurra mugatzeko jartzen den harria (mojón)
zikirio=centeno; seigle
zildai=zurezko zapio eta uztalekin egindako lokarria (cadena; chaîne)
zintzilikai=pendiente; pendeloque, colgante
zizkila=rincón; coin
zizku=interior de una pieza; space encerclé
zokododun=provisto de depresiones; pontillé

zorrostarri=tresnak zorrozteko harria
 zots lerrodun=hezur-zots lerroz apain-
 dua (bastón grabado)
 zubi=ingurua biribila duen zotza, ar-
 datza etab. (núcleo, cilindro)
 zuhamuxka=arbusto; arbuste
 zulgailu=zulatzeko tresna (taladro,
 punzón)

zulakaitz=buril; burin
 zuma=mimbre; osier
 zumar=olmo; orme
 zumitz=fleje; verge
 zuraje=maderamen, estructura, entra-
 mado de madera; structure en bois

Euskal Langileak. — M. Ugalde

artesan=artesano
 atxiki=lotu
 zurreitzi=prejuicio
 astoratu=asustar
 burdingintza=metalurgia
 hargin=cantero
 harmada=ejército
 lobelar=droga

moldistegi=imprensa
 nekazalgo=agricultura
 oihal-lantegi=fábrica textil
 okin=panadero
 ozenki=sonoramente
 sena=instinto
 sutabe=columna

Euskal Lege Zaharra. — Eizagirre-Garaikoa J. M.

abeltzaingo=ganadería
 abiapontu=punto de partida
 aintzinate=antigüedad
 akordio=acuerdo, pacto
 aldeaketa=gonbarazio
 antolamendu=organización
 araubide=norma
 arau-sail=conjunto de normas
 atxiki=gordo
 aukeragai=elegible
 aurkeztu=presentar
 bahitu=embargar
 basalandaketa=repoblación forestal
 batzorde=comisión
 benetazkotasun=realidad
 berarizko=autóctono
 beretu=asimilar
 betearazle=ejecutor, ejecutivo
 bilduma=colección
 Bilduma Berria (B.B.)=Nueva Recopi-
 lación
 birkonfirmapen=ratificación, sanción
 birrikusi=revisar
 bizilagun=habitante
 borondatezko maria=donativo volun-
 tario
 bortzapen=coacción
 boz / bozdun=voto / votante
 bulegokrazia=burocracia
 bultzamen=iniciativa
 burdin-ola=ferrería
 burdin-zerga=impuesto sobre el hi-
 erro ("quintalaje")
 burujabetasun=soberanía
 buruzagi político=jefe político

defendagai=instrumento de defensa
 diruzain=tesorero
 Diputazio Arrunta=Diputación Ordi-
 naria
 Diputazio Berezia=Diputación Extra-
 ordinaria
 egitura-lege=ley estructural
 egoitza=residencia
 egokiera=ocasión, oportunidad
 egon-herri=población de residencia
 ekile=ejecutor
 Elkarrikusketak=Conferencia
 eraikuntza=edificación
 erakunde=organización
 eraldi=gasto / gastar
 erauzi=destruir
 erdiko botere=poder central
 eremu=extensión, territorio
 erregealdi=reinado
 erregebatasuna=zenbait erresumek
 Errege bakarra ukaiteak dakarren
 batasuna
 erregebatu=unión al Rey
 erresuma=erreinu, estadu
 eskakizun=exigencia
 eskari tasatua=pedido tasado
 eskualde=región
 eskuera=jurisdicción
 eskuharmen=participación, interven-
 ción (poder de)
 eskumen=participación
 etorki=origen
 Gantzileria=Cancillería
 gehientasun=mayoría
 gidari=gula

governabide=régimen (gubernativo)
governagailu=organismo gubernativo
Gobernari=Gobernador
goi-jaurgo=señorío eminente
Gobernaritza=Regimiento
gonfirmazio, gonfirmapen=confirmación
goradei=apelación
gordailu=tesoro (hacienda)
gutun=carta
hausi-botere=poder judicial
hausitegi=tribunal
hedatu=zabaldú
herrialde=*probintzia* (euskal zazpirak)
Herrialde-etxe=*Diputazio*
Herri Ondasun-Zaingc=Hacienda Pública
hesparru=ámbito
hiritasun=ciudadanía, civismo
hurbil=*gertu*
Idaskari=secretario
idoro=*aurkitu*
ihize=caza (acción de cazar)
inposapen=imposición (tributaria)
iskilo=*harma*
itsas legekontrako=delito marítimo
itun=alianza, pacto
itunkide=aliado, pactante
jator=auténtico
jatorburu=origen
jatorrizko=originario
jaurreri=señorío (territorio)
jaurpidc=*governabide*
jende-bilketa=agrupación de gentes
jite=talante, temperamento
konfederazio-gailu=órgano confederal
Kontaduria Orokorra=Contaduría General
kontakizun=narración
Kontu Tribunal=Tribunal de Cuentas
Kontzeju ireki=Consejo abierto

lege-abantail=privilegio legal
lege-bilduma=colección legislativa
lege-ahainen, lege-botere=poder legislativo
lege-etskumen=jurisdicción legal
legegai=proyecto de ley
legeria=legislación
leinu=linaje
letrau kontseilari=letrado asesor
lurgintza=agricultura
lur irekia=tierra franca, libre
mendemuga=centenario
merkatalgin=mercancía
merkatalgo=comercio
muga-sergategi=aduana (fronteriza)
Nazioarteko Zuzen=Derecho Internacional
ondarez=por herencia
ondasun errotuak=bienes raíces
ordczkaritasun=representatividad
Ordezkaritza (Diputazio) Orokorra=Diputación General
Osasun-Zaingc=Sanidad, Min. de Sanidad
ostera=*aitzitik*, por el contrario
paper zinatú=papel sellado
pipermín=pimienta
populaketa=acción de poblar
salgarri=producto, objeto de venta
sarmen=poder de intervención
sasikume=*expósito*
sukalde partiketa=repartimiento fogueal
Txandako Udal=Municipio de Tanda
udal=municipio
zerga=impuesto
zerga-abantail=privilegio tributario
zerga-buruketa=encabezamiento (impositivo)
Zuzen=Derecho
zuzen-governabide=régimen de derecho

Euskal Artea. — J. San Martín

abeltzain=pastor de ganados (en sentido genérico)
altzari=mueble
andana=*talde*, grupo
argizaiola=*bildumena*, tabla para enrollar la cerilla para ceremonias de difuntos
ateburu=dintel
guzki-lauburu=swástica curvilínea de signo solar
chunexko-oihal=tejido de hilo
epaiki-horts=diente de sierra
eratzi=derribar
erretaula=retablo

goruhardats=rueca de pastor, rueca primitiva
hargin=cantero
hilburuko=testamento
izartegi sinboluak=símbolos astrológicos
kutzuska=Zuberoako *kaiku berezi bat*
korronta, korrenta=corriente
narotasuna=fecundidad, abundancia, tranquilidad
oinburu=base tradicional, arraigo
orein=ciervo
orkatz=reno

ponte=pila (*bataio-ponte*=pila bautis-
mal)
sigulu=sello, signo

tinkaturiko=hincado, enhiesto
trikuharri=dolmen
Tutra=Tudela

Euskal Musika.—J. A. Arana Martija

abesbatz=*orfeoi*
abestitz=abesti baten testua
abes sorta=*abesti kolekzio*
antzentu=representar
doimubizi=modo mayor
doimudardar=vibración sonora
doimularri=modo menor
eresgai=*musika gai*, tema musical
eresgile=compositor
ereski=nota musical
eresgailu=instrumento musical
ereslan=obra musical
eres sorta=*abesti kolekzio*
eskala askatu=abotsak berez, musika
ikasi gabe, abesten duena
eskala diatoniko=tonu osoz egina
eskala enharmoniko=tonu laurdenekin
egina
eskala ezosc=escala incompleta (nota
guztiak ez dituena)

eskala mikrotonal=biolinak eman leza-
keena
eskala temperatu=pianoak ematen duen
eskala
eztai kantu=epitalamio
hamabi soinu teknika=dodecafonismo
hosbakar=monotonia
ikaslan=estudio
jimela=monopolizator
kantu sorta=*abesti kolekzio*
kapera=elis *abesbatza*, capilla musical
kapelmaisu=maestro de capilla
klabezinista=klabe (piano antzeko
eresgailua) jotzen duena
musikagile=compositor
organulari=organista
ozentasun=sonoridad
polifonia=abots askotarako abeslana
politonal=ereslan batean, tonalidatea
askotan aldatzen duena

Euskal-kirolak — R. Bozas-Urrutia

Abiada-lehiaketa=prueba de velocidad
(korrikalari baten istua, abiadura,
erakusteko egiten den saiola)
aldagaitz=aldakor ez dena. Aldatzen
gaitz dena
andana=talde, aldra
atoi-ontzi=barku tiki bat, handiak
atolan daramazkiena (soka baten bi-
dez tiraka)
bat-bateko markagailu=Futbol-leku ba-
tean, partida guzien egoera batera
seinalatzen duen markatzailea
behari=ikusle
bizanziar hiru horriko=riptico bi-
zantino.
bultzagai=gauza bat egitera bultzatzen
edo behartzen duena
eratzeki=pistu
erdeinu=mespretzu, arbuio
erdietsi=lortu, iritzi

hesola=hesi bateko oi, makil edo ta-
keta
iraupen-saio=prueba de fondo (Korri-
kalarien iraupena frogatzeko balio
duen saiola)
jokutria=*maltzurkeria*, *azerikeria*
lauza=*harrizabal*; losa
lurrun=lurrin; vapor
lurrun-ontzi=barco de vapor
mezulari=mezuak (mensajeak) haruntz-
honuntz eramaten dituen
nozitu=jasan, padesitu
ordoki=ordeka (leku zelai eta gora)
pertsulari=*bertsolari*
punpa=*botea*. Pilotaren jauzia
tosta=txalupako alxia
ustai=hesi biribil; aro, anilla, redon-
del
zikan, txikan=*engainu*, *jokutria*
zotarrain=lurrezko zola
zurgintza=zurginaren lan, eta lantegia

Herri Literaturaz. — P. Lafitte

agota=agote
 aharra=eskatima, hasarrea
 aieru=susmo
 amaso=amon
 andana=mordo, talde, alde
 ardura=maiz, askotan
 ardurenean=gehienean, maizenean
 arta=axola, arreta
 belagile=belar ezagutzailer
 begitarte=aurpegi
 bihi=ale, garau
 bihirik ez=bat ere ez
 deitura=abizen; apellido
 deplauki=bipilki
 eite=izakera
 ekai=gai
 eleketa=hizketan
 emendatu=gehitu
 emokatu=espaloiztu
 entrabaleko=erdipurdiko
 eraikidura=estructura
 eratzi=erantsi
 galarrots=tobera
 gastigatu=sigorratu
 gelari=mirabe, gelazai
 haiztu=sori, zilegi
 handius=arro, handiputz
 hasperen=intsiri
 hats=astarna
 hasti=astarnatzaile
 hebroka=boladan, erruz
 ihakin=eskarnio; burla
 inarrosi=astindu

iretxu=iratzu
 izari=neurri
 jaigi=atera
 josteta=libertimendu
 juje=epaikari
 kadira=jartoki, eser-toki
 kanore=verosimilitud
 laidostatu=iraindu
 lamia=lamiña
 lats-harri=liziba-leku, liziba-harri
 laxo (hitz)=prosa
 liho=linu
 mailegu=prestamen, jesapen
 makiñun=tratalari
 manatu=agindu
 mendekic=venganza
 mendren=gutien
 murrika=trufa, nausea; burla, guasa
 pindar=tingar; chispa
 suhar=gartsu
 sustatzaile=bultzatzaile, akulatzaile
 tartarika=hitzaldi huts
 tentu=kinka, aldi; trance
 trenkatu=erabaki
 tuta=soinu-adar
 warmatu=encantar
 ximenki=kontuz, arduraz
 xorrotz=sorrozkile
 seihardura=ingurada
 sendu=hil
 zinkulin=heiagora; suspiro
 zipa=su-izkilo

Euskal Literatura landua. — L. Villasante

abiadura=movimiento
 albaiteru=veterinario
 alegilari=fabulista
 arranditsu=pretencioso
 atalgite=división, parcelación
 aurrelari=delantero
 astamu=tanteo, vacilación
 behehitze=decadencia
 bereizte=separación
 bitaratzte=agrupación en dos bandos
 egoitza=estado

elaberri=novela
 erausi=arrancar, sacar
 erraldoi=gigante
 eskerga=enorme
 ezabatu=borrar
 guna=tuéano, núcleo
 higuina=asco, repugnancia
 mozkin=producto, beneficio
 trenpatu=templado
 umo=maduro, sazonado
 zitu=fruto

Euskal Negazaritza eta Artzaingoa. — J. M. Satrustegi

Abaro=ardiak itzalean biltzea
 Abarrikatu=xehatu, apurtu
 Artzano=abere zaintzeko txakur handia
 Auñamendi=Pinieo mendiak

Axuri=arkume
 Axuri bazkari=axurien eskergarri ematen den jatordua
 tai=takoia, orpoa

Babaziskor=bahaziskor. Harri eraun-
tsi tontorrak
Bahi=garia garbitzeko ontzi saretua
(Criba)
Baska=belar lekua (Pasto)
Borro=Herribera aldeko ardi mota
Eihara=errota
Erauntsi=lainoen ekarria. Ur ekarria.
 Harri ekarria.
Ergeindu=ereintzako aro ona sortu.
 Lurra girotu
Errezkadan=iladan
Funtsak=bienes raices, territoriales
Gataska=gerratea
Hausalan=herriko lana
Hesola=alorretako egur hesia
Hondalan=lur iraultze sakona
Ikidien ibiltze=behi edo idi bakarra
 duenak beste norbaitenarekin uztar-
tzea
Igitai=garia eskuz ebakitzeko tresna
Igitaitu=garia igitaz ebaki
Iratze=ira, garoa
Iturreko=alorreko lanetan abere au-
rrean ibiltzea
Itein=odola xurgatzen duen zizare bel-
tza. (Sanguifuela)
Itzain=abere gorrien zaintzalea. Berez.
 ' idi zalna
Izun=hoben saria. (Multa)

Joale=txintzarria
Kurutzeketari=hileta elizkizunetan ku-
rutzea eramaten duena
Larrain=garia jotzeko lur zelaia
Lakuko=testigu
Liziba=oihal garbitzeko egosketa
Maister=txetiar
Mamutz=xomorro
Nozitu=zerbaiten ondore txarra jasan,
 sofritu
Pentze=belardia. Larrea
Petral=nolanahiko jantzia
Pikor=ale, bihia
Pinta=litro bat
Purpurita=huts hutsa. Errotikakoa
Puskak=nor beraren jantzi eta gauzak
Segetetu=secreto
Sor-sor=azpi-lanez, ixilean
Sordesa=aldrebesa
Sularda=sukalde zoko edo gela txikia
Tortxa=argizagia
Zahagi=larruzko ardo ontzia
Zuku=eltzekoa
Zur=egurra. (Madera)
Zur lorrak=egurrezko matirelen ekar-
tzea
Zohi=lur gogorrezko mordoia.
Zurruta=ur estutuaren abiada. (Cho-
rro)

Euskal Ola zaharrak. — J. Intxausti

agoa=burdin urtu nahiz gorria
aingura=ancla
aintzindari=pionero
aitorsemetasun=noblezia
Arautegi=arau eta legeen bilduma (Or-
denanzas)
arotz=errementari
arrago=sukatihu, erisol
arro=cuena
artile=lana
artzantsa=pastoreo
aterpe-ukatzale=antiproteccionista
beharrizan=premia
behera-behar=decadencia
bcrun=plomo
bide-sare=red de comunicaciones
bide-zerga=peaje
bilakatu=izatera heldu, devenir
bizi-molde=modo de vivir
bokale=desembocadura
burdin=hierro
burdindegia=zona ferrica
burdingai=burdin meazkia
burdingintza=siderurgia
burdinki=burdin meazkia
dendun=equilibrio

egurgile=zurgina; leñador
ekinbide=actividad
ekoizpen=produzioa
eman=ekoizpena, produzioa
emankor=productivo
eraikuntza=edificación
erakarmen=atracción
erdigune=centro
Erdi Haro=Edad Media
ernamin=erne-punduan dagoena
erorialdi=caída
erpin=cumbre, maximum
errekin=erregai, combustible
errementaldegi=herreria
errementari=herrero
errenderia=burdinaren gordelekua;
 lonja
eskuarki=generalmente
eskubide-erakidura=legezko sistema
estandagailu=(elemento) explosivo
feudotiar=feudal
gabi=oletako mailu handiak
galdatau=fundir
garraio=carro, transporte
governabide=gobernatzeko errejimena
gorabide=ascensión

goraldi=ascensión
 gorentasun=soberanía
 gori=rusiente
 haizearka=zurezko "hauspoa"
 haizegailu=haizea emateko tresna
 haizeola=jentilola, agorrola, jentiletze;
 masquera
 haran=valle
 harmagintza=harmak egiten dituen in-
 dustria, i. armara
 hats=aliento
 hausi-aginte=poder judicial
 hausi-eskuera=jurisdicción de justicia
 hauzigai=hauzitarako gaiak
 heren=tercio
 herrialde=Euskal Herriko zazpirak
 hesparru=ámbito
 hiribildu=villa
 Historiaurre=Prehistoria
 igo-behar=ascenso
 ikazkin=ikatz egile
 indoeuropear=indoeuropeo
 Industri Iraultza=Revolución Indus-
 trial
 ingude=yunque
 irundu=laminar
 itsas-ontzigintza=ontziak egiten ditu-
 en industria, ind. naval
 Izurrite Beltza=Peste Negra
 jabego=jabetasun, jabetza
 Jaurerri=Señorío
 jentilbaratze=cromlech
 jite=aiurria; carácter
 labe handi=alto horno
 laborantza=agricultura
 lagungailu=lagungarri
 langai=materia prima
 lautada=llanada
 lege-eskuera=jurisdicción legal
 legepetu=legalizar
 legeria=lege bilduma
 Lege Zahar=Fuero
 lehenengotasun=primacía
 lekumen=ubicación
 lekutu=ubicar(se)
 lepo=portu lehor

Lur Ireki=Tierra Llana
 Lurraren ohitura= costumbre de la
 Tierra
 luze-zabal=extensión
 mandazain=mulero
 marai=maravedí
 meagintza=minería
 meatoki=zona minera
 meatzari=minero
 meatze=mina
 measki=burdin minerala
 measpide=meatzetako bidea; galería
 meastegi=lugar minero
 mende=siglo
 mendikate=sierra
 mendurakizun=aventura
 merkatalgai=saleroskia; mercancía
 merkatalgo=merkataritza; comercio
 merkatar=mercader, comerciante
 merkataritza=comercio
 norgehiagoka=competencia
 oin-burdina=estribo
 ola=ferrería
 ola zahar=ferrería tradicional
 olagizon=oletako langilea
 ontzigintza=industria naval
 sabai=techo
 sineskizun=creencia
 sorburu=jatorburu; origen
 sukaitu=crisol
 tikinot=urak darabiltzan gurpilak
 tokizen=topónimo
 totxo=tocho, burdin enborra
 trekuharri=dolmen
 udal=herri; municipio
 ustiagarri=explotable
 ustiatu=explotar
 xume=humilde, modesto
 zamari=acémila, karga eramaile
 zartaerazi=resquebrajar
 zearrola=urezko burdinola
 zeharbide=urbide; atajo
 zenbakiztatatu=cuantificar
 zepa=escoria, burdingaiaren hondakina
 zerga=impuesto
 zuzperraldi=pizkunde aldi

aurkibidea

Argitaldariaren oharra	7
LURRA	9
Euskal Lurra: Jose Luis Lizundia	11
I. Euskal Lurraren zabalera zaharra	11
<i>Iparraldetik</i>	11
<i>Ekialdetik</i>	12
<i>Hegoaldetik</i>	12
<i>Mendebaletik</i>	13
II. Euskal Leinuak	14
III. Gure herrialde historikotzat jotzen ez direnak	15
<i>Errioja</i>	15
<i>Bureba eta Okamendieta</i>	17
Bureba	17
Okamendieta	18
<i>Aragoa, Sobrarbe eta Ribagortza</i>	20
<i>Gaskoin herrialdeak</i>	21
IV. Lanestosa-tik Barkoxe-raino	23
<i>Enkartazioak</i>	23
<i>Bilbo Handia</i>	27
<i>Gainerako Bizkaia</i>	28
<i>Deba Harroa</i>	32
<i>Gipuzkoa</i>	33
<i>Laudiotik Ebroaldera</i>	36
<i>Arabako Lautada eta beste arabar lurrak</i>	40
<i>Ega, Lizarrako merinaldea</i>	43
<i>Erribera aldeko merinalde biak</i>	47

<i>Irati, Sankozako merinaldea</i>	49
<i>Mendialdea, Iruñeko merinaldea</i>	51
<i>Lapurdi</i>	55
<i>Zibero - Nafarroa Beherea</i>	57
<i>Lanestosa-tik... Barkoxe-raino</i>	63
GIZONAK	65
Euskal Etnia eta Jatorria: Joxemiel Barandiaran	67
Lehenen urratsa	67
Bigarren urratsa	70
Hirugarren urratsa	73
Laugarren urratsa	76
Bosgarren urratsa	78
Seigarren urratsa	82
LEGEAK. EDERRA. KIROLAK	113
Euskal Lege Zaharra: Eizagirre-Garaikoa Joxemari	115
I. Lehenen oharrak	115
1. <i>Zer ziren Foruak?</i>	116
2. <i>Noiz eta nola sortu zen Lege Zaharra?</i>	118
II. Lege Zaharraren barrunbea	121
1. <i>Udala</i>	121
2. <i>Herrialdea</i>	122
a) <i>Batzar edo Biltzar Nagusiak</i>	123
b) <i>Diputazio Orokorra</i>	124
d) <i>Zentzatzaille edo Korrejidorea</i>	125
3. <i>Hiru Herrialdeen Elkarrikusketak</i>	126
III. Istituzioen aministrazio lanak	128
1. <i>Herrialde barnean</i>	128
2. <i>Herri Ondasun-Zaingoaren sistema</i>	129
a) <i>Herrialdeko Herri ondasun-sistemaren esanahia</i>	129
b) <i>Koroearen zergak</i>	131
<i>Ordaintzen ez zirenak</i>	132
<i>Ordaintzen zirenak</i>	133

d) Herrialdeko diru-sarbideak eta berauen aministrazioa	135
Herrialdearenak eta Udalenak	135
Ondasunen aministrazioa	138
Zerga inposamena Gipuzkoan	139
e) Ondorioak	140
3. <i>Herbestearekin harremanak</i>	141
a) Foru Pasabidea	141
b) Atzerriko Erresumekin harremanak	142
IV. Istituzioen eboluziobidea	143
V. Azken ondoriobidez	145
Euskal Artea: <i>Juan San Martin</i>	147
I. Harri-aroko Artea	149
II. Herri Artea	153
III. Erdi-aroko Artea	155
IV. Pizkunde Garaia	159
V. Euskal Pinturaren Eskola	162
VI.—Gaurko Eskultura	165
Euskal Herriko Arkitektura: <i>J. I. Linazasoro</i>	169
Itsasertzeko herriak	176
Baserria	176
Euskal Musika: <i>Jose Antonio Arana Martija</i>	179
1. Ataria	179
1. 1. <i>Kultura eta musika</i>	179
1. 2. <i>Euskal musikaren agerpenak</i>	180
1. 3. <i>Arlo hontan hutsak</i>	181
1. 4. <i>Itxaropen bizia</i>	181
2. Historia	182
2. 1. <i>Kronologi aldiak</i>	182
2. 2. <i>Historiaurrea</i>	183
2. 3. <i>Erdi haroa (450-1450)</i>	184
2. 4. <i>Polifonia (1450-1800)</i>	185

2. 5. <i>Organulariak (1600-1750)</i>	186
2. 6. <i>Herri musika (1450-1750)</i>	187
2. 7. <i>Erromantizismoa eta herri musika (1750-1850)</i>	189
Organulariak	189
Kapelmaixuak	189
2. 8. <i>Abertzaletasuna eta herri musikaren garaipena (1850-1936)</i>	191
2. 9. <i>Gure mendea</i>	192
3. Berezitasunak	193
3. 1. <i>Zalantzak eta eztabaidak</i>	193
3. 2. <i>Euskal musika, Euskal Herriaren musika</i>	194
3. 3. <i>Melodia, ritmoa, tonalitatea, gaiak</i>	195
Euskal Kirolak: R. Bozas-Urrutia	199
Palanka-jokoa	203
Pultsolariak	204
Harri-jasotzaileak	204
Idi-demak	206
Korrikalariak	206
Makillariak eta	207
Estropadak	208
Sega-apustua	209
Haizkolariak	211
Pilota-jokoa	213
<i>Pilota-tokiak</i>	213
<i>Frontoea</i>	214
<i>Plaza laxoa</i>	215
<i>Trinketa</i>	216
Pilota-lekuak. Laburpena	219
<i>Erremintak eta joko-motak</i>	220
<i>Pilota</i>	220
<i>Plekako jokoak</i>	221
<i>Esku-huskako jokoak</i>	222
<i>Pala</i>	223
<i>Eskularruak</i>	224
<i>Xistera</i>	225
<i>Erremontea</i>	226


<i>Xistera ttikia</i>	227
<i>Erreboteko jokoa</i>	227
<i>Pasaka</i>	230
<i>Laxoa</i>	231
<i>Sarea</i>	231
<i>Pilotarien bi sail nagusiak</i>	231
HIZKUNTZA. LITERATURA	235
Euskal Herria eta Euskara: Alfonso Irigoyen	237
Herri Literaturaz: Piarres Lafitte	243
Jostatzekoak	
<i>Ipuinak</i>	244
<i>Hitz laxozko bertze josteta batzu</i>	247
<i>Atsotitzak</i>	247
<i>Bertsuak</i>	248
<i>Bertsolaritza</i>	251
<i>Herri-teatroa</i>	255
Funtsezkoak	261
Euskal Literatura landua: Luis Villasante	265
Ba ote dugu literatura landurik?	265
“Literatura” hitzaren zabalgoa	268
Elizari egin zaion salaketa	269
Literatura euskalkitan zatikatua	271
Euskal literatura zaharraren partizioa	272
XVI. mendea	273
XVII. mendea	274
XVIII. mendea	276
XIX. mendea	278
XX. mendea	279
Egungo egoera	280
Euskaltzaindia	281
	367

EUSKAL LANA	283
Artzaingoa eta Nekazaritza: J. M. Satrustegi	285
<i>Herri jakintza</i>	287
I. Artzaina	290
<i>Txabolak</i>	292
II. Nekazaria	294
<i>Lurra</i>	294
<i>Etxea</i>	296
<i>Hauzoa</i>	299
Herri giroa	301
<i>Nafarroa</i>	307
Euskal Ola zaharrak: Joseba Intxausti	309
<i>Euskalduna, "homo faber"</i>	309
I. Euskal Herriko burdin meagintza	311
I, 1. <i>Historiako zenbait une</i>	311
I, 2. <i>Euskal meatokiak</i>	313
I, 3. <i>Meatzak eta euskal legeak</i>	315
II. Euskal burdingintza	316
II, 1. <i>Burdingaiaren bideak</i>	316
II, 2. <i>Euskal burdinolen lekumena</i>	319
II, 3. <i>Nola lanegiten zen burdinoletan?</i>	321
II, 4. <i>Haizeolak eta zearrolak</i>	324
II, 5. <i>Burdinolen lanak</i>	328
II, 6. <i>Burdinoletako langileak</i>	330
II, 7. <i>Burdinolak eta euskal legeak</i>	331
II, 8. <i>Burdinolak mendeak zehar</i>	334
II, 9. <i>Mundu berriaren atarian</i>	338
BIBLIOGRAFIA	341
HIZTEGIAK	351
AURKIBIDEA	363

LUR ETA GIZON, EUSKAL HERRIA

JAKIN

ARANA
BARANDIARAN
BOZAS-URRUTIA
EIZAGIRRE
INTXAUSTI
IRIGOYEN
LAFITTE
LINAZASORO
LIZUNDIA
SAN MARTIN
SATRUSTEGI
UGALDE
VILLASANTE



Euskal Herria ezagutzeko idatzi da liburu hau. Hortarako, ikus-pundu ezberdin eta jakingarri zenbaitetik begiratu zaio gure herriaren bizitzari. Euskal **lurrak** bailaraz bailara ikusmiratzen dira; nortasunaren legami dugun **hizkuntza** ez da baztertu: euskarari, herri literatura eta literatura landuari eman zaie beren tokia; euskal **artisten** lanari ere bai: arkitektura, pintura, musika. Eta artistekin batera euskal **langileak**: nekazari eta artzainak, ola gizonak eta langileriaren mogimendua. Lanarekin batean **jolasa**: euskal kirolak ere ez dira ahantzi. Eta euskal bizitza osoaren euskarri izan ziren gizarte instituzioak, Lege Zaharrak, ezagun litezke. Liburuan agertzen diren gaiengatik eta parte hartzen duten idazleengatik, benetan atsegina eta jakingarria izango du irakurleak idazlan bilduma hau.

JAKIN SORTA